



nafarroako ekonomia

2016ko TXOSTENA



LABORAL
kutxa

Ikerketa Departamentua
Zuzendaria: Joseba Madariaga
Lan taldea: **IKEI** research & consultancy SA

© Laboral Kutxa.

ISBN: 978-84-946432-0-0

1. ESPARRU OROKORRA.....	10
1. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA).....	11
1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA.....	11
1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA.....	21
2. NAFARROAKO EGITURA EKONOMIKOA.....	32
3. IKUSPEGI OROKORRA.....	38
3.1 EKOIZPENA.....	41
3.2 ESKARIA.....	43
3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK.....	45
3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA.....	47
3.5 FINANTZA-SEKTOREA.....	53
4. NAFARROAKO ENPRESEN AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOA.....	71
4.1 JARDUERA: DIRU-SARRERAK, KOSTUAK ETA EMAITZAK.....	71
4.2 INBERTSIOA-FINANTZAKETA.....	72
4.3 ERRENTAGARRITASUNA ETA LOTUTAKO MAGNITUDEAK.....	74
4.4 ENPLEGUAREN PRODUKTIBITATEA.....	75
4.5 NAFARROAKO ENPRESEN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA. SINTESIA.....	76
4.6 ESPAINIAKO ENPRESA EZ-FINANTZARIOEN ENPRESA-EMAITZAK.....	77
2. LEHEN SEKTOREA.....	79
1. IKUSPEGI OROKORRA.....	80
1.1 BILAKAERA ESTATU-EREMUAN.....	80
1.2 BILAKAERA NAFARROAN.....	82
2. NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA.....	86
2.1 EKOIZPENAK ETA AZALERAK.....	86
2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK ETA EKOIZPENAREN BALIOA.....	94
2.3 NEKAZARITZA MAKINETAKO INBERTSIOA.....	95
3. ABELTZAINZAREN AZPISEKTOREA.....	96
3.1 AZIENDA-ERROLDA.....	96
3.2 ABELTZAINZAKO EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK.....	97
3.3 ABELTZAINZAKO PRODUKTUEN PREZIOAK.....	103
3. INDUSTRIA.....	104
1. IKUSPEGI OROKORRA.....	105
1.1 JARDUERAREN BILAKAERA.....	105
1.2 ENPRESAK ETA ENPLEGUA.....	106
2. INDUSTRIA-EGITURA.....	108
2.1 JARDUERA-AZPISEKTORE NAGUSIEN IDENTIFIKAZIOA.....	108
2.2 ENPRESEN TAMAINA, AZPISEKTOREEN ARABERA.....	112
2.3 ENPRESA NAGUSIAK ETA ATZERRIKO KAPITALAREN PARTAIDETZA.....	114
3. SIDERURGIA.....	117
3.1 IKUSPEGI OROKORRA.....	117
3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA.....	120
4. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA.....	123
4.1 NAZIOARTEKO EGOERA.....	123
4.2 SEKTOREA ESPAINIAN.....	124



4.3	SEKTOREA NAFARROAN	125
5.	AUTOMOBILGINTZA.....	131
5.1	NAZIOARTEKO EGOERA.....	132
5.2	SEKTOREA ESPAINIAN	135
5.3	SEKTOREA NAFARROAN	141
6.	PAPERA	146
6.1	NAZIOARTEKO EGOERA.....	146
6.2	SEKTOREA ESPAINIAN	148
6.3	SEKTOREA NAFARROAN	151
7.	ERAIKUNTZA	154
8.	NAFARROAKO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA.....	159
8.1	SARRERA.....	159
8.2	BILAKAERA OROKORRA.....	159
8.3	SEKTORE EKONOMIKOAK.....	161
8.4	SOLDATAKO-KOPURUAK.....	163
4.	ZERBITZUAK.....	166
1.	IKUSPEGI OROKORRA	167
2.	HEZKUNTZA	168
2.1	UNIBERTSITATEK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA.....	168
2.2	UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA	173
3.	GARRAIOA.....	176
3.1	ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA	176
3.2	AIRE BIDEZKO GARRAIOA	179

Taula aurkibidea

1. taula	Barne-produktu gordinaren bilakaera	11
2. taula	Gutzizko barne-eskariaren bilakaera.....	12
3. taula	Ondasun- eta zerbitzu-trukeen bolumen-gorabeherak.....	12
4. taula	Eragiketa arrunten saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak).....	13
5. taula	Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaera	14
6. taula	Lan-kostu unitario nominalen bilakaera.....	14
7. taula	Enpleguaren bilakaera.....	15
8. taula	Langabezia-tasa	15
9. taula	Administrazio publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-gaitasuna (+) edo beharra (-), barne-produktu gordin nominalaren ehunekotan).....	16
10. taula	Adierazle nagusiak (EB-28).....	18
11. taula	Barne-produktu gordinaren hazkundera (Europar Batasuna).....	19
12. taula	Europar Batasuneko per capita barne-produktu gordina (2016)	20
13. taula	Aurreikuspen ekonomikoak (industrializatutako herrialdeak)	21
14. taula	Barne-produktu gordina eta bere osagaiak (eskaria eta eskaintza).....	24
15. taula	Barne-produktu gordinaren banaketa (errenta)	24
16. taula	Kontsumoko prezioen indizea (KPI) eta industriako prezioen indizea (IPI)	26
17. taula	Errenta-adierazleak eta soldata-kostuak.....	27
18. taula	Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak	28
19. taula	Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu-motaren arabera. Urteko batezbestekoak.....	29
20. taula	Defizit publikoa.....	29
21. taula	Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2017)	31
22. taula	Ekoizpen-egitura (balio erantsi gordinaren konposizio sektoriala), 1960-2016	32
23. taula	Egitura okupazionala (enpleguaren konposizio sektoriala), 1960-2016	32
24. taula	Nafarroaren parte-hartzea Espainia osoan, 2016.....	33
25. taula	Balio erantsi gordina biztanleko Nafarroan	34
26. taula	Bilakaera orokorra	38
27. taula	Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera.....	40
28. taula	Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaera	41
29. taula	Industria Sektorearen adierazleak	42
30. taula	Eraikuntza Sektoreko Adierazleak.....	42
31. taula	Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak.....	43
32. taula	Kontsumoaren eta inbertsioaren adierazleak	43
33. taula	Kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan.....	44
34. taula	Nafarroako inportazioak eta esportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera	45
35. taula	Prezioen bilakaera Nafarroan.....	46
36. taula	Soldata-adierazleak	47
37. taula	Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia.....	48
38. taula	Langabezia-tasa, adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak.....	49
39. taula	Enpleguaren bilakaera, ekonomia-sektoreen arabera. Urteko batezbestekoak.....	50
40. taula	EEZPren bulegoetan erregistratutako kontratuak	50
41. taula	Hitzarmen kolektiboak eta grebak.....	51
42. taula	Biztanleriaren mugimendu naturala.....	52
43. taula	Nafarroako migrazio-saldoak, adinen arabera.....	52
44. taula	Kreditu-erakundearen aktiboaren osaera.....	56
45. taula	Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera.....	57
46. taula	Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	58



47. taula	Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	59
48. taula	Gordailu-erakundeak. Kreditua agenteen eta eremuaren arabera.....	61
49. taula	Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketa.....	62
50. taula	Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera.....	63
51. taula	Gordailu-erakundeak. Dudazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	63
52. taula	Gordailu-erakundeak. Dudazkoen edo berankortasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	64
53. taula	Gordailu-erakundeak. Dudazko kredituaren bilakaera helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	65
54. taula	Kreditu-erakundeak. Gordailuak kreditu-erakundeetan, agenteen arabera.....	66
55. taula	Gordailu-erakundeak. Gordailu motak. Beste sektore egoiliar batzuk.....	66
56. taula	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta Administrazio Publikoen gordailua.....	67
57. taula	Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina.....	68
58. taula	Kreditu-erakundeak. Etxekoen unitateetarako ⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasak (TEDR).....	70
59. taula	Nafarroako enpresen emaitzen kontu erantsia.....	71
60. taula	Nafarroako enpresen balantze erantsia.....	73
61. taula	Nafarroako enpresen errentagarritasuna.....	75
62. taula	Enpleguaren produktibitatea.....	76
63. taula	Emaitzen kontua. Urteik urterako bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko).....	78
64. taula	Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak.....	82
65. taula	Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Nafarroa.....	84
66. taula	Enplegua lehen sektorean. Urteko batez bestekoa*.....	85
67. taula	Laborantza-lurren erabilera.....	87
68. taula	Nafarroako nekazaritzako ekoizpen nagusiak.....	88
69. taula	Zereal-aleen azalera eta ekoizpena.....	89
70. taula	Lekadunen azalera eta ekoizpena.....	90
71. taula	Tuberkuluen azalera eta ekoizpena.....	90
72. taula	Industria-laboreen azalera eta ekoizpena.....	91
73. taula	Bazka-laboreen azalera eta ekoizpena.....	91
74. taula	Barazkien azalera eta ekoizpena.....	92
75. taula	Zurezko laboreen azalera eta ekoizpena.....	93
76. taula	Nekazaritza-produktu nagusien prezio eta balioak, guztira.....	95
77. taula	Nafarroan inskribatutako nekazaritzako makina berrien balorazioa.....	95
78. taula	Azienda-errola (urte bakoitzeko azaroa).....	97
79. taula	Esnearen ekoizpena.....	98
80. taula	INTIA-ITGk kudeatutako esnetarako behi- eta ardi-ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak.....	99
81. taula	Nafarroan hildako ganaduaren kanaleko pisua.....	100
82. taula	ITGk kudeatutako haragitarako behi- eta ardi-ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak.....	101
83. taula	INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak.....	102
84. taula	Animalia-produktuen prezioak. Urteko batezbestekoak.....	103
85. taula	Industriako ekoizpen-jardueraren bilakaera.....	105
86. taula	Nafarroako Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen helburu ekonomikoaren arabera.....	106
87. taula	Nafarroako Industria Produktzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduerar- loka.....	106
88. taula	Industria-sektoreko langileen eta enpresen kopuruaren bilakaera.....	107
89. taula	Nafarroako industriako enplegua eta sortutako balio erantsia, jardueraz- pisektoreen arabera (2014).....	109

90. taula	Jarduera-adar desberdinek industriako enpleguaren eta balio erantsiaren guztizkoan duten partaidetza (2014).....	110
91. taula	Industria-enpresen kopurua, neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera (2016).....	112
92. taula	Industriako langileen kopurua, enpresaren neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera (2016).....	113
93. taula	Nafarroako industria-enpresa nagusiak (2016).....	116
94. taula	Altzairu gordinaren ekoizpena.....	118
95. taula	Siderurgia-produktuen kontsumoa.....	119
96. taula	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*.....	120
97. taula	Inportatutako lehengaiak.....	122
98. taula	Europar Batasuneko nekazaritzako elikagaien industriako ekoizpenaren bilakaera.....	123
99. taula	Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera.....	124
100. taula	Nafarroako nekazaritzako elikagaien industria (2016).....	125
101. taula	Nafarroako nekazaritzako elikagaien enpresa nagusiak (2016).....	126
102. taula	Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako enpresen kopuruaren eta enpleguaren bilakaera.....	127
103. taula	Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera.....	127
104. taula	Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan.....	128
105. taula	Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 17 enpresatako lagin baten emaitzen kontu agregatua.....	129
106. taula	Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 17 enpresatako laginaren errentagarritasuna.....	130
107. taula	Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioa.....	134
108. taula	Espainiako automobilgintzaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritza.....	135
109. taula	Autoen matrikulazioa, marken arabera.....	137
110. taula	Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak.....	138
111. taula	Automobilgintza-sektorearen esportazioak eta inportazioak.....	139
112. taula	Espainiako automobilgintzarako ekipo eta osagaien industriaren kopuru nagusiak.....	140
113. taula	Enpleguaren eta enpresa-kopuruaren bilakaera ^(*)	142
114. taula	Ibilgailu automobilien eta ordezeko piezen fabrikazioa: enpresa-egitura eta enpresa-kopurua ⁽¹⁾	142
115. taula	Automobilgintzaren sektoreko Nafarroako enpresa nagusiak, 2016.....	143
116. taula	Kanpo-merkataritzaren bilakaera. Ibilgailu automobilak, zatiak eta osagarriak*.....	144
117. taula	Volkswagen Navarra SAre jarduera-magnitude nagusiak.....	145
118. taula	Paperaren eta kartoiaren produkzioa (CEPIko kideak).....	146
119. taula	Paperaren eta kartoiaren produkzioa, herrialdeka.....	147
120. taula	Orearen produkzioa, herrialdeen arabera.....	148
121. taula	Paperaren eta kartoiaren produkzioa eta kontsumoa. Espainiako guztizkoa.....	149
122. taula	Produkzioa eta kontsumoa, paper-motaren arabera.....	150
123. taula	Produkzioa eta kontsumoa ore-motaren arabera.....	151
124. taula	Paperaren eta orearen produkzioa Nafarroan.....	152
125. taula	Paperaren eta orearen kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan.....	152
126. taula	Paperaren sektoreko enpresa nagusiak Nafarroan.....	153
127. taula	Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera.....	154
128. taula	Lizitazio ofizialaren banaketa administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren artean.....	155
129. taula	Lizitazio ofiziala, obra-moten arabera (2016).....	156
130. taula	Hasitako eta amaitutako etxebizitzak(*).....	157
131. taula	Eraikuntzako langileak.....	158
132. taula	Enpresak ekonomia-sektorearen arabera. 2010-2016 aldiko konparazioa.....	163



133. taula	Enpresak soldatako-kopuruen arabera. 2010-2016 aldiko konparazioa.....	165
134. taula	Zerbitzuen sektorearen bilakaera	167
135. taula	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.....	169
136. taula	Euskalduntze maila. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.....	170
137. taula	Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Heziketa Zikloak eta LOGSE batxilergoa.....	172
138. taula	Euskalduntze maila. Heziketa Zikloak eta LOGSE batxilergoa.....	172
139. taula	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean.....	173
140. taula	Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP).....	174
141. taula	Nafarroako ibilgailu-parkea.....	176
142. taula	Kamioi, industria-traktore eta autobusen matrikulazio garbia ^(*)	177
143. taula	Motorizazio-indizeak.....	177
144. taula	Ibilgailuen trafikoa Nafarroako autobideetan*	178
145. taula	Garraiatutako salgaiak. Jatorriko eta/edo helmugako eskualde barruko eta eskualde arteko garraioa*	178
146. taula	Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa.....	179
147. taula	Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa, jatorriaren arabera.....	180

Grafiko aurkibidea

1. grafikoa	Interes-tasen aldakuntzak.....	17
2. grafikoa	Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala.....	30
3. grafikoa	BPG-aren bilakaera	39
4. grafikoa	Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*.....	53
5. grafikoa	Ibex-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa	54
6. grafikoa	Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (OSR).....	59
7. grafikoa	Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk.....	60
8. grafikoa	Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuentzako kredituaren bilakaera.....	61
9. grafikoa	Beriz finantzatzeko interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala.....	69
10. grafikoa	Nafarroako enpresen errentagarritasuna.....	75
11. grafikoa	Nekazaritza-ekoizleek jasotako prezioen indizeak.....	83
12. grafikoa	Nekazaritza-ekoizpen nagusien bolumenaren banaketa, ehunekotan, 2016	89
13. grafikoa	Nafarroako abeltzaintzako azienden banaketaren bilakaera, ehunekotan	97
14. grafikoa	Abeltzaintzako ekoizpena Nafarroan.....	100
15. grafikoa	Jarduera-azpisektore desberdinek Nafarroako industriako enpleguaren eta balio erantsiaren guztizkoan duten partaidetza (2014).....	111
16. grafikoa	Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena.....	119
17. grafikoa	Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak.....	121
18. grafikoa	Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian	149
19. grafikoa	Enpresa-kopuruaren bilakaera	160
20. grafikoa	Enpresa-kopuruaren urtetik urterako aldakuntza.....	161
21. grafikoa	Nafarroako enpresen ehunekoaren bilakaera Estatuko enpresa guztien multzoan (Estatua=100).....	161
22. grafikoa	Enpresa-kopuruaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera (zenbaki indizeak 2010=100).....	162
23. grafikoa	Enpresen bilakaera, soldatako-kopuruaren arabera (zenbaki indizeak 2010=100).....	164
24. grafikoa	Unibertsitatetik kanpoko ikasleen matrikulazioaren bilakaera Nafarroan ^(*)	171



1. ESPARRU OROKORRA

16

1. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)

1.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ezaugarri nagusiak: ekoizpen-jarduera

2016an, munduko ekonomiaren zabalkuntza-erritmoa moteldu egin da aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2016an zabalkuntza % 3,1koa izan da; 2015ean, berriz, % 3,4koa; eta 2014an, azkenik, % 3,5koa), hain zuzen ere, sortzen eta garatzen ari diren merkatuetako ekonomiak gelditzen hasi direlako (2016ko hazkundera: % 4,1; 2015eko hazkundera: % 4,2) eta ekonomia aurreratuek aurreko ekitaldian baino gutxiago egin dutelako aurrera (2016an, % 1,7; 2015ean, aldiz, % 2,1), ekitaldiaren azken tartean lehengaiak garestitu egin direla kontuan izanik.

2017ko ekainean ELGak eginiko aurreikuspenen arabera, industrializatutako herrialdeen multzoak bere hedakuntza lau hamarren moteldu du, % 1,8ko hedakuntza izan baitu 2016an (aurreko ekitaldian, % 2,2 izan zen ehuneko hori); horrenbestez, 2015ean erregistratutako hazkunde-bizigotzea eten egin da 2016an.

1. taula Barne-produktu gordinaren bilakaera

Herraldea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	2,4	2,6	1,6
Japonia	0,3	1,1	1,0
Alemania	1,6	1,5	1,8
Frantzia	0,7	1,2	1,1
Italia	0,2	0,7	1,0
Erresuma Batua	3,1	2,2	1,8
Kanada	2,6	0,9	1,4
Eurogunea	1,2	1,5	1,7
ELGA guztira	2,0	2,2	1,8

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Ameriketako Estatu Batuetako ekonomiari erreparatuta, haren aurrerapen-erritmoa ere lasaitu egin da 2016an (aurrerapena % 1,6koa izan da 2016an, eta % 2,6koa izan zen, aldiz, aurreko ekitaldian), batez ere, barne-eskariak indarra galdu duelako (% 1,7koa izan da 2016an, eta % 3,2koa, berriz, 2015an).

Bestalde, sortzen eta garatzen ari diren merkatu-ekonomiek, Indiak eta Txinak, dinamismo handiagoa izan dute 2016an (% 6,8ko eta % 6,7ko hedapenak, hurrenez hurren), nahiz eta aurreko ekitaldian baino indar txikiagoa izan duten (2015ean % 7,9 eta % 6,9 hazi ziren, hurrenez hurren); Brasilek eta Errusiak, oster, -% 3,6ko eta -% 0,2ko uzkurdua izan dute, hurrenez hurren.

2. taula Guztizko barne-eskariaren bilakaera

(% Δ)

Herraldea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	2,4	3,2	1,7
Japonia	0,4	0,7	0,4
Alemania	1,4	1,4	2,2
Frantzia	1,1	1,4	1,8
Italia	0,3	1,3	1,1
Erresuma Batua	3,4	2,0	1,5
Kanada	1,5	0,0	0,6
Eurogunea	1,3	1,8	2,1
ELGA guztira	2,0	2,4	1,8

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Bestalde, Eurogunearen aurrerapen-erritmoa % 1,7raino hazi da 2016an (2015an, aldiz, % 1,5koa izan zen); ondorioz, 2014an hasitako berreskurapena finkatzen ari dela esan dezakegu (2014an, Eurogunekeo ekonomiak % 1,2ko gorakada izan zuen), aurreko urteetako atzerakada luzearen ondoren.

Kanpo-merkataritza

Testuinguru horretan, industrializatutako herrialdeetako merkataritza-jarduera ahuldu egin da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, esportazioek indarra galdu baitute (% 2,3ko gorakada 2016an, eta % 4,4koa 2015ean), baita inportazioek ere (% 2,6ko areagotzea 2016an, eta % 4,7koa aurreko ekitaldian). Herrialdeka, bereziki nabarmentzen da Alemaniak, Frantziak eta Erresuma Batuak kanpo-salmentetan izan duten desazelerazioa eta Japoniatik datozen kanpo-erosketek izan duten atzerakada.

3. taula Ondasun- eta zerbitzu-trukeen bolumen-gorabeherak

(% Δ)

Herraldea	Inportazioak			Esportazioak		
	2014	2015	2016	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	4,4	4,6	1,1	4,3	0,1	0,4
Japonia	8,3	0,8	-2,3	9,3	2,9	1,2
Alemania	4,0	5,0	3,7	4,0	4,6	2,5
Frantzia	4,8	6,4	3,5	3,4	6,0	1,2
Italia	3,1	6,7	3,1	2,4	4,1	2,6
Erresuma Batua	2,5	5,5	2,8	1,5	6,1	1,8
Kanada	2,2	0,3	-1,0	5,8	3,4	1,1
ELGA guztira	4,1	4,7	2,6	4,4	4,4	2,3

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Bestalde, ELGAko herrialde guztien eragiketa arrunten balantzeak (alegia, ondasun eta zerbitzuen merkataritza-jardueraren eta transferentzia arrunten bilakaeraren emaitza) saldo positiboa areagotu egin du 2016an (113,2 mila milioi dolar; 2015ean 81,7 mila milioi dolarrekoa izan zen). Horren arrazoi nagusi izan dira Japoniako superabit-saldoa hobetu

izana (2016an 183,1 mila milioi dolar, eta aurreko ekitaldian 133,9 mila milioi dolar), Estatu Batuetako defizit-saldoa okertu izana (2016an -481,2 mila milioi euro, eta 2015ean -463 mila milioi euro) eta Euroguneko saldo positiboak atzerakada txiki bat izanak (423,8 mila milioi dolar 2016an, eta 436,4 mila milioi dolar aurreko ekitaldian).

4. taula Eragiketa arrunten saldoa (ondasunak, zerbitzuak eta transferentziak)

Herrialdea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	-392,1	-463,0	-481,2
Japonia	36,8	133,9	183,1
Alemania	293,2	289,6	286,5
Frantzia	-30,8	-4,8	-22,6
Italia	40,2	26,3	47,8
Erresuma Batua	-139,7	-122,4	-115,7
Kanada	-43,6	-52,9	-51,2
Eurogunea	406,4	436,4	423,8
ELGA guztira	14,1	81,7	113,2

(mM\$)

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Prezioak eta soldatak

Petrolio merkatu egin bada ere ekitaldi osoan (Brent upel bakoitzak 52,2 dolar balio zuen 2015ean, eta 2016an, berriz, 43,3 dolar), azken hiruhilekoan garestitu egin da (urte arteko % 12,4), eta horregatik, kontsumo pribatuaren deflatorea 2015ean baino gehiago hazi da, oro har.

Ildo horretan, ELGAren arabera, kontsumo pribatuaren deflatoreak hazkuntza-erritmoa bizkortu du 2016an; zehazki, % 1,1eraino Estatu Batuetan eta % 0,4raino Eurogunean (aurreko ekitaldian % 0,3raino bizkortu zen Estatu Batuetan eta % 0,1eraino, berriz, Eurogunean). Industrializatutako herrialdeen multzoan % 1,1eraino igo zen 2016an (% 0,8raino, oster, 2015ean).

5. taula Kontsumo pribatuaren deflatorearen bilakaera

Herrialdea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	1,5	0,3	1,1
Japonia	2,0	0,4	-0,4
Alemania	0,9	0,6	0,7
Frantzia	0,1	-0,2	0,1
Italia	0,3	0,0	0,0
Erresuma Batua	1,7	0,3	1,1
Kanada	1,9	1,1	1,0
Eurogunea	0,5	0,1	0,4
ELGA guztira	1,6	0,8	1,1

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Testuinguru horretan, banku zentral nagusien diru-politikak zabaltzen jarraitu du 2016an, baina kontrako joerak izan dituzte. Ekitaldia amaitzean (abenduan), Estatu Batuetako Erreserba Federalak % 0,75era igo du bere erreferentzia-tasa (2015eko abenduaz geroztik % 0,5ean zegoen finkatuta); bestalde, martxoan Europako Banku Zentralak % 0,05etik % 0,1ra jaitsi du bere erreferentzia-tasa.

Banakako lan-kostu nominalen dagokienez, 2016an haien aurrerapen-eritimoa bizkortu egin da Estatu Batuetan, Japonian eta Eurogunean (Japonian % 2,3, eta Eurogunean % 1,3). 2015ean, datu horiek % 2,1, % 0,3 eta % 0,7 izan ziren, hurrenez hurren.

6. taula Lan-kostu unitario nominalen bilakaera

Herrialdea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	2,2	2,1	2,3
Japonia	1,2	0,3	1,3
Alemania	2,2	2,1	2,0
Frantzia	0,7	0,1	0,9
Italia	0,2	1,2	1,5
Erresuma Batua	-0,7	1,0	1,9
Kanada	1,2	1,8	1,1
Eurogunea	0,7	0,7	1,3

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Lan-merkatua

Jarduera ekonomikoari eutsi ahal izan zaionez, lan-merkatuek bilakaera ona izan dute 2016an: okupazioa hazi egin da eta langabezia-tasak behera egin du ia leku guztietan.

Zehazki, 2016an enplegua hazi egin da aztertutako herrialdeetan eta blokeetan, eta dinamismo handiena Euroguneak eta Estatu Batuek izan dute (% 1,8 eta % 1,7, hurrenez

hurren); izan ere, kasu gehienetan aurrerakada handiagoa ikusi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

7. taula Enpleguaren bilakaera

(% Δ)

Herraldea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	1,8	2,1	1,7
Japonia	0,7	0,5	1,0
Alemania	0,8	0,9	1,2
Frantzia	0,1	0,1	0,6
Italia	0,1	0,7	1,3
Erresuma Batua	2,4	1,7	1,4
Kanada	0,6	0,9	0,7
Eurogunea	0,6	1,0	1,8

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Bestalde, 2016an langabezia-tasak behera egin du oro har, Kanadan izan ezik, herrialde horretan apur bat igo baita (% 7 2016an, eta % 6,9 2015ean). Bestalde, Euroguneko langabezia-tasa Estatu Batuetakoa eta industrializatutako herrialdeen multzokoa baino nabarmen handiagoa izan da (% 10, % 4,9 eta % 6,3, hurrenez hurren).

8. taula Langabezia-tasa

(biztanleria aktiboaren % zenbat)

Herraldea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	6,2	5,3	4,9
Japonia	3,6	3,4	3,1
Alemania	5,0	4,6	4,2
Frantzia	10,3	10,4	10,0
Italia	12,6	11,9	11,7
Erresuma Batua	6,2	5,4	4,9
Kanada	6,9	6,9	7,0
Eurogunea	11,6	10,9	10,0
ELGA guztira	7,4	6,8	6,3

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Diru- eta aurrekontu-politika

2016an, gehiegizko defizit-mailak murrizteko neurriak aplikatzen jarraitu dute gure gertuko herrialde gehienek, eta kontu publikoen desorekak geldiarazi egin dituzte neurri horien ondorioz, Estatu Batuen, Japoniaren eta Kanadaren kasuan izan ezik. Izan ere, herrialde horietako desorekak areagotu egin dira.

Zehazki, Frantziako, Italiako eta Erresuma Batuko defizitak -% 3,4ra, -% 2,4ra eta -% 3,3ra jaitsi dira (2015an, herrialde horietako defizitak -% 3,6, -% 2,7 eta -% 4,3 izan ziren, hurrenez hurren), eta Alemaniako superabita, berriz, % 0,8ra igo da (aurreko

ekitaldian baino portzentajezko hamarren bat gehiago); horrela, Eurogunearen finantzaketa-beharrak haren barne-produktu gordinaren -% 1,6raino iritsi dira (aurreko ekitaldian, -% 2,1 izan zen ehuneko hori).

Aitzitik, Estatu Batuetako ekonomiaren defizita -% 5eraino igo da, Japoniakoa -% 4,6raino eta Kanadakoa -% 1,9raino (2015ean, -% 4,4, -% 3,5 eta -% 1,1, hurrenez hurren).

Bestalde, ELGAko herrialdeen finantzaketa-beharrak portzentajezko hamarren bat areagotu dira 2016an: zehazki, barne-produktu gordinaren -% 3; aurreko ekitaldian, berriz, ehuneko hori -% 2,9 izan zen.

9. taula Administrazio publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-gaitasuna (+) edo beharra (-), barne-produktu gordin nominalaren ehunekotan)


(Barne-produktu gordinaren % zenbat)

Herraldea	2014	2015	2016
Ameriketako Estatu Batuak	-5,0	-4,4	-5,0
Japonia	-5,4	-3,5	-4,6
Alemania	0,3	0,7	0,8
Frantzia	-3,9	-3,6	-3,4
Italia	-3,0	-2,7	-2,4
Erresuma Batua	-5,6	-4,3	-3,3
Kanada	0,0	-1,1	-1,9
Eurogunea	-2,6	-2,1	-1,6
ELGA guztira	-3,5	-2,9	-3,0

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Lehen ere aipatu den bezala, 2016an banku zentral garrantzitsuenek politika moldakorrak aplikatzen jarraitu dituzte, baina norabide desberdinekin: Estatu Batuetako Erreserba Federalak %0,75ra igo du bere erreferentzia-tasa abenduan; bestalde, martxoan Europako Banku Zentralak % 0ra jaitsi du bere erreferentzia-tasa.

1. grafikoa Interes-tasen aldakuntzak



Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

Europar Batasuna

Arreta Europan jarriz, eta Europako Batzordearen udaberriko aurreikuspenekin bat etorritik, EB-28 osoak % 1,9raino jaitsi du bere hedapen-erritmoa 2016an (2015ean % 2,2). Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, barne-eskariak dinamismoari eutsi dio (% 2,1ko aurrerakada izan du bai 2015ean bai 2016an). Bestalde, esportazioek eta inportazioek indarra galdu dute (esportazioen hazkundera % 3,1ekoa izan da 2016an eta % 6,4koa 2015ean; inportazioen hazkundera, ordea, % 4koa izan da 2016an, eta % 6,3koa 2015ean).

Barne-eskariaren osagarriari erreparatuz gero, kontsumo pribatuak ez ezik, kontsumo publikoak ere sendotu egin du bere igoera 2016an (% 2,3 eta % 1,7 2016an; 2015ean, berriz, % 2,1 eta % 1,4); inbertsioaren igoera, berriz, moteldu egin da (2016an % 2,6, eta aurreko ekitaldian % 3,6).

10. taula Adierazle nagusiak (EB-28)

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2014	2015	2016
Jarduera			
– Kontsumo pribatua	1,2	2,1	2,3
– Kontsumo publikoa	1,0	1,4	1,7
– Kapital finkoaren eraketa gordina (KFEG)	2,7	3,6	2,6
– Barne-eskaria	1,8	2,1	2,1
– Esportazioak	4,4	6,4	3,1
– Inportazioak	5,0	6,3	4,0
– Barne-produktu gordina	1,6	2,2	1,9
Prezioak eta soldatak			
– Barne-produktu gordinaren deflatorea	1,0	1,1	1,0
– Kontsumo pribatuaren deflatorea	0,7	0,2	0,5
– Lan-kostu unitario errealak	-0,5	-0,9	0,0

Iturria: *European Economy. Europako Batzordea (2017ko udaberria).*

Herrialdeen araberako analisiak agerian uzten du EBko herrialde guztiak hazi egin direla 2016an, Grezia izan ezik (aurrerakada nulua izan du Greziak). Zehazki, Irlanda, Malta, Errumania eta Luxenburgo izan dira kide dinamikoenak, eta denek % 4tik gorako hazkundeak izan dituzte (% 5,2, % 5, % 4,8 eta % 4,2, hurrenez hurren). Beste herrialde hauek dira, aldiz, aurrerapen txikiak izan dituztenak: Portugal eta Finlandia (% 1,4 bakoitzak); Danimarka (% 1,3); Belgika eta Frantzia (% 1,2 bakoitzak); Italia (% 0,9). Bestalde, Alemaniak (EBko traktore ekonomiko nagusiak) % 1,9ko hedakuntza izan zuen. Erregistro horrek esan nahi du Alemaniak bi hamarreneko azelerazioa izan duela 2015ean izandakoarekin alderatuta.

Bereziki nabarmendu behar da Erresuma Batua; izan ere, 2016an erreferenduma egin zen lurralde horretan, Europar Batasunean jarraitzeari buruzkoa (*brexít* deitu zitzaion erreferendum horri), eta Europar Batasunetik ateratzea erabaki zuten herritarrek bozketa horretan. Hori izan zen Erresuma Batuak Europar Batasunetik irteteko hasitako prozesuaren lehen urratsa. Edonola ere, Erresuma Batuak % 1,8ko aurrerakada izan zuen 2016ko ekitaldian.

11. taula Barne-produktu gordinaren hazkundea
(Europar Batasuna)

(Urte arteko aldakuntza-tasaren % zenbat)

Herraldea	2014	2015	2016
Irlanda	8,5	26,3	5,2
Malta	8,3	7,4	5,0
Errumania	3,1	3,9	4,8
Luxenburgo	5,6	4,0	4,2
Bulgaria	1,3	3,6	3,4
Suedia	2,6	4,1	3,3
Eslovakia	2,6	3,8	3,3
Espainia	1,4	3,2	3,2
Kroazia	-0,5	1,6	2,9
Zipre	-1,5	1,7	2,8
Polonia	3,3	3,8	2,7
Eslovenia	3,1	2,3	2,5
Txekiar Errepublika	2,7	4,5	2,4
Lituania	3,5	1,8	2,3
Herbehereak	1,4	2,0	2,2
Hungaria	4,0	3,1	2,0
Letonia	2,1	2,7	2,0
EB-28	1,6	2,2	1,9
Alemania	1,6	1,7	1,9
Erresuma Batua	3,1	2,2	1,8
Estonia	2,8	1,4	1,6
Austria	0,6	1,0	1,5
Portugal	0,9	1,6	1,4
Finlandia	-0,6	0,3	1,4
Danimarka	1,7	1,6	1,3
Belgika	1,7	1,5	1,2
Frantzia	0,6	1,3	1,2
Italia	0,1	0,8	0,9
Grezia	0,4	-0,2	0,0

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2017ko udaberria).

Per capita barne-produktu gordina aztertzen badugu, erosketa-ahalmenaren parekotasunari dagokionez, nabarmendu behar da 2016an oraindik ere alde handiak daudela Batasuneko kideen artean. Lehengo kideen artean, Greziak (% 62,2), Portugalek (% 71), Espainiak (% 84,2), Italiak (% 88,6), Frantziak (% 97,4) eta Erresuma Batuak (% 99,4) dituzte maila baxuenak, EB-15eko batez bestekoa (% 100) baino baxuagoak. Maila altuena, berriz, Luxenburgok du (% 249,3). EB-28 osoa kontuan hartuta, pixkanaka bazkide berriak sartzearen ondorioz, Europako batez besteko per capita barne-produktu gordina nabarmen murriztu da.

12. taula Europar Batasuneko per capita barne-produktu gordina (2016)

Herrialdea	UE-15=100	UE-28=100
Luxenburgo	249,3	269,5
Irlanda	166,8	180,3
Herbehereak	118,5	128,1
Austria	116,6	126,1
Danimarka	115,8	125,2
Suedia	114,8	124,1
Alemania	113,9	123,1
Belgika	108,7	117,5
Finlandia	100,6	108,8
EB-15 guztira	100,0	108,1
Erresuma Batua	99,4	107,5
Frantzia	97,4	105,3
EB-28 guztira	92,5	100,0
Italia	88,6	95,8
Malta	87,6	94,7
Espainia	84,2	91,0
Txekiar Errepublika	81,2	87,8
Eslovenia	77,0	83,2
Zipre	75,8	81,9
Eslovakia	72,6	78,5
Portugal	71,0	76,8
Lituania	70,5	76,2
Estonia	69,1	74,7
Polonia	64,1	69,3
Hungaria	63,6	68,8
Grezia	62,2	67,2
Letonia	60,2	65,1
Kroazia	54,5	58,9
Errumania	54,5	58,9
Bulgaria	44,5	48,1

Iturria: *European Economy. Europako Batzordea (2017ko udaberria).*

Aurreikuspenak

Nazioarteko erakunde nagusien arabera, hurrengo bi ekitaldietan munduko ekonomiak aurrerakada txiki bat izango du, zabalkuntzaren erritmoa motela izango bada ere. Berriz ere, sortzen eta garatzen ari diren merkatu-ekonomiek bultzatuko dute batez ere munduko ekonomia. Izan ere, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) aurreikusten du 2017an munduko ekonomia batez beste % 3,5 haziko dela, eta 2018an, berriz, % 3,6.

Aurreratutako ekonomia guztiek, batuta, % 2 inguruko zabalkuntza lortuko dute 2017an eta 2018an (haien aurrerakadak ahula izaten jarraituko du), eta Estatu Batuek izango du dinamismo handiena. Ildo horretan, ELGaren arabera, Ipar Amerikako ekonomia % 2,1 haziko da 2017an (2018an % 2,4), Eurogunearena % 1,8 (2018an ere % 1,8) eta Japoniarena % 1,4 (2018an % 1).

Sortzen eta garatzen ari diren ekonomiei dagokienez, haien zabalkuntza-eritmoa pixkanaka indartuko da; hain zuzen ere, NDFk % 4,5eko aurrerapena aurreikusten du 2017rako eta % 4,8koa 2018rako.

13. taula Aurreikuspen ekonomikoak (industrializatutako herrialdeak)

Kontzeptua	2017	2018
		(%)
– Barne-produktu gordin errealaren aldaketa (% Δ)		
• Ameriketako Estatu Batuak	2,1	2,4
• Japonia	1,4	1,0
• Eurogunea	1,8	1,8
• ELGA guztira	2,1	2,1
– Inflazioa (kontsumo pribatuaren deflatorea) (% Δ)		
• Ameriketako Estatu Batuak	2,1	2,1
• Japonia	0,4	1,0
• Eurogunea	1,5	1,4
• ELGA guztira	2,3	2,2
– Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren % zenbat)		
• Ameriketako Estatu Batuak	4,6	4,3
• Japonia	2,8	2,7
• Eurogunea	9,3	8,9
• ELGA guztira	6,0	5,8
– Defizit publikoa (barne-produktu gordinaren % zenbat)		
• Ameriketako Estatu Batuak	-4,7	-5,2
• Japonia	-5,0	-4,4
• Eurogunea	-1,2	-0,9
• ELGA guztira	-2,8	-2,7
– Munduko merkataritza (% Δ)	4,6	3,8

Iturria: ELGA. Perspektiba ekonomikoak (2017ko ekaina).

1.2 ESPAINIAKO EKONOMIA

Ezaugarri orokorrak

2014an erregistratutako % 1,4ko gorakada eta gero, Espainiako estatuko ekonomiak % 3,2ko hazkundea izan du 2015ean eta 2016an. Hala, lan-egoerak hobetzen jarraitu du ekitaldi horretan.

Horrenbestez, 2016an Espainiako estatuko ekonomiak Europar Batasunarekin alderatuta dinamismo handiagoa lortu izanaren ondorioz, pixka bat aurrera egin du Erkidegoko ekonomia nagusiekiko benetako konbergentzia-prozesuan.

Eskariari dagokionez, 2016an barne-produktu gordina areagotzearen arrazoietako bat izan da barne-eskariak portzentajezko 2,8 puntuko ekarpen positiboa egin diola mundu-mailako hazkundeari (2015an portzentajezko 3,3 puntu positibo), eta hori zati batean

konpentsatuta geratu da kanpoko sektorearen portzentajezko lau hamarreneko ekarpen positiboarekin (portzentajezko hamarren negatibo bat aurreko ekitaldian).

Eskaintzari dagokionez, lau sektore handiek gora egin dute 2016an; izan ere, lehen sektorea hedatu egin da (% 3,4 hedatu da, eta 2015ean -% 2,9 izan zen). Industria-sektorea, berriz, gutxiago hedatu da, (% 2,4 eta aurreko ekitaldian % 5,5). Azkenik, eraikuntza eta zerbitzuak hazkundera indartu dute (eraikuntzaren hazkundera % 2,5koa izan zen 2016an eta % 0,2koa aurreko ekitaldian; zerbitzuen sektoreak, berriz, % 3,4ko hazkundera izan zuen, eta % 2,6koa, berriz, aurreko ekitaldian).

Lan-merkatuari dagokionez, enpleguaren aurrerapen-erritmoa moteldu egin da 2016an, % 2,7raino igo baita (% 3ko gorakada izan zuen 2015ean); halere, okupazioa hazi egin da sektore guztietan, eraikuntzan izan ezik (eraikuntzako okupazioa gelditu egin da; hau da, aldakuntza nulua izan du). Horrez gain, nabarmendu behar da lehen sektoreari eta zerbitzuen sektoreari lotutako enplegua indar handiagoz hazi dela (2016an, % 5,1 eta % 2,9, hurrenez hurren, eta aurreko ekitaldian, % 0,1 eta % 2,6, hurrenez hurren), eta industria-sektoreari lotutako enplegua, berriz, moteldu egin dela (2016an % 1,6, eta 2015ean % 4,3). Bestalde, langabezian dauden biztanleen kopuruak bizkorrago egin du behera (2016an -% 11,4, 2015ean -% 9,9 eta 2014an -% 7,3); hain zuzen ere, 4.481.200 pertsona egon dira langabezian 2016an (hots, langabezia-tasa % 19,6 izan da).

Prezioei dagokienez, kontsumoko prezioen indizearen urte arteko aldakuntza (abendutik abendura) % 1,6raino igo da 2016aren amaieran (aldakuntza nulua 2015aren amaieran), baina urteko batez besteko terminoetan pixka bat negatiboa izan da (-% 0,2).

Bukatzeko, aurrekontuaren exekuzioari dagokionez, aipatu beharra dago 2016a barne-produktu gordinaren -% 4,54ren baliokidea den defizitarekin itxi dela (kreditu-erakundeei emandako laguntzak barne); beraz, portzentajezko 0,59 puntuan hobetu da aurreko ekitaldian lortutako erregistroa (2015ean, barne-produktu gordinaren -% 5,13koa izan zen defizita).

Agregatu makroekonomiko nagusiak

Arestian aipatu den bezala, aurreko ekitaldian zuen hedakuntza-erritmo berari eutsi dio Espainiako ekonomiak 2016an (% 3,2 bi ekitaldietan); horrela, urte arteko hazkuntza-erritmoa moteldu egin da hiruhilekotik hiruhilekora (% 3,4 lehen bi hiruhilekoetan, % 3,2 hirugarren hiruhilekoan, eta % 3 laugarrenean).

Puntu honetara iritsita, jarraian jardueraren bilakaera aztertuko da, hainbat ikuspegi kontuan hartuta: eskaria (helmuga), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2016an, Espainiako estatu osoko barne-produktu gordin osoa 1.113.851 milioi eurora iritsi da¹; horietatik 854.148 milioi azken kontsumoari dagozkio (632.320 etxeena, 11.520 EZIAGGE edo etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeena eta 210.308 administrazio publikoena), 221.966 inbertsioari (110.970 eraikuntzara bideratutakoak, 78.489 ekipo-ondasunetara eta 32.507 jabetza intelektualeko produktuetara), eta 5.323 izakinen aldakuntzari. Horrenbestez, ondoriozko barne-eskaria 1.081.437 milioi eurokoa izan da guztira. Esportazioen (368.322 milioi euro) eta inportazioen (335.908 milioi euro) arteko aldea kanpo-eskaria da, eta hori kontuan hartuz, guztizko eskaria zenbatekoa izan den jakin dezakegu.
- 2016ko kanpo-eskariak hazkuntza orokorrari egindako ekarpen positiboari (portzentajezko 2,8 puntu) barne-eskariariak egindako ekarpen positiboa (portzentajezko 4 puntu) gehitu zaio. Barne-eskariaren esparruan, bai kontsumo pribatuaren erritmoa bai publikoaren hazkunde-erritmoa areagotu egin dira (2016an % 3,2 eta 2015ean % 2,8), baina kontsumo publikoa eta inbertsioa moteldu egin dira (2016an % 0,8 eta % 3,1, hurrenez hurren; aurreko ekitaldian % 2 eta % 6, hurrenez hurren). Arreta azken partida horretan jarrita, bai eraikuntzarekin lotura duen osagaiak bai ekipo-ondasunekin erlazionatutako osagaiak hazkuntza moteldu dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta (2016an % 1,9 eta % 5, hurrenez hurren; 2015ean % 4,9 eta % 8,8, hurrenez hurren).
- Sektorekako banaketa aintzat hartzen bada, 26.028 milioi euro lehen sektoreari dagozkio, 179.527 milioi euro industria-sektoreari (142.968 milioi euro manufaktura-industriari dagozkio), 56.540 milioi eraikuntzari eta 748.911 milioi zerbitzuei. Partida horiek zergei dagozkienei gehituz gero (102.845 milioi euro), guztizko ekoizpena lortuko dugu.
- Sektore guztiek gora egin dute 2016an; zehazki, lehen sektorea hazi egin da berriz ere (2016an % 3,4 eta aurreko ekitaldian -% 2,9), zerbitzuek eta eraikuntzak aurrerapen-erritmoa bizkortu dute (2016an % 3,4 eta % 2,5, hurrenez hurren; 2015an, % 2,6 eta % 0,2, hurrenez hurren), eta industria-sektorearen aurrerapen-erritmoa moteldu egin da (2016an % 2,4, eta aurreko ekitaldian % 5,5).

¹ Prezio arruntak.

14. taula Barne-produktu gordina eta bere osagaiak (eskaria eta eskaintza)

(urtez urteko tasaren % zenbat, bolumen kateatua)

Eragiketak		2015	2016
ESKARIA	Azken kontsumoko gastua	2,6	2,6
	– Etxeena	2,8	3,2
	– EZIAGGEena	3,6	3,2
	– Administrazio publikoena	2,0	0,8
	Kapital finkoaren eraketa gordina	6,0	3,1
	– Eraikuntza	4,9	1,9
	– Ekipo-ondasunak eta aktibo landuak	8,8	5,0
	Izakinen aldakuntza*	0,1	0,1
	Barne-eskaria*	3,3	2,8
	Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	4,9	4,4
Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	5,6	3,3	
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan		3,2	3,2
ESKAINNTZA	Nekazaritza, abeltzailtza, basogintza eta arrantza	-2,9	3,4
	Industria	5,5	2,4
	Eraikuntza	0,2	2,5
	Zerbitzuak	2,6	3,4
	Produktuen gaineko zerga garbiak	6,7	4,2

(*):Merkatu-prezioen barne-produktu gordinaren hazkundeari eginiko ekarpena.
Iturria: EIN.

- Errentaren alderditik begiratuta, soldatakoen ordainketak hartu du guztizko barne-produktu gordinaren % 47,2; ustiapeneko soberakin gordinak, berriz, % 42,5 hartu du, eta ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak, azkenik, gainerako % 10,3a.

15. taula Barne-produktu gordinaren banaketa (errenta)

(% Δ nominala)

Eragiketak	2014	2015	2016	2016 (M euro)
Soldatakoen ordainketa ⁽¹⁾	1,3	3,8	3,1	526.098
Ustiapeneko soberakin gordina ⁽²⁾	0,1	2,7	4,4	473.032
Ekoizpenaren eta inportazioen gaineko zerga garbiak ⁽³⁾	4,3	7,7	2,2	114.721
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan ⁽⁴⁾	1,1	3,7	3,6	1.113.851

(4) = (1)+(2)+(3).

Iturria: EIN.

Kanpo-merkataritza

Estatuko ekonomikoak aurreko ekitaldiko aurrerapen-erritmoari eutsi dio 2016an, eta testuinguru horretan, esportazioak eta inportazioak ez dira hain indar handiarekin hazi, % 4,4ko eta % 3,3ko hazkundeak izan baitituzte, hurrenez hurren (2015ean, ordea, esportazioak % 4,9 hazi ziren, eta inportazioak, berriz, % 5,6).

Hala, kanpo-eskariak ekarpen positiboa egin dio hazkunde orokorrari 2016an: portzentajezko lau hamarren (aurreko ekitaldian, portzentajezko hamarren negatibo bateko ekarpena egin zion); zehazkiago, ekitaldiko hiruhilekotik hiruhilekora indartu egin da ekarpen hori (2016ko lehen hiruhilekoan, portzentajezko hamarren negatibo bat; bigarren hiruhilekoan, portzentajezko puntu-erdi positibo bat; hirugarren hiruhilekoan, portzentajezko zazpi hamarren positibo; laugarren hiruhilekoan, azkenik, portzentajezko zortzi hamarren positibo).

Laneko kostuak eta prezioak

Petrolioaren prezioak ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoetan izan duen beheranzko joerarekin eta azken hiruhilekoan izandako gorakadarekin bat etorritik, 2016ko prezioen bilakaeraren ezaugarri nagusia hau izan da: urteko lehen zortzi hilabeteetan urte arteko tasa negatiboak izan ditu (urtarrilean, -% 0,3; otsailean eta martxoan, -% 0,8; apirilean, -% 1,1; maiatzean, -% 1; ekainean -% 0,8; uztailean, -% 0,6; abuztuan, -% 0,1), eta positiboak (gero eta gehiago) irailetik aurrera (irailean, % 0,2; urrian eta azaroan, % 0,7; abenduan, % 1,6).

Hori horrela izanik, 2016an inflazioa positiboa izatera aldatu da ekitaldiaren amaieran (urte arteko tasa, abendutik abendura), % 1,6koa, 2015ean erregistratutako aurrerapen nulurekin alderatuta. Urteko batez bestekoari dagokionez, prezioek beheranzko erritmoa moteldu dute eta -% 0,2raino iritsi dira (2015ean, -% 0,5era iritsi ziren). Azpiko inflazioa % 0,8koa izan da (aurreko ekitaldian % 0,6koa izan zen).

Hala, kontuan hartuta ELGAREN arabera Eurogunearen inflazio-tasa (kontsumo pribatuaren deflatorearen bidez neurtua) % 0,4koa izan dela 2016an (2015ean % 0,1ekoa izan zen), Espainiako ekonomiaren eta moneta bakarraren blokearen arteko diferentziala portzentajezko sei hamarren negatibokoa izan da (aurreko ekitaldiko zifra berbera).

Ondasunen multzo desberdinak aztertuz gero, komunikazioak, *beste batzuk* izeneko taldea, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeak izan dira inflazio handienekoak; denek % 1 baino gehiagoko tasak izan dituzte (% 2,6, % 1,6, % 1,4 eta % 1,1, hurrenez hurren). Horien ondoren, honako hauek daude: jantziak eta oinetakoak eta irakaskuntza (% 0,6 bakoitzak), edari alkoholodunak eta tabakoa (% 0,5) eta etxeko tresneria (% 0,2). Gainerako taldeetan, berriz, prezioek behera egin dute: medikuntza (-% 0,2), aisia eta kultura (-% 1), garraioak (-% 2,1) eta etxebizitza (-% 4,2).

16. taula Kontsumoko prezioen indizea (KPI) eta industriako prezioen indizea (IPI)

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2014	2015	2016
KPI			
– Indize orokorra ⁽¹⁾	-1,0	0,0	1,6
– Indize orokorra ⁽²⁾	-0,2	-0,5	-0,2
Elikagaiak	-0,1	1,2	1,3
Elikagaiak ez direnak	-0,2	-1,0	-0,6
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	-0,3	1,2	1,4
Edari alkoholdunak, tabakoa	1,4	1,4	0,5
Jantziak eta oinetakoak	0,1	0,3	0,6
Etxebizitza	1,3	-2,1	-4,2
Etxeko tresneria	-0,5	-0,2	0,2
Medikuntza	0,1	0,1	-0,2
Garraioak	-0,9	-4,5	-2,1
Komunikazioak	-6,1	-1,8	2,6
Aisia eta Kultura	-1,4	-0,4	-1,0
Irakaskuntza	1,8	1,1	0,6
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,5	0,8	1,1
Beste batzuk	1,0	1,6	1,6
Azpikoa	0,0	0,6	0,8
IPI			
– Indize orokorra	-1,3	-2,1	-3,1
Kontsumo-ondasunak	-0,5	1,1	0,2
Ekipo-ondasunak	0,2	0,8	0,6
Bitarteko ondasunak	-1,5	-0,7	-1,5
Energia	-3,1	-8,8	-10,8

(1): Abendutik abendura

(2): Urteko batez besteko aldakuntza.

Iturria: EIN.

Industriako prezioei dagokienez, 2016an haien indize orokorrak indar handiagoz erortzen jarraitu du, (-% 3,1eraino erori da, 2015ean -% 2,1era jaitsi zen, eta 2014an, azkenik, -% 1,3ra), energiaren prezioen beherakada nabarmenaren ondorioz (-% 10,8); halaber, bitarteko ondasunen prezioek ere beherakada izan dute, baina askoz ere txikiagoa (-% 1,5) eta ekipo- eta kontsumo-ondasunei dagozkienek gora egin dute apur bat (% 0,6 eta % 0,2, hurrenez hurren).

Bestalde, produktibitateak % 0,3ko gorakada izan du 2016an (barne-produktu gordinak % 3,2ko aurrerakada izan du eta enpleguaren hazkundea % 2,9koa izan da, lanaldi osoko lanpostuei edo haien baliokideei dagokienez), eta soldatako bakoitzeko ordainketa ez da aldatu (% 0ko aldakuntza izan du); lan-kostu unitarioa -% 0,3 jaitsi da (2015ean % 0,3 igo zen).

17. taula Errenta-adierazleak eta soldata-kostuak

Kontzeptua	2014	2015	2016
Barne-produktu gordin erreala	1,4	3,2	3,2
Enplegua guztira*	1,1	3,0	2,9
Produktibitatea	0,3	0,2	0,3
Soldatakoen ordainketa	1,3	3,8	3,1
Soldatako enplegua*	1,3	3,3	3,1
Soldatako bakoitzeko ordainketa	0,0	0,5	0,0
Lan-kostu unitarioa	-0,3	0,3	-0,3

(% Δ)

(*): Kontabilitateko Nazionalako enpleguaren datuak erabili dira: Lanaldi osoko lanpostuak eta haien baliokideak.

Iturria: Guk geuk eginiko balioespena, EInen datuetatik abiatuta.

Lan-merkatua

Jarduera ekonomikoari eutsi izanari esker (barne-produktu gordinaren aurrerakada % 3,2koa izan da bai 2015ean bai 2016an), estatuko lan-merkatuak bilakaera positiboa izaten jarraitu du 2016an; okupazioak gora egin du eta langabeziak behera. Dena den, behera egin badu ere, altuegia izaten jarraitu du langabezia-tasak.

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) egindako Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) arabera, biztanleria landunaren hazkundea % 2,7koa izan da 2016an (% 3koa izan zen aurreko ekitaldian). Testuinguru horretan, biztanleria aktiboa -% 0,4 murriztu da.

Bestalde, jarduera-tasa apur bat jaitsi da (2016an % 59,2 eta 2015ean % 59,5), eta bai gizonen tasak bai emakumeenak beheranzko bilakaera izan dute; zehazki, 2016an % 65,1 izan zen gizonen jarduera-tasa, eta % 53,6koa, berriz, emakumeena (aurreko ekitaldian % 65,7 eta % 53,7 izan ziren datuak, hurrenez hurren).

Jarduera-tasak 2016an izan duen % 2,7ko aurrerakada horren (18.341.500 landun) kausa izan da jarduera-tasa sektore guztietan hazi izana, eraikuntza-sektorean izan ezik: sektore horretan gelditu egin da (aldakuntza nulua izan du). Bai lehen sektoreak bai zerbitzuek enplegu-sorreraren erritmoa sendotu dute: % 5,1 lehen sektoreak eta % 2,9 zerbitzuek (2015eko datuak % 0,1 eta % 2,6 izan ziren, hurrenez hurren); industria-sektoreak, berriz, moteldu egin du erritmo hori (2016an % 1,6 eta aurreko ekitaldian % 4,3).

18. taula Lan-magnitude nagusien bilakaera.
Urteko batezbestekoak

Kontzeptua	2016	2014	% Δ	
			2015	2016
Biztanleria aktiboa	22.822,7	-1,0	-0,1	-0,4
Biztanleria landuna	18.341,5	1,2	3,0	2,7
– Nek., abeltz., arrantza	774,5	-0,1	0,1	5,1
– Industria	2.522,2	1,0	4,3	1,6
– Eraikuntza	1.073,8	-3,5	8,1	0,0
– Zerbitzuak	13.970,9	1,7	2,6	2,9
Biztanleria langabea	4.481,2	-7,3	-9,9	-11,4
Langabezia-tasa*	19,6	-6,3	-9,7	-11,0

(*): Biztanleria aktiboaren langabezia-tasa, ehunekotan.

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria 2011. 2017ko ekaineko datuak). Geuk egina.

Halaber, soldatuko enpleguaren hedapen-erritmoa apur bat geldotu da (2016an % 3,1 areagotu zen, eta 2015ean % 3,4); soldatkoa ez den enplegua ere zertxobait moteldu da (2016an % 0,7 eta aurreko ekitaldian % 1,1). Kontratu-motaren arabera, aldi baterako kontratua duten soldatuko kopuruaren gorakadak askoz ere indar handiagoa izan du kontratu mugagabea dutenen soldatuko kopuruak baino (% 6,8 eta % 1,8, hurrenez hurren).

Langabezia aintzat hartuta, 2016an horren beherakada areagotu egin da, -% 11,4raino (2015ean -% 9,9 izan zen ehuneko hori), eta horrela, 2014an hasitako beheranzko joerari jarraipena ematen zaio. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da 2016an Espainiako estatuko langabeak lau milioi eta erdi baino pixka bat gutxiago izan direla (2009ko datuen eta 2010ekoen tarteko kopurua). Horrek esan nahi du langabezia-tasa % 19,6raino jaitsi dela (aurreko ekitaldian % 22,1 izan zen), hala ere datu hori altuegia da, Europar Batasuneko bigarren erregistro altuena, Greziaren atzetik (Greziako langabezia-tasa % 23,6koa da, Europako Batzordearen arabera).

19. taula Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu-motaren arabera. Urteko batezbestekoak

(m pertsona eta % zenbat)

Kontzeptua	2016	2014	% Δ	
			2015	2016
Biztanleria landuna	18.341,5	1,2	3,0	2,7
Soldatakoak	15.228,2	1,5	3,4	3,1
– Sektorre pribatua	12.227,4	2,0	3,9	3,6
– Sektorre publikoa	3.000,8	-0,4	1,7	0,9
Soldatakoak ez direnak*	3.113,3	-0,4	1,1	0,7
– Enplegu-emaileak	909,4	0,6	1,3	2,4
– Autonomoak	2.083,7	-0,2	1,4	0,4
– Kooperatibistak	26,3	5,2	-7,3	15,9
– Familia-laguntza	87,7	-10,3	-2,3	-12,6
Kontratu mugagabedun sold.	11.260,3	0,4	1,9	1,8
Aldi baterako kontratudun sold.	3.968,0	5,3	8,3	6,8
Lanaldi osoko landuna	15.551,1	1,1	3,2	3,3
Lanaldi partzialeko landuna	2.790,5	1,9	1,9	-0,8

(*):Batura ez dator bat guztizkoarekin, bertan sailkatu ezin direnak ere sartu baitira.

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria 2011. 2017ko ekaineko datuak). Geuk egina.

Sektorre publikoa eta interes-tasak

Administrazio publikoen guztizko defizita barne-produktu gordinaren -% 4,54ren baliokidea izan da 2016an, kreditu-erakundeei emandako laguntzak barnean hartuta. Horrek esan nahi du aurreko ekitaldian lortutako saldoa portzentajezko ia sei hamarretan hobetu dela (2015eko defizita: -% 5,13).

Autonomia-erkidegoen arabera egindako azterketa xehatua ikus daiteke erkidego guztiek izan dutela saldo defizitarioa 2016an. Eskualdeko barne-produktu gordinaren araberrako defizitik handiena Murtziak izan du (-% 1,7); defizit txikiena, berriz, Kanariak (-% 0,33). EAEn, defizita -% 0,71koa izan da; beraz, portzentajezko ehunen bat baino gehiago hobetu da helburu gisa ezarrita zuen zifra (-% 0,7).

20. taula Defizit publikoa

(Barne-produktu gordinaren % zenbat)


Kontzeptua	2015	2016
Administrazio zentrala*	-2,59	-2,52
Autonomia-erkidegoak	-1,74	-0,82
Tokiko korporazioak	0,47	0,64
Gizarte Segurantza	-1,22	-1,62
Administrazio publikoak, guztira*	-5,08	-4,33
Kreditu-erakundeei emandako laguntzak	-0,05	-0,21
Administrazio publikoak, guztira	-5,13	-4,54

(*):Finantza-laguntzarik gabe.

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa (2017ko martxoaren 30a).

Azkenik, berriz ere aipatu behar da 2016aren amaieran Europako Banku Zentralaren erreferentziazko tasa % 0an finkatu dela, martxoan erregistratutako portzentajezko -0,05 puntuko beherapenaren ondoren, eta Erreserba Federalarena % 0,75eraino igo dela, abenduan % 0,25 igo ostean.

2. grafikoa Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala



Iturria: EBZ, Erreserba Federala.

Aurreikuspenak

Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak argitaratutako aurreikuspenen arabera, Espainiako estatuko ekonomiak % 2 baino gehiago hazten jarraituko du hurrengo urteetan, haren aurrerapen-erritmoa arian-arian motelduko da (2017an % 2,7, 2018an % 2,5 eta 2019an eta 2020an % 2,4). Dinamismo horri esker, enplegua (lanaldi osoko lanpostutan eta haien lanpostu baliokidetan neurtua) ere hazi egingo da, baina barne-produktu gordinari dagokiona baino indar txikixeagoarekin. Azkenik, langabezia-tasak beheranzko joerari eutsiko dio, baina % 10etik gorakoa izaten jarraituko du 2020an oraindik ere.

21. taula Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2017)

Kontzeptua	Urte arteko aldakuntza-tasa
BARNE-PRODUKTU GORDINA eta ESKARI-AGREGATUAK	
Azken kontsumo nazional pribatuko gastua	2,6
Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua	0,8
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,8
– Barne-eskaria (barne-produktu gordinaren hazkundeari egindako ekarpena)	2,2
– Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	5,5
– Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	4,3
– Kanpo-saldoa (barne-produktu gordinaren hazkundeari egindako ekarpena)	0,5
– Barne-produktu gordina	2,7
LAN-MERKATUA	
– Enpleguaren aldakuntza ehunekotan*	2,5
– Langabezia-tasa	17,5

(*): Lanaldi osoko lanpostuak eta haien baliokideak.

Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa (2017ko apirila).

2. NAFARROAKO EGITURA EKONOMIKOA

Azken urte hauetan, Nafarroako egitura ekonomikoak garatutako ekonomien ohiko ezaugarriak ditu; izan ere, Nafarroako produkzioaren eta enpleguaren sektore-banaketaren ezaugarria da zerbitzu-sektorea nagusitzen dela, ondoren, nolabaiteko aldearekin, industria-sektorea dago, eta jarduera horrek Nafarroan duen garrantzi erlatiboa Nafarroaren inguruneko ekonomia baino zertxobait handiagoa da; aitzitik, eraikuntzaren eta lehen sektorearen garrantzi erlatiboa askoz ere txikiagoa da.

22. taula Ekoizpen-egitura (balio erantsi gordinaren konposizio sektoriala), 1960-2016

Sektorea	1960		1975		1990		2016	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
Nekazaritza	33,0	22,6	14,1	9,7	4,9	4,9	3,3	2,7
Industria	27,5	31,5	37,4	31,8	38,7	27,5	34,6	18,3
Eraikuntza	5,3	5,3	6,4	7,3	7,8	9,7	5,5	5,8
Zerbitzuak	34,2	40,6	42,1	51,2	48,6	57,9	60,8	76,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EIN, FUNCAS.

23. taula Egitura okupazionala (enpleguaren konposizio sektoriala), 1960-2016

Sektorea	1960		1975		1990		2016	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
Nekazaritza	41,1	41,7	20,9	23,4	7,2	11,0	4,0	4,4
Industria	23,1	23,2	36,8	27,2	35,7	22,6	25,4	13,9
Eraikuntza	7,2	6,8	8,8	9,6	8,5	9,4	4,1	5,8
Zerbitzuak	28,6	28,3	33,5	39,8	48,6	57,0	66,5	75,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EIN, FUNCAS.

Nafarroako produkzioaren eta enpleguaren sektore-osaeraren bilakaerak Nafarroako produkzio-sarean azken hamarkada honetan izandako aldaketa nabarmenak erakusten ditu. Aldaketa horien artean honako hauek nagusitzen dira: zerbitzuen garrantzia zertxobait igo da eta lehen mailako sektorearen garrantzia nabarmen jaitsi da. Era berean, joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan industria-jarduerak hasitako hazkundeak eragin zuen sektore horren garrantzia gero eta handiagoa zen eskualdeko ekonomian; izan ere, hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean gehieneko mailetaraino iritsi zen, baina, ondoren, jaitsi egin zen, nahiz eta jaitsiera hori Nafarroaren inguruneko ekonomietakoa baino arinagoa izan zen. Bestalde, eraikuntza-sektoreak izandako partaidetzaren portaera aldakorragoa izan da denboran; hala eta guztiz ere, ikusi da sektore horren garrantzi erlatiboa zertxobait igo dela, bereziki mende honetako lehenengo urteetako goranzko azken zikloan, garai horretan Nafarroako

ekonomiaren (eta Estatu osoaren) hazkundearen eragile nagusietako bat izan zelako, baina joera hori eten egin da azken urte hauetan, jarduera hori pairatzen ari den krisi handiaren ildotik.

Aipatu ditugun produkzioaren eta enpleguaren sektore-osaeran izandako aldaketek Nafarroan, orokorrean, Espainia osoan ikusitako antzeko jarraibideei jarraitu dieten arren, aldaketa horiei buruzko azterketa zehatza egiten badugu, Nafarroako ekonomia-egituren osaeran islatzen diren alderdi desberdin batzuk daudela ikusiko dugu. Zehazki, aipatu behar dugu nekazaritza-produkzioak Nafarroan izan duen partaidetzaren murrizketa Estatu osoan izandako jaitsiera baino zertxobait txikiagoa izan dela; Nafarroan, gaur egun % 3,3 baita, eta Espainia osoan, 2016an, % 2,7 izan zen.

Era berean, ikusten da hirugarren sektoreko produkzioaren partaidetzaren hazkundera handiagoa izan dela Espainia osoan Nafarroako ekonomian baino (Nafarroaren partaidetza % 60,8 izan da 2016an; Espainian, aldiz, % 76,3 izan da); egoera horrelakoa da, batez ere, turismoari lotutako hirugarren sektoreko jarduerak garrantzi handia dutelako Espainian. Azkenik, industria-sektorearen garrantzi erlatiboa izugarri jaitsi da Espainiako ekonomian, baina partaidetza horren jaitsiera txikiagoa izan da Nafarroan (2016an % 34,6 izan da Nafarroan; Espainian, aldiz, % 18,3).

24. taula Nafarroaren parte-hartzea Espainia osoan, 2016

Sektorea	% Nafarroa/Espainia	
	BEG	Enplegua
Nekazaritza	2,12	1,36
Industria	3,19	2,73
Eraikuntza	1,60	1,06
Zerbitzuak	1,34	1,31
Guztira	1,71	1,50

Iturria: EIN.

Azken batean, Nafarroak eta Espainiak nekazaritzaren eta eraikuntzaren ekonomietan izandako partaidetza-maila antzekoa denez, Nafarroaren ekonomia-egitura eta Espainia osoarena bereizten dituen alderdi nagusia industriaren eta zerbitzuen sektoreek duten partaidetzan ikusten da gaur egun. Alde horretatik, Nafarroako industria-ekoizpenaren garrantzi erlatiboa Espainian izandakoa baino ehuneko 16,3 puntu handiagoa da 2016an (14,5 puntu 2015ean); zerbitzu-sektorearen kasuan, berriz, garrantzi hori 15,5 puntu txikiagoa da Nafarroan (14,9 puntu 2015ean). Aipatutako alderdi horiek berretsi egiten dira enpleguaren sektore-osaerak izandako bilakaera aztertzen denean; izan ere, arestian deskribatutako ekoizpen-sistemaren eraldaketa ekoizpen-sarearen eraldaketarekin lotuta dago.

25. taula Balio erantsi gordina biztanleko Nafarroan

(Espainiako batez besteko oinarriaren indizea=100)

Urtea	BEG biztanle bakoitzeko
2007	128,7
2008	129,1
2009	128,7
2010	129,9
2011	125,4
2012	126,1
2013	125,5
2014	123,5
2015	123,2
2016	124,4

Iturria: EIN.

Testuinguru horretan, estatu-eremuan Nafarroako ekonomiak izandako industria-espezializazio nabarmenak ekarri du azken urte hauetan Nafarroako garapen- eta ongizate-maila Estatu osokoa baino handiagoa izatea. Gauzak horrela, Nafarroako ekonomiak azken urte hauetan dinamismo handiagoa izan duenez, biztanle bakoitzeko balio erantsi gordina estatuko batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da gaur egun Nafarroan (% 24,4 handiagoa 2016an).

Kapitulu hau amaitzeko, jarraian Nafarroako produkzio-sistema osatzen duten jarduerasektoreen ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu labur-labur eta orokorrean.

Lehen sektorea

Nahiz eta sektore horrek enpleguari eta produkzioari egiten dien ekarpena nabarmen murriztu den azken hamarkada hauetan, nekazaritza-jarduera oinarritzko jarduera da eskualdeko ekonomiarako, bai sektore horrek duen garrantzi erlatiboarengatik (enpleguaren % 4,0 eta balio erantsi gordinaren % 3,3 da 2016an), baita sektore horrek lurraldean duen banaketarengatik ere (Nafarroako hainbat gunetako ekonomia-oinarria da, Pirinioak eta Erriberagoitia kasu), eta, batez ere nekazaritzako elikagaien industriari eusten diolako, industria horren garrantzia eta dinamismoa Nafarroako ekonomia hazteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremu zabaletan biztanleria ezartzeko azpiko alderdietako bat delako.

Horrenbestez, Nafarroa iparraldetik hegoaldera zeharkatzen badugu, ikusiko dugu gradualki igaroko garela baso-aberastasun handia, zelai, artasoro eta erremolatxa-soro ugari dituzten eta, beraz, nagusiki abere-hazkuntzari lotuta dauden lurralde menditsuetatik tarteko eremura, hau da, lekaleen soroak eta bazka-soroak, fruta-arbolak eta azkenaldi honetan industria-landaketak (ekilorea eta koltza) nagusitzen

diren eremura. Erriberan areagotu egiten da mahatsondoen hedapena, eta eskualdeko kontserba-industria tradizional eta garrantzitsua hornitzen duten baratzeko produktuak (ospe handikoak) nagusitzen dira. Nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzioak duen ospearen froga gisa, Idiazabal gaztaren (Urbasa eremuan), Erronkariko gaztaren, Nafarroako zainzurien, Lodosako pikillo piperren, Nafarroako ardoaren (ardo beltza, gorria eta zuria) eta Nafarroako txahalaren jatorrizko izendapenak aipa daitezke.

Era berean, nabarmendu behar da espero dela Nafarroako nekazaritza-jarduerak etekin gehiago ateratzea eta indartzea Itoizko urtegiarekin eta Nafarroako Ubidearekin, horiei esker lur ureztatuak ezarri eta hobetuko baitira Ubideko eremu ureztagarrian (Nafarroan egin den obra hidrauliko garrantzitsuena da). Proiektu horri esker, 220 biztanlegune baino gehiago urez hornitu ahal izango dira (besteak beste, Iruñerriko Mankomunitate osoa), baliabide natural honen egungo defizita arindu ahal izango da, eta ahalbidetuko du lehorreko 59.160 hektarea lur ureztatu bihurtzea, nahiz eta hasiera batean 53.125 hektarea izango zirela aurreikusi; igoera hori gertatu da Ubidearen lehenengo fasea handitu delako eta bigarren fasean aldaketa batzuk egin direlako (bigarren fasean proiektuaren birdefinizioa aztertu behar izan baita; izan ere, proiektua idatzi zenean Bardeetako egoera desberdina zen, oraindik ez zutelako biosferaren erreserba izendatu).

lido horretan, azpiegitura honetarako 2012. urtetik 2021. urtera bitarteko aldian 264 milioi euroko inbertsioa egingo dela aurreikusten da, eta hiru bide erabiliz finantzatzeko dela: Canasa sozietate publikoaren kapital sozialera egindako ekarpenak, banku-kredituak eta Canasaren diru-sarrerak (erabiltzaileek egindako ekarpenen bitartez). Kalkulatzen da Canasa sozietateak hemendik 20 urtera 723 milioi euroko inbertsioa egingo duela azpiegitura horretara.

Obra egin ondoren 15.275 hektareen lehen mailako sektorearen urteko ekoizpenaren balioa 45 milioi euro izatera iritsiko dela kalkulatzen da jarduna gauzatu aurretik, eta nekazaritzako ustiategietatik lortutako onura 7,12 milioi euro izatetik 16 milioi euro baino gehiago izatera igarotzea, eta guztizko balio erantsi gordina 84,8 milioi izatera.

Industria

Egun, Nafarroa Espainiako eskualde industrializatuenetako bat da, eta industria-sektorea funtsezko ekoizpen-jarduera bihurtu da azken hamarkada hauetan (2016an enpleguaren % 25,4 da, eskualdeko balio erantsi gordinaren % 34,6), eta jarduera horren portaerak baldintzatu egiten du neurri handi batean Nafarroako ekonomiaren hazkundea. Jardueraren azpisektore nagusiak honako hauek dira: ibilgailu motordunen

fabrikazioa, janari-industria, produktu metalikoen fabrikazioa, makineriaren eta ekipoen fabrikazioa. Jarduera horiek, 2014an, Nafarroako industriaren guztizko enpleguaren % 54,4 eta industria horrek sortutako balio erantsiaren % 53,0 ziren orokorrean, Estatistika Institutu Nazionalak emandako azken informazioaren arabera.

Nafarroako eta Estatu osoko industria-sarearen ezaugarria da ETEeak nagusitzen direla. Nolanahi ere, Nafarroan dauden atzerriko inbertsioak oso elementu garrantzitsuak dira sektorea dinamizatzeko eta modernizatzeko, nahiz eta horren ondorioz, Erkidegotik kanpoko erabaki-zentroek baino mendetasun handiagoa izan. Ildo horretan, gaur egun, Nafarroan kokatutako ehun industria-enpresa baino gehiagok kapital multinazionala dute, batez ere tamaina erdiko edo handiko enpresek, eta esportaziorako propentsio handia dute. Enpresa horiek produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioaren azpisektorekoak dira, baita beste azpisektore hauetakoak ere: energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza, makineriaren eta ekipamenduaren fabrikazioa, kautxuaren eta plastikoaren fabrikazioa, eta industria kimikoa. 2016an, atzerriko inbertsioa Nafarroako industrian 823.786,41 milako eurokoa izan zen (9.537,48 milako eurokoa 2015ean). Kapital horren zatirik handiena batez ere Alemaniatik etorri zen (792.010,00 mila euro jarri zituen herrialde horrek). Bestalde, Nafarroan gehien inbertitu duten gainerako herrialdeak hauek dira: Luxenburgo (15.862,75 milako euro), Frantzia (7.621,20) eta Txina (6.448,42).

Banaketa geografikoa dela eta, industria-enpresak funtsean Iruñeko eremuan kokatzen dira, eskualdearen ipar-ekialdean, Erriberagoitian eta Tuteran.

Eraikuntza

Mende honen hasierako goranzko azken zikloan, sektore honek garapen garrantzitsua izan zuen Nafarroan eta Estatu osoan orokorrean; bilakaera hori Nafarroan izan zen etxebizitzaren eskaera handiak eta etxebizitzaren eraikuntza nabarmenak bultzatu zuten; dinamika horri hainbat faktorek lagundu zioten, hala nola interes-tasak txikiak izateak edo egoera ekonomikoa egokia izateak; era berean, ikusi zen obra zibilaren bilakaera positiboa izan zela. Hala eta guztiz ere, jada ezaguna izanik, bilakaera hori eten egin da azken urte hauetan, jarduera honek krisi handia igarotzen ari duelako, eta 2016an guztizko enpleguaren % 4,1 da eta eskualdeko balio erantsi gordinaren % 5,5.

Zerbitzuak

Ekonomia garatuen sistema ekonomikoaren tertziarizaziorako joerari jarraiki (horri gehitu behar zaio sektore publikoaren presentzia areagotu egin dela, industria-enpresen jarduera jakin batzuk esternalizatu egin direla eta zerbitzuen eskaera igo egin dela), zerbitzu-sektoreak oso profil dinamikoa izan du azken urte hauetan (nabarmendu behar da sektore hori iraunkorra dela eta ziklo ekonomikoaren mendetasuna txikiagoa izateaz gain, hazkundea iraunkorra dela oro har), eta Nafarroako ekoizpen-sarean duen partaidetza etengabe areagotu dela. 2016an enpleguaren % 66,5 eta eskualdeko balio erantsi gordinaren % 60,8 da, eta 2015ean enpleguaren % 65,5 eta eskualdeko balio erantsi gordinaren % 60.

Nafarroako zerbitzuak kontuan hartuta, honako hauek nabarmentzen dira beren kalitatea eta garrantzia direla medio: osasun-, hezkuntza- eta merkataritza-arlokoak, baita banku-, aholkularitza- eta kontsultoretza-arlokoak ere. Bilakaerari dagokionez, azken urte hauetan enpleguaren hazkundea batez bestekotik gora igo duten azpisektoreak honako hauek dira: Enpresentzako Zerbitzuak, Zerbitzu publikoak eta Merkataritza eta Ostalaritza. Testuinguru horretan nabarmendu behar da Interneten eta teknologia berrien esparruan informatikan eta telekomunikazioetan (web-orriak eta enpresa-atariak egitea...) jarduten duten enpresa asko sortzen ari direla. Halaber, eta oso erakargarriak izan arren, turismoak Nafarroako ekonomian duen garrantzia mugatua da oraindik, nahiz eta eskualdeko ekonomian presentzia esanguratsua izatea lortzen ari den, eta espero da datozen urteetan ere bilakaera positibo horrekin jarraitzea.

Lurralde-banaketari dagokionez, adierazi behar dugu zerbitzu-sektoreko enpleguaren % 60 inguru Iruñean eta haren Eskualdean biltzen dela, goi-mailako gune tertziarioa delako tamaina txikiko Erkidego batentzat.

3. IKUSPEGI OROKORRA

Munduko hazkunde ekonomikoa moteldu egin den arren, Nafarroako ekonomiak aurreko ekitaldiko aurrerapen-erritmoari eutsi dio: % 2,9, bai 2015ean, bai 2016an.

26. taula Bilakaera orokorra

(Urte arteko aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016
NAFARROA					
– Barne-produktu gordina	-1,6	-1,3	1,5	2,9	2,9
– Enplegua	-4,1	-3,5	1,7	0,7	1,2
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	16,2	17,9	15,7	13,8	12,5
– KPI ⁽²⁾	2,7	0,0	-1,2	-0,1	1,8
ESPAINIA					
– Barne-produktu gordina	-2,9	-1,7	1,4	3,2	3,2
– Enplegua	-4,3	-2,8	1,2	3,0	2,7
– Langabezia-tasa ⁽¹⁾	24,8	26,1	24,4	22,1	19,6
– KPI ⁽²⁾	2,9	0,3	-1,0	0,0	1,6

(1): Biztanleria aktiboaren %.

(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria).

Egoera horretan, euroguneko ekonomiaren aldean (% 1,7 hasi zen, ELGEren arabera) Foru Erkidegokoak izandako bilakaera onak aurrerapen arin bat ekarri du Europako ekonomia nagusien mailarekin bat egiteko prozesuan.

EINen Eskualde Kontabilitatea begiratzen bada, Espainiako autonomia-erkidego guztiek izan dituzte hazkunde-tasa positiboak 2016an, eta aurreko ekitaldikoak baino handiagoak izan dira erkidego horietako hamarrean. Dinamismo handiena Balear Uharteetan izan da (% 3,8), eta txikiena (% 1,5), Errioxan; EINen arabera, Nafarroan % 2,9ko hazkundera izan da.

Lan-merkatuari erreparatuz gero, EINen Biztanleria Aktiboaren gaineko Inkestaren arabera, okupazioa % 1,2 hazi da 2016an Nafarroan; dinamika hori Estatuan oro har izandakoa (% 2,7 hazi zen enplegua 2016an) baino nabarmen txikiagoa izan da. Gainera, langabezia-tasak jaisteko bideari jarraitu dio erkidego guztietan: Foru Erkidegoko ekonomiari dagokionez, % 13,8 izan zen 2015ean, eta % 12,5, 2016an; Estatuan, berriz, % 22,1etik % 19,6ra murriztu da.


Prezioei dagokienez, 2016koen bilakaera ekitaldi horretako lehen hiru hiruhilekoetan petrolio-kupelak izandako beheranzko joerak baldintzatu du, bai eta kupel horren urte amaierako garestitze nabarmenak ere. Horrela, Nafarroan, KPIk urte arteko tasa

negatiboak izan ditu urtarriletik uztaileira, eta gero eta positiboagoak, berriz, abuztutik abendura; antzeko dinamika izan da Estatuan, baina kasu horretan prezioak pixka bat jaitsi ziren abuztuan. Horiek horrela, pilotutako inflazio-tasa (abendutik abendura) % 1,8raino igo da Nafarroan, eta % 1,6raino Estatuan (-% 0,1 eta aldaketarik gabe 2015a itxi zenean, hurrenez hurren).

Azkenik, adierazi Nafarroako ekonomiak urte arteko % 3,1eko igoera izan duela 2017ko lehen hiruhilekoan, eta kopuru hori lau ehuneko hamarren handiagoa dela aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino (% 2,7, 2016ko laugarren hiruhilekoan). Laboral Kutxak 2017ko ekitaldirako % 3ko hazkundea aurreikusten du Nafarroan.

3. grafikoa BPG-aren bilakaera

(Urte arteko aldaketa-tasa)



Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua, EIN.

27. taula Zenbait jarduera-adierazleren bilakaera
(aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2014		2015		2016	
	Nafarroa	Espania	Nafarroa	Espania	Nafarroa	Espania
A. EKOIZPENA ETA JARDUERA						
A.1 Industria (ekoizpenak)						
• Nekazaritzako elikagaien industria	0,4	3,7	0,3	1,0	2,0	2,3
• Automobilgintza (auto-kopurua)	5,6	8,9	-2,4	17,6	-0,5	5,0
• Papera (tonak)	-1,8	-2,4	1,0	2,6	-1,4	0,4
A.2 Eraikuntza						
• Amaitutako etxebizitzak (kopurua)	-24,4	-16,6	-43,9	-4,9	-7,6	-13,3
• Hasitako etxebizitzak (kopurua)	68,3	0,2	34,1	33,0	34,4	28,1
• Barneko zementu-salmentak (tonak)**	11,8	0,4	-4,9	5,5	3,4	-2,9
• Lizitazio ofizialak (euro korranteak)	8,8	42,6	98,2	-28,2	-62,4	-0,7
A.3 Nekazaritza-sektorea (ekoizpenak)						
• Nekazaritza (euro korranteak)	--	-3,3	--	2,5	--	4,4
• Abeltzaintza (euro korranteak)	--	-0,8	--	-2,4	--	0,7
• Basogintza (euro korranteak)	--	--	--	--	--	--
• Guztira (euro korranteak)	1,6	-5,3	1,4	6,1	1,6	2,9
A.4 Zerbitzuak						
• Errepide bidezko garraioa (merkantziak)	-14,8	3,0	34,4	8,2	1,9	2,8
• Aireko garraioa (merkantziak)	196,4	6,9	-48,2	4,7	-53,3	11,2
• Aireko garraioa (bidaiariak)	-12,7	4,6	7,2	6,0	4,9	11,0
A.5 Finantza-sektorea						
• Gordailu pribatuak (euro korranteak)	-5,1	0,4	-0,7	-0,4	3,0	0,4
• Sektorre pribatuko kreditua (euro korranteak)	-10,3	-4,6	-6,3	-4,0	-2,9	-4,1
B. BARNE-ESKARIA						
– Autoen matrikulazioa (kopurua)	19,3	19,9	19,7	22,9	5,3	12,4
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa (kopurua)	12,0	27,8	20,9	30,8	5,3	6,1
– Ekipo-ondasunen inportazioa (euro korranteak)*	4,4	14,6	38,6	21,0	-4,0	6,8
– Energia elektrikoaren kontsumoa (Kw/h)	--	-1,6	--	1,7	--	0,6
C. KANPO-MERKATARITZA						
– Esportazioak (euro korranteak)	9,3	2,0	4,9	4,3	-2,4	1,7
– Inportazioak (euro korranteak)	6,2	5,2	10,0	3,7	-1,1	-0,4
D. PREZIOAK ETA SOLDATAK						
– Kontsumo-prezioen indizea (urteko batezbestekoa)	-0,5	-0,2	-0,6	-0,5	0,0	-0,2
– Kontsumo-prezioen indizea (abe/abe)	-1,2	-1,0	-0,1	0,0	1,8	1,6
– Nekazariek jasotako prezioak	-2,6	-7,1	-16,8	-1,8	-3,1	-3,1
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	1,9	-0,1	-0,1	1,1	-0,4	-0,3
E. LAN-MERKATUA***						
– Biztanleria aktiboa	-1,0	-1,0	-1,5	-0,1	-0,4	-0,4
– Biztanleria langabea	1,7	1,2	0,7	3,0	1,2	2,7
• Nekazaritza	-16,6	-0,1	-24,6	0,1	1,1	5,1
• Industria	-0,6	1,0	-3,7	4,3	4,3	1,6
• Eraikuntza	-2,1	-3,5	20,7	8,1	-27,2	0,0
• Zerbitzuak	4,8	1,7	2,7	2,6	2,9	2,9
– Biztanleria langabea	-13,3	-7,3	-13,3	-9,9	-10,1	-11,4
– Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	15,7	24,4	13,8	22,1	12,5	19,6
– Erregistratutako kontratuak	14,9	13,1	15,3	11,1	5,5	7,6

():Nafarroan, material elektrikoa eta makinien eta aparatuen inportazioa.*
*(**):Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa.*
*(***):BAI, 2011ko biztanleria-oinarria.*
--: Ez dago behin betiko datu ofizialik.
Iturria: Geuk egina, hainbat estatistika-iturri oinarri hartuta.

3.1 EKOIZPENA

2015ean hazkunde-erritmoa indartu egin zen bai Nafarroan, bai eta Estatu osoan ere; 2016an, Nafarroako eta Espainiako ekonomiek aurreko ekitaldiko dinamismoari eutsi diote (% 2,9 eta % 3,2 hala 2015ean nola 2016an, hurrenez hurren).

Hiruhilekoen arabera, Nafarroako ekonomiaren profila beheranzkoa izan da 2016ko ekitaldian, eta urte arteko hazkundeak % 3,1, % 3, % 2,9 eta % 2,7 izan dira lehenengo hiruhilekoan, bigarrenean, hirugarrenean eta laugarrenean, hurrenez hurren.

Eskaintzari dagokionez, 2016an lau sektore handiak hazi egin dira, baina zerbitzuek bakarrik sendotu dute aurrerapena aurreko ekitaldiarekin alderatuta (% 3,6 eta % 3,2, hurrenez hurren); industriaren, lehen sektorearen eta eraikuntzaren aurrerapenak, ostera, moteldu egin dira (2016an, % 2,3, % 2,2 eta % 0,6; hurrenez hurren; 2015ean, aldiz, % 2,9, % 2,5 eta % 1,2, hurrenez hurren).

28. taula Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaera

(Urte arteko aldakuntza-tasa erreala)

Kontzeptua	2014	2015	2016
NAFARROA ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	1,2	2,5	2,2
– Industria	3,0	2,9	2,3
– Eraikuntza	-3,6	1,2	0,6
– Zerbitzuak	1,5	3,2	3,6
– Guztira	1,5	2,9	2,9
ESPAINIA ⁽¹⁾			
– Nekazaritza	-1,6	-2,9	3,4
– Industria ⁽²⁾	1,8	5,5	2,4
– Eraikuntza	-1,2	0,2	2,5
– Zerbitzuak	1,4	2,6	3,4
– Guztira	1,4	3,2	3,2

(1): Balio Erantsi Gordina oinarritzko prezioei sektoreen kasuan, BPG merkatuko prezioei guztizkoaren kasuan.

(2): Ez da energia sartzen.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

Industria-sektoreari erreparatzen bazaio, haren produkzioa neurtzen duen indizeak (IPI) hazkunde-erritmoa jaitsi du Nafarroan: zehazki, % 0,7; aurreko ekitaldian, berriz, ehuneko hori % 2,2 izan zen. Nafarroan, industria-giroak aurreko ekitaldian bezala jarraitu du: egungo eskaeren jaitsiera hazi egin da, eta aurreikusitako eskaerek indar apur bat galdu dute, baina sektoreko enplegua igotzera igaro da (% 4,3 2016an eta -% 3,7 2015ean).

29. taula Industria Sektorearen adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2014	2015	2016
Industria Produkzioaren Indizea (IP) ⁽¹⁾	3,9	2,2	0,7
Industria-giroa ⁽²⁾	-6	2	2
Egungo eskaerak ⁽²⁾	-12	-1	-2
Aurreikusitako eskaerak ⁽²⁾	4	13	12
Industria-enplegua	-0,6	-3,7	4,3

(1): Egutegi-ondorioak kontuan hartuz zuzendutako datuak.

(2): Erantzun-saldoak.

Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua, EIN.

Erakuntzari dagokionez, zementuaren barne-salmentak hazten hasi dira berriro (% 3,4 2016an eta -% 4,9 2015ean); lizitazio ofiziala, berriz, nabarmen jaistera igaro da (-% 62,4 2016an, eta aurreko ekitaldian % 98,2 igo zen); bestalde, hasitako etxebizitzek beren dinamismoari eutsi diote (% 34,4 hazi dira 2016an, eta % 34,1 2015ean), eta amaitutakoek, jaitsiera-erritmoari (-% 7,6 2016an eta -% 43,9 2015ean). Hori guztia gertatu den testuinguru berean, sektoreko enplegua -% 27,2 jaistera igaro da (% 20,7ko hazkundera aurreko ekitaldian).

30. taula Eraikuntza Sektoreko Adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2014	2015	2016
Zementuaren barne-salmentak*	11,8	-4,9	3,4
Lizitazio ofiziala ⁽¹⁾	8,8	98,2	-62,4
Hasitako etxebizitzak ⁽²⁾	68,2	34,1	34,4
Amaitutako etxebizitzak ⁽²⁾	-24,7	-43,9	-7,6
Enplegua	-2,1	20,7	-27,2

(*): Oficemen-eko (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) bazkideen zementu grisaren barneko salmentei dagokie.

(1): Seopan.

(2): Etxebizitza Ministerioa.

Iturria: Nafarroako Gobernua, EIN.

Zerbitzuei dagokienez, 2016an, oro har, indar handiagoa izan dute aurreko ekitaldian baino, baina sektorearen heterogeneotasunak aldeak eragiten ditu aztertu diren azpisektoreetako adierazleen jokoaren. Izan ere, Nafarroan indartu egin da hoteletako ostatu-gauen igoera (% 7,9raino 2016an eta % 3,4 aurreko ekitaldian), bai eta ibilgailu arinen autobideko zirkulazioa ere (% 4,6, eta % 4 2015ean); aire-zirkulazioko bidaiariak eta ibilgailu astunen autobideko zirkulazioa, aldiz, jaitsi egin dira (% 4,6 eta % 2,1 2016an, eta % 7,2 eta % 6,3 aurreko ekitaldian, hurrenez hurren). Dena dela, sektoreko enpleguak, oro har, bere igoera indartu du % 2,9raino (% 2,7 aurreko ekitaldian).

31. taula Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2014	2015	2016
Hoteletako ostatu-gauak	8,0	3,4	7,9
Aire-zirkulazioko bidaiariak	-12,7	7,2	4,6
Ibilgailu arinen zirkulazioa autobideetan	0,8	4,0	4,6
Ibilgailu astunen zirkulazioa autobideetan	2,9	6,3	2,1
Enplegua	4,8	2,7	2,9

Iturria: AENA, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

3.2 ESKARIA

Barne-eskaria

Aurreko ekitaldian bezala, 2016an ere Nafarroako barne-eskariak hazkunde globalari egindako ekarpen positiboa % 2,7koa izan da; testuinguru berean, Nafarroako BPG-ak eutsi egin dio aurreko ekitaldian lortutako igoera-erritmoari (% 2,9, 2015ean nahiz 2016an.)

Barne-eskariaren osagaiei erreparatuz gero, kontsumo pribatuak ez ezik, kontsumo publikoak ere sendotu egin du bere igoera (% 3,3 eta % 3,1 2016an, eta % 3,2 eta % 2,6 2015ean, hurrenez hurren); inbertsioaren igoera, berriz, moteldu egin da (% 0,6 2016an eta % 1,3 aurreko ekitaldian).

Kontsumo- eta inbertsio-adierazleei dagokienez, matrikulazioek (ibilgailu industrialenak nahiz automobilenak izan) lasaitu egin dute igoera-erritmoa aurreko ekitaldiaren aldean (% 5,3 bi ibilgailu-motetan 2016an, eta % 19,7 eta % 20,9 2015ean, hurrenez hurren). Beste alde batetik, hitzarmenetan itundutako soldata-igoerak 0,58 ehuneko egin du gora (% 1,25 2016an eta % 67 aurreko ekitaldian).

32. taula Kontsumoaren eta inbertsioaren adierazleak

(Urte arteko aldaketa-tasa)

Kontzeptua	2014	2015	2016
Automobilen matrikulazioa	19,3	19,7	5,3 ⁽³⁾
KPI ⁽¹⁾	-1,2	-0,1	1,8
Soldata-igoera ⁽²⁾	0,43	0,67	1,25
Ibilgailu industrialen matrikulazioa	12,0	20,9	5,3 ⁽³⁾

(1): Aldaketa-tasa abendutik abendura.

(2): Hitzarmenetan itundua.

(3): 2016. urteko behin-behineko datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa.

Kanpo-merkataritza

Nafarroako 2016ko kanpo-merkataritza ez da aurreko ekitaldikoa bezain indartsua izan, esportazioak ez ezik, inportazioak ere jaitsi egin baitira (lehenak bigarrenak baino gehiago).

33. taula Kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan

<i>(M eurotan)</i>				
Kontzeptua	2014	2015	2016*	% Δ 16/15
ESPORTAZIOAK guztira	8.141,1	8.539,7	8.338,1	-2,4
INPORTAZIOAK guztira	4.163,4	4.578,2	4.526,4	-1,1
GUZTIZKO SALDOA	3.977,7	3.961,5	3.811,7	-3,8

():Behin-behineko datuak*

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Zehazki, Nafarroako 2016ko esportazioak 8.338,1 milioi eurora iritsi dira; hau da, -% 2,4 murriztu dira (2015ean % 4,9 igo ziren). Inportazioak, berriz, 4.526,4 milioi eurokoak izan dira 2016an, eta kopuru horrek -% 1,1eko jaitsiera adierazten du (aurreko ekitaldian % 10 igo ziren). Horrela, merkataritza-balantzak 3.811,7 milioi eurora murriztu du bere saldo positiboa (3.961,5 milioi euro 2015ean), eta esportazioek inportazioen gainean izandako estaldura-tasa % 184,2koa izan da (% 186,5koa aurreko ekitaldian).

34. taula Nafarroako inportazioak eta esportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera

(M eurotan)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2014	2015	2016*	%	% Δ 16/15	2014	2015	2016*	%	% Δ 16/15
GUZTIRA (Gutzizkoak)	8.141,1	8.539,7	8.338,1	100,0	-2,4	4.163,4	4.578,2	4.526,4	100,0	-1,1
HERRIALDEEN ARABERA (Gutzizkoak)										
– Frantzia	1.418,1	1.488,8	1.406,9	16,9	-5,5	539,6	545,7	542,0	12,0	-0,7
– Alemania	1.303,0	1.385,8	1.277,8	15,3	-7,8	1.228,5	1.426,9	1.353,3	29,9	-5,2
– Italia	494,6	645,7	632,5	7,6	-2,0	250,8	286,5	277,0	6,1	-3,3
– Erresuma Batua	618,3	634,7	602,2	7,2	-5,1	164,6	163,8	149,2	3,3	-8,9
– Portugal	362,8	367,6	321,7	3,9	-12,5	208,2	255,4	249,6	5,5	-2,3
– EB-28 guztira	5.743,6	6.154,8	5.806,9	69,6	-5,7	3.346,2	3.700,8	3.596,6	79,5	-2,8
– Gainerako Europa	543,2	499,7	568,7	6,8	13,8	122,9	136,7	149,1	3,3	9,1
– Ameriketako Estatu Batua	329,0	286,4	312,6	3,7	9,1	34,0	45,3	42,5	0,9	-6,2
– Beste helmuga batzuk	1.525,3	1.598,8	1.649,9	19,8	3,2	660,3	695,4	738,2	16,3	6,2
ATALEN ARABERA (Gutzizkoak)										
– Lehen sektorea	455,7	463,5	495,5	5,9	6,9	330,3	325,3	380,2	8,4	16,9
– Nekazaritzako elikagaien industria	512,9	538,8	549,6	6,6	2,0	203,5	217,8	236,9	5,2	8,8
– Industria kimikoa	90,1	96,7	120,7	1,4	24,8	187,9	269,8	238,3	5,3	-11,7
– Mat. plastikoak, kautxua	260,4	269,8	266,3	3,2	-1,3	281,1	287,6	280,1	6,2	-2,6
– Metal komunuen manuf.	691,2	732,8	651,8	7,8	-11,1	483,1	517,8	486,7	10,8	-6,0
– Makinak, mat. elektrikoa	1.965,8	2.145,1	1.947,8	23,4	-9,2	958,5	1.328,8	1.275,1	28,2	-4,0
– Garraio-materiala	3.640,6	3.743,4	3.773,4	45,3	0,8	1.185,0	1.022,1	1.005,0	22,2	-1,7
– Gainerakoak	524,4	549,6	533,0	6,4	-3,0	534,0	609,0	624,1	13,8	2,5

(*)Behin-behineko datuak

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Eremu geografikoei erreparatuz gero, 2016an Europak (EB-28) jarraitzen du izaten Nafarroako kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia, kanpo-salmenten % 69,6 eta kanpo-erosketen % 79,5 biltzen baititu. Esportazioei dagokienez, Frantziak du guztizkoaren % 16,9, eta Alemaniak hurbiletik jarraitzen dio (% 15,3); inportazioen kasuan, berriz, Alemaniak biltzen du guztizkoaren % 29,9, eta hurrengo herrialdea, alde handi samarrarekin, Frantzia da (gutzizkoaren % 12).

Muga-zergen partidei dagokienez, garraio-materialak dira esportazioen % 45,3 eta inportazioen % 22,2, eta horrek baldintzatu egiten du neurri handi batean Nafarroako kanpo-merkataritzaren bilakaera globala.

3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

Prezioek 2016an izan duten bilakaeran bi faktorek eragin dute batez ere: upel petrolioak ekitaldiaren lehenengo hiru hiruilekoan izandako beheranzko joerak eta urtearen azken

zatian izandako garestitze nabarmenak. Horrela, bada, Nafarroari dagokionez, KPlak urte arteko tasa negatiboak izan ditu otsailetik ekainera eta goranzko tasa positiboak abuzturik abendura.

Gauzak horrela, 2016an metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura) % 1,8raino handitu da Nafarroan (% -0,1 aurreko ekitaldian), nahiz eta ekitaldi osoari dagokion urteko batez besteko tasa ez den batera aldatu (% 0).

35. taula Prezioen bilakaera Nafarroan

(Urte arteko aldaketa-tasa)

NAFARROA	2014	2015	2016
KPI			
Orokorra ⁽¹⁾	-0,5	-0,6	0,0
Orokorra ⁽²⁾	-1,2	-0,1	1,8
– Elik. eta alkoho. gab. edariak.	0,4	1,7	0,8
– Edari alkoholduak, tabakoa	0,2	1,0	1,1
– Jantziak eta oinetakoak	0,3	0,5	0,9
– Etxebizitza	-1,9	-3,0	0,3
– Etxeko tresneria	-0,8	0,1	-0,3
– Medikuntza	0,7	1,2	0,0
– Garraioak	-5,7	-2,4	5,6
– Komunikazioak	-5,7	0,4	3,2
– Aisia eta Kultura	-1,5	-0,1	1,4
– Irakaskuntza	1,8	0,9	1,2
– Hotelak eta jatetxeak	0,6	0,7	1,9
– Beste batzuk	0,5	1,6	2,1
Nekazariak Jasotako Prezioen Indizea			
Orokorra	-2,6	-16,8	-3,1
– Nekazaritza-produktuak	-2,8	-24,8	-0,6
– Baso-produktuak	0,7	53,4	-6,2
– Animalia-produktuak	-2,5	-8,5	-6,0

(1): Urteko batez besteko aldaketa.

(2): Abendutik abendura

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.

2016ko abenduaren urte arteko analisiaren ikuspuntua berriz ere aintzat harturik eta ondasun-talde guztiei erreparaturik, Nafarroan inflaziorik handiena izan duen taldea garraioarena izan da (% 5,6), eta haren atzetik komunikazioena (% 3,2) eta beste batzuk izandaturakoa (% 2,1). Etxebizitzak eta medikuntzak hazkunderik txikienak izan dituzte beren prezioetan (% 0,3 eta aldaketarik ez, hurrenez hurren) eta etxeko tresneriaren prezioak % -0,3 egin du atzera.

Nafarroako nekazariak jasotako prezioei dagokionez, indize orokorraren beherakada-erritmoa moderatua izan da (% -3,1, 2016an, 2015eko % -16,8ren parean). Nekazaritza-produktuen (% -0,6 2016an, aurreko ekitaldiko % -24,8ren parean) eta animalia-produktuen (% -6 2016an, aurreko ekitaldiko % -8,5aren parean) erorikoari aurre egin

zaiolako gertatu da hori, baso-produktuek prezioa murriztu dute eta (% -6,2 2016an, 2015eko % 53,4ren parean).

Azkenik, lan-kostuei dagokienez, 2016an ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostua handitu egin da Nafarroan % 1,5ean eta langile eta hilabete bakoitzeko soldata-kostua jaitsi egin da % -0,4ean. Edonola ere, komeni da kontuan hartzea, ordu efektibo bakoitzeko soldata-kostuaren hazkundea dela-eta, Nafarroari dagokion erregistroa indartu egin dela: % 1,5 2016an eta % 0,5 aurreko ekitaldian.

36. taula Soldata-adierazleak

Kontzeptua	2014	2015	2016
Soldata-kostuak (urte arteko aldak. tasa)			
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	0,5	0,5	1,5
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	1,9	-0,1	-0,4
Hitzarmenak			
– Hitzarmen kopurua	183	207	121
– Eraginpeko langileak	118.444	100.425	95.688
– Adostutako soldata-igoera	0,43	0,67	1,25

Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

Lan-merkatua Nafarroan

Ekonomiaren dinamismo nabarmenak 2016an, bai Nafarroan bai estatu osoan, enpleguaren hedapena eta langabeen beherakada ekarri ditu bi eremu geografiko horietan.

2016an, Nafarroako biztanleria aktiboa 305 mila pertsonakoa izan zen; bolumen horrek esan nahi du urte arteko atzerakada -% 0,4koa izan dela, 267,5 mila pertsona okupatuta egonik. Maila horrek adierazten du urte arteko aurrerakada % 1,2koa izan dela eta 38,1 mila langabe egon direla; alegia, -% 10,1eko beherakada egon da. Estatu osoak, bestalde, biztanleria aktiboaren -% 0,4ko atzerakada erregistratu du, baita enpleguaren % 2,7ko aurrerakada eta biztanleria langabearen -% 11,4ko beherakada ere.

Nafarroako jarduera-tasa uzkurto egin da (2016an % 58,5 izan zen, eta 2015ean, oster, % 58,8); zehazki, gizonen jarduera-tasak behera egin du (2016an % 63,4 izan zen; aurreko ekitaldian, aldiz, % 64,1); hazi egin da, aldiz, emakumeen jarduera-tasa (2016an % 53,8 izan zen, eta aurreko ekitaldian % 53,6). Horrek esan nahi du bi sexuen arteko

diferentzialak pixka bat behera egin duela (ehuneko 9,6 puntu 2016an, eta ehuneko 10,5 puntu 2015ean). Estatu osoan, jarduera-tasa % 59,5ra jaitsi da 2015an; 2016an, berriz, % 59,2rainoko beherakada izan du.

Arreta langabezian soilik jartzen bada, Nafarroan eta estatuan beherakadak izan dira 2016an (-% 10,1 eta -% 11,4, hurrenez hurren), gizon langabeen eta emakume langabeen ehunekoek behera egin baitute (gizon langabeen ehunekoa -% 14,8 izan da Nafarroan eta -% 13,5 estatuan; emakume langabeen ehunekoa -% 5,6 izan da Nafarroan eta -% 9,2 estatuan) eta, beraz, langabezia-tasaren beherakada orokorra izan da. Hala, gizonen langabezia-tasa 2015ean % 12,7 izatetik 2016an % 10,9 izatera aldatu zen Nafarroan (estatuan, berriz, 2015ean % 20,8 izan zen, eta 2016an % 18,1), eta emakumeena, aldiz, 2015ean % 15,2 izatetik 2016an % 14,3 izatera (estatuan, berriz, 2015ean % 23,5 izan zen, eta 2016an % 21,4). 2016ko langabezia-tasa orokorra, bestalde, % 12,5 izan zen Nafarroan (2015ean, % 13,8), eta % 19,6 estatu osoan (% 22,1 aurreko ekitaldian). Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da estatuko erregistroak Europako bigarren altuena izaten jarraitzen duela, Greziari dagokionaren ondoren.

37. taula Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia

(urteko batez bestekoak, milakotan)

Eremua		2015			2016		
		Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
Nafarroa	Poten. aktiboak	257,6	264,0	521,5	257,5	264,6	522,1
	Aktiboak	165,0	141,6	306,7	163,3	142,4	305,6
	Landunak	144,1	120,2	264,3	145,4	122,1	267,5
	Langabeak	20,9	21,5	42,4	17,8	20,3	38,1
	Jarduera-tasa	64,1	53,6	58,8	63,4	53,8	58,5
	Langabezia-tasa	12,7	15,2	13,8	10,9	14,3	12,5
	Erregistratutako langabezia*	20,1	23,1	43,1	18,0	22,0	40,0
Espainia	Poten. aktiboak	18.753,2	19.744,3	38.497,6	18.754,0	19.777,5	38.531,5
	Aktiboak	12.319,6	10.602,4	22.922,0	12.213,8	10.608,9	22.822,7
	Landunak	9.760,3	8.105,7	17.866,0	10.000,8	8.340,8	18.341,5
	Langabeak	2.559,3	2.496,7	5.056,0	2.213,0	2.268,2	4.481,2
	Jarduera-tasa	65,7	53,7	59,5	65,1	53,6	59,2
	Langabezia-tasa	20,8	23,5	22,1	18,1	21,4	19,6
	Erregistratutako langabezia*	1.875,2	2.218,3	4.093,5	1.642,3	2.060,7	3.703,0

(*):Abendua.

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria 2011. 2017ko maiatzeko datuak) eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Behin honaino iritsita, aurten ere gogora ekartzekoa da langabezia Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako langabeziaren ikuspegitik ere azter daitekeela, eta kontuan hartzekoa da kasu jakin honetan aurkeztutako informazioa abenduari dagokiola, eta ez ekitaldi osoari. Ildo horretan, iturri horren arabera, 2016ko abenduan

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak Nafarroan dauzkan bulegoetan erregistratutako langabezia 40 milako pertsona izan da; horrek esan nahi du urte arteko beherakada - % 7,2koa izan dela. Estatu osoaren kasuan, 2016ko abenduan erregistratutako langabezia 3.703 mila pertsonakoa izan da; alegia, urte arteko beherakada -% 9,5koa izan da.

Biztanleria aktiboari buruzko inkesta berriro kontuan hartuta (urteko batez besteko datuak), langabezia-tasaren analisiak, adin-tarteen arabera, agerian uzten du taldeen artean desberdintasun handiak daudela; tasarik handiena gazteenei dagokie. Horrela, 2016an, 16 eta 19 urte bitarteko pertsonen % 36,7ko langabezia-tasa izan dute Nafarroan; 20 eta 24 urte bitartekoek, berriz, % 33,3koa; 25 eta 54 urte bitartekoek, bestalde, % 11,4koa; azkenik, 55 urte eta hortik gorakoek % 9,2koa izan dute.

38. taula Langabezia-tasa, adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak

(%)

Eremua	Urtea	16-19	20-24	25-54	55 eta gehiago	Guztizkoa
Nafarroa	2014	75,0	39,1	14,5	9,6	15,7
	2015	51,9	35,2	13,2	8,2	13,8
	2016	36,7	33,3	11,4	9,2	12,5
Espainia	2014	68,6	50,3	22,8	19,3	24,4
	2015	67,2	44,6	20,6	17,9	22,1
	2016	60,0	41,4	18,2	16,4	19,6

Iturria: EIN (BAI, 2011ko biztanleria-oinarria. 2017ko maiatzeko datuak).

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, Nafarroako langabezia-tasak beheranzko bilakaera izan du adin-tarte guztietan, 55 urte eta hortik gorakoen adin-tartean izan ezik: gazteenen kasuan, langabezia-tasa 2015ean % 51,9 izatetik 2016an % 36,7 izatera aldatu zen; 20 eta 24 urte bitartekoek kasuan, aldiz, % 35,2tik % 33,3ra; 25 eta 54 urte bitartekoek kasuan, azkenik, % 13,2tik % 11,4ra. Alderantziz, adin handienekoen kasuan, 2015ean % 8,2 izatetik 2016an % 9,2 izatera aldatu zen.

Halaber, estatuan ere langabezia-tasarik altuena gazteenen artean erregistratu da 2016an (% 60); izan ere, adin-tarte guztietan jaitsi da langabezia-tasa, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Enpleguak Nafarroan izan duen bilakaera sektorialari dagokionez, eraikuntzan baino ez da murriztu 2016an okupazio-maila (-% 27,2), eta handitu egin da, aldiz, industria-sektorean (% 4,3), lehen sektorean (% 2,9) eta zerbitzuetan (% 1,1). Estatu osoan, eraikuntza-sektoreak enplegu-bolumen konstanteari eutsi dio 2016an (urte arteko aldakuntza nulua); gainerako sektoreetan berriz, handitu egin da, oro har: lehen sektorean % 5,1; zerbitzuetan % 2,9; industrian % 1,6.

39. taula Enpleguaren bilakaera, ekonomia-sektoreen arabera. Urteko batezbestekoak

(m pertsona)

Eremua	Urtea	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Nafarroa	2014	12,6	66,9	14,0	169,0
	2015	9,5	64,4	16,9	173,5
	2016	9,6	67,2	12,3	178,5
Espainia	2014	735,8	2.379,9	993,5	13.234,9
	2015	736,8	2.482,3	1.073,7	13.573,3
	2016	774,5	2.522,2	1.073,8	13.970,9

Iturria: EIN (BAI biztanleei buruzko oinarria 2011. 2017ko maiatzeko datuak). (EJSN-09).

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan erregistratutako kontratuak kontuan hartuta, 2016an horiek hazi egin dira aintzat hartu diren bi eremu geografikoetan. Horrela, ekitaldi horretan Nafarroan erregistratutako 357.723 kontratuak urte arteko % 5,5eko gorakada ekarri dute, eta estatuan erregistratutako 19.978.954 kontratuak % 7,6ko hedapena erakusten dute.

Kontratu-motagatik, Nafarroan kontratazio mugagabea aldi baterako kontratazioa baino intentsitate handiagoz hazi zen (% 13,8 eta % 5,1, hurrenez hurren); estatuan ere fenomeno bera gertatu zen (kontratu mugagabeak % 13,5 areagotu ziren, eta aldi baterako kontratuak, berriz, % 7).

Dinamika honen arabera, kontratu mugagabeek eremuaren guttizkoan duten ehunekoak behera egin du Nafarroan (2015ean % 4,9 eta 2016an % 5,3); aldi baterako kontratuei dagokienak, ordea, gora egin du (2015ean % 95,1 eta 2016an % 94,7).

40. taula EEZPren bulegoetan erregistratutako kontratuak

Eremua	Urtea	Mugagabeak			Aldi baterakoak				KONTRATUAK, GUZTIRA
		Hasierako mugagabea	Konbertsioak	Gutzizkoa	Obra eta Zerbitzua	Behin-behinekoak	Gainerakoak	Gutzizkoa	
Nafarroa	2014	10.581	5.078	15.659	68.085	124.113	86.122	278.320	293.979
	2015	10.777	5.962	16.739	76.452	144.796	101.011	322.259	338.998
	2016	11.764	7.277	19.041	80.576	157.230	100.876	338.682	357.723
Espainia	2014	935.822	414.509	1.350.331	6.680.679	6.883.223	1.812.856	15.376.758	16.727.089
	2015	1.030.460	478.705	1.509.165	7.334.750	7.722.400	2.009.965	17.067.115	18.576.280
	2016	1.131.236	582.026	1.713.262	7.715.112	8.641.593	1.908.987	18.265.692	19.978.954

Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Gizarte- eta lan-giroari gagozkiola, 2016an hitzarmen gutxiago negoziatu dira aurreko ekitaldian baino, aintzat hartutako bi eremuetan (Nafarroa eta estatua), eta pertsona gutxiago hartu dituzte hitzarmen horiek eraginpean. Zehazki, Nafarroan hitzarmen-

kopurua -% 41,5 jaitsi da, eta haien eraginpeko langileen kopurua, berriz, -% 4,7; estatu osoan, berriz, datu horiek -% 39,4 eta -% 18,9 dira, hurrenez hurren.

41. taula Hitzarmen kolektiboak eta grebak

Eremua	Urtea	Hitzarmen kolektiboak			Grebak			
		Kop.	Eraginpean dauden lang.	Hitzartutako soldata-gorakada	Kop.	Langile parte-hartz.	Lang. greba bakoitzeko	Jardun gabeko lanaldiak
Nafarroa	2014	183	118.444	0,43	52	2.977	57	12.269
	2015	207	100.425	0,67	38	1.930	51	10.721
	2016	121	95.688	1,25	47	4.264	91	18.881
Espainia	2014	5.185	10.304.700	0,50	777	217.047	279	620.568
	2015	5.642	10.227.278	0,71	615	170.528	277	497.483
	2016	3.419	8.293.615	1,09	641	183.120	286	388.912

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa. 2017ko maiatzeko datuak.

Lan-gatazkei dagokenez, estatu osoan jardun gabeko lanaldiak izan ezik (-% 21,8ko beherakada izan dute), 2016an hazkunde orokorra izan dute grebetako parte-hartzaileen kopuruak eta jardun gabeko lanaldien kopuruak aztertutako bi eremu geografikoetan. Horrela, Nafarroan greba-kopurua, grebetako parte-hartzaileen kopurua eta jardun gabeko lanaldien kopurua hazi egin dira (% 23,7, % 120,9 eta % 76,1, hurrenez hurren). Estatu osoan, datu horiek hauek izan dira, hurrenez hurren: % 4,2, % 7,4 eta -% 21,8.

Biztanleria

2015ean, Nafarroako urte arteko biztanleria-aldakuntza nulua izan da (% 0), bertako biztanleria ia ez baita ezer ere aldatu aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zehazki, Nafarroako biztanleria 640.476 pertsonakoa izan da ekitaldi horretan, eta estatu osoan, berriz, 46.624.382 pertsonakoa. Horrek esan nahi du urte arteko -% 0,3ko atzerakada gertatu dela.

Bestalde, 2015ean 6.007 jaiotza gertatu dira Nafarroan; hau da, aurreko ekitaldiko zifra baino -% 2,8 txikiagoa izan da; heriotzei dagokienez, berriz, 5.680 gertatu dira (aurreko ekitaldiko zifra baino % 3,1 handiagoa). Horrela, saldo begetatiboa positiboa izan da, 327 pertsonakoa; saldo hori 2014koa baino -% 51,3 txikiagoa izan da (2014ko datua: 672 pertsona).

Estatu osoan, jaiotza-kopuruak (420.290) beherakada erlatibo txikiagoa izan du (-% 1,7), eta heriotza-kopuruak (422.568), berriz, hazkunde erlatibo handiagoa (% 6,8); hala,

estatuko saldo begetatiboa negatiboa izan da, -2.278 pertsonakoa (aurreko ekitaldian, hazkunde begetatiboa 31.765 pertsonakoa izan zen).

42. taula Biztanleriaren mugimendu naturala

Eremua	Urtea	Biztanleria	Ezkontzak	Jaiotzak	Jaiotza-tasa (‰)	Heriotzak	Heriotza-tasa (‰)	Hazkunde begetatiboa
Nafarroa	2011	642.051	2.218	6.747	10,5	5.158	8,0	1.589
	2012	644.566	2.232	6.731	10,4	5.376	8,3	1.355
	2013	644.477	2.097	6.075	9,4	5.323	8,3	752
	2014	640.790	2.301	6.183	9,6	5.511	8,6	672
	2015	640.476	2.606	6.007	9,4	5.680	8,9	327
Espainia	2011	47.190.493	159.798	471.999	10,0	387.911	8,2	84.088
	2012	47.265.321	165.101	454.648	9,6	402.950	8,5	51.698
	2013	47.129.783	153.375	425.715	9,0	390.419	8,3	35.296
	2014	46.771.341	159.279	427.595	9,1	395.830	8,5	31.765
	2015	46.624.382	165.172	420.290	9,0	422.568	9,1	-2.278

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala (EIN). 2016ko abenduko datuak.

Ezkontzei dagokienez, 2015ean 2.606 ezkontza gertatu ziren Nafarroan (urte arteko % 13,3ko hazkuntza); eta estatu osoan ere ezkontza-kopuruak gora egin zuen, baina neurri txikiagoan, % 3,7an (2015ean, 165.172; 2014an, 159.279).

Azkenik, adierazi beharrekoa da 2015ean Nafarroak migrazio-saldo positiboa izan zuela (1.258 pertsona), immigrazio-kopuru handiagoa egon delako emigrazio-kopurua baino. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da adin-tarte guztiek migrazio-saldo positiboa izan dutela eta erregistro handiena 16 urtetik 64 urtera bitarteko pertsonen tartean egon dela (840 erregistro); tarte horren ondoren, 16 urtetik beherakoen artean egon dira erregistro gehien (357), erregistro-kopuru txikiena 64 urtetik gorakoen tartean izan du (61 erregistro).

43. taula Nafarroako migrazio-saldoak, adinen arabera

Urtea	Adin-tarteak			Guztizkoa
	-16	16-64	+ 64	
2008	160	1.777	82	2.019
2009	176	1.376	122	1.674
2010	289	1.300	136	1.725
2011	172	768	-18	922
2012	107	706	-25	788
2013	15	-243	5	-223
2014	311	356	-5	662
2015	357	840	61	1.258


Iturria: Migrazio-mugimenduak (EIN). 2016ko abenduko datuak.

3.5 FINANTZA-SEKTOREA

Egoera orokorra

2016an, munduko hazkundera %3,1 izan zen, 2015eko datua baino hamarren bat hobea, eta ekonomia sortu berrien hazkunderaren -%4 inguru- eta aurreratuen hazkunderaren -%2 inguru- emaitza da, eta pixka bat txikiagoa da AEBn (%1,6) eta Eurogunean (%1,7). NDFk munduko hazkunderako iragarritako aurreikuspenak %3,5 eta %3,8 dira, 2017rako eta 2018rako, hurrenez hurren. Euroguneako pixka bat okerragoak dira (%1,7 eta %1,6), neurri batean Brexitaren ebazpenaren ziurgabetasunaren pisuagatik eta bestea aldaketa politiko batzuegatik, bai eta ekonomiaren susperraldia eta enplegua sustatzeagatik krisiak eta bankuen batasunak eragin handiena izan duten herrialdeetan ere. Itxaropen horiek hobeak dira AEBrentzat, dolarraren sendotasuna eta politika fiskal hedakorra euskarritzat hartuta, beste zenbait alderdiren artean.

4. grafikoa Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*




(*):Eguneko batez besteko balioen batezbestekoa.
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Testuinguru horretan, Espainiako ekonomiak 2016rako aurreikusitako hazkunde ekonomikoaren (%3,2) eta enplegua berreskuratzearen helburuak bete ditu. Dena den, hobekuntza horren zati baten oinarria leheneratu daitezkeen egoera iragankorrak direla aipatzen da; esate baterako, interes-tasen eta petrolioaren prezioaren maila baxuak. Nolanahi ere, eragina onuragarria izan da eta horri esker etxeetako kontsumoa hobetu berreskuratu da, enpresek erabaki handiagoa izan dute inbertsioetan, eta, azken finean, familien eta enpresen palanka-efektu finantzarioak txikitzen jarraitu du. Nazioarteko

eskariari eutsi izana –oso garrantzitsua zenbait sektoretan; adibidez, turismoan– eta barne-eskaria berreskuratzea daude enpresa-jardueraren errektibazioaren oinarrian. Beraz, enpresa-finantziazioaren beharretan gorakada bat izan zen, neurri handi batean bere baliabideetan oinarritu bada ere, 2016an kreditu berrien eskaria eta eskuratzea handitu egin da.

Horren haritik, 2016. urtea lasai samarra izan da finantza-merkatuetan, eta ez da interes bereziko albisterik izan. Oro har, kreditua eskuratzeko baldintzen hobekuntza jarraitua dakar horrek, prezioen funtsezko gorakadarik egon ez den agertoki batean. Hain zuzen ere, diru-agintaritzek ez zuten aldaketarik egin diruaren prezioan, baina, hala ere, berreskurapenak gora egitea espero zela aipatu zen arren, ez da oraindik gauzatu. Finantza-bitartekotzako erreferentziazko bi aldagaien eboluzioak Espainian sektore pribatuaren palanka-efektu finantzarioak txikitzen jarraitzen duela erakusten du, kreditu-saldoak behera eginaz (-%4,1), pixka bat gutxiago jaitsi delarik Nafarroan (-%2,9), baina, hala ere, bi kasuetan 2005eko antzeko zifrak izanik; bestalde, amortizazio-eragiketarak kreditu berriaren aurrean berresten ditu. Dena den, adierazle horiek etxeetako inbertsioaren berreskurapen motela erakusten dute, etxebizitza erosteko izenpetutako hipoteken kopurua kasu, eta 2010. urteari dagokion datuaren erdiaren inguruan kokatzen da oraindik. 2013ko balio minimoa gainditu ondoren, adierazle hori urte arteko %14,7an kokatu da Espainian, eta %5ean Nafarroan, 2016an.

5. grafikoa Ibx-35aren bilakaera. Hileko itxiera-balioaren gaineko urtetik urterako aldakuntza-tasa



Iturria: Espainiako Bankua eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala.

Bestalde, agenteen aurrezki-posizioak ere honako hauen mende daude: agente bakoitzak bere gain hartzen dituen arrisku-erabakiak, kaudimena eta jarduera berreskuratzeko bermea, eta aukera desberdinen ordainketa. Hala, sektore pribatuaren gordailuetako saldoak, 2016. urtearen amaieran, urte arteko aldakuntza-tasa positiboa izan zuen Espainian (%0,4) eta Nafarroan (%3). Espainiaren kasuan, zifra garbia 2010ekoaren inguruan dago, 2013ra arte galdutakoa berreskuratuta, eta hobetzeko profila du azken hiru urteotan. Nafarroan, zifra 2010eko mailatik %12,1 beherago dago, eta 2016an aurreko urteetako beheranzko joera hautsi da.

Hala ere, banku-gordailuetako aurrezki-posizio horiek 2 bilioi euroko atariaren azpitik jarraitzen dute Espainian eta 17.750 milioi eurotan Nafarroaren kasuan, eta aurreko urteetan lortutako balio maximoak izan ziren. Ordainsari baxuen testuinguru horretan, aurrezki-posizioak¹ ageriko gordailuetara bideratzen dira gehiago (%40,0) aurrezki-gordailuetara (%25,4) eta eperako gordailuetarako (%34,7) baino.

Bestalde, aurrezki-posizioen hobekuntza hori Inbertsio Kolektiboko Erakundeen bilakaerak osatzen du, aurten haien ondarean handitu baita (%7,1) eta erakundeen kopuruak beherantz doitzen jarraitzen du (-%0,7); gainera, errenta aldakorrean oinarritutako instituzioen ondare-portaera (%0,7) errenta finkokoan oinarritutakoa (%0,2) baino hobea da. Azkenik, Espainiako Burtsak bigarren mailako merkatu horietako kontratazioaren murrizketa nabarmen batekin (-%32) itxi zuen urtea eta IBEX-35 indizeak bilakaera aldakorra izan zuen, 9.000 puntutik beherakoa ia ekitalde osoan; hala ere, berreskurapen-profil bat izan du azken hilabeteen eta 9.352 puntura iritsi da, eta hartara, urte arteko aldakuntza -%2 izan da.

¹ Espainirako banatzailea, sektore pribatua. 2014ra arte, figura nagusia eperako gordailua zen, aurrezki-posizioen erdia baino gehiago era horretakoa baitzen. Bistarako gordailuak, aldiz guztikoaren laurden bat baino gutxiago ziren ordura arte.

Kredituaren bilakaera Nafarroan

Esparru orokorra

Espainiako kreditu-erakundearen aktiboen bilakaerak beheranzko joera izan du 2013az geroztik; urte hartan hasi zen beheranzko joera, orduan izan zuen urte arteko jaitsiera handiena (-%11,6) eta hurrengo urteetan erritmo neurtuagoan jarraitu du, 2015ean (-%5,2) eta 2016an (-%4,1) bereziki.

Kredituak dira aktiboaren osagai nagusia (%64,9) eta 2016an, ondoz ondoko bigarren ekitaldian, kuota (0,9 puntu gora) handitu du, 2008tik 2014ra bitartean %78,2tik %62ra jaitsi zena. Ehunekotan adierazitako berreskurapen hori ez da termino nominaletan gertatu, eta beraz, kreditu-saldo bizia, 1,719 bilioi eurokoa, %2,7ko atzerakada izan du 2015ekin alderatuta. Azken finean, kreditu-masak doitzen jarraitzen du eta handia izan da (%28ko metatua 2010etik) eta enpresen eta familien desapalankamendua kontratazio berriei gailentzen zaio, kreditu-erakundearen balantzean islatuz.

Erakunde horien aktiboa beste hiru kategoria nagusirekin osatzen da: akzioek eta partizipazioek (%9,2), beste balioek (%13,8) eta sektorizatu gabeko aktiboek (%12). Hiru aktibo motek irabazi dituzte kuotak eta kopuruak krisian zehar, eta 2016an, bigarren urtez, behera egin dute kopuruari dagokionez (-%1, -%12 eta -%3,7, hurrenez hurren). Akzioek oso gutxi egin dute behera eta beste balioek %15,6 egin dute behera 2015etik, krisia hasi zen urtetik atal horrek kuotaren ehuneko handiena galdu duen urtea izan da; aitzitik, kredituen eta akzioen kuotek gora egin dute pixka bat.

44. taula Kreditu-erakundearen aktiboaren osaera

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	3.400.435	3.422.612	3.025.756	2.912.796	2.760.239	2.646.981
Kredituak	2.357.167	2.229.670	1.926.174	1.805.239	1.767.591	1.719.085
Akzioak eta partizipazioak	250.831	257.501	280.357	261.536	246.261	243.811
Baloreak, akz. eta partiz. aparte utzita.	405.582	508.991	492.801	492.346	415.508	365.826
Sektorizatu gabeko aktiboak	386.854	426.449	326.424	353.676	330.879	318.529

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Etxeetara eta enpresetara ("beste sektore egoiliar batzuk") bideratutako kreditua 1,276 bilioi eurokoa izan da, eta urte arteko aldakuntza-tasa negatiboa izan du (-%3,8), aurreko ekitaldietako joera berekoa. Hala ere, epigrafe garrantzitsuena da, kreditu-saldo biziaren guttizkoaren hiru laurden da (%74,2) eta beheranzko profila erakusten duen ekarpen bat

da; eta, hain zuzen ere, 2016an azken hamarkadako baliorik txikiena erregistratu du, 2012. urtea salbu.

Bestalde, 2016an, zordun ez-egoiliarren segmentuaren pisuak handitzen jarraitzen du eta %11,1 adierazten du. Aitzitik, kreditu-sistemaren beraren kredituak %9,5ean geratu dira eta kopurutan aurreko urtekoa baino txikiagoa izan da, eta bilakaera hori Administrazio Publikoari esleitutako kredituaren bilakaerarekin bat dator.

Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituak kreditu-saldo osoaren joera markatzen du: 2008az geroztik metatutako beherakada %31,8koa da jadanik sektore horretan, eta erritmoa jarraitua da 2011z geroztik. Dena dela, kreditu-saldo biziaren erorketak segmentu guztietan gertatu dira (-%0,7 intrasistemetan, -%1,7 Administrazio Publikoetan eta -%3,8 beste egoiliar batzuetan) eta ez ditu erabat konpentsatu atzerriko segmentuan erregistratutako %2,6ko hazkundeak. Hala ere, 2016an, lehen aldiz krisia hasi zenetik, aldakuntza horiek guztiak bi digitutik behera daude.

Azken finean, 2016an aurreko ekitaldietako desapalankamendu-joerari eutsi zaio, erritmo motelagoan bada ere, jarduera ekonomikoaren erreaktibazioarekin eta agenteen finantziario-beharrekin bat; bai eta zenbait segmenturen pixkanakako berreskurapenarekin (automobilgintza, etxebizitza), eta erakundeen eskaintza-egoera hobe batetik ere.

45. taula Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	2.357.167	2.228.670	1.926.174	1.805.615	1.767.591	1.719.085
Kreditu-sistema	250.867	278.914	210.536	155.097	164.206	163.053
AP	89.687	114.275	87.140	101.313	89.972	88.471
Beste sektore egoiliar batzuk	1.782.554	1.604.934	1.448.244	1.380.101	1.327.062	1.276.140
Beste ez-egoiliar batzuk	234.059	231.546	180.254	169.104	186.351	191.151

(M euro)

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren xedea

Kreditu-saldoak modalitateen arabera (komertziala, bermatua eta beste batzuk) aztertuz, azken ekitaldietako joeren ia erabateko jarraitutasuna hautematen da. Benetako bermea duten kredituen zenbatekoak hamarkadako baxuenak izan dira, eta metatutako atzerapena ia %40koa izan da 2009ko une gorenaz geroztik (1,11tik 0,68 bilioi eurora). Kategoria nagusia diren arren (%53,2), 2016ko ehuneko txikiena da krisia hasi aurretik. Aurkakoa gertatu da eperako kredituekin (%30,2); izan ere, periodo

horretako punturik altuenean daude, baina, hala ere, denbora horretan aldaketa handirik izan ez duen magnitude-ordena baten barruan. Kreditu komertzialak ere 2008az geroztiko kuotarik altuena lortu du (%3,5), jarduera ekonomikoaren hobekuntzarekin batera; beste mailegu batzuen segmentuak 2011z geroztiko pisurik txikiena erakusten du (%13,1), baina krisiaren hasierako bikoitza da hala ere.

Kreditu komertziala handitu egin da ondoz ondoko hirugarren urtez; kasu honetan, %5,6 handitu da, aurreko urteko igoeraren heren bat. Beste kategoriek behera egin dute: benetako bermeak dutenak -%4,6, eperako beste zordun batzuenak -%0,2 (hirugarren urtez, zenbatekoaren aldaketa oso txikiekin) eta beste mailegu batzuenak -%10,5 (hirugarren urtez zenbatekoa %10 baino gehiagoko beherakadarekin). Hau da, kasu guztietan, azken emaitzan amortizazio-eragiketekin lotutako bolumenaren balio erlatibo handienak eragin handiagoa du emakida berriek baino, eta desapalankamendu globala eta segmentukakoa erakusten ditu.

46. taula Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk


Kontzeptua	<i>(M euro)</i>					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	1.782.554	1.604.934	1.448.244	1.380.101	1.327.062	1.276.140
Kreditu komertziala	49.937	40.523	34.570	36.606	42.640	45.048
Benetako bermea duten zordunak	1.032.823	900.991	790.398	741.237	711.483	678.442
Eperako beste zordun batzuk	490.485	434.521	368.969	376.262	386.474	385.753
Beste mailegu batzuk	209.309	228.899	254.307	225.996	186.465	166.885

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Eperako beste mailegu batzuk kategoria, kontsumorako kreditua bere baitan duena, 2011-2013 artean %27,4 txikitu zen metatuan, eta ondoren, %4,5 hazi zen 2014-2015 aldian; 2016an %0,2 egin zuen atzera. Horrek etxeetako ekonomiak susperraldian daudela erakusten du, bai eta finantziarioa behar duten kontsumo-eragiketak ere, baina erritmoa motela da.

2007tik 2013ra bitartean "beste mailegu batzuk" multzoa %150 inguruan hazi zen. 2014tik 2016ra bitartean, beheranzko fase bat erregistratu zuen, %34,4 metatuta, eta zehazki 2016an %10,6ko atzerakada erregistratu zen. Kreditu komertzialak, berriz, %62 galdu zuen zenbatekoan 2007tik 2013ra bitartean, eta 2014tik aurrera %30,3ko susperraldia metatu du, hiru urtez gora egin ondoren; nabarmentzekoa da 2015ekoa (%16,5). 2016an %5,6 handitu zen.

6. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk (OSR)



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Ondoren, kreditu-erakundeek emandako kreditu-masara murrizten da analisia, kreditutan espezializatutako establezimenduek ematen dituztenen zati txikia kontatu gabe. Gordailu horietan espezializatutako erakundeen 1,22 bilioi euro dituzte kreditutan emanda Beste sektore egoiliar batzuk (BSE) atalean.

Kreditu-saldo biziari dagozkion 1,22 bilioi euroetatik, produkzio-jarduerari dagokien zatia %47,6 da, hamarkadako txikiena, eta etxebizitzako erosteko eta birgaitzekoa %42,9, aldi horretako handiena. Kontsumo iraunkorreko ondasunei dagozkienak (%2) eta beste kreditu batzuk atalekoa (%7,5) ere kuotarik altuenetan daude 2009az geroztik.

47. taula Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	(M euro)					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	1.715.037	1.537.748	1.392.384	1.328.189	1.274.656	1.222.541
Produkzio-jarduerak	929.832	788.412	690.631	647.426	619.953	582.060
Etxebizitzak erosi eta birgaitzea	643.556	620.580	592.278	568.212	541.032	524.780
Kontsumo iraunkorreko ondasunak	29.798	26.038	19.869	21.615	20.576	24.464
Beste kreditu batzuk	111.851	102.718	89.606	90.936	93.095	91.236


Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Emaitza horretan, kontuan hartu behar da zenbateko nominalak txikitu egin direla kasu guztietan, eta beraz, aipatutako egokitze portzentualak beherakada handiagoa islatzen du segmentu batzuen saldoetan beste batzuekin alderatuta. Etxeetako zorraren batez besteko denbora-ibiltartea produkzio-jarduerena baino handiagoa dela kontuan hartu

beharrekoa da, eta horrek azken horien desapalankamendu azkarragoa erraztuko luke, eta horregatik pisua multzoan galdu du.

Hala, 2016an, kredituen guztizkoan %4,1eko beherakada izan arren, produziokoek %6,1 egin zuten behera, etxebizitzetarako buruzkoak %3, beste kreditu batzuk kategoriakoak %2, eta kontsumo iraunkorreko ondasunak nabarmendu ziren %18,9ko urte arteko gorakadarekin, 2012tik galdutakoaren zati handi bat berreskuratuz. Produzizio-jarduerarako kredituek eta etxebizitza-kredituek 6 urteko beherakadak metatzen zituzten, aldi horretan %40,3 eta %19,8 galduta, hurrenez hurren.

7. grafikoa Kreditu-erakundeak. Kreditua helburuaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk




Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren bilakaera Nafarroan

2016an, aurreko urtean bezala, Nafarroan gordailu-erakundeek partikularrei eta enpresei (BSE) emandako kreditu-saldo biziak beherantz jarraitzen du (-%2,9), Estatuan baino neurri txikiagoan bada ere (-%4,1). Lerro-grafikoan ikus daiteke 2013-2014 aldian hasitako inflexioak (urte arteko aldakuntzen mailan) aurreko urteko bidetik jarraitzen duela.

8. grafikoa Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuentzako kredituaren bilakaera



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Administrazio Publikoei emandako kredituari dagokionez, gorakada nabarmena gertatu da Nafarroan (%14,7), nahiz eta aurreko urtean baino askoz ere leunagoa den (%40,1). Alderaketa gisa, EAEn ere gorakada (%6,6) aurreko urtekoa baino (%13,6) txikiagoa izan dela nabarmendu behar da, eta Estatuan, berriz, beherakada -%2,2koa izan dela, aurreko urtekoa (-%9,5) baino neurtuagoa.

48. taula Gordailu-erakundeak. Kreditua agenteen eta eremuaren arabera

(M euro)

Eremua	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
EAE	2014	6.008	63.168	69.176
	2015	6.637	63.400	70.037
	2016	6.997	64.567	71.564
Nafarroa	2014	719	16.678	17.397
	2015	1.007	15.631	16.638
	2016	1.155	15.172	16.327
Hego Euskal Herria	2014	6.727	79.846	86.573
	2015	7.644	79.031	86.675
	2016	8.152	79.739	87.891
Espainia	2014	94.697	1.328.193	1.422.887
	2015	85.708	1.274.523	1.360.361
	2016	83.866	1.222.530	1.306.396

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Beste adierazle batzuk: hipotekak eratzea eta ibilgailuak matrikulatzea

Aurrez aipatutako ondasunen baitan, partikularrei emandako kredituetan arreta berezia merezi dutenak etxebizitza eta ibilgailua dira. Erosketa horiek finantzatzeko, etxeetan hartzen diren erabakiak kredituaren bilakaerarekin eta egoera ekonomiko orokorarekin

lerrokatzen dira. Ondoren, etxebizitza erosteko hipoteka berriei¹ eta ibilgailuak matrikulatzekoei buruzko Estatuko, EAEko eta Nafarroako zifrak azalduko dira.

2015ean EAEn eta Espainian izandako hipoteken kopuruaren eta guztizko zenbatekoaren gorakada sendoaren ondoren, %20tik %30era bitartean kasu guztietan, 2016an joerak berdin jarraitu zuen baina gorakada leunagoekin, %10 eta %20koa, hurrenez hurren. Nafarroan goranzko inflexio-puntua pixka bat lehenago hasi zen (2013), eta, hala ere, goranzko bide neurritzkoagoa izan du. 2016an, %5 handitu zen hipoteken kopurua eta %3,6 guztizko zenbatekoa.

Estatuan eta EAEn osatutako hipoteken batez besteko zenbatekoak gorantz jarraitzen du, baina iaz baino motelago; Nafarroan, berriz, ratio horretan atzera egin da (-%1,3) bosgarren urtez jarraian, eta bosturteko horretan %16ko erorketa metatu da.

2016an, etxebizitza-hipoteka berriak EAEn Estatuko kreditu horien guztizko balioaren %6,6 ziren, eta Nafarroan, berriz, %1,3. Kreditu bakoitzaren batez besteko zenbatekoa %19,6 altuagoa da EAEn Espainian baino, eta Nafarroan, bigarren urtez jarraian, batez bestekoa Estatukoa baino baxuagoa da; zehazki, %7,6 baxuagoa.

49. taula Etxebizitzaren gaineko hipoteka berrien eraketa

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Espainia						
Hipoteka kopurua	408.461	273.873	199.703	204.302	245.382	281.566
Zenbateko osoa (milio €)	45.716	28.329	19.973	20.891	26.015	30.900
<i>Batez besteko zenbatekoa (milako €)</i>	111,92	103,44	100,01	102,25	106,02	109,74
EAE						
Hipoteka kopurua	23.065	16.920	12.146	11.469	13.991	15.509
Zenbateko osoa (milio €)	3.355	2.251	1.464	1.380	1.781	2.036
<i>Batez besteko zenbatekoa (milako €)</i>	145,45	133,01	120,53	120,29	127,33	131,28
Nafarroa						
Hipoteka kopurua	5.520	4.095	3.170	3.710	3.804	3.993
Zenbateko osoa (milio €)	666	459	345	384	391	405
<i>Batez besteko zenbatekoa (milako €)</i>	120,62	112,00	108,88	103,37	102,91	101,43

Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.

Bestalde, 2016an automobilen matrikulazioek hazten jarraitu zuten, baina erritmo txikiagoan. Espainian gorakada hori beranduago hasi zen, %10,9 handitu zen urte horretan, aurreko urtekoaren erdia gutxi gorabehera (%20,9); eta Nafarroan eta EAEn gehiago hazi zen (%1,2 eta %2,5, hurrenez hurren), eta hazkundearen aurreko bi urteetan

¹ Iturria: EIN. Estatu osoko jabetza-erregistroek emandako informazioa; hemen xede guztietarako hipoteka-kredituak sartzen dira, ez ohikoena bakarrik (etxebizitza hipotekatua erostea). Fluxu-estatistika bat da (urteko hipoteka-jarduera), Espainiako Bankuak jasotako kreditu-informazioa ez bezala; azken horrek, posizio zordunen stocka jasotzen baitu.

nahiko antzekoak izan ziren hiru eremuetan (%16tik %21 bitarteko zerrenda batean). 2016ko matrikulazioen bolumena salmenten garairik baxuenarekin (2012) alderatzen bada, Nafarroan urte honetako matrikulazioa %53,7 handiagoa da urte harekin alderatuta, EAEn %50,5 handiagoa, eta Espainiakoa ia %64 handiagoa.

50. taula Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera

(Unitate kopurua)

Eremua	2012	2013	2014	2015	2016
Nafarroa	7.034	7.737	9.170	10.690	10.814
EAE	25.616	27.321	32.300	37.601	38.547
Espainia	699.589	722.689	855.308	1.034.232	1.147.007

Iturria: Anfac.

Berankortasunaren bilakaera¹

Berankortasun-ratioa kredituen guztizkoarekiko zalantzakoa jotzen den kredituaren partaidetza da. Ratio hori handitu egin zen 2009tik 2013ra bitartean, %13,8ko maximoa lortu arte; eta ondoren, beherantz joan zen, 2016an %9,2an kokatu arte, partikularrei eta Estatuko enpresa egoiliarrei emandako kredituei dagokienez.

51. taula Gordailu-erakundeak. Dudazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M euro)

Kontzeptua	Urtea	C. Dudazkoak	Kredituak*	(Dudazkoak/Kredituak) x 100
Guztira	2011	135.505	1.715.748	7,9
	2012	162.601	1.537.748	10,6
	2013	191.748	1.392.384	13,8
	2014	167.743	1.328.189	12,6
	2015	129.979	1.274.652	10,2
	2016	112.275	1.222.541	9,2

(): Beste sektore egoiliar batzuen esku utzitako funtsak.*

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Segmentuka, enpresen segmetuan berankortasunaren ratioa nabarmen handiagoa dela ikusten da; %20,9ra iritsi zen (2013) eta hortik %13,3raino jaitsi zen 2016an. Familien segmetuari dagokion ratioak ere profil hori du, askoz maila txikiagoan bada ere; aldi horretan, %6,7tik %5,4ra pasatu zen.

Produktiorako kredituen kasuan, eraikuntza eta higiezinak arazo horrek gehien eragiten dituen jarduerak dira (%29,7 eta %25,4); zentzu horretan ekonomiako gainerako

¹ Autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik ez dago.

jardueren bidea jarraitzen gehiago kostatzen ari zaie, batik bat lehenengoari. Garraioan, esate baterako, jaitsiera oso nabarmena izan da bi urtetan (berankortasunaren puntu maximoa 2014an lortu zuen sektore bakarra izan zen, urtebeteko atzerapenarekin), eta baxuenen artean geratu da 2016an, %6,2rekin. Ostalaritzan, berankortasuna berehala larriagotu zen, une gorena lortu zuen 2013an eta nolabaiteko bizkortasunez ari da berreskuratzen. Magnitude horretan antzeko kurbari jarraitu arren, industria eta lehen sektorea zerbitzuen sektorearen azpitik egon dira uneoro berankortasunari dagokionez, eta azken hori, eraikuntzaren azpitik.

52. taula Gordailu-erakundeak. Dudazkoen edo berankortasunaren tasaren bilakaera, kredituaren helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Dudazkoen guztizkoa	7,9	10,6	13,8	12,6	10,2	9,2
Produkzio-jarduerak	11,6	16,0	20,9	18,9	14,9	13,3
Nekazaritza eta arrantza	6,5	9,1	13,6	12,2	10,2	9,1
Industria	5,7	9,4	13,8	13,9	11,2	9,1
Eraikuntza	18,7	26,6	35,3	33,7	30,9	29,7
Zerbitzuak	12,0	16,3	21,0	18,9	14,4	13,0
<i>Higiezin jarduerak</i>	<i>21,5</i>	<i>29,1</i>	<i>38,0</i>	<i>36,2</i>	<i>27,4</i>	<i>25,4</i>
<i>Finantzak (bankuz kanpokoak)</i>	<i>1,4</i>	<i>2,2</i>	<i>3,3</i>	<i>2,4</i>	<i>2,1</i>	<i>2,1</i>
<i>Merkataritza eta kon.</i>	<i>7,2</i>	<i>10,7</i>	<i>15,2</i>	<i>15,6</i>	<i>12,9</i>	<i>11,5</i>
<i>Garraioa eta bilteg.</i>	<i>4,3</i>	<i>8,6</i>	<i>13,7</i>	<i>17,3</i>	<i>13,1</i>	<i>6,2</i>
<i>Ostalaritza</i>	<i>8,2</i>	<i>16,8</i>	<i>23,2</i>	<i>20,4</i>	<i>17,2</i>	<i>14,6</i>
<i>Bestelako zerbitzuak</i>	<i>5,4</i>	<i>8,9</i>	<i>13,3</i>	<i>12,2</i>	<i>9,9</i>	<i>8,8</i>
Beste helburu batzuk/ etxeko unitateak	3,4	4,7	6,7	6,6	5,5	5,4
Etxebizitzak erosi eta birgaitzea	2,8	3,8	5,8	5,7	4,7	4,6
Beste batzuk	6,8	9,8	12,7	12,2	10,0	10,0
Gainerakoak	6,6	10,4	12,2	6,3	16,6	7,0

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Etxebizitzara bideratutako kreditu-masak eta familiei beste helburu batzuetarako emandakoak ratio txikiagoak dituzte enpresa-jarduerarekin alderatuta, baina azaldutako bilakaeraren antzekoa, maximoak 2013an lortu zituen. Beherakada hori leunagoa izan zen, eta etxebizitzako beste helburu batzuen kasuan, 2016an beherakada egon zen (%10ean geratu zen). Etxeetarako kredituen guztizkoak %5,4ko berankortasuna zuen, dudazkoen guztizkoak %9,2koa, enpresen sektorekoak %13,3 eta beste helburu batzuetarako kredituena %7koa.

Guztizko kreditua helburuka dudazko kredituarekin alderatzen bada, alde nagusia familiek etxebizitza erostean lehenengoan bigarren baino askoz pisu handiagoa duela da, kontuan hartuta gordailu-erakundeetan itzulketa askoz seguruagoa dela eta higiezin jarduerak aurkako zentzuan nabarmentzen direla.

53. taula Gordailu-erakundeak. Dudazko kredituaren bilakaera helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Dudazkoen guztizkoa	135.505	162.601	191.748	167.473	129.980	112.275
Produkzio-jarduerak	108.096	126.032	143.511	122.314	92.164	77.335
Nekazaritza eta arrantza	1.395	1.830	2.477	2.145	1.824	1.706
Industria	7.659	11.628	14.846	14.802	11.773	9.407
Eraikuntza	17.814	19.521	20.315	15.960	12.947	11.304
Zerbitzuak	81.228	93.055	105.874	90.127	65.619	54.918
<i>Higiezinaren jarduerak</i>	<i>63.223</i>	<i>64.202</i>	<i>66.265</i>	<i>53.795</i>	<i>36.665</i>	<i>30.275</i>
<i>Finantzak (bankuz kanpokoak)</i>	<i>1.576</i>	<i>2.005</i>	<i>2.871</i>	<i>2.385</i>	<i>2.067</i>	<i>1.690</i>
<i>Merkataritza eta kon.</i>	<i>5.461</i>	<i>7.840</i>	<i>10.438</i>	<i>10.432</i>	<i>8.659</i>	<i>7.768</i>
<i>Garraioa eta bilteg.</i>	<i>1.730</i>	<i>3.431</i>	<i>4.761</i>	<i>4.968</i>	<i>3.635</i>	<i>1.690</i>
<i>Ostalaritza</i>	<i>2.843</i>	<i>5.608</i>	<i>7.094</i>	<i>5.686</i>	<i>4.612</i>	<i>3.881</i>
<i>Bestelako zerbitzuak</i>	<i>6.394</i>	<i>9.969</i>	<i>14.534</i>	<i>12.861</i>	<i>9.981</i>	<i>9.026</i>
Beste helburu batzuk/ etxeko unitateak	26.200	34.544	46.530	44.197	34.736	33.652
Etxebizitzak erosi eta birgaitzea	17.799	23.807	34.080	32.313	25.204	23.930
Beste batzuk	8.401	10.737	12.450	11.884	9.532	9.722
Gainerakoak	1.209	2.025	1.707	962	3.080	1.288

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Gordailuen bilakaera Nafarroan

Esparru orokorra

Gordailuetako saldoa 1,886 bilioi eurokoa izan zen 2106an; hau da, urte arteko beherakada -%3,8koa izan zen. Magnitude horrek behera egin du beste urte batez, eta denbora-tarte zabalagoa hartuta, azken bost urteetan 421 mila milioi euro galdu ditu gordailutan, faktore askoren ondorioz; esate baterako, aurrezki-irudi horren erakarpenaren galera (ordainsari oso baxua duena), ordainketei aurre egin beharzagatik aurrezkiak baliatzeagatik, edo zuzenean, aurrezteko gaitasun-faltagatik.

Adierazitako gordailuen guztizkoa hartuta, bi heren (%66,6) partikularrei eta enpresei dagokie (maximoa krisiaren hasieratik), %15,4 kreditu-sistemari (balio minimoa 2010etik), %15,1 ez-egoiliarrei eta %2,9 Administrazio Publikoei (minimoa krisiaren hasieratik).

Gordailuetako saldoaren guztizkoaren hiru osagaiek antzeko portaera partekatzen dute, bai kreditu-sisteman (-%4,8), bai beste sektore egoiliar batzuetan (-%1,5) eta beste sektore ez-egoiliar batzuetan (-%5,9). Atzerakada aipagarriena Administrazio Publikoetako gordailuena zen, %29,4 murriztu zena 2016an. Kreditu-sistemak puntu

goren berezi bat izan zuen 2012an, eta harrezkero ia erdira murriztu da intrasistema gordailuetan.

54. taula Kreditu-erakundeak. Gordailuak kreditu-erakundeetan, agenteen arabera

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	2.307.138	2.297.865	2.065.401	1.997.368	1.940.673	1.866.552
• Kreditu-sistema	372.668	572.928	381.293	311.533	302.834	288.158
• AP	69.717	69.183	63.485	76.150	77.063	54.371
• Beste sektore egoiliar batzuk	1.373.079	1.316.735	1.314.129	1.289.280	1.261.715	1.242.580
• Beste ez-egoiliar batzuk	491.675	339.019	306.493	320.404	299.061	281.444

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Partikularren eta enpresen sektore nagusian (BSE), gordailuetako saldoen higadura etengabea baino mantsoa izan da; sei urteko beherakadetan %9,5 metatu da, aurrezteko zailtasunekin bat, baina baita ere produktuaren erakarpen faltagatik. Ez-egoiliarren segmentuko gordailuei dagokienez, 2013tik 2016ra arteko balantzeak %8,2ko jaitsiera erakusten du hiru ekitalditan eta %2,1ekoa 2016an. Administrazio Publikoei esleitutako gordailuek %19,7 egin zuten behera 2010-13 hirurtekoan eta %14,4 hurrengo hirurtekoak (2013-16), eta ez linealki, oszilazio nabarmenekin baizik.

55. taula Gordailu-erakundeak. Gordailu motak. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Guztira	1.170.396	1.147.690	1.155.977	1.138.434	1.137.827	1.136.795
• Agerikoak	269.711	265.027	281.967	328.852	384.450	454.221
• Aurrezkikoak	202.949	199.073	206.485	221.934	254.227	288.186
• Eperakoak	697.736	683.589	667.525	587.648	499.150	394.388

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Analisia ekonomiaren segmentu nagusian kokatzen bada, etxekoetan eta erakunde pribatu ez-finantzarioetan, eta gordailu-erakundeetan soilik (kredituak espezializatutako azpisektore txikia salbuetsita), gordailu horiek 2016an 1,14 bilioi euro ingurukoak zirela ikusiko da, ia-ia 2014ko kopuru bera, eta 2008an existitzen zena baino %1,5 txikiagoa.

Baldintzei edo gordailu motei erreparatuz gero, 2016an azken ekitaldietako joerek berdin jarraitu zuten. Erabilgarritasunik berehalakoena duen aurrezki-irudiak -ageriko gordailuak- aurrera egiten jarraitzen du modu iraunkorrean, eta indar handiagoz ere bai, epe finkorakoen kaltean. Lehen modalitateak %71,4 egin du aurrera 4 urtetan eta bigarrenak %47ko metatua pilatu du, sei urteko ondoz ondoko jaitsieran. Hori interes-tasa baxuekin egokituta dago, eperako gordailuek ematen duten diferentzialari garrantzia kentzen diolako. 2008an, azken horiek nagusi ziren: Ageriko gordailuen bolumenaren hirukoitza pilatzen zuten. 2016an, aldiz, ageriko gordailuak eperakoak

baino gehiago ziren; lehenengoek %40ko kuota zuten eta bigarrenek %34,7koa. "Aurrezkikoak" izenekoek %25,4ko kuota dute, aurrekoak baino pisu txikiagokoa, baina krisi ekonomikoa hasi zenetik ehuneko altuena.

Gordailuen bilakaera Nafarroan

Nafarroan, gordailuetan goranzko inflexio bat izan da aurten, %3,9ko gorakadarekin, Espainiako datuaren oso bestelakoa (-%1,5). Gordailuen saldoak Estatuan bi urteko atzerapena metatu du. Nafarroako gordailuen pisua Estatuko osotasunarekiko %1,4koa da, eta, aldiz, alderatuta, BPG-n %1,7ko ekarpena egiten du eta %1,4ko biztanleria du. Nafarroako gordailu publikoen eta pribatuen pisua Estatuarekiko %1,1 eta %1,4koak dira, hurrenez hurren.

Administrazio Publikoen gordailuen atalean, aldakuntzak askoz handiagoak izan daitezke, mugimendu puntualek eragin garbia izanik. 2016an, atal hori %34,7raino hazi zen Nafarroan, eta Espainian, berriz, atzera egin zuen (-%29,8). Espainiako gordailu publikoek guztizko gordailuen % 4,5 hartu dituzte; parte-hartze hori handiagoa da Nafarroan (% 3,5) erregistratutakoa baino.

56. taula Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta Administrazio Publikoen gordailua.

(Meuro)

Eremua	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
EAE	2014	2.822	69.448	72.270
	2015	2.907	71.770	74.677
	2016	2.902	73.216	76.118
Nafarroa	2014	530	15.257	15.787
	2015	424	15.144	15.568
	2016	571	15.602	16.173
Hego Euskal Herria	2014	3.352	84.705	88.057
	2015	3.331	86.914	90.245
	2016	3.473	88.818	92.291
Espainia	2014	73.448	1.139.756	1.213.204
	2015	76.097	1.135.720	1.211.817
	2016	53.412	1.140.814	1.194.227

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Aurrezpenaren beste adierazle batzuk

Aurrezki-posizioak, neurri handi batean, negozioen eta familien errenta-mailak eta aurrezki-gaitasunak definitzen dituzte. Horren haritik, EINen kontabilitate nazionalako datuek adierazten duten moduan, krisian zehar familien eta enpresen diru-sarrerek

behera egin dute, gastua eta inbertsioa ere jaitsi egin diren arren. Hala, aurreko urteetan batik bat aurreikuspen-irizpidea agertzen bazen ere, aurrezkiaren zenbateko beherakorra erregistratu da.

Adibidez, 2009tik 2013ra bitartean, familien errenta gordin erabilgarriak %5,7ko atzerapen metatua izan zuen, eta hurrengo hirurtekoan %5 berreskuratu zuen; 2016ri %1,6ko hobekuntza egokitu zitzaion.

Errenta horren oinarriarekiko etxeetako aurrezki gordina eta horrekin batera ondoriozko tasa gorabeheratsuak izan dira azken urteetan, eta alderdi kontrajarriek eragina izan dute haietan (errenta gutxiago, baina aldi berean behar handiagoa ere bai, zenbait alditan, aurrezki-profila hartzeko, egoera ekonomikoaren ziurgabetasunaren aurrean). Azken bosturtekoan ratio hori %7,4tik %9,1era artekoa izan zen, baina 2016an lasaitu eta %6,6raino erori zen, errenta gordinaren (handitu egin zen) portaera hobearen eta aurrezkiaren portaera okerragoaren ondorioz.

Hau da, aurrezki-tasa jaitsi egin zen, errenta handiago baten gainean gutxiago aurreztearekin konbinatuz, eta portaera hori bat dator kontsumoaren berreskuperenekin eta etxerako erosketa handiak egiteko erabakiekin, eta horrez gain, itxaropenak (ekonomikoak, enpleguari dagozkionak) hobetu egin dira eta horrek aurreikuspen- eta aurrezki-jarrera murriztea dakar.

57. taula Errenta gordin erabilgarria, BEG eta aurrezki gordina

Kontzeptua	2011	2012	2013	2014	2015	2016
<i>(M euro)</i>						
Etxeoen unitateak						
• Erreta gordin erabilgarria	819.649	788.983	781.049	787.429	807.243	820.050
• Aurrezki gordina	74.674	58.768	66.214	64.635	64.428	54.072
• Aurrezki-tasa (%)	9,1	7,4	8,5	8,2	8,0	6,6
Soz. ez-finantzarioak						
• BEG	573.008	557.406	546.035	550.911	575.653	598.806
• Aurrezki gordina	137.857	146.373	166.207	161.879	181.101	191.834
• Aurrezki-tasa (%)	24,1	26,3	30,4	29,4	31,5	32,0

Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.


Jarduera ekonomikoa berreskuratzea, eta beraz, enpresetan inbertitzeko gaitasuna argi eta garbi agertzen da BEGren bilakaeran, 2014ra arte behera egin eta 2015 eta 2016an hobetu den magnitudearen bilakaeran, 2011ko mailak berreskuratuz. Horren haritik, urte arteko nolabaiteko hegakortasunarekin bada ere, 2010etik 2014ra bitartean, enpresa-aurrezki gordina zifra bertsuan finkatu zen, eta hurrengo biurtekoan metatutako aurrerakada %18,5eko izan da (%11,9 2015ean eta %5,9 2016an).

Horrela, aurrezki-tasak –familiena baino 3 edo 4 aldiz altuagoa izan denak– gorabeherak izan ditu aldi horretan, baina gorako joera orokorrarekin. Aurreko urtean gertatu zen bezala, 2016an aurrerakada txiki bat izan zuen eta gaur egun %32ra iritsi da. Bilakaera zuhur hori hobekuntzaren itxaropena eta instalatutako gaitasuna erabiltzearen emaitza da, finantzatu beharreko inbertsio-eragiketarako justifikatzeko, aurrezki-posizioak deseginez; aurrezki-posizio horiek, bestalde, gaur egun lehiakorak dira diruzaintza finantzatzeko bide gisa.

Interes-, kostu- eta ordainsari-tasaren bilakaera

Europako Banku Zentralak erreferentziako interes-tasa gisa %0 finkatu zuen 2016ko martxoan, aurreko urte eta erdian indarrean egon zen %0,05etik jaitsi ondoren. Gaur egungo interes-tasa nuluaren egoera epe laburrean aldatzeko itxaropenik ez dago, AEBko Erreserba Federalak jadanik tasak berreskuratzeko bi mugimendu egin baditu ere.

9. grafikoa Berriz finantzatzeko interes-tasaren bilakaera. Europako Banku Zentrala



Iturria: Europako Banku Zentrala.

Erreferentzia horrekin bat, interes-tasa guztiak beherantz doitzen jarraitu dira, 2016an salbuespenik egin gabe. Doitzeak modu desberdinetan aplikatu dira bezeroen sektoreen arabera (familiak eta enpresak), eta azkenei mesede egiten dieten baldintzak bizkorrago doitu dira, kredituen prezioa gehiago moztuz eta gordailuen ordainsaria gutxiago moztuz.

Dena dela, gordailuen ordainsari-tasak %0 erreferentziazko interes-tasara asko hurbildu ziren 2016an. Aldiz, kontsumorako maileguen prezioa erreferentziazko interes-tasak baino askoz mantsoago murriztu da, bai eta etxebizitzarako edo beste helburu batzuetarako familien kredituekin alderatuta ere. 2 urtetik gorako epeko familia-gordailuek pizgarri gutxiago dute bi mutur horien arteko epea dutenek baino.

58. taula Kreditu-erakundeak. Etxekoan unitateetarako⁽²⁾ eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berrietan aplikatutako interes-tasak (TEDR)

	(%)			
	2013	2014	2015	2016
ETXEKOEN UNITATEETARAKO MAILEGU ETA KREDITUAK⁽²⁾				
– Etxebizitza ⁽¹⁾	2,99	2,56	1,98	1,91
– Kontsumoa ⁽¹⁾⁽³⁾	8,90	7,74	7,56	7,12
– Beste xede batzuk (1)	5,58	4,64	3,77	3,62
SOZIETATE EZ-FINANTZARIOETARAKO MAILEGU ETA KREDITUAK				
– Zorpekoak	3,38	3,14	2,34	1,66
– 250.000 € ⁽¹⁾ -rainoko kredituak	5,12	4,18	3,26	2,64
– 250.000tik 1.000.000 € ⁽¹⁾ -ra arteko kredituak	3,88	2,79	2,05	1,79
– 1.000.000 € ⁽¹⁾ -tik gorako kredituak	2,73	1,99	1,96	1,60
ETXEKOEN UNITATEEN GORDAILUAK⁽²⁾				
– Agerikoak	0,22	0,17	0,12	0,06
– Eperakoak ⁽¹⁾	1,50	0,66	0,39	0,11
• gehienez urte 1erakoak	1,23	0,59	0,35	0,1
• 2 urtetik gorakoak	1,85	0,83	0,24	0,07
SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK				
– Agerikoak	0,35	0,31	0,24	0,15
– Eperakoak ⁽¹⁾	1,30	0,51	0,31	0,13
• gehienez urte 1erakoak	1,30	0,51	0,31	0,11
• 2 urtetik gorakoak	1,37	0,50	0,66	0,48

(1): Batez besteko tasa haztatua, produktu desberdinei dagokienez, epearen arabera. Abenduaren 31n.

(2): Etxeak eta etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

(3): 2010eko maiatzetik, zutabe honek kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere barne hartzen du.

TEDR tasa: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, UTB komisiorik gabe.

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

4. NAFARROAKO ENPRESEN AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Jarraian, Nafarroako enpresen bilakaera ekonomiko-finantzarioa nolakoa izan den aztertuko da, baita enpleguaren produktibitateari buruzko zenbait alderdi ere. Azterketa egiteko erabili den informazioa Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralari eskatutako Nafarroako enpresei buruzko ustiapen espezifiko batetik atera da; izan ere, enpresa nafarrek urtetik urtera bidaltzen diote informazioa Zentralari. Kasu honetan, 2014ko eta 2015eko¹ ekitaldietan bezala, guztira 146 enpresa hartu dira kontuan.

4.1 JARDUERA: DIRU-SARRERAK, KOSTUAK ETA EMAITZAK

2014ko eta 2015eko laginetan ageri diren Nafarroako 146 enpresen emaitzen kontu erantsia aztertuz gero, enpresen magnitude garrantzitsuenen bilakaeraren berri izan daiteke diru-sarrerari, kostuei eta emaitzei dagokienez. Zehazki, enpresa horiek guztira 9.334.277 mila euro fakturatu zituzten 2015. urtean, hau da, 2014an baino % 1,4 gehiago.

59. taula Nafarroako enpresen emaitzen kontu erantsia

(m euro)

Aldagaia	2014		2015		Aldakuntza-tasa %Δ 15/14
	m euro	%	m euro	%	
Ustiapeneko diru-sarrerak	9.204.241	100,0	9.334.277	100,0	1,4
Bitarteko kontsumoak	7.081.171	76,9	7.239.919	77,6	2,2
Balio erantsi gordina	2.123.070	23,1	2.094.358	22,4	-1,4
Langile-gastuak	1.230.349	13,4	1.251.571	13,4	1,7
Ustiap. emaitza ekon. gordina	892.721	9,7	842.787	9,0	-5,6
Amortizazioak eta hornidurak	351.989	3,8	342.428	3,7	-2,7
Ustiap. emaitza ekon. garbia	540.732	5,9	500.359	5,4	-7,5
Finantza-karga garbia	-16.882	-0,2	-167.445	-1,8	891,9
Ohiko jardueren emaitza	557.614	6,1	667.804	7,2	19,8
Ezohiko jardueren emaitza	-70.327	-0,8	-35.187	-0,4	-50,0
Zerga aurreko emaitza	487.287	5,3	632.617	6,8	29,8
Zergak	125.467	1,4	113.588	1,2	-9,5
Ekitaldiko emaitza garbia	361.820	3,9	519.029	5,6	43,4
Cash-flow	713.809	7,8	861.457	9,2	20,7

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Kostuen egiturak (zenbait kostu-partiden partaidetza, fakturazioari dagokionez) izandako bilakaeraren azterketak erakusten du 2015ean areagotu egin zela bitarteko kontsumoetako partaidetza, fakturazioaren % 77,6 hartzen dute (2014an, % 76,9). Hau da, areagotze nabarmena erregistratu zen, termino absolutuetan (% 2,2). Beraz,

¹ Urte horretako datuak dira azkenak.

fakturazioko balio erantsi gordinaren partaidetza % 22,4ra arte jaitsi zen 2015ean (2014an % 23,1 zen); kasu honetan, jaitsiera txiki bat egon zen termino absolutuetan (-% 1,4).

Langile-gastuei dagokienez (2015ean % 1,7 igo ziren termino nominaletan), horiek diru-sarreretan duten partaidetza mantendu egin da (2014an eta 2015ean, % 13,4), eta gauza bera gertatu da amortizazioen garrantziarekin (2015ean % 3,7 zen eta 2014an, % 3,8). Bestalde, nabarmendu behar da 2015ean murriztu egin zela finantza-karga. Beraz, diru-sarrera finantzarioak altuagoak izan ziren gastu finantzarioak baino, 167.445 mila euro, hain zuzen ere (2015eko fakturazioan -% 1,8ko garrantzia zuten, eta 2014an -% 0,4 erregistratu zen). Halaber, areagotu egin dira kontabilizatutako ezohiko emaitzak (2015ean -35.187 milioi euro kontabilizatu ziren, eta 2014an, berriz, -70.327 milioi euro), baina saldo negatiboa edukitzen jarraitzen dute (2015eko fakturazioaren -% 0,4ko garrantzia zuten, eta 2014koan -% 0,8koa izan zuten).

lido horretan, zergen aurreko emaitzak (% 29,8ko hobekuntza erregistratu du termino nominaletan) 2015eko fakturazioaren % 6,8 hartzen zuen, haren aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino gehiago (2014an % 5,3 izan zen).

Azken finean, fakturazioa pixka bat handitzen ari den testuinguru honetan, Nafarroako enpresen emaitzek hobera egin zuten 2015ean, nagusiki, langileen kostuei eta amortizazioei eutsi zitelako, eta finantza-karga garbia eta ezohiko jardueren emaitzak hobetu egin zirelako aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

4.2 INBERTSIOA-FINANTZAKETA

2014-2015 aldian aztertutako Nafarroako enpresen laginaren balantze erantsia aztertuz gero, jakingo dugu enpresen magnitude adierazgarrienen bilakaera zer-nolakoa izan den egindako inbertsioei eta finantzaketari dagokienez.

60. taula Nafarroako enpresen balantze erantsia

(m euro)

Aldagaia	2014		2015		Aldakuntza-tasa %Δ 15/14
	m euro	%	m euro	%	
AKTIBOA GUZTIRA	12.321.255	100,0	12.617.660	100,0	2,4
AKTIBO FINKOA	7.764.681	63,0	7.706.109	61,1	-0,8
Ibilgetu immateriala	1.597.439	13,0	1.574.248	12,5	-1,5
Ibilgetu materiala	2.597.008	21,1	2.643.408	21,0	1,8
Ibilgetu finantzarioa	3.570.234	29,0	3.488.453	27,6	-2,3
ZIRKULATZAILEA	4.556.574	37,0	4.911.551	38,9	7,8
Izakinak	846.546	6,9	1.009.867	8,0	19,3
Zordunak	3.089.542	25,1	3.475.237	27,5	12,5
Diruzaintza	620.486	5,0	426.447	3,4	-31,3
PASIBOA GUZTIRA	12.321.255	100,0	12.617.660	100,0	2,4
PASIBO FINKOA	7.189.142	58,3	7.587.558	60,1	5,5
Ondare garbia	5.018.004	40,7	5.351.427	42,4	6,6
Epe luzeko besteren baliabideak	2.171.138	17,6	2.236.131	17,7	3,0
EPE MOTZEKO HARTZEKODUNAK	4.924.152	40,0	4.781.054	37,9	-2,9
- Kostua dutenak	2.359.001	19,1	1.970.611	15,6	-16,5
- Kosturik gabekoak	2.565.151	20,8	2.810.443	22,3	9,6
HORNIDURAK	207.961	1,7	249.048	2,0	19,8

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Inbertsioen kapituluari helduta, honako alderdi hauek nabarmenduko dira:

2015. urtean aktibo finkoak guztizko aktiboan duen partaidetza jaitsi egin zen (2015ean % 61,1 zen eta 2014an, % 63,0), termino nominaletan % 0,8ko beherakada izanik.

Aktibo finkoaren garrantziaren jaitsiera ibilgetu finantzarioan gertatutako murrizketaren ondorio izan zen nagusiki, eta 2015ean guztizko aktiboan zuen garrantzi erlatiboa nabarmen jaitsi zen % 27,6ra (2014an % 29 zen). Era berean, ibilgetu inmaterialaren partaidetza ere % 12,5era arte jaitsi zen 2015ean (2014an % 13,0 zen), eta bestalde, ibilgetu materialaren garrantzi erlatiboa mantendu egin zen (magnitude horrek nahiko ongi neurtzen du inbertsioaren bilakaera, ondasun finkoen eta ukigarrien ikuskera klasikoan, eta termino nominaletan % 1,8ko igoera izan zuen), eta 2015ean % 21,0 osatzen zuen (2014an % 21,1 izan zen).

Zirkulatzaille-premian egindako inbertsioari dagokionez, aktiboaren guztizkoan duen partaidetzak gora egin zuen (2015ean % 38,9, eta 2014an % 37,0), eta termino nominaletan % 7,8ko igoera izan zuen.

Zirkulatzailleak guztizko aktiboan duen garrantziaren gorakada hori zordunen garrantziak gora egin zuenean gertatu zen (2015ean % 27,5 eta 2014an, % 25,1), eta gorakada hori termino nominaletan % 12,5eko igoera erregistratu ostean izan zen. Izakinen

garrantzia ere areagotu egin zen (2015ean % 8,0 zen, eta 2014an, % 6,9). Diruzaintzari dagokionez, haren garrantzia % 3,4ra jaitsi zen 2015ean (2014an % 5,0 zen).

Finantzaketari buruzko alderdi garrantzitsuenei dagokienez, honako hauek nabarmenduko dira:

Epe motzeko finantzaketaren (epe motzeko hartzekodunak) garrantzi erlatiboak beherakada nabarmena izan zuen, finantzaketa iraunkorraren (pasibo finkoa) garrantziak nabarmen gora eta hornidurek ere pixka bat gora egin zuten testuinguruan. Zehazki, epe motzeko finantzaketak pasiboaren guztizkoaren gainean duen garrantzia % 37,9koa izan zen 2015ean (2014an, % 40,0koa) eta finantzaketa iraunkorraren garrantzia (termino nominaletan % 5,5 igo zena), % 60,1 areagotu zen (2014an, % 58,3). Bestalde, horniduren garrantzia % 2koa izan zen (2014an, % 1,7koa).

Pasibo finkoaren garrantzi erlatiboaren igoera ondare garbiak nabarmen gora egin zuenean gertatu zen (2015ean guztizko pasiboaren % 42,4 izan zen eta 2014an, % 40,7). Epe luzeko besteren baliabideen kasuan, ordea, igoera hori askoz ere txikiagoa izan zen (2015ean % 17,7 eta haren aurreko ekitaldian, % 17,6).

Halaber, epe motzeko finantzaketaren garrantzi erlatiboak behera egin zuen kostua duten baliabideen partaidetzak nabarmen behera egin zuenean (2015ean guztizko pasiboaren % 15,6 eta 2014an, % 19,1), eta kosturik gabeko baliabideen partaidetzak, aldiz, gora egin zuen (2015ean % 22,3 eta 2014an, % 20,8).

Azkenik, maniobra-funtsak (aktibo zirkulatzaila ken epe motzeko hartzekodunak) 2015ean % 135,5eko jaitsiera izan zuen termino nominaletan; hala ere, saldo positiboa du orain (2015ean guztizko pasiboaren % 1,0 eta 2014an, -% 3,0).

4.3 ERRENTAGARRITASUNA ETA LOTUTAKO MAGNITUDEAK

2015ean, gure lagineko Nafarroako enpresen errentagarritasun ekonomikoak (zergen aurretik kalkulatuta) gora egin zuen haren aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zehazki, errentagarritasun hori 2015ean % 7,9 izan zen, eta haren aurreko ekitaldian, berriz, % 6,7.

61. taula Nafarroako enpresen errentagarritasuna


Ratioak (%)	2011	2012	2013	2014	2015
AKTIBO GARBIAREN ERRENT. (zerga aurretik)	6,6	8,5	0,2	6,7	7,9
Jasotako finant. interesak/Kostua duten besteren baliab.	3,5	3,2	3,3	3,7	3,4
BALIABIDE PROPIOEN ERRENT. (zerga aurretik)	9,0	12,1	-2,6	9,7	11,8
Zorpetze-ratioa	46,3	40,9	61,5	61,2	53,7
Palanka-efektu finantzarioa*	3,1	5,3	-3,0	3,0	4,5

(*):Errentagarritasun ekonomikoa – kanpoko finantzaketaren kostua
Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Era berean, finantza-errentagarritasunak (zergen aurretik kalkulatuta) ere gora egin zuen 2015ean, % 11,8koa izan baitzen (2014an, % 9,7).

Hori horrela izanik, finantza-errentagarritasunaren gorakada errentagarritasun ekonomikoa gorakadaren ondorio izan zen nagusiki; baina zorraren kostuak zertxobait behera ere egin zuen, beraz, apalankamendu finantzarioak 2015ean gorakada nabarmena izan zuen.

10. grafikoa Nafarroako enpresen errentagarritasuna



Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

4.4 ENPLEGUAREN PRODUKTIBITATEA

Aurreko ataletan egindako azterketa ekonomiko-finantzarioa osatzeko, aztertutako Nafarroako enpresen laginean enpleguak izan duen produktibitateari lotutako zenbait alderdi aipatuko dira.

62. taula Enpleguaren produktibitatea

Ratioak	2011	2012	2013	2014	2015
BEG/langile	77,1	78,2	73,8	75,1	72,8
Enpleguaren batez besteko kostua	43,0	43,5	42,9	43,5	43,5

(m euro)

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Zehazki, langile bakoitzeko balio erantsia 72,8 mila euro izan zen 2015ean, hau da, haren aurreko ekitaldiarekin alderatuta % 3,1eko jaitsiera egon zen. Enpleguaren batez besteko kostua, aldiz, 43,5 mila euro izan zen, haren aurreko urteko zifra berbera.

4.5 NAFARROAKO ENPRESEN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA. SINTESIA

Aurreko ataletan aipatutako informazioaren sintesi modura, 2015ean Nafarroako enpresek izandako egoera ekonomiko-finantzarioarekin lotutako alderdi positiboak eta negatiboak aipatuko dira.

Alderdi positiboak dagokienez, honako hauek nabarmenduko dira:

- Ustiapeneko diru-sarrerak pixka bat areagotu ziren.
- Langileen kostuei eta amortizazioei beren horretan eutsi zitzairen.
- Karga finantzario garbia murriztu egin zen eta ezohiko emaitzak hobetu egin ziren.
- Ekitaldiko emaitza garbia eta cash-flowa nabarmen hobetu ziren.
- Ondare garbiaren garrantzi erlatiboa nabarmen areagotu zen.
- Maniobra-funtsa positiboa izan zen.
- Errentagarritasun ekonomikoak eta finantzarioak gora egin zuten.
- Zorraren kostua pixka bat jaitsi zen.

Alderdi ez hain positiboak dagokienez, honako hauek aipatuko dira:

- Bitarteko kontsumoen portzentajezko garrantzia igo egin zen.
- Sortutako balio erantsiaren garrantziak behera egin zuen.
- Kosturik gabeko epe motzeko hartzekodunen garrantzi erlatiboa areagotu egin zen.
- Aktibo finkoak behera egin zuen, ibilgetu inmaterialean eta finantzarioan gertatutako murrizketen ondorioz.
- Zordunen eta izakinen partiden garrantzi erlatiboek gora egin zuten.
- Diruzaintzan murrizketa egon zen.

4.6 ESPAINIAKO ENPRESA EZ-FINANTZARIOEN ENPRESA-EMAITZAK

Atal honetan, Espainiako enpresa ez-finantzarioek 2016an izandako emaitzen alderdi garrantzitsuenak azalduko dira labur-labur. Horretarako, Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren¹ informazioa baliatuko da, eta informazio hori Estatu osokoa den arren, Nafarroako enpresek 2016ko ekitaldi honetan zein egoera izan duten jakin ahal izango da, gutxi gorabehera.

Hiruhilekoko Balantzeen Zentralaren informazioak adierazten du jarduerak hedatzen jarraitu duela 2016an. Enpresen lagin honetan, aurreko urtearekin alderatuta, BEG % 4,1 igo da termino nominaletan, baina igoera hori txikiagoa izan da 2015ekoa baino (% 6,2). Dezelerazio hori petrolio-finketaren inpaktuaren ondorio izan da; izan ere, azpisektore horren BEG-ak aurrerapen handia izan zuen aurreko ekitaldian. Sektoreka banatuz gero, soberakin horiek orokorrean gora egiten dutela ikusten da. Jardueraren zabalkuntza-joeraren ondorioz, 2016an enpleguaren hazkundea indartu egin da, eta % 1,1 hazi (2015ean % 1,3 hazi zen).

2016an, ohiko emaitza garbia (OEG) haziz joan da, jarduerak zabalkuntza-joera izan duelako, langileen kostuei eta amortizazioei bere horretan eutsi zaielako, eta diru-sarrerek eta gastu finantzarioek bilakaera positiboa izan dutelako, interes-tasek behera egin dutenean. Ohiko soberakinen zabalkuntza nabarmenarekin batera, partida ez-errepikariaren bilakaerak inpaktu gehigarri positiboa izan du, eta hori, hein batean, berdindu egin da mozkinen gaineko zergari lotutako gastuaren igoerarengatik. Horren guztiaren ondorioz, amaierako emaitza hirukoiztu egin da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. BEG-aren ehunekoei dagokienez, soberakin hori % 32,2ra igo da 2016an (2015ean, % 11,3 izan zen).

Testuinguru horretan, ohiko errentagarritasun-ratioek zabaltzen jarraitu dute. Zehazki, 2016an % 6,1era igo da (2015ean, % 5,3ra), eta baliabide propioa % 8,6ra heldu da (2015ean, % 7,1era), zorraren kostua berriro ere murriztu egin denean.

¹ Espainiako 914 enpresa ez-finantzariok 2016ko lau hiruhilekokoegi dagozkien datuak bidali dituzte, eta lagin horren emaitzak dira (lagina aldatu egiten da urtero, eta manufaktura-industriak du ordezkartza hoberena). Enpresa horiek enpresa ez-finantzarioen sektoreko balio erantsi gordinaren % 13,3 osatzen dute.

63. taula Emaizten kontua. Urtetik urterako bilakaera (enpresa berei dagozkien hazkunde-tasak, aurreko urteko aldi berarekiko)

OINARRIAK	Hiruhilekoko Balantzeen Zentrala(*)		
	I-IV 14/ I-IV 13	I-IV 15/ I-IV 14	I-IV 16/ I-IV 15
Enpresa kopurua/Nazioko guztizko estaldura	% 888/13,3	% 984/14,1	% 914/13,3
1. Produkzioaren balioa (diru-laguntzak barne) Negozio-zifraren zenbateko garbia eta ustiapenaren bestelako diru-sarrerak	0,0 1,9	-2,0 -2,6	-2,3 -3,7
2. Bitarteko kontsumoak (tributuak barne) Erosketa garbiak Beste ustiapen-gastu batzuk	0,2 0,9 0,3	-5,4 -9,2 4,2	-5,3 -4,2 -5,0
S.1. BALIO ERANTSI GORDINA FAKTOREEN KOSTUAREKIKO (1-2)	-0,4	6,2	4,1
3. Langile-gastuak	1,0	2,2	1,0
S.2. USTIAPENAREN EMAITZA EKONOMIKO GORDINA (S.1.-3)	-1,9	10,8	7,3
4. Diru-sarrera finantzarioak	-28,6	-9,8	16,0
5. Finantza-gastuak	-8,1	-9,2	-9,4
6. Amortizazioak eta ustiapen-hornidurak	-3,6	0,2	0,1
S.3. OHIKO EMAITZA GARBIA (S.2 + 4 -5 -6)	-17,5	18,4	23,8
7. Besterentzeen eta narriaduraren ondoriozko emaitzak	-	-	-
8. Arrazoizko balioaren aldakuntzak eta gainerako emaitzak	39,7	-85,5	29,5
9. Mozkinen gaineko zergak	-	-	-
S.4. EKITALDIAREN EMAITZA (S.3 + 7 + 8 -9)	140,2	-51,6	200,7
EKITALDIAREN EMAITZA / BEGd (S.4 / S.1)	24,3	11,3	32,2
ERRENTAGARRITASUNAK			
E.1. Aktibo garbiaren ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik)	5,2	5,3	6,1
E.2. Jasotako finantz. interesak, kostua duten besteren baliabideei dagokienez	3,3	3,0	2,7
E.3. Baliabide propioen ohiko errentagarritasuna (zerga aurretik)	6,8	7,1	8,6
E.4. Errentagarritasuna - finantza-kostua kendura (E.1. - E.2.)	1,9	2,3	3,3

(*):Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu gisa kalkulatu dira.
Iturria: Espainiako Bankua.



2. LEHEN SEKTOREA

16

1. IKUSPEGI OROKORRA

1.1 BILAKAERA ESTATU-EREMUAN

Estatuko nekazaritza-sektorearen ekoizpena oinarritzko prezioetan maximo historikoetan kokatu da. 2000. urtetik, % 29 hazi da, eta 2009an izandako azken beherakadatik, % 23,3. 2016an, haren hazkundera % 2,9koa izan da, 2015ekoa baino txikiagoa, urte horretan % 6,8koa izan baitzen. Haren osagai sektorial nagusiak landare-ekoizpena, animalia-ekoizpena eta zerbitzuena edota beste batzuen dira. Osagai sektorial horien kuotek oso egonkor iraun dute mende-hasieratik, eta hau da 2016tik bakoitzak izan duen pisua, hurrenez hurren: % 61,4, % 35 eta % 3,6. Landare-ekoizpenak, iraupen laburragoko produktu-mota bat izateagatik, animalia-ekoizpenak baino gorabehera handiagoa izaten du urtetik urtera, baina epe luzean aldea ez da hain handia izan.

Oro har, sektorea nahiko egonkortuta dago ekoizpenaren tona-kopuruari dagokionez. Dena dela, produkturik errentagarrienak ekoizten dira gehienbat. Funtsean, prezioek eta inflazioak epe luzean izaten den goranzko joera eragiten dute. Nolanahi ere, 2016ko ekitaldian erregistratutako datu orokorrak nekazaritza-produktuen prezioek % -3,6ko beherakada izan dutela adierazten du, kantitatean % 6,7ko gorakada izan bada ere. Horren ondoriozko balioaren igoera % 2,9koa da. 2015ean, aldiz, prezioen gorakadak eragin zuen batez ere igoera.

2016an, antzeko prezio-beherakadak izan dira bi adarretan (% -3,6 landare-ekoizpenean eta % -3,7 animalia-ekoizpenean), 2015ean ez bezala; izan ere, urte horretan, igoera landare-produktuen prezioek eragin zuten, abeltzaintza-azpisektorean beherakada izan zuten bitartean. Ekoizpen fisikoari begira, landare-ekoizpenaren adarrak gorakada handiagoa izan du animalia-ekoizpenarenak baino (hurrenez hurren, % 8,4 eta % 4,5). Hala, landare-ekoizpenaren balioan % 4,4ko igoera izan da, eta animalia-ekoizpenaren balioan, aldiz, % 0,7koa baino ez.

Urtero, adar horretako ministerioak nekazaritza-errentaren zenbatespena egiten du; hau da, sektorearen marjina, langile-kostuak ordaindu aurretik; hain zuzen, ekoizpenaren guztizkoaren % 54,9 dagokio. Adierazle horretan, hazkunde-erritmoa oso bizkorra izan zen 1990etik 2003ra, baina ordutik gorabeherak izan dira, eta epe luzean beheranzko joera eragin dute. Dena den, azken bi ekitaldietako datuek berriro ere 2003an eta 2007an lortutako mailetara hurbiltzen ari dela erakusten dute. 2016. urtean, zenbatetsitako

hazkundera % 6,9koa izan da; hortaz, bi urte horietan metatutako hobekuntza % 17,8koa izango litzateke.

2016. urtean, nekazaritzako guztizko ekoizpenak eta nekazaritza-errentak igoera izan dute, hein handi batean oliba-olioari esker. Hain zuzen, urte horretan haren balioa % 62,6 igo da; aurreko urtean, aldiz, beherakada handia izan zuen (% -39). Olioan izandako igoerari nekazaritza-ekoizpenaren igoera orokorraren % 84,6 dagokio, eta landare horrek izandako igoeraren % 92,7. 2015ean, berriz, barazkiek eta fruituek eragin zuten hazkundera; baina, 2016an, beherakada handia izan da barazkietan (% -9). 2015ean fruituetan eta barazkietan lortutako emaitza 13 urtean izandako onena izan zen, aurten olioarekin gertatu den moduan. Edonola ere, aurten fruituek azken bosturtekoan izandako gorakadari eutsi diote (% 3,1), eta Espainiako kategoriarik garrantzitsuenak dira, barazkien aurretik. Gainerako kategorietan, bilakaera apalagoa izan da. Ekoizpenaren ehunekoei erreparatuta, olioan izandako igoeraz gain, patata-ekoizpenaren balioaren igoera nabarmen daiteke (% 37,3); horren ondoren daude, maila apalagoan, labore industrialak (% 12,8). Barazkietan izandako beherakadaz gain, bazka-landareetan soilik izan da beherakada txiki bat.

Abeltzaintza-sektorean, produktu garrantzitsuenaren igoera, txerriarena alegia, egonkortu egin da (% 5,8) baina garrantziaren arabera bigarrena eta laugarrena diren produktuetan beherakadak izan dira (% -5 esnea eta % -4,4 hegaztiak). Produktu-motaren arabera, balioaren aldakuntzak oso txikiak izan dira 2015etik 2016ra bitartean. Izan ere, sektore horretan ekoizpena doitu egin ohi da, kostuak estaltzeko; batez ere, prezioak jaisten direnean. Espainian azken hamarkadan azpisektore horretan izandako hazkundera txerri-haragiaren garrantzia agerian jartzen da; ardi-aziendan beheranzko joera izan da, eta behi- eta hegazti-haragiek hazkunde txikia izan dute.

Nekazaritza-errentarekin batera, sektoreko lanaren zenbatespena egiten da, nekazaritzako lan-unitatetan (NLU). Horren arabera, sektoreko lanaren heren bat baino gehiago galdu da, oso erritmo jarraituan gainera, 1990etik; eta 2000. urtetik aurrera, ia laurden bat. Hala ere, urte batzuetan gorakada txiki batzuk izan dira: esaterako, 2016an, adierazle horretan % 1,6ko igoera izan baita.

64. taula Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak

(M euro)

Kontzeptua	2015	2016*	% Δ 2016/2015		
	Ekoizlearen prezioak	Ekoizlearen prezioak	Monetarioa	Erreala	Prezioak
A.- Nekazaritza-adarreko ekoizpena	43.667,70	46.807,2	2,9	-3,6	6,7
Landare-ekoizpena	26.023,90	28.752,3	4,4	-3,7	8,4
Animalia-ekoizpena	15.938,30	16.377,1	0,7	-3,6	4,5
Zerbitzu-ekoizpena	482,70	479,9	-0,8	1,2	-2,1
Bigarren mailako jarduerak, ez-nekazaritzakoak, ez-bereizgarriak	1.219,80	1.197,9	0,7	0,5	0,2
B.- Bitarteko kontsumoak	21.754,90	21.310,3	-0,9	-3,7	2,9
C.- (A-B) Balio erantsi gordina	21.909,80	25.496,9	6,3	-3,5	10,1
D.- Amortizazioak	5.194,90	5.251,5	-0,6	0,2	-0,7
E.- Beste diru-laguntza batzuk	5.700,50	5.804,7	2,3	--	--
F.- Beste zerga batzuk	351,80	362,4	4,4	--	--
G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta	22.063,60	25.687,7	6,9	--	--

(*):2016ko urtarileko 2. estimazioa.

Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.


1.2 BILAKAERA NAFARROAN

Sektoreko makromagnitudeak

Nafarroako lehen sektorea % 2,9koarekin geratu da aurtan, Foru Komunitateko ekonomiaren balio erantsi gordinaren (BEG uneko prezioetan) gaineko % 3ko mailatik gertu, eta maila horretan eutsi dio oro har azken bosturtekoan. Industria- nahiz zerbitzu-sektoreekin alderatuta, lehen sektorearen diru-sarreren maila eta ekoizpena egonkorragoak dira, eta kontuan izanik epe luzean izandako inflazioa, maximo historikoetan dago. Ekonomiaren guztizkoa, aldiz, 2016ra arte ez da 2008ko balioen antzekoetara iritsi. Haren hazkundea % 1,6koa izan da, aurreko urteetan izandakoen antzekoa: hain zuzen, Nafarroako ekonomiaren gainerako sektoreen hazkundearen erdia izan du (% 1,6koa, gainerakoa % 3,1koa izan den bitartean). BEG-k beherakada 2009an soilik izan zuen, eta ehuneko-puntu erdi bat baino ez zen jaitsi. 2016an, 0,57 milioi eurotan kokatu da.

11. grafikoa Nekazaritza-ekoizleek jasotako prezioen indizeak

(Indizea: 2005eko urtarrila= 100)



Oharra: Urte bakoitzeko prezioen hileko indizeen batez bestekoa.
Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Nekazariari ordaintzen zaizkien prezioei buruzko adierazleetan, beheranzko joera ikusten da. Edonola ere, basogintzako prezioetan izandako jauziaren salbuespenarekin, 2015ean. 2016an, % -3,1ko aldakuntzak gertatu dira indize orokorrean, % -0,6koa nekazaritzako produktuen prezioetan, % -6,2koa basogintzako produktuenetan, eta % -6koa animalia-produktuenetan. Estadistika horretan, halaber, nekazariak erabiltzen dituzten lehengaiengatik ordaintzen dituzten prezioak % 4,9 jaitsi dira. Nafarroako Estatistika Institutuaren adierazle horiek hiru azpisektoreetako bakoitzerako kalkulaturako hileko balioen batez bestekoak dira. Nafarroako Gobernuak dagokion Sailak kalkulaturako prezioen adierazlearen arabera, % -3,8ko beherakada izan da jasotako prezioetan: % -2,8 nekazaritzako produktuen kasuan, % -5 abeltzaintzakoetan eta % -5,4 basogintzakoetan.

Iturri horren arabera, produktuen arabera ehunekoak hauek dira: % 41,7ko igoera patatetan, % -11,3 zerealeetan, % -19,7 industria-laboreetan, % 6,5 bazka-landareetan, % 12,2 fruituetan, % 9,1 barazkietan, eta % -16,8 ardoaren sektorean. Hala, zerealek eta ardoak eragin dute batez ere landare-azpisektorearen beherakada orokorra.

Animalia-produktuetan, hau izan da urte arteko bilakaera: % 1 behietan, % -6,7 ardietan, % -8,8 ahuntzetan, % 1 txerrietan, % -17,1 hegaztietan, % -3,7 untxietan, % -7,8 esnean,

% -9,4 arrautzetan eta % -5,3 abere bizietan. Kasu horretan, beherakada orokorra hegaztiak eta esneak eragin dute.

Tona-kopuruari dagokionez, nekazaritza-laboreen guztizkoa % 5,9 hazi da; mahastia % -0,8 murriztu da; barazkietan hazkundera izan da, % 11,2koa, hain zuzen; zerealetan, % 20,6ko igoera izan da, eta lekadunetan, % 39,3koa; beste hauetan ere murrizketa gertatu da: olibondoan % -28,4koa, erremolatxan % -26koa, patatan % -24,9koa, bazka-landareetan % -4,7koa eta fruituetan % -2,8koa.

Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza

Lehen sektoreko kanpo-merkataritza berrikuntza bat izan da 2016an: inportazioen eta esportazioen arteko balantzaren hobekuntza eten egin da, zenbait urtez esportazioen aldeko joera areagotu ostean. Estatistika horretan aztertzen diren hiru azpisektoretan –animalia-azpisektorea, landare-azpisektorea eta labore industrialena– esportazioak areagotu egin dira, baina baita inportazioak ere, neurri handixeagoan gainera; horren ondorioz, balantzak okerrera egin du pixka bat.

65. taula Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Nafarroa

(Meuro)

Muga-zergen atalak	Esportazioak		Inportazioak	
	2015	2016	2015	2016
Animalia biziak eta animalia-erreinuko produktuak	124,6	135,7	135,2	158,6
Landare-erreinuko produktuak, gantzak eta olioak	338,9	359,8	190,1	221,7
Elikagaigintzako produktuak	538,8	549,6	217,8	236,9
Nekazaritzako elikagaien sektorea	1.002,3	1.045,1	543,1	617,2
Nekazaritzako elikagaien sektorearen partaidetzaren % esportazio-inportazioen guztizkoetan	11,7	12,5	11,9	13,6

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuen gainean.

Adierazle horietan guztietan, jarduera areagotu egin da, esan denez, azken urteetako joerari jarraituz. Inportazioen bizkortze apal bat baino ez da gertatu, eta horren ondorioz, superabita jaitzi egin da: 2015ean 459,2 milioikoa izan zen, eta 2016an, 427,9 milioikoa izan da. Hala, superabita % 69,3koa izango litzateke; hain zuzen, Nafarroako nekazaritza-produktuen esportazioek ehuneko horretan gainditzen dituzte inportazioak. Aurreko urtean, % 84,6koa izan zen. Superabita elikagaigintzak eragin du batez ere (hark du jarduera handiena, produktuetako asko, esportatzen direnak batez ere, fase industrial batetik igarotzen direlako salmentaren aurretik). Abeltzaintza-azpisektoreak, berriz, ez dio ekarpenik egiten superabitari, haren balantza negatiboa baita duela zenbait urtetatik, modu apalean bada ere.

Biztanleria landuna

EINek, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren bidez, lehen sektoreko biztanleria landunaren hiruhileko datuak eskaintzen ditu; hemen, urtearen erdialdekoak hartu dira erreferentziatzat, ustez adierazgarrienak direlako. Nafarroako datuek gorabehera garrantzitsu bat jartzen dute agerian aurreko urteei begira: izan ere, langile-kopurua bikoiztu egin zen 2011tik 2013ra bitartean. Nolanahi ere, hori talde txikia eta askotarikoa da, barnean hartzen baititu bai autonomoak, eskuarki jabeak direnak, bai soldatapekoak. Azken talde horren ezaugarri dira azpikontratazioa, urtarokotasuna eta aldizkakotasuna; hori dela eta, faktore jakin batzuek gorabehera garrantzitsuak eragin ditzakete: esate baterako, uzta-sasoi jakin baten datetan aldaketak gertatu izanak.

2016ko kopurua bitartean dago, baina, edonola ere, hurbilago dago 2011ko gutxienekotik 2013ko gehienekotik baino, eta 2015eko datua baino goraxeago dago: biztanle landunen kopurua 9.800 pertsonakoa da. Hori Espainiako kopuruaren % 1,3 da. Espainian ere, kopurua hazi egin da pixka bat aurten, baina oro har oso egonkor eutsi dio, azken urteetan izandako krisi ekonomikoko zikloa erreferentziatzat hartuta behintzat.

66. taula Enplegua lehen sektorean. Urteko batez bestekoa*

(m pertsona)

Urtea	Nafarroa	Espainia
2007	12,9	925,5
2008	14,0	830,6
2009	13,3	790,8
2010	11,3	772,8
2011	7,1	735,9
2012	8,6	722,3
2013	15,5	753,1
2014	13,4	739,3
2015	9,4	740,4
2016	9,8	760,2

(): Ekaineko datuak aurkezten dira, uste baita adierazgarriagoak direla sektoreko enpleguaren urtaro-bilakaeraren barruan.*

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN.

2. NEKAZARITZAKO AZPISEKTOREA

Doikuntzak doikuntz, nekazaritzak bolumen ekonomiko garrantzitsua du Nafarroako Foru Erkidegoan –sarritan, gero eta teknifikazio handiagoari esker–. Laborantza-lurrek Nafarroako azaleraren (10.391 km²) % 27,9 hartzen dute, eta jarduerak hegoaldeko erdian eragin handia du. Krisi ekonomikoak prezio-jaitsierak eragin zituen, eta gero, gorabehera handiko ohiko zikloak etorri ziren, baina, oro har, goranzko joerak izan dira epe luzera, bai prezioetan, bai ekoizpenetan. Meteorologiak edo uzta egiteko aukeratutako uneez eragin nabarmena izan dezakete urtetik urterako aldakuntzetan, eta urte batetik bestera aldaketa handiak egon direlaren sentazioa sortu, horrelakorik egon gabe.

Bitarteko teknikoek aldakuntza horiek areagotzen dituzte. Bitarteko horiek gero eta sofistikatuagoak dira eta laboreak lantzean gero eta malgutasun handiagoa izateko aukera ematen dute, gero eta handiagoa baita sektoreak eskaintza eskarira eta merkatuko prezioetara egokitzeko duen etengabeko beharra, mozkin handiagoak lortzeko. Labore nagusiak ez dira aldatu, iraunkorrak dira, kalitate onekoak izatearen ospeak lagunduta, lurraldean produktu horien epe luzerako egonkortasuna sendotzen baitu ospe horrek.

2016an, goranzko joerak izan dira ekoizpenetan eta prezioetan, baina zenbait produktu-kategoriatan badaude salbuespenak.

2.1 EKOIZPENAK ETA AZALERAK

Laborantza-lurren erabileraren indizeak ez ditu kapitulu honetan aztertutako beste adierazle batzuen gorabeherak izaten ari. Baina, azalerari dagokionez, ez du adierazten sektorea uzkuratzen ari denik, hedatzen baizik (dena dela, hektarea berriak, jakina, aldi baterako lugorri utzitako lurak izan daitezke, eta ez nekazaritzarako eskuratutako lurak). Hain zuzen ere, aurten oso gorakada txikiak izan dira arlo horretan, eta Foru Erkidegoan landatutako azaleraren zabalkuntza txikiak direla dirudi, eta, aurreko urteetan zifra horiek izandako bilakaerari erreparatuta, badirudi eremu finko batzuen inguruan egonkortuta dagoela lurralde hori.

Halaber, epe luzeko behaketa horri esker, produktuen txandaketak azterketa honetan bereizitako kategoria bakoitzaren barruan gertatzen direla hauteman daiteke: lehorreko laboreak, labore ureztatuak, belarki-laboreak edo zurezko laboreak esaterako. Oro har, aurreko urteetan, zurezko laboreetarako eta lehorreko laboreetarako azalera txikitu egin

zen, baina hori ez zettorren beti bat beste bi tipologietarako azalera handitzearekin. Aurten, lau modalitateek gora egin dute arlo horretan, % 0,3tik (lehorreko zurezko laboreak) % 1,8ra (belarki-labore ureztatuak) bitarteko tartean.

Ezohikoa izanik, 2015ean, labore ureztatueterako azalera behera egin zuen, baina aurtengo gorakada 2015eko beherakadaren balio garbiaren ia hirukoitza izan da (% 1,7 eta -% 0,6, hurrenez hurren). Hortaz, labore ureztatueterako azalera nekazaritzako azalaren % 34,3 izatetik % 34,6 izatera pasatu da, eta lehorreko laboreetarakoak, berriz, gainerako ia bi herenak hartzen ditu.

Zurezko laboreek hektarea-kopuru guztizkoaren % 10,3 hartzen dute, eta belarki-laboreek, berriz, % 89,7. Lehorreko laborantzaren multzoan, zurezko laboreetarako azalera % 6,8 da, eta laborantza ureztatutako multzoan, berriz, % 16,9koa. Zurezko laboreetarako (olibadiak, mahastiak, fruta-arbolak) landatutako azalaren % 57 laborantza ureztatuko eremuetan dago, eta % 43, berriz, lehorreko laborantzako eremuetan. Foru Erkidegoan, badirudi labore horietarako azalera egonkortu dela, Estatuko lurraldeetan zurezko laboreek duten garrantziarekin eta indarrarekin bat.

Landatutako guztizko azalera gora egiten jarraitzen du; kasu honetan, % 0,8, zertxobait gutxiago 2015ean baino (% 1,1).

67. taula Laborantza-lurren erabilera

(m ha)

Kontzeptua	2015			2016			% Δ 16/15		
	Lehorreko laborantza	Laborantza ureztatua	Guztira	Lehorreko laborantza	Laborantza ureztatua	Guztira	Lehorreko laborantza	Laborantza ureztatua	Guztira
Belarki-laboreak	176,0	81,8	257,8	176,7	83,3	260,0	0,4	1,8	0,8
Zurezko laboreak	12,8	16,8	29,6	12,8	17,0	29,8	0,3	1,0	0,7
Laboreak, guztira	188,8	98,6	287,4	189,5	100,3	289,8	0,4	1,7	0,8

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2017ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua. Kategoria bakoitzeko guztizkoetan hainbat labore txiki ez dira sartzen. 2016ean 6 produktu txiki berri sartu dira estatistikan, 2014arekin alderatuz.

Ekonomiaren egoeraren hobekuntzarekin bat, nekazaritza-kategoria nagusien ekoizpenek azken bosturteko ekoizpen-mailak argi eta garbi gaintitu dituzte. Laboreen guztiko pisuak % 5,9 egin du gora. Hala gertatu da zerealen eta barazkien kasuan (Nafarroako hiru kategoria garrantzitsuenetatik bi). Mahastiaren tona-kopurua 2015eko tona-kopuruaren ia berdina izan da (-% 0,8), barazkiek gorakada izan dute hirugarren urtez (% 11,2koa 2016an), eta zerealek % 20,6ko gorakada izan dute eta bazka-laboreei kendu diete guztizko pisu handieneko laborearen lehen postua. Bazka-laboreek, hain zuzen, gorakada handia izan zuten aurreko urtean, estatistika-irizpide baten ondorioz

(ray-grass belarra zenbaketan kontuan hartzea), eta belar-masa naturala, berriz, gutxiago erabiltzen da bazkatzat. Halaber, lekadunek gorakada handia izan dute (% 39,3).

Beste muturrean, aurten, honako hauek egon dira: olibadiak (-% 28,4), eta industria-laboreak, hala nola azukre-erremolatxa (-% 26,0) eta patata (-% 24,9). Kategoría horiek guztiek guztizko tona-kopuru askoz txikiagoak dituzte, gorakada izan duten kategoriek baino. Txikiagoak izan dira bazka-laboreen ekoizpen-beherakada (-% 4,7) eta fruta-arbolena (-% 2,8).

Olibadiaren kasuan, patroi hau errepikatzen da: azken bosturtekoan, urte batetik bestera, urtetik urterako konpentsazioak izan dira, kontrako zeinukoak. Dena dela, esan den moduan, portaera hori nahiko ohikoa da kategoría nagusi horietan guztietan.

Gutxienez bi urte segidan gorakadak izan dituzte barazkiek eta laboreen guztizkoak; gutxienez bi urte segidan beherakadak izan dituzte, berriz, tuberkuluek, industria-laboreek eta fruta-arboleak. Zerealen joera aldatu egin da, negatiboa izatetik positiboa izatera pasa da, eta olibadiaren, bazka-laboreen, mahastiaren eta zurezko laboreen joera positiboa joera negatibo bihurtu da. Industria-laboreen kasuan, joera berria 2010-2014 aldian izandako gorakada handien kontrakoa da.


68. taula Nafarroako nekazaritzako ekoizpen nagusiak

Kontzeptua	2015	2016	% Δ 16/15
Zerealak	878.358	1.059.372	20,6
Lekadunak	13.365	18.623	39,3
Tuberkuluak (patatak)	12.541	9.417	-24,9
Industria-laboreak	53.771	39.811	-26,0
Bazka-laboreak	1.058.237	1.008.599	-4,7
Barazkiak	459.504	510.755	11,2
Zurezko laboreak	215.027	204.113	-5,1
– Fruta-arbolak	53.979	52.446	-2,8
– Mahastiak	131.786	130.714	-0,8
– Olliorako olibadiak	29.262	20.953	-28,4

(Tm)
Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2017ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Kategorien araberrako kuotei dagokienez, zerealek lehen postua berreskuratu dute; bazka-laboreei kendu diete postu hori eta bildutako tona-kopuruaren heren batetik gora dagokie (% 37,2). Bazka-laboreen tona-kopurua ere guztizkoaren heren batetik gorakoa da (% 35,4). Barazkiek % 17,9 dute, eta fruta-arboleak, mahastiek eta olibadiak batera, berriz, % 7,2.

12. grafikoa Nekazaritza-ekoizpen nagusien bolumenaren banaketa, ehunekotan, 2016



Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2017ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Zerealen tona-kopurua (guztizkoaren % 78) honela banatzen da: % 40,2 garia da eta % 37,8 garagarra. Bi labore horiek txandakatzen dira lehorreko eremuetako labore nagusi gisa, eta urte honetako hazkunde handienetakoak izan dituzte (gariak % 35,4ko gorakada izan du, eta garagarra, % 27,5koa). Aldiz, artoaren tona-kopuruak (hirugarren zereal garrantzitsuen; % 14,9ko kuota) % 20,2ko beherakada izan du 2015ekoaren aldean. Hori dela eta, beherakadak izan ditu bi urte segidan, aurretik 3 urte segidan gorakadak izan ondoren. Artoaren atzetik oloa dago (% 5,3ko kuota), eta kategoria horretako gorakadarik handiena izan du urte honetan (% 79,5). Zerealetarako erabilitako azalerari dagokionez, garagarra dago lehen postuan, baina garia gero eta gehiago hurbiltzen ari zaio. Izan ere, garagarrerako erabilitako azalera % 0,4ko beherakada izan du aurten. Zekaleak beherakada handiak izan ditu berriz ere, eta labore marjinal izatetik gertu dago. Hala ere, tritikaleak (zekalearen eta gariaren hibridoa) % 18,1 egin du gora tona-kopuruan. Arrozak 2015ean izan zuen hazkunde handia arindu egin da, 2016an tona-kopuruak behera egin baitu (-% 12,3).

69. taula Zereal-aleen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2015		2016		% Δ 16/15	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Garia	73.525	314.278	77.769	425.576	5,8	35,4
Garagarra	85.501	314.121	85.156	400.613	-0,4	27,5
Oloa	9.066	31.093	11.249	55.821	24,1	79,5
Arroza	2.183	16.750	2.153	14.690	-1,4	-12,3
Artoa	18.235	197.606	14.861	157.620	-18,5	-20,2
Zekalea	145	521	83	340	-42,8	-34,7
Tritikalea	1.338	3.989	1.282	4.712	-4,2	18,1

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2017ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Lekadunen kategorian, ilarra eta baba lehorra labore nagusi gisa txandakatu egin dira. Ilarrak, oraingoan, tona-kopuruan kuota handiagoa izateaz gain, nagusi da azaleran ere (% 59,6ko eta % 32,6ko gorakadak, hurrenez hurren, adierazle horietan), eta % 48,2ko kuota du azaleraren guztizkoan, eta % 54,6koa, berriz, pisuan. Baba lehorrerako erabilitako azalera % 18,9 egin du behera, baina tona-kopuruak, berriz, gora egin du (% 20). Babarrun lehorrak zertxobait behera egin du bi adierazleetan, eta zalkearen ekoizpenak, berriz, ia % 80 egin du gora aurten.

70. taula Lekadunen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2015		2016		% Δ 16/15	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Babarrun lehorra	251	682	227	638	-9,6	-6,5
Baba lehorra	4.425	5.887	3.587	7.056	-18,9	19,9
Ilar lehorra	3.235	6.375	4.289	10.172	32,6	59,6
Zalkea	749	421	800	757	6,8	79,8

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2017ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Azken ekitaldietatik askotan, tuberkuluen joera nagusian beherakadak izan dira, eta ekitaldi honetan, bai azaleran zein tona-kopuruan izan direlarik (-% 28,3 eta -% 24,9, hurrenez hurren), eta eragin handiagoa izan dute patata berantiarrean edo hazitarakoan (2015etik gehitutako modalitateak), sasoi erdiko patatan baino. Dena dela, patata berantiarreko azalera zertxobait handiagoa da sasoi erdiko patatarakoa baino. Hektareako errendimenduetan, berriz, alde handiagoak daude: patata berantiarrenak behera egin du, 21,6 tm/ha-tik 20,9 tm/ha-ra, eta sasoi erdikoarenak, berriz, gora egin du, 34,2 tm/ha-tik 36,7 tm/ha-ra.

71. taula Tuberkuluen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2015		2016		% Δ 16/15	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Sasoi erdiko patata	206	7.063	160	5.878	-22,3	-16,8
Patata berantiarra eta hazitarakoa	253	5.478	169	3.539	-33,2	-35,4
Patata (guztira)	459	12.541	329	9.417	-28,3	-24,9

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2017ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Industria-laboreetan, berriz, oso izaera eta errendimendu desberdineko produktuak sartzen dira. Azukre-erremolatxaren errendimendua hektareako 97,4 tonakoa da. Ekiloreak eta koltzak, berriz, ratio horretan, hektareako 1,7 tonako eta 3 tonako errendimenduak dituzte, hurrenez hurren. Nafarroan, ekitaldi honetan, amaitu egin da erremolatxaren goranzko joera azalerari dagokionez, urtetan izandako lehen beherakada

izan baitu (-% 47,9). Ekoizpenean, berriz, beheranzko joeraren bigarren urtea izan da (-% 40,8), 2015ean 2014ko hazkunde izugarria gutxitu egin baitzen jada. Ekiloreak beheranzko joera izan du azken urteetan, eta koltzak, berriz, goranzkoa, baina zertxobait gutxitu da azken ekitaldian (-% 22,7 azalera, eta -% 3,2 ekoizpenean).

72. taula Industria-laboreen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2015		2016		% Δ 16/15	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Azukre-erremolatxa	332	28.492	173	16.861	-47,9	-40,8
Ekilorea	4.028	8.562	4.013	6.766	-0,4	-21,0
Koltza	7.075	16.717	5.467	16.184	-22,7	-3,2

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2017ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Azienda elikatzekeo bazka-laboreei dagokienez, pisuan, alpapa, aldi baterako belardia (belar naturala), ray-grass belarra eta artoa dira garrantzitsuenak, eta haien atzetik, urrun, bazka-lekadunak daude. Azalerari dagokionez, aldi baterako belardirako azalera alpaparakoa baino handiagoa da. Arlo horretan, 2016an izandako urtetik urterako aldakuntzak arinak izan dira, eta bi labore nagusienak, oso txikiak. Bazka-ilarra izan da salbuespena. Ilar lehorraren joerarekin bat, bazka-ilarrak gorakada nabarmenak izan ditu, eta bazka-zalkearen gorakadaren ondorioz lehenago galdutako azalera berreskuratu du.

73. taula Bazka-laboreen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2015		2016		% Δ 16/15	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Bazka-artoa	4.417	207.287	4.215	178.196	-4,6	-14,0
Ray grass belarra	4.620	170.245	5.261	192.958	13,9	13,3
Alpapa	6.271	324.453	6.152	316.662	-1,9	-2,4
Bazka-zalkea	4.389	79.586	4.468	78.840	1,8	-0,9
Bazka-ilarra	375	7.306	488	8.854	30,1	21,2
Aldi baterako belardia	6.691	269.360	6.691	263.089	0,0	-2,3

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2017ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

Barazkien azpisektorean¹ bi digituko atzerakada ugari daude ekoizpenean, baina horrek labore masiboenetan ez du eraginik izan. Tona-kopuru handienak dituzten 7 barazkietatik (tomatea, brokolia, piperra, azalorea, ilar berdea, espinaka eta arto gozoa; guztizko pisuaren % 77,8 dagokie) azalorak soilik izan du atzerakada txikia (-% 2,1). Gainerakoek, berriz, gorakadak izan dituzte: % 12,3 (tomatea), % 17,1 (brokolia), % 22,4 (piperra), % 32,1 (ilar berdea), % 36,4 (espinaka) eta % 20,8 (arto gozoa). Guztizko emaitza % 11,2ko

¹ Barazkien arloan, aurreko beste kategoria batzuetan bezala, erabilitako iturrietan zenbait produkturi buruzko datuak galdu dira, urte honetan edo aurrekoan haien buruzko informazioa eman ez delako.

hazkundera izan da tona-kopuruan, aztertutako labore guztien multzorako. Azalera, berriz, %4,2ko gorakada izan dute. Aipatutakoez gain, hazkundera nabarmenak izan dituzte albarjiniak, lekak eta baba berdeak; beherakada nabarmenak izan dituzte azak, eskarolak, zerbak, ardi-mihiak, errukulak, kardua, borrajak eta endibia; gorakada arina, zainzuriak; eta beherakada txikiak, berriz, urazak, kuiatxoak, orburuak eta kipulak.

Hektareako tona-kopuruan errendimendu handienak dituzten produktuak –oso baldintzatuta landare bakoitzaren egitura eta ezaugarriengatik– hauek izan dira: tomatea (barazki nagusia; 82 tm/ha), kuiatxoa (81,2 tm/ha), kipula (60,5 tm/ha), albarjiniak (56,7 tm/ha), kardua (45 tm/ha) eta piperra (34,8 tm/ha). Beste muturrean, Nafarroako zainzuri ospetsua dago (hektareako 3.800 kilo).

Oro har, gorakada handiak eta iraunkorrak izan dira ondoz ondoko hirugarren urtez labore nagusietan. Labore horiek dira, hain zuzen ere, sektoreko tona-kopuruan eragin handiena dutenak, tomateak batik bat, eta brokoliak ere, bigarren mailan. Nolabaiteko berrikuntza gisa, azalorea eta piperra nabarmendu dira besteen gainetik azken hiru urteetan.

74. taula Barazkien azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2015		2016		% Δ 16/15	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Aza	118	2.796	95	2.097	-19,5	-25,0
Zainzuria	1.173	4.538	1.203	4.618	2,6	1,8
Uraza	676	15.944	677	15.851	0,1	-0,6
Eskarola	152	4.766	112	3.032	-26,3	-36,4
Espinaka	681	14.511	868	19.791	27,5	36,4
Zerba	200	4.738	162	3.024	-19,0	-36,2
Ardi-mihia	194	1.473	170	1.124	-12,4	-23,7
Errukula	121	1.238	57	578	-52,9	-53,3
Kardua	281	12.508	239	10.755	-14,9	-14,0
Borrajak	52	2.664	44	2.244	-15,4	-15,8
Endibia	66	1.906	52	1.503	-21,2	-21,1
Kuiatxoa	109	9.301	104	8.446	-4,6	-9,2
Albarjiniak	107	5.449	123	6.980	15,0	28,1
Tomatea	2.056	163.305	2.236	183.330	8,8	12,3
Piperra	838	29.628	1.043	36.268	24,5	22,4
Orburua	968	14.898	1.129	14.108	16,6	-5,3
Azalorea	1.572	35.326	1.538	34.591	-2,2	-2,1
Brokolia	5.147	71.615	5.676	83.891	10,3	17,1
Kipula	283	17.122	282	17.061	-0,4	-0,4
Leka	678	9.767	819	13.015	20,8	33,3
Ilar berdea	2.467	15.145	2.595	20.005	5,2	32,1
Baba berdea	1.611	4.659	1.103	8.860	-31,5	90,2
Arto gozoa	853	16.207	947	19.583	11,0	20,8

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2017ko apirila). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

2016an, zurezko laboreen urtetik urterako aldakuntzak ez dira aurreko urteetan bezain nabarmenak izan, olibadiaren beherakada handia izan ezik (-% 28,4 tona-kopuruan). Azalera, ohi den bezala eta labore horien bizi-zikloarekin bat, urtetik urterako aldakuntzak oso txikiak dira. Errioxako sor-markako mahastiak oso gorakada txikia izan du, eta Nafarroako sor-markakoak, berriz, gorakada horren pareko beherakada txikia. Termino kuantitatibo globaletan, Nafarroakoa da garrantzitsuagoa, nabarmen. Fruta-arboletan, nabarmenak dira sagarrondoaren gorakada (% 13,1), mertxikondoaren beherakada (% 15), bai eta almendrondoarena ere (herenatik gora; hazkunde handia izana zuen aurreko urteetan). Madaria da landutako fruta nagusia, eta haren atzetik, sagarra eta mertxika daude. Almendrondoa, berriz, fruta-arbolek estentsiboena da. Sagarrondo, antza, fruta-arbolek 2014an lortutako balio maximoak berreskuratzeko bidean dagoen labore bakarra da.

Nafarroako sor-markako mahastietarako azalera beherakada izan du, eta Errioxako sor-markako mahastietarakoak, berriz, gorakada. Lehenbizikoaren tona-kopuruak askoz bizkorrago egin du gora azkeneko bosturtekoan, baina askoz beherakada handiagoa izan du beherakada izan duen bi ekitaldietan. Olibadiak azalera gorakada txikiak izateko joera izan du, baina irregularragoa izan da tona-kopuruari dagokionean, baita mahastiaren goranzko joera orokorraren aldean ere.

75. taula Zurezko laboreen azalera eta ekoizpena

Kontzeptua	2015		2016		% Δ 16/15	
	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)	Aza. (ha)	Ekoiz. (Tm)
Sagarrondo	537	14.101	526	15.945	-2,0	13,1
Madariondo	1.067	18.820	1.068	19.224	0,1	2,1
Gereziondo	309	889	337	894	9,1	0,6
Mertxikondo / nektario	521	14.522	526	12.339	1,0	-15,0
Aranondo	92	516	92	466	0,0	-9,7
Elorri beltza	130	632	130	569	0,0	-10,0
Almendrondo	3.240	4.062	3.248	2.631	0,2	-35,2
Intxaurrondo	238	437	245	378	2,9	-13,5
Mahastiak (Errioxako sor-markakoak)	6.637	47.126	6.825	47.703	2,8	1,2
Mahastiak (Nafarroako sor-markakoak)	10.843	84.233	10.835	83.011	-0,1	-1,5
Oliorako olibadiak	5.921	29.262	5.923	20.953	0,0	-28,4

Oharra: Sakabanatutako zuhaitzak sartu gabe.

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2017ko apirila). Nafarroako Gobernu. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK ETA EKOIZPENAREN BALIOA

Prezio- eta balio-gorabeherak, oro har, tona-kopuruaren gorabeherak baino handiagoak izaten dira. Hori ikusi da 2016an berriz ere, eta gorakadak izan dira nagusi, bai diru-sarreretan, bai laboreen prezioetan ere. 2011 eta 2012 urteetan, zerealen portaera ona izan zen, eta barazkiena, berriz, txarra. Egoera alderantzizkoa izan zen 2013an eta 2014an. 2015ean joerak ez ziren hain argiak izan, eta 2016an, berriz, hazkunde orokorreko egoera dago, eta zerealetan, balioak gora egin du, prezioek behera egin arren.

Prezioetan, labore hauek izan dituzte goranzko aldakuntza nabarmenenak: sasoi erdiko patatak (% 69,2ko gorakada), sagarrak (% 20,6), mertxikak (% 38,9) eta zenbait barazkik, hala nola zainzuriak (% 21,9), espinakak (% 55) eta orburuak (% 26,1). Zainzuriak eta orburuak garestitze-joera izan dute zenbait urtez.

Sektoreko barazkirik garrantzitsuena, tomatea, gutxiago garestitu da (% 5,7), kategoriako gainerako barazki asko bezala. Aztertutako barazkietatik bigarren garrantzitsuena % 9,3 merkatu da. Berdin gertatu zaio balioan nagusi den frutari, madariari (-% 7,6).

Zereal nagusiak, lehen aipatu bezala, merkatu egin dira (garagarra -% 14, garia -% 12,2, eta artoa -% 2). Antzeko egoera dago ardoaren arloan: ardo beltzak % 7ko beherakada izan du, eta gorriak, berriz, % 15,2koa.

Gutzizko balio ekonomikoari dagokionez, aztertutako produktu guztien balioak gora egin du, honako hauen balioak izan ezik: artoa (-% 21,9), patata berantiarra (-% 29,6) eta madaria (-% 5,6). Produktu hauen gorakadak nabarmendu behar dira: garia (% 18,9), patata (% 40,8), zainzuria (% 24), espinaka (% 111,4), tomatea (% 18,7), piperra (% 11), ilarra (% 35) eta sagarra (% 36,3).

Epe luzeragoko analisia eginez gero, 3 urtetan artoak % 40ko balioa galdu duela ikusten da, eta garrantzi handieneko barazkiek (tomatea, piperra eta zainzuria), berriz, hazkunde nabarmenak eta etengabeak izan dituzte azken hirurtekoan.

76. taula Nekazaritza-produktu nagusien prezio eta balioak, guztira

Produktua	Nekazariak jasotako prezioak (euroak/100 kg.)			Ekoizpenaren balio zenbatetsia (m euro)		
	2015	2016	% Δ 16/15	2015	2016	% Δ 16/15
Garia	18,04	15,84	-12,2	56.695,75	67.411,24	18,9
Garagarra	17,05	14,66	-14,0	53.557,63	58.729,87	9,7
Artoa	17,26	16,91	-2,0	34.106,80	26.653,54	-21,9
Sasoi erdiko patata	26,59	45,0	69,2	1.878,05	2.645,10	40,8
Patata berantiarra	19,00	20,7	8,9	1.040,82	732,57	-29,6
Zainzuria	270,55	329,72	21,9	12.277,56	15.226,47	24,0
Urza	49,66	52,53	5,8	7.917,79	8.326,53	5,2
Espinaka	49,15	76,2	55,0	7.132,16	15.080,74	111,4
Tomatea	10,69	11,3	5,7	17.457,30	20.716,29	18,7
Piperra	75,19	68,17	-9,3	22.277,29	24.723,90	11,0
Orburua	68,28	86,09	26,1	10.172,35	12.145,58	19,4
Ilar berdea	23,07	24,0	4,0	3.556,24	4.801,20	35,0
Sagarra	34,74	41,88	20,6	4.898,69	6.677,77	36,3
Madaria	54,43	50,31	-7,6	10.243,73	9.671,59	-5,6
Mertxika / nektarina	31,21	43,36	38,9	4.532,32	5.350,19	18,0
Ardo beltz berria (€/Hl)	56,46	52,52	-7,0	--	--	--
Ardo gorri berria (€/Hl)	70,33	59,62	-15,2	--	--	--

Iturria: Coyuntura agraria aldizkaria (2016ko abendua). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

2.3 NEKAZARITZA MAKINETAKO INBERTSIOA

Amaitzeko, urte honetan Foru Erkidegoan nekazaritzarako makinerian egindako inbertsio berriak aztertuko dira. Kategoría nagusiak (traktoreak) aurten inbertitutakoaren % 58,2 bereganatu du. Lau urtez segidan urteko inbertsio horretan hazkundera izan da, balioak % 9,5 gora egin duelarik. Aurten, gainerako kategorietako joerak alderantzikatu dira: arrastatutako makinaren kategorian, -% 22,2ko beherakada egon da inbertsioan, eta autopropulstsuetan, berriz, -% 12,6koa. Bi kategoría horietako emaitzak direla eta, guztizko balantzea aurreko urtekoa baino zertxobait txikiagoa da. Atoien arloa berreskuratu da, 2016ko erosketak % 50 handiagoak izan baitira 2015ekoak baino.

77. taula Nafarroan inskribatutako nekazaritzako makina berrien balorazioa

Kontzeptua	(m euro)		
	2015	2016	% Δ 16/15
Traktoreak	15.633	17.111	9,5
Motokultoreak eta autopropulstsatuak	7.101	6.208	-12,6
Atoiak	893	1.338	49,8
Arrastatutako nekazaritzako makinak	6.074	4.724	-22,2
Makinak, guztira	29.701	29.380	-1,1

Oharra: Makinen balioan ez dago BEZa barne.

Iturria: Coyuntura Agraria aldizkaria (2016ko abendua). Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

3. ABELTZAINZAREN AZPISEKTOREA

3.1 AZIENDA-ERROLDA

Nafarroako azienda-errola eta Espainiakoa alderatzen badira, ikusten da bien profila antzekoa dela espezieen araberako proportzioei dagokienez, eta ardi-aziendak eta txerri-aziendak nabarmentzen direla behi-azienden eta ahuntz-azienden gainetik. Hala ere, Espainian 1,8 txerri daude ardi bakoitzeko, eta Nafarroako ratioa 1,3 da gutxi gorabehera. Hirugarren urtez jarraian, txerrien kopurua ardiarena baino handiagoa da.

Joerari erreparatuz gero, ikusten da Nafarroan ardi-aziendak 5 urte daramatzala pixkanaka eta etengabe jaisten (% 1,6, 2016an); txerri-aziendak, berriz, oszilazio nabarmenak izan ditu azken urteetan, baita 2016an ere, % 22,4 igo baita. Horrela, 2010eko mailaren antzekoa berreskuratu du. Behi-aziendaren oszilazioak txikiak izan dira azken hamarkadan (% 0,4, 2016an), eta ahuntz-aziendarenak ere oso txikiak izan dira azken 4 urteetan (% 0,1 igo da aurten). Bi azizendek gutxigatik gaintitzen dituzte orain dela hamar urteko zifrak. Txerri-azienda % 27,2 igo da 9 urtean, eta ardi-azienda, berriz, -% 32,7 jaitsi da.


Espainian aurten igo egin dira behi-azienda (% 1,2), ahuntz-azienda (% 2,6) eta txerri-azienda (% 3), eta ardi-aziendak beherako joerari heldu dio berriro (-% 3,4), aurreko urtea ezohikoa izan ondoren (% 7,1 hazi zen azienda-mota hori). 2014an, behi-aziendak hazkunde garrantzitsua izan zuen; 2015ean, berriz, gainerako hiru azienda-motetan izan zen hazkunde nabarmena. Handik aurrera, leundu egin da gorakada, eta ardi-aziendarenak atzera egin du. Behi-aziendak gorakadak pilatu ditu hiru urtean, eta, ahuntz-aziendak eta txerri-aziendak bezala, zifra handienetan dago 2007tik. Ardi-aziendak % 28,1 egin du behera 9 urtean; epe berean, ahuntz-aziendak % 6,7 egin du gora, eta txerri-aziendak, % 12,1.

78. taula Azienda-errola (urte bakoitzeko azaroa)

Eremua	Urtea	(unitateak)			
		Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda
Nafarroa	2012	110.361	551.753	12.442	469.758
	2013	110.425	542.319	12.435	447.849
	2014	114.030	527.890	12.708	546.356
	2015	116.223	516.469	12.968	528.763
	2016	115.737	508.138	12.985	647.096
Espainia	2012	5.812.606	16.339.373	2.637.336	25.250.377
	2013	5.696.907	16.118.586	2.609.989	25.494.715
	2014	6.078.733	15.431.804	2.704.229	26.567.578
	2015	6.182.908	16.522.956	3.009.582	28.367.335
2016	6.257.057	15.962.892	3.088.035	29.231.595	
% Nafarroa/Espainia	2016	1,8	3,2	0,4	2,2

Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

13. grafikoa Nafarroako abeltzaintzako azien banaketaren bilakaera, ehunekotan



Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

3.2 ABELTZAINZAKO EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

Esnearen ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

2011. urtetik aurrera, Nafarroako esne-ekoizpena EAEkoa baino handiagoa da litrotan, eta bien arteko aldea ia % 40koa da. Behi-, ardi- eta ahuntz-esnearen guztizko ekoizpenaren hazkundea % 3,8 igo da, baina moteldu egin dela ikusten da, iazko gorakadaren aldean (% 11,6). Ekoizpena azienda-motaren arabera aztertzen bada, esne

gehien behi-aziendak ekoizten duela ikusten da (guztizkoaren % 93,9), eta aurreko urtean baino % 2,8 gehiago ekoizti dela; ardi-esnearen ekoizpenak (guztizkoaren % 6) % 23,8 egin du gora, eta ahuntzarenak (guztizko kuotaren % 0,1) nabarmen egin du behera (% 26,8).

79. taula Esnearen ekoizpena

Urtea	Behia	Ardia	Ahuntza	Guztizkoa
2007	164.573	8.675	28	173.275
2008	175.423	8.786	318	184.527
2009	181.619	8.204	398	190.221
2010	182.096	8.820	407	191.323
2011	186.301	7.534	411	194.246
2012	191.507	10.365	399	202.271
2013	194.382	11.281	361	206.024
2014	208.408	11.570	343	220.321
2015	233.074	12.460	348	245.882
2016	239.499	15.432	255	255.185

(m litro)

Iturria: Nafarroako Gobernua. Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua.

INTIA-ITG Institutuak argitaratutako datuen arabera –Nafarroako behi- eta ardi-ustiategien ekonomia-jarduera neurtzen dute–, 2016. urteko emaitzak aurreko urteko emaitzen oso antzekoak izan dira, eta urte arteko ohiko oszilazioekin hautsi dute oraingoz; oszilazio horiek, bestalde, ustiategi-kopuru horien beste adierazle batzuei ere eragiten diete. Ardi-aziendari dagokionez, 2016ko emaitzak aurreko urteko posizioari –lehenagoko urteetako baino hobea– eustea dakar; behi-aziendaren balantzearen bilakaera, berriz, zertxobait okerragoa da.

Alde batetik, esnetarako behi-aziendaren kasuan, aurtengo marjina garbia % 1,1 igo da, eta ardi bakoitzeko marjina garbia % 5 igo da aurreko urtetik. Hori prezioaren igoeratik (% 0,7) eta elikadura-gastuen jaitsieratik (% 6,2) gertatu da; hala ere, gastu aldakorrak % 4,7 igo dira, eta, horregatik, esne-ekoizpenaren hobekuntza ekonomikoa ez da nabarmena izan. Gainera, emandako diru-laguntzak aurreko urtekoak baino % 0,6 handiagoak izan dira, baina igoera hori hutsala da 2015eko % 284,6ko igoerarekin alderatzen bada.

Beste alde batetik, esnetarako behi-aziendaren marjina garbia ere hazi egin da (% 2,3). Hori esnearen prezioa jaitsi arren gertatu da (-% 4,7), arazo hori ekoizpen-gastuen murrizketak leundu baitu (-% 3,3, elikadura-gastuak, eta -% 3,1, gastu aldakorrak). Hori horrela izanda ere, behi bakoitzeko marjina garbiak behera egin du (-% 2,3), eta diru-laguntzak, ardi-esnearekin gertatzen zen bezala, % 11,6 baino ez dira igo (aurreko urtean % 106 igo ziren).

80. taula INTIA-ITGk kudeatutako esnetarako behi- eta ardi-ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak

Kontzeptua	Esnetarako behiak		Esnetarako ardiak	
	2015	2016	2015	2016
DATU TEKNIKO-EKONOMIKOAK				
Ustiategien lagina	58	51	30	29
Eskulana (GLU)	2,56	2,71	1,68	1,71
Behiak/Ardiak ustiategiko	105	110	372	359
Azalera (ha)	46,22	47,15	24,79	23,95
Behi-/ardi-esnearen ekoizpena	9.422	9.609	141	147
Esnearen prezioa (euroak/1.000 litro)	333,10	317,52	1.526,00	1.537,2
EKOIZ. eta EMAITZAK (euroak)				
Produktu gordina(*)	383.359	383.588	100.696	101.159
- Gastuak elikagaietan	160.384	155.071	25.590	24.012
- Gastu aldakorrak	61.887	59.985	8.898	9.314
= Marjina gordina	161.088	168.532	66.207	67.834
+ Diru-laguntzak	12.710	14.184	5.703	5.737
- Gastu finkoak ^(*)	114.319	120.709	33.010	34.266
= Marjina garbia	46.769	47.823	33.197	33.567
EMAITZA UNITARIOAK (euroak)				
Marjina garbia behia/ardia	444,40	434,33	89,18	93,62
Marjina garbia / GLU	26.215,02	26.324,49	23.226,18	22.851,04

(*): Zerbitzuen edo beste kontzeptu batzuen araberrako diru-sarrerak produktu gordinean jasotzen dira, eta eskulanaren gastuak, berriz, gastu finkoetan.

Iturria: INTIA-ITG, Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua, BTK Saila (Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa).

Haragiaren ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

Nafarroan 2016. urtean ekoiztiko haragia aztertuz gero, aurreko urtean ikusitako joera errepikatu egiten da. Izan ere, haragiaren ekoizpen orokorra edo guztizkoa jaitsi egin da, baina oso gutxi (-% 0,33); hegaztikiak poliki-poliki txerriak ordezkatzeko jarraitzen du (besteak beste, broiler oilaskoen baserriak indar handiz garatu direlako), eta aurten inoiz baino gehiago, txerriak ia 11.500 tona galdu baititu, eta hegaztikiak 11.300 tona baino pixka bat gehiago irabazi. Txerriak % 34,1 jaitsi da, eta aldaketa hori azken hamarkadan izandako edozein aldaketa baino askoz handiagoa da. Hegaztikiaren gorakada, berriz, indartsuena da 2006tik 2009ra gertatu zen igoeratik hona (hiru urte horietan ekoizpena bikoiztu egin zen). Hegaztikiaren guztizkoak haragiaren guztizkoaren % 71 hartzen du, eta aurreko urtean % 62,1 hartzen zuen.

Hildako txerrien, behien, ahuntzen eta untxien tona-kopuruaren jaitsiera (-% 34,1, -% 9,1, -% 6,1 eta -% 5,5, hurrenez hurren) handiago izan da hildako hegaztien, zaldien eta ardiaren tona-kopuruaren igoera baino (% 14,1, % 9,8 eta % 3,1, hurrenez hurren).

81. taula Nafarroan hildako ganaduaren kanaleko pisua

Urtea	Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahunz-azienda	Txerri-azienda	Zaldi-azienda	Hegazti-azienda	Untxiak	Gutziz-koa
2012	7.467,5	3.388,4	24,5	39.781,1	2.649,5	76.740,4	2.684,7	132.736,2
2013	7.326,9	3.819,3	24,6	36.610,5	2.500,3	79.155,6	2.641,8	132.078,9
2014	6.435,4	3.681,9	37,0	36.720,5	2.574,1	80.687,0	2.763,8	132.899,7
2015	6.067,1	3.512,7	34,9	33.745,1	3.165,1	80.767,7	2.817,4	130.110,0
2016	5.518,0	3.621,5	32,8	22.241,2	3.475,8	92.127,2	2.661,3	129.677,8
% Nafarroa/Espainia	0,9	3,1	0,3	0,5	26,5	6,0	4,5	2,0


(Tm)

Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

Azienda-mota bakoitzaren kuotaren eta guztizko ekoizpenaren arteko erlazioa aztertzen badugu, lehenago aipatu dugun bezala, hegaztikiak hartzen du Nafarroako haragiaren guztizkoaren zatirik handiena (% 71), eta, haren atzetik, txerrikiak (% 17,2), behikiak (% 4,3), ardikiak (% 2,8), zaldikiak (% 2,7), untxikiak (% 2,1) eta, azkenik, ahunzkiak (% 0,03 adierazgarria).

14. grafikoa Abeltzaintzako ekoizpena Nafarroan

(Indizea: 1999=100)



Iturria: Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa.

Nafarroan hildako azientaren guztizko kuota Espainiako estatu osoan hildakoaren % 2 da, aurreko urtean baino zertxobait gutxiago. Haragi-motaren arabera, zaldikiak hartzen du estatu-kuota handiena (% 26,5), eta, haren atzetik, hegaztikiak (% 6), untxikiak (% 4,5), ardikiak (% 3,1), behikiak (% 0,9), txerrikiak (% 0,5) eta ahunzkiak (% 0,3).

82. taula ITGk kudeatutako haragitarako behi- eta ardi-ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak

Kontzeptua	Haragitarako behiak		Haragitarako ardiak	
	2015	2016	2015	2016
EZAUGARRIAK				
Ustiategien lagina	34	34	31	28
Eskulana (GLU)	1,2	1,3	1,2	1,16
Behiak/Ardiak ustiategiko	71,6	77,4	677	638
Azalera (ha)	35,7	40,1	43,0	34,5
Ekoiz. kg txahal/arkume sal. behi/ardiko ⁽¹⁾	211	230	19,9	20,8
Salmenta-prezioa txahal/arkume kg-ko	3,90	3,90	3,92	3,65
EKOIZP. eta EMAITZAK (euroak)				
Produktu gordina diru-laguntzak barne ⁽²⁾	76.021	91.122	65.163	65.152
<i>Diru-laguntzak⁽²⁾</i>	<i>8.348</i>	<i>12.072</i>	<i>9.543</i>	<i>10.787</i>
- Gastuak elikagaietan	39.661	40.396	30.467	28.106
- Gastu aldakorak	12.644	16.047	8.628	7.520
= Marjina gordina	23.716	34.679	26.067	29.526
- Gastu finkoak	31.050	34.753	19.362	19.198
= Marjina garbia	-7.334	-74	6.705	10.329
EMAITZA UNITARIOAK (euroak)				
Marjina garbia behia/ardia	-102,39	-0,95	9,90	16,18
Marjina garbia / GLU	-6,248	-60	6,305	9,705

(1): Haragi kiloak: behi-azienda, kanaleko kilo. Ardi-azienda, kiloak bizirik.

(2): INTIA-ITGren kasuan, diru-laguntzak eta zenbait diru-sarrera (zerbitzuengatik edo beste batzuegatik) produktu gordinean jasota daude.

Iturria: INTIA-ITGren memoria, Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua, BTK Saila (Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa).

Haragitarako behi- eta ardi-aziendaren emaitza ekonomikoen azterketei INTIA-ITGk aztertutako ustiategien emaitzak gehituz gero, ikusten da 2016aren eta aurreko urtearen artean desberdintasun handi samarrak daudela, esnearen negozioan ez bezala. Bai behikian, bai ardikian, joera positiboa izan da. Arlo honetan, behiak aurreko urteko emaitza negatiboak ia berdintzea lortu du, diru-laguntzek gora egin dutelako, neurri batean; ardikiak, berriz, bere marjina garbia hobetu du, diru-laguntzen igoeraz harago, eta azken bost urteetako emaitza onena lortu du.

Behiari dagokionez, igo egin dira haren gastu-kategoria guztiak; ardikiaren kategoriak, berriz, murriztu egin dira, baina guztiak ere oso gutxi, produktu gordina bera bezala. Eta hori ardikiaren prezioaren beherakada behiarena baino handiagoa izan arren. 31 ustiategiko lagin batetik 28ko batera igarotzean, baserri horien azaleraren batezbestekoa ia 43 hektareatik 34,5era gutxitu da.

Behiaren ekoizpenaren tona-kopurua 2015ekoa baino % 9,1 handiagoa da, eta prezioa ez da aldatu. Diru-laguntzak % 44,6 igo izanak marjina gordinaren hazkundeari lagundu dio, bai eta marjina garbiaren jaitsiera aurreko urtekoa bezain nabarmena ez izateari ere (-% 99, 2016an, eta -% 1.045,1, 2015ean). Ardikiari dagokionez, salmentei eutsi zaie; merkatuko prezioa, bestalde, jaitsi egin da (% 6,9), eta aurreko urtean baino % 4,4 tona

gehiago ekoitzi dira. Hazkundera izan da hala marjina gordinean, nola garbian (% 13,3 eta % 54, hurrenez hurren).

83. taula INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak

Kontzeptua	Esne-txerrien ekoizpena ⁽¹⁾		Ziklo itxia ⁽²⁾	
	2015	2016	2015	2016
EZAUGARRI TEKNIKO-EKONOMIKOAK				
Aztertutako ustiategi kop.	12	12	18	16
Ustiategiko txerri eme kop.	165,95	160,68	399,84	356,14
Txerri eme bakoitzeko saldutako esne-txerriak	22,65	23,53	1,02	1,01
Txerri eme bakoitzeko saldutako txerri gizenduak	0,20	0,24	20,84	22,57
Txerri eme bakoitzeko saldutako txerri-kopurua	22,85	22,77	21,86	23,58
Esne-txerriaren salmentaren batez besteko pisua (kg)	17,53	18,12	9,34	8,81
Gizentzeko aziendaren salmentaren batez besteko pisua (kg)	108,75	113,02	109,92	109,38
Saldutako esne-txerri kop. + gizentzekoak	3.792	3.820	8.742	8.399
Esne-txerriaren salmentarako batez besteko prezioa (euroak)	37,25	38,07	26,69	25,64
Txerriaren kg-ko salmentarako batez besteko prezioa (txerria)	1,072	1,061	1,071	1,069
GLU guztira	0,9	1,0	3,0	2,8
EMAITZA EKONOMIKOAK (euroak)				
Produktu gordina	155.027	158.782	1.036.954	970.617
- Gastu aldakorrak	104.847	104.244	783.265	699.470
Marjina gordina	50.180	54.538	253.689	271.147
- Gastu finkoak	40.270	38.792	231.327	196.066
Marjina garbia	9.910	15.747	22.361	75.081

(1): 2016an 3 ustiategik 26,88 kg-ko esne-txerriak ekoitzi dituzte eta 9k titia kenduta saltzen dituzte (6,95 kg/esne-txerri).

(2): Ekoizpenaren % 80 baino gehiago gizendutako txerri gisa saltzen duten ustiategiak.

Iturria: INTIA-ITGren memoria, Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua, BTK Saila (Berrikuntza, Teknologia eta Kudeaketa).

INTIA-ITGren datuen arabera (txerri-ustiategien emaitza ekonomikoak ere aztertzen ditu), 2016ko emaitza 2015ekoa baino hobea izan da.

Esne-txerrien ekoizpenari dagokionez, gastuak gutxitu direnez, 2016ko marjinak igo egin dira (% 58,9, marjina garbiaren kasuan, esaterako). Ziklo itxikoetan, aurretik aipatutako arrazoi bera dela-eta, marjina garbiaren gorakada soberan bikoiztu da (% 235,8), eta, horrenbestez, berriro igo da, aurreko urtean jaitsi ondoren. Bigarren kasu honetan, ekoizpenak behera egin du, baina kostuak are gehiago jaitsi dira; hazkuntza-ustiategietan, produkzioa eta kostuak aurreko urteko kopuruen antzekoetan mantendu dira, aldaketa gutxirekin; aldaketa horiek produkzioan nahiz kostuetan izan dira aldekoak, eta horrek marjinaren igoera eragin ahal izatea ekarri du.

3.3 ABELTZAINZAKO PRODUKTUEN PREZIOAK

Azkenik, Foru Erkidegoko animalia-produktuen prezioen urteko batezbestekoei dagokienez, aurreko urteetan gorabehera txikiak egon direla ikusi da, eta nahikoa orokorrak produktu guztietan: 2011n, 2012an eta 2015ean igoerak izan ziren; 2013an, 2014an eta 2016an, berriz, jaitsierak izan ziren nagusi. 2016an, prezio-igoerak izan dituzten produktu bakarrak urtebeteko behikia, zaharraren behikia eta ardi-esnea izan dira (% 0,3, % 0,9 eta % 3,4, hurrenez hurren); nabarmentzekoak dira behi-esnearen, oilo-arrautzen eta baserriko oilaskoen prezioen jaitsierak (% 9, % 9,4 eta % 16,3, hurrenez hurren).

84. taula Animalia-produktuen prezioak. Urteko batezbestekoak

Produktua	2014	2015	2016	(euroak) % Δ 16/15
Gizentzeko azienda (100 kg/bizirik):				
– Urtebeteko behi-azienda	209,61	216,88	217,53	0,3
– Behi-azienda zaharra	117,67	116,10	117,15	0,9
– Esneko arkumea	380,14	394,28	379,43	-3,8
– Esneko antxumea	505,52	534,87	487,62	-8,8
– Txerri gizendua	127,40	113,33	112,67	-0,6
– Baserriko oilaskoak	108,92	111,75	93,58	-16,3
– Untxiak	178,89	158,67	152,83	-3,7
Abeltzaintzako produktuak:				
– Behi-esnea (100 litro)	33,25	34,17	31,10	-9,0
– Ardi-esnea (100 litro)	94,08	105,42	108,98	3,4
– Oilo-arrautzak (100 dozena)	116,98	123,26	111,65	-9,4
– Artilea (100 kg)	6,86	9,00	8,88	-1,3

Iturria: Urte bakoitzeko abenduko Coyuntura Agraria aldizkaria. Nafarroako Gobernua.



3. INDUSTRIA

16

1. IKUSPEGI OROKORRA

1.1 JARDUERAREN BILAKAERA

Egoera orokorra ona den honetan, Nafarroako industria-sektorearen jarduerak berriro egin du gora 2016an eta, horrela, aurreko urteetan hasitako goranzko dinamikari eutsi dio, nahiz eta hazkunde-erritmoa pixka bat mantsotu den aurreko ekitaldiaren aldean.

Zehazki, Nafarroako industriako balio erantsi gordinak % 2,3 egin zuen gora 2016an, eta % 2,9 aurreko ekitaldian. Halaber, industria etengabe hazi da urtean zehar, eta azken hiruhilekoan moteltze arina erregistratu da (% 2,2, % 2,3, % 2,4 eta % 2,1 lehen hiruhilekotik laugarren hiruhilekora, hurrenez hurren). Aipatu behar da Nafarroan antzemandako industria-jardueraren hobekuntza 2016an Estatu osoan erregistratutakoa (% 2,4) baino pixka bat txikiagoa izan dela.

85. taula Industriako ekoizpen-jardueraren bilakaera

Urtea	IPI*- Nafarroa	IPI*- Estatu
2007	0,3	2,0
2008	0,4	-7,3
2009	-20,3	-15,8
2010	6,4	0,8
2011	-2,1	-1,6
2012	-8,0	-6,7
2013	-1,6	-1,6
2014	3,9	1,3
2015	2,2	3,4
2016	0,7	1,9

(*): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentua (NEI) eta EIN.

Industria-jardueraren beste adierazle batzuk kontuan hartuta, Nafarroako Estatistika Erakundeak eginiko Industria Produzioaren Indizeak (IPI) % 0,7ko gorakada izan du 2016an, eta % 2,2koa izan zuen 2015ean. Halaber, indize hori % 1,9 areagotu da Estatu osoan (2015ean, % 3,4).

86. taula Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen helburu ekonomikoaren arabera

Kontzeptua	2014	2015	2016
Bitarteko ondasunak	10,0	-0,8	1,1
Ekipamendu-ondasunak	3,4	4,9	-1,3
Kontsumo-ondasunak	3,2	2,4	-1,8
Energia	-6,0	6,9	12,3

(%)

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).

Ondasunei dagokienez, bitarteko ondasunek eta batik bat energiak datu positiboak izan dituzte, baina ekipamendu-ondasunek eta kontsumo-ondasunek datu negatiboak izan dituzte. Nabarmendu egin behar da energiaren ekoizpenaren indizean izandako gorakada, % 12,3koa izan baita 2016an (% 6,9ko gorakada izan zuen aurreko ekitaldian). Bestalde, bitarteko ondasunek % 1,1 egin dute gora; ekipamendu-ondasunek eta kontsumo-ondasunek, berriz, -% 1,3ko eta -% 1,8ko beherakada izan dute hurrenez hurren.

**87. taula Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduerar-
arloka**

Kontzeptua	2014	2015	2016
Nekazaritzako elikagaien industria	0,4	0,3	2,0
Metalurgia eta produktu metalikoak	11,1	3,8	-1,9
Papera, zura eta altzariak	-12,5	4,3	6,5
Garraio-materiala	6,1	1,5	-2,0
Beste manufaktura-industria batzuk	6,1	-0,4	0,4

(%)

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).

Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera jarduerar-arloka heterogeneoa izan da 2016an, eta aipagarria da papera, zura eta altzarietan izandako igoera (% 6,5); igoera txikiagoa izan da nekazaritzako elikagaien industrian (% 2) eta beste manufaktura-industria batzuetan (% 0,4); beherakada gertatu da, berriz, garraio-materialetan (-% 2) nahiz metalurgia eta produktu metalikoetan (-% 1,9).

1.2 ENPRESAK ETA ENPLEGUA

Gizarte Segurantzaren datuen arabera, 2016an Nafarroan erregistratutako industria-jardueraren hazkundea sektorekako enpleguaren jokabidean ere hauteman da. Hala, industria-sektorean erregistratutako enpresen kopuruak pixka bat behera egin badu ere, langileen kopuruak gora egin du aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

88. taula Industria-sektoreko langileen eta enpresen kopuruaren bilakaera

Urtea	Enpresak	% Δ	Enplegua	% Δ
2007	2.854	3,4	69.265	5,6
2008	2.861	0,2	69.704	0,6
2009	2.728	-4,6	64.440	-7,5
2010	2.654	-2,7	62.760	-2,6
2011	2.617	-1,4	62.824	0,1
2012	2.539	-3,0	59.026	-6,0
2013	2.456	-3,3	56.545	-4,2
2014	2.460	0,2	57.348	1,4
2015	2.447	-0,5	58.601	2,2
2016	2.436	-0,4	59.622	1,7

Iturria: Nafarroako Ganbera, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Zehazki, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako informazioaren arabera, industriako enpresen batez besteko kopurua 2.436 izan da 2016an, 2015ean izandakoa baino % 0,4 txikiagoa. Alabaina, enpresa horiek 59.622 pertsonari eman diete enplegua 2016an; kopuru hori aurreko ekitaldian baino % 1,7 handiagoa izan da. Dena den, adierazi behar da, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestan Nafarroarako bildutako datuen arabera, industria-enpleguak % 4,3ko gorakada nabarmena izan duela 2016an.

2. INDUSTRIA-EGITURA

Datozen lerroetan Nafarroako industria-sektorearen analisisia egingo da, Foru Erkidegoan esanguratsuenak izan diren industria-sektoreak zehazteko. Horretarako, lehenik enplegua eta balio erantsia aztertuko dira, jarduera-azpisektoreen arabera, kontuan hartuta EINen industria-inkestan eskuragarri dagoen informazioa (eskuragarri dauden datu berrienak 2014koak dira¹). Analisi horren osagarri gisa, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioa erabili da, enpresa-kopuruari eta industriako langileei buruzkoa, enpresaren tamainaren arabera (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia iturri gisa erabilia), eta Nafarroako industria-enpresa nagusiei buruzkoa (informazio hori 2016koa da).

2.1 JARDUERA-AZPISEKTORE NAGUSIEN IDENTIFIKAZIOA

EINen 2014ko industria-inkestako datuen arabera, Nafarroako industrian 61.883 langile ari ziren lanean 2014an, eta 4.241,5 milioi euroko balio erantsia sortzen zuen (17.329,6 milioi euroko fakturaziora iritsi zen, eta bitarteko kontsumoak 13.087,6 milioi eurokoak izan ziren). Nafarroako industrian lanean ari diren pertsonen Estatuko industria-enpleguaren guztizkoaren % 2,6 hartzen dute; partaidetza hori % 3,1 areagotzen da fakturazioari dagokionez.

Nafarroako industriako enpleguaren sektorekako banaketa aztertzen bada (CNAE-2009ren arabera), ikus daiteke hauek direla jarduera nagusiak: ibilgailu motordunen, atoi en eta erdi-atoi en fabrikazioa (guztizkoaren % 17,8); eligakaien industria (% 17,3); produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoen izan ezik (% 10,6); makineriaren eta ekipoen fabrikazioa (% 8,7); eta material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa (% 6,3). Sektore horietan biltzen da Nafarroako industria-enpleguaren guztizkoaren % 60,8.

Partaidetza esanguratsua dute, halaber, hauek ere: kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa (% 5,5); metalurgia (% 4,3); papergintza (% 3,6); makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 3,1); produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa

¹ EINek, enpresei egindako egiturako inkestetako prozesuak hobetearren, "Enpresei egindako egiturako inkestean integrazio proiektua" egin du. Proiektu honek hiru ikerketa sektoreetarako (Industria, Merkataritza eta Zerbitzuak) integratutako galdeketa bat, bateratutako laginaren diseinua, aldi berean egindako datuen bilketa, garapen prozesuen homogeneizazioa eta hedapena batera egitea suposatzen du. Aldaketako testuinguru honetan, txosten hau egiterako momentuan Nafarroako industria enpresei 2015 urtean egindako inkestako datuak ez zeuden eskuragarri, eta ondorioz, atal honetan 2014 urteko datuak adierazten dira.

(% 3,0); edarien fabrikazioa (% 2,5); eta hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena (% 2,2). Gainerako jardueren garrantzia % 2tik beherakoa da.

89. taula Nafarroako industriako enplegua eta sortutako balio erantsia, jarduera-azpisektoreen arabera (2014)

<i>(M eurotan)</i>				
Sektorea (CNAE-2009)	Enplegua	Diru-sarrerak	Kontsumoak	Balio erantsia
Elikagaien industria	10.703	2.607.157	2.031.741	575.416
Edarien fabrikazioa	1.542	476.835	398.264	78.571
Ehungintza	283	46.259	34.713	11.546
Jantzigintza	280	42.345	25.790	16.555
Larruaren eta oinetakoaren industria	174	33.845	27.348	6.497
Zuraren eta kortxoaren industria	958	124.989	85.745	39.244
Papergintza	2.198	643.766	525.033	118.733
Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioak	0	0	0	0
Industria kimikoa	974	319.151	242.431	76.720
Farmazia-produktuen fabrikazioa	1.051	377.845	239.169	138.676
Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa	3.373	627.569	425.303	202.266
Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioa	1.845	449.296	346.673	102.623
Metalurgia	2.640	862.996	580.339	282.657
Produktu metalikoen fabrikazioa, makin. eta ekip. izan ezik	6.574	1.222.874	852.721	370.153
Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa	654	90.526	49.488	41.038
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	3.918	1.079.439	818.958	260.481
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	5.405	1.288.464	832.866	455.598
Ibilgailu motordunen, atoen eta erdi-atoien fabrikazioa	11.010	4.960.838	4.112.941	847.897
Bestelako garraio-materialen fabrikazioa	180	36.127	20.221	15.906
Altzarien fabrikazioa	902	105.538	78.463	27.075
Beste manufaktura-industria batzuk	315	30.769	17.092	13.677
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	1.888	147.955	70.062	77.893
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza	600	1.208.053	942.226	265.827
Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	548	83.760	44.018	39.742
Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	1.386	192.105	116.508	75.597
Gainerako jarduerak	2.482	270.856	169.445	101.411
Industria, guztira	61.883	17.329.357	13.087.558	4.241.799

Iturria: EIN, Industria Inkesta.

Industriako balio erantsiaren jarduera-sektorekako banaketari dagokionez, kasu honetan ibilgailu motordunen, atoen eta erdi-atoien fabrikazioa da nagusi (guztizkoaren % 20,0), eta hauek ditu atzetik: elikagaien industria (% 13,6); makineriaren eta ekipoen fabrikazioa (% 10,7); produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoen izan ezik (% 8,7); eta metalurgia (% 6,7). Sektore horiek guztiek, batuta, Nafarroako industriak sortutako balio erantsiaren guztizkoaren % 59,7 hartzen dute.

Balio erantsiari dagokion analisiarekin jarraituz, partaidetza esanguratsua dute hauek ere: energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza (% 6,3); material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa (% 6,1); kautxuzko produktuen eta plastikoen produktuen fabrikazioa (% 4,8); farmazia-produktuen fabrikazioa (% 3,3); papergintza

(% 2,8); eta produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa (% 2,4). Gainerako jardueren garrantzia % 2tik beherakoa da.

90. taula Jarduera-adar desberdinek industriako enpleguaren eta balio erantsiaren guztizkoan duten partaidetza (2014)

Sektorea (CNAE-2009)	Enpleguaren %	Sektorea (CNAE-2009)	Balio erantsiaren %
Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrik.	17,8	Ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa	20,0
Elikagaien industria	17,3	Elikagaien industria	13,6
Produktu metalikoen fabrik., makin. eta ekip. izan ezik	10,6	Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrik.	10,7
Beste inon sailkatu gabeko makin. eta ekipoen fabrik.	8,7	Produktu metalikoen fabrikazioa, makin. eta ekip. izan ezik	8,7
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	6,3	Metalurgia	6,7
Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa	5,5	Energia elektr., gasaren, lurrunaren eta airearen hornikuntza	6,3
Metalurgia	4,3	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	6,1
Gainerako jarduerak	4,0	Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa	4,8
Papergintza	3,6	Farmazia-produktuen fabrikazioa	3,3
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	3,1	Papergintza	2,8
Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrik.	3,0	Beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioa	2,4
Edarien fabrikazioa	2,5	Gainerako jarduerak	2,4
Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	2,2	Edarien fabrikazioa	1,9
Farmazia-produktuen fabrikazioa	1,7	Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	1,8
Industria kimikoa	1,6	Industria kimikoa	1,8
Zuraren eta kortxoaren industria	1,5	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	1,8
Altzarien fabrikazioa	1,5	Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrik.	1,0
Produk. Informatik., elektronikoen eta optikoen fabrik.	1,1	Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	0,9
Energia elektr., gas., lurrunaren eta airearen hornikun.	1,0	Zuraren eta kortxoaren industria	0,9
Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	0,9	Altzarien fabrikazioa	0,6
Beste manufaktura-industria batzuk	0,5	Jantzigintza	0,4
Ehungintza	0,5	Bestelako garraio-materialen fabrikazioa	0,4
Jantzigintza	0,5	Beste manufaktura-industria batzuk	0,3
Bestelako garraio-materialen fabrikazioa	0,3	Ehungintza	0,3
Larruaren eta oinetakoen industria	0,3	Larruaren eta oinetakoen industria	0,2
Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreproduktzioak	0,0	Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreproduktzioak	0,0
Industria, guztira	100,0	Industria, guztira	100,0


Iturria: EIN, Industria Inkesta eta geuk egina.

Enpleguaren eta balio erantsiaren sektorekako banaketaren analisiari esker, Nafarroako industriako jarduera esanguratsuenak identifikatzen jarrai dezakegu. Ildo horretan, hauek agertzen dira Nafarroako industria-jarduera guztiei ekarpen handiena egiten dieten jarduera gisa: ibilgailu motordunen, atoiaren eta erdi-atoiaren fabrikazioa; produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoen izan ezik; eta makineriaren eta ekipoen fabrikazioa.

Garrantzi gutxiago badute ere, hauek ere nabarmentzekoak dira: material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa; kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa; eta metalurgia.

15. grafikoa Jarduera-azpisektore desberdinek Nafarroako industriako enpleguaren eta balio erantsiaren guztizkoan duten partaidetza (2014)

(balio erantsiaren %)



Iturria: EIN, Inkesta Industria eta geuk egina.

2.2 ENPRESEN TAMAINA, AZPISEKTOREEN ARABERA

Nafarroako industriaren jarduera nagusiak identifikatu ondoren, jarraian enpresen eta langileen kopurua aztertuko dira, enpresaren neurriaren arabera. Azterketa horrek jarduera-sektore desberdinetako enpresa-sarearen ezaugarriak sakonago ezagutzen lagunduko du. Hain zuzen ere, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioaren arabera, 2016an 2.436 enpresa egon dira martxan Nafarroan, eta guztira 59.662 langileri eman diete lana.

Industria-enpresa horietatik, gehienek azpisektore hauetan gauzatzen dute beren jarduera: elikagaiak, edariak eta tabakoa (guztizkoaren % 22,4); eta produktu metalikoen lehenengo eraldaketa eta fabrikazioa (% 22,3). Bi sektore horiek barne hartzen dituzte Nafarroako industria-enpresa guztien % 44,7.

Sailkapen horretan pixka bat beherago, enpresen kopuruari dagokionez, honako azpisektore hauek daude: makineria eta ekipo mekanikoa (% 6,4); papera eta arte grafikoak (% 5,3); makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa (% 5,2); mineralen erauzketa eta mineralen eraldatuak (% 4,8); zura eta kortxoa, altzariak izan ezik (% 4,4); altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk (% 4,3); garraio-materiala (% 4,2); kautxu- eta plastiko-manufakturak (% 4,1); eta industria kimikoa (% 3,9). Gainerako jardueren partaidetza % 3 baino gutxiagokoa da.

91. taula Industria-enpresen kopurua, neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera (2016)

SEKTOREA (CNAE-2009)	1-5 lang.	6-50 lang.	51-100 lang.	101-500 lang.	>500 lang.	Guztira	Industria osoaren %
Elikagaiak, edariak eta tabakoa	276	215	23	28	3	545	22,4
Produktu metalikoak (l. eraldaketa eta fabrikazioa)	269	238	23	13	0	543	22,3
Makineria eta ekipo mekanikoa	68	63	14	10	0	155	6,4
Papera eta arte grafikoak	76	42	3	8	0	129	5,3
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	86	37	2	2	0	127	5,2
Mineralen erauzketa eta mineralen eraldatuak	53	57	2	6	0	118	4,8
Zura eta kortxoa, altzariak izan ezik	65	42	1	0	0	108	4,4
Altzarien fabrikazioa; beste manufaktura-industria batzuk	71	30	2	1	0	104	4,3
Garraio-materiala	30	37	13	19	3	102	4,2
Kautxu- eta plastiko-manufakturak	36	45	7	11	0	99	4,1
Industria kimikoa	58	28	5	3	1	95	3,9
Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	50	17	1	2	0	70	2,9
Jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	41	24	2	1	0	68	2,8
Birziklapena	27	27	2	2	0	58	2,4
Makineria eta ekipo elektrikoa	24	21	4	5	1	55	2,3
Energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa	30	13	1	1	0	45	1,8
Saneamendu publikoko jarduerak	8	7	0	0	0	15	0,6
Guztira	1.268	943	105	112	8	2.436	100,0

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: erregimen orokorrean afiliatutako enpresen batez besteko kopurua, 2016an) eta geuk egina.

Nafarroako industria-enpresen neurriari dagokionez, enplegua kontuan hartuta, nabarmendu behar da enpresa horien guztien % 52,1ek 6 langile baino gutxiago izan dituztela 2016an, % 38,7k 6 eta 50 langile bitartean, % 4,3k 51 eta 100 langile bitartean, % 4,6k 101 eta 500 langile bitartean, eta % 0,3k bakarrik (8 enpresa) dituzte 500 langile baino gehiago. Zifra horiek argi erakusten dute oraindik ere ETEak nagusi direla Nafarroako industria-sarean.

Jarduera-sektoreen arabera enpresen neurrien azterketak erakusten du enpresa handienak (500 langile baino gehiagokoak) sektore hauetan aritzen direla: garraio-materiala; elikagaiak, edariak eta tabakoa; industria kimikoa; eta makineria eta ekipo elektrikoa. Bereziki nabarmendu behar da garraio-materialaren sektorea; izan ere, enpresa asko barne hartzen ez baditu ere (enpresa guztien % 4,2ko kuota besterik ez du), garrantzi berezia du Nafarroako industria-jardueran, neurri handiko zenbait enpresa baitira.

Alderdi horiek argi ikusten dira jarduera desberdinek enpleguaren gutzizkoan duten partaidetza eta enpleguak enpresaren neurriaren arabera duen banaketa aztertzean. Informazio horrek, alde batetik, aurreko atalean jarduera-azpisektore nagusiak identifikatzeko asmoz zehaztutakoa (EINek emandakoa) egiaztatzen eta berresten du; eta, bestetik, enpresa-sarearen ezaugarriak hobeto ezagutzen laguntzen du.

92. taula Industriako langileen kopurua, enpresaren neurriaren eta jarduera-sektorearen arabera (2016)

SEKTOREA (CNAE-2009)	1-5 lang.	6-50 lang.	51-100 lang.	101-500 lang.	>500 lang.	Guztira	Industria osoaren %
Elikagaiak, edariak eta tabakoa	659	3.721	1.565	5.211	1.833	12.989	21,8
Garraio-materiala	63	985	988	3.955	5.937	11.928	20,0
Produktu metalikoak (1. eraldaketa eta fabrikazioa)	650	4.390	1.617	2.852	0	9.509	15,9
Makineria eta ekipo mekanikoa	160	1.233	1.065	2.279	0	4.737	7,9
Kautxu- eta plastiko-manufakturak	88	1.005	474	1.990	0	3.557	6,0
Papera eta arte grafikoak	170	728	212	1.830	0	2.940	4,9
Makineria eta ekipo elektrikoa	57	325	340	1.046	699	2.467	4,1
Industria kimikoa	106	481	341	641	700	2.269	3,8
Mineralen erauzketa eta mineralen eraldatuak	109	806	156	974	0	2.045	3,4
Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa	184	505	187	609	0	1.485	2,5
Birziklapena	70	421	140	475	87	1.193	2,0
Altzarien fabrikazioa; beste manufaktura-industria batzuk	151	458	158	241	0	1.008	1,7
Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	90	235	72	479	0	876	1,5
Zura eta kortxoa, altzariak izan ezik	157	651	45	0	0	853	1,4
Jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	90	446	165	111	0	812	1,4
Energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa	51	211	91	438	0	791	1,3
Saneamendu publikoko jarduerak	17	96	0	50	0	163	0,3
Guztira	2.872	16.697	7.616	23.181	9.256	59.622	100,0

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: erregimen orokorrean afiliatutako langileen batez besteko kopurua, 2016an) eta geuk egina.

Zehazki, enpleguari ekarpen handia egiten dioten eta, aldi berean, enpresa-sare garrantzitsua duten (enpresa-kopurua handia) jardueren artean, hauek nabarmendu behar ditugu: elikagaiak, edariak eta tabakoa; eta produktu metalikoak (lehenengo eraldaketa eta fabrikazioa).

Bestalde, industria-enplegu osoan partaidetza handia dute honako jarduera hauek, nahiz eta tamaina handiko enpresa gutxi batzuetan besterik gauzatzen ez diren: garraio-materiala, makineria eta ekipo mekanikoa, eta, neurri txikiagoan, industria kimikoa, makineria eta ekipo elektrikoa, eta papera eta arte grafikoak.

Azkenik, enpleguari dagokionez, partaidetza txikiagoa dute honako sektore hauek: uraren bilketa, arazketa eta banaketa; zura eta kortxoa, altzariak izan ezik; jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza; energia elektrikoaren ekoizpena eta banaketa; eta saneamendu publikoko jarduerak.

2.3 ENPRESA NAGUSIAK ETA ATZERRIKO KAPITALAREN PARTAIDETZA

Nafarroako industria-egitura aztertzea xede duen kapitulu honi amaiera emateko, labur-labur aztertuko dira, lehenik, Foru Erkidegoko industria-enpresa nagusiak eta, ondoren, multinazionalak Nafarroako enpresetan sartzen duten kapitala.

Enpresa nagusiei dagokienez, eta Camerdataren (Espainiako merkataritza-ganberek osatutako elkarte) datu-basetik hartutako informazioaren arabera, jarraian erantsitako koadroan ikus daitezke 2016an 250 enplegu baino gehiago izan dituzten Nafarroako industria-enpresak (30 enpresa). Koadroan adierazita dago, halaber, enpresak zein udalerritan dauden, zenbateko enplegu-estratua duten eta zer jarduera gauzatzen duten (CNAE-2009ren arabera).

Azkenik, Nafarroako enpresan sartutako kapital multinazionalari dagokionez, hasteko aipatu behar da atzerriko inbertsioak garrantzitsuak izan direla Nafarroan azken urteotan, industria-sektorea dinamizatzeko eta modernizatzeko (nahiz eta horrek Erkidegotik kanpoko erabaki-zentroekiko menpekotasun handiagoa izatea dakarren). Ildo horretatik, gaur egun, Nafarroan kokatutako ehun industria-enpresa baino gehiagok kapital multinazionala dute (batik bat tamaina erdiko edo handiko enpresak), eta esportaziorako propentsio handia dute. Enpresa horiek beste produktu mineral ez-metaliko batzuen fabrikazioaren sektorekoak dira, batez ere. Dena dela, beste azpisektore batzuetan ere aritzen dira: energia elektrikoaren, gasaren eta airearen

hornidura, makineriaren eta ekipoen fabrikazioa, kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa eta industria kimikoa.

Horrela, eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioaren arabera (Merkataritza eta Inbertsio Zuzendaritza Nagusiaren datuak), 2016ko ekitaldian, Nafarroako industriako atzerriko inbertsioa 823.786,41 mila eurora iritsi da (2015ean 9.537,48 mila eurokoa izan zen). Kapital horren zatirik handiena Alemaniatik etorri da nagusiki (792.010,00 mila euro etorri dira herrialde horretatik). Dena dela, badira Nafarroan inbertitu duten beste herrialde batzuk ere: Luxenburgo (15.862,75 mila euro), Frantzia (7. 621,20) eta Txina (6.448,42).

93. taula Nafarroako industria-entresa nagusiak (2016)

Enpresa	Udalerrria	Enplegu- estratua	Jarduera
Fagor Ederlan Tafalla SC	Tafalla	500 baino gehiago	Burdina eta altzairuzko piezen galdaketa
TRW Automotive España SL	Iruñea	500 baino gehiago	Turismo erako automobilak
Vega mayor SL	Milagro	500 baino gehiago	Frutak eta beste landare-produktu batzuk garbitzea, sailkatzea eta ontziratzea
Gamesa Eolica SL	Egues	500 baino gehiago	Beste makina eta ekipo mekaniko batzuen eraikuntza
Jangarria SL	Antsoain	500 baino gehiago	Beste inon sailkatu gabeko elikagaien ekoizpena
Delphi Packard España SL	Iruñea	500 baino gehiago	Erabiltzeko material elektrikoaren eta ekipamenduaren fabrikazioa
Editorial Aranzadi SA	Egues	500 baino gehiago	Liburuen argitalpena
Acciona Energia SA	Egues	500 baino gehiago	Aurreko epigrafeetan zehaztu gabeko energia-ekoizpena, mareetatik datorrena, eguzki-energia eta halakoak barne.
Volkswagen Navarra SA	Aratzuri	500 baino gehiago	Automobilen eta horien motorren eraikuntza eta muntaia
SAS Autosystemtechnik SA	Aratzuri	500 baino gehiago	Automobilen eta horien motorren eraikuntza eta muntaia
Laboratorios Cinfa SA	Uharte	500 baino gehiago	Farmaziako espezialitateen eta beste produktu batzuen fabrikazioa
Viscofan Industria Navarra de Envolturas	Taxoare	500 baino gehiago	Beste inon sailkatu gabeko elikagaien ekoizpena
KYB Suspensions Europe SA	Asiain	500 baino gehiago	Turismo erako automobilak
Cementos Portland Valderrivas SA	Iruñea	500 baino gehiago	Zementu artifizialen fabrikazioa
Danone SA	Iraizotz	500 baino gehiago	Esnekiak
M. Torres Diseños Industriales SA	Elortz	500 baino gehiago	Metalak lantzeko makinaren eraikuntza
Dana Automoción SA	Iruñea	251- 500	Automobilentzako osagaiak
Manufacturas del Aluminio Pamplona Sector Automoción SCL	Orkoien	251- 500	Burdina ez den metalezko piezen eta horien aleazioen galdaketa
Zalain Transformados SL	Zalain Zoko	251- 500	Altzairuzko hodian fabrikazioa
AN Avicola Melida SL	Mélida	251- 500	Ganaduaren hilketa eta zatiketa, oro har
Gelagri Industrial SLU	Milagro	251- 500	Landare-uren eta -kontserben fabrikazioa
Acciona Windpower SA	Egues	251- 500	Motor eta turbinen eraikuntza (garraiorako direnak izan ezik)
Acciona Blades SA	Sarriguren	251- 500	Plastikozko produktu erdilanduen fabrikazioa
Industrias Alimentarias de Navarra SA	Villafranca	251- 500	Landare-kontserbak
Piher Sensors & Controls SA	Tutera	251- 500	Kontagailuen eta neurtzeko, kontrolatzeko eta egiaztatzeko aparatu elektrikoaren fabrikazioa
Iberfruta Muerza SA	Azagra	251- 500	Landare-uren eta -kontserben fabrikazioa
Timac agro España SA	Orkoien	251- 500	Ongarrien fabrikazioa
Dynamobel SA	Aitzoain	251- 500	Metalezko altzarien fabrikazioa
Tecnoconfort SA	Iruñea	251- 500	Automobilen beste ekipo, osagai, osagarri eta ordezkotako pieza batzuen fabrikazioa (ekipo elektrikoak izan ezik)
M. Torres Diseños Industriales SA	Elortz	251- 500	Metalak lantzeko makinaren eraikuntza

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera. Camerdata datu-basea.

3. SIDERURGIA

3.1 IKUSPEGI OROKORRA

Siderurgia-sektoreak eta, oro har, munduko ekonomiak zailtasunak dituen arren, altzairua eguneroko eta funtsezko material bihurtu da, haren erresistentziari, moldakortasunari, malgutasunari eta iraunkortasunari esker. Bestalde, inbertsioak eta produktu hori hobetzeko berrikuntza-bilaketa direla eta, sektoreak etorkizunean hazkundea izango duela aurreikusten da.

Altzairuak munduan duen erronka nagusietako bat ekonomia zirkulatzailerik bat ezartzea da, altzairua murriztu, berrerabili, birziklatu eta birfabrikatu ahal izateko. Hori da World Steel Association¹ elkarteak 2016an abiatutako "Altzairua – material iraunkorra ekonomia zirkularrean" kanpainaren helburu nagusietako bat.

Langileen segurtasunari eta ongizateari dagokionez, World Steel Association elkarteak, Safety and Health Recognition Programme 2016 egitasmoa ezarri du. Programaren printzipioetan, alderdi hauek sartzen dira: laneko istripu edo gaixotasun oro eragotz daiteke eta eragotzi behar dira; zuzendaritzari dagokio langileen segurtasunaren eta osasunaren gaineko ardura; pertsonen konpromisoa eta gaitasuna funtsezkoak dira; segurtasunez lan egitea lan-baldintza bat da; segurtasunak eta osasunak negozioaren emaitzak hobetzen laguntzen dute; eta, azkenik, segurtasunaren eta osasunaren arloko hobekuntzak negozioaren arlo guztietan integratu behar dira.

Ingurumenarekin lotutako alderdietan, munduko siderurgia-sektorea karbono dioxidoko isuriak murrizteko ahaleginak egiten ari da, berrikuntza teknologikoak ezartzearen bidez. Horrez gain, industria global bat sortzeko ahalegina egiten ari da, lehiatzeko merkatua izanik, baina bidezkoa, etorkizunean inbertsioak erakartzeko eta lan-aukerak eskaintzeko modukoa.

World Steel Association elkarteak emandako datuen arabera, altzairuaren ekoizpenak zein kontsumoak bilakaera positiboak izan dituzte. Hain zuzen, altzairu gordinaren munduko ekoizpena 1.629,6 milioi tonakoa izan da (% 0,6ko gorakada txikia iazko balioekiko), eta altzairuaren kontsumoak (1.515 milioi tona) % 1 egin du gora aurreko ekitalditik.

¹ World Steel Association: Altzairuaren Munduko Erakundea

Altzairuaren ekoizpenean nagusi diren herrialdeen bilakaerari erreparatuz gero, herrialde garatuek (hor sartzen dira Mendebaldeko Europa, Estatu Batuak, Kanada eta Japonia) 377 milioi tona ekoitzi dituzte aurten, hazkunde txikiarekin (% 0,3). Halaber, Latinoamerikako eta Asiako herrialde emerjenteen bilakaera positiboa nabarmentzea garrantzitsua da (% 0,7), bai eta Txinarena ere (% 0,6). Txinak, hain zuzen, 808,4 milioi tona ekoitzi ditu eta herrialde horri munduko altzairu-ekoizpenaren proportziorik handiena dagokio (% 49,6).

Europako herrialdeei dagokienez, rankingean aztertutako europar herrialdeetatik Italia izan da altzairuaren ekoizpena handitu duen bakarra (% 6,4 aurreko urteko ekoizpenaren aldean). Bestalde, Erresuma Batuak beherakadarik handiena izan du (-% 30,3). Espainiak % 8,1eko beherakada izan du, Frantziak -% 4koa eta Alemaniak -% 1,4koa.


94. taula Altzairu gordinaren ekoizpena

Herrialdea	2015			2016		
	M Tm	Δ %	%	M Tm	Δ %	%
AEB eta Kanada	91,3	-9,5	5,6	91,1	-0,2	5,6
Japonia	105,1	-5,1	6,5	104,8	-0,3	6,4
Txina	803,8	-2,3	49,6	808,4	0,6	49,6
India	89,0	1,9	5,5	95,6	7,4	5,9
Alemania	42,7	-0,5	2,6	42,1	-1,4	2,6
Italia	22,0	-7,2	1,4	23,4	6,4	1,4
Frantzia	15,0	-6,8	0,9	14,4	-4,0	0,9
Erresuma Batua	10,9	-9,9	0,7	7,6	-30,3	0,5
Espainia	14,8	4,2	0,9	13,6	-8,1	0,8
EB-28	160,9	-1,7	9,9	156,5	-2,7	9,6
Mundu osoa	1.620,0	-3,0	100,0	1.629,6	0,6	100,0

Iturria: World Steel Association (lehen IISI).

Dena dela, altzairu gordinaren ekoizpenean herrialde batzuek eta besteek izan dituzten gorabeherak gorabehera, aurreko urteko datuen aldean, ez da aldaketarik egon multzo nagusien kuotan. Hain zuzen ere, Ipar Amerikak, Japoniak eta EB-28k osatutako multzoak altzairu gordinaren munduko ekoizpenaren ia laurdena ekoitzi du (% 23,1), Ekialdeko Europak % 7,6, eta ekonomia emerjenteek, berriz, % 69,3.

16. grafikoa Altzairuaren mundu-mailako ekoizpena



Iturria: World Steel Association.

Siderurgia-sektorearen nazioarteko egoeraren analisia amaitzeko, siderurgia-produktuen munduko kontsumoari dagokionez, munduan 1.515 milioi tona altzairu kontsumitu dira (urtetik urterako %1eko gorakada). Aurreko ekitaldiaren aldean kontsumoa murriztu duten herrialdeak AEB eta Kanada, Italia eta Japonia izan dira (-% 2,4, -% 1,6 eta -% 1,3, hurrenez hurren). Aldiz, altzairu-kontsumoa handitu duten herrialde nagusiak India (% 4,1), Alemania (% 2,5) eta Frantzia (% 2,4) izan dira. Espainian, berriz, ez da aldaketarik egon 2015eko altzairu-kontsumoaren aldean, eta rankingeko herrialdeetatik horrelako bilakaera izaten bakarra izan da.

95. taula Siderurgia-produktuen kontsumoa

	2015			2016		
	M Tm	Δ %	%	M Tm	Δ %	%
AEB eta Kanada	109,4	-10,9	7,3	106,8	-2,4	7,0
Japonia	63,0	-6,9	4,2	62,2	-1,3	4,1
Txina	672,3	-5,4	44,8	681,0	1,3	45,0
India	80,2	5,7	5,3	83,5	4,1	5,5
Alemania	39,3	-0,8	2,6	40,3	2,5	2,7
Italia	24,6	11,8	1,6	24,2	-1,6	1,6
Frantzia	12,7	1,6	0,8	13,0	2,4	0,9
Erresuma Batua	10,5	-1,9	0,7	10,7	1,9	0,7
Espainia	12,6	8,6	0,8	12,6	0,0	0,8
EB-28	154,0	3,3	10,3	157,4	2,2	10,4
Mundu osoa	1.500,5	-2,9	100,0	1.515,0	1,0	100,0

Iturria: World Steel Association.

3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA

2016a urte atipikoa izan da Espainiako siderurgia-sektorerako. Ekitaldian, besteak beste, eragina izan dute alderdi hauek: lehengaien prezioak zertxobait berreskuratu direla, bai eta petrolioarena ere, nahiz eta maila historiko baxuak izaten jarraitzen duten. Halaber, politikak eragina izan du Espainiako siderurgian, eragin negatiboa, Espainian gobernuaren eratzeko atzerapena izatearen ondorioz. Azkenik, EBko agintariek defentsa komertzialerako espedienteak abiatu zituztela aipatu behar da, inportazio desleialen aurka.

Dena dela, 2015. urtean adierazle guztiek bilakaera positiboa izan arren, Espainiako siderurgia-sektoreko lau magnitude nagusitatik hiruk beherakada izan dute azken ekitaldian. Hala, Espainiako inportazioak kenduta (urtetik urterako % 5,1eko gorakada), altzairuaren ekoizpenak, esportazioek eta ageriko kontsumoak beherakadak izan dituzte (-% 8,5, -% 2,8 eta -% 1,2, hurrenez hurren).

96. taula Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*

(mila Tm)


Urtea	Produktzioa	Esportazioa	Inportazioa	Ageriko kontsumoa
2009	14.341	8.562	7.075	7.979
2010	16.317	9.901	9.153	13.848
2011	15.548	10.198	9.063	13.183
2012	13.649	9.936	7.833	10.728
2013	14.294	9.978	7.634	10.924
2014	14.280	9.969	8.307	11.599
2015	14.889	9.592	8.994	12.747
2016	13.627	9.322	9.453	12.592

(*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritzaren berriz, siderurgia-produktu guztiei.

Iturria: Unesid.

Siderurgiaren adierazle nagusiak termino absolututan aztertuz gero, ekoizpena 13.627 mila tonara arte jaitsi dela ikusten da (ekoizpenik txikiena 2008ko krisitik). Ageriko kontsumoari dagokionez, gorakadak izan ziren 2015. urtera arte, aurreko hiru urteetan, baina 2016ko ekitaldian, beherakada izan da, eta 12.592 mila tona kontsumitu dira. Esportazioek behera egin dute, eta inportazioek, berriz, gora; beraz, lehen aldiz, altzairu gehiago inportatu da esportatu baino (9.453 mila tona eta 9.322 mila tona, hurrenez hurren).

17. grafikoa Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak



Iturria: Unesid.

Siderurgia-sektoreko enpleguari dagokionez, bost urtez desbiderapen negatiboak izan ostean –kostuak arintzeko doikuntzak egin behar izan dira, krisi ekonomikoaren ondorioz–, 2016an, siderurgia-sektoreko enpleguaren adierazleak gorakada izan du, eta 23.209 langilek jarduten dute sektorean (% 3,8ko gorakada aurreko ekitaldiaren aldean; 845 langile gehiago termino absolututan).

Azkenik, inportatutako lehengai nagusien kontsumoari dagokionez, koke bihur daitekeen harriatzak soilik izan du gorakada aurten (% 2,8), eta burdin meak eta, batik bat, txatarrak, beherakada handiak izan dituzte (urtetik urterako -% 5,8ko eta -% 22,8ko aldakuntza, hurrenez hurren), pisu erlatibo handiena duten lehengaiak izanda. Lehengai horien tonako prezioari dagokionez, kontsumoaren arloan bezala, koke bihur daitekeen harriatzaren prezioak soilik egin du gora, 2015eko prezioen aldean: % 3,2ko gorakada izan du, eta tonako 106,2 euroko prezioa izan du. Txatarraren prezioa 226,1 euro/tona izan da (-% 22,9ko beherakada 2015eko prezioaren aldean), eta burdin mearena, berriz, 49,1 euro/tona (-% 4,4ko beherakada aurreko ekitalditik). Dena den, lehengai bakoitzaren kontsumo- eta prezio-aldakuntzak antzekoak izan direla aipatu behar da.

97. taula Inportatutako lehengaiak

Urtea	Koke bihur daitekeen harrikatza		Burdin mea eta pellet-ak		Txatarra	
	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)
2007	3.682	91,0	5.719	48,0	6.317	344,0
2008	3.371	147,0	6.328	69,0	7.408	342,0
2009	2.058	133,0	3.951	62,0	4.654	211,0
2010	2.984	161,0	6.707	87,0	6.186	311,0
2011	2.610	215,0	5.373	129,0	5.271	390,0
2012	2.492	176,0	5.220	100,0	4.747	375,0
2013	2.528	129,0	6.259	103,0	4.925	318,0
2014	1.632	105,0	5.699	75,0	4.928	330,0
2015	1.720	102,9	6.378	51,4	5.145	293,3
2016	1.768	106,2	6.010	49,1	3.970	226,1
% Hazk. 15-16	2,8	3,2	-5,8	-4,4	-22,8	-22,9

Iturria: Unesid.

Unesid elkarteak siderurgia-sektorean ahalik eta zerbitzurik onena emateko lanean jarraitzen du. Oso lehia handiko merkatua da sektore horrena, eta batzuetan, "desleiala" ere bai. PLATEAri (Plataforma Tecnológica Española de Acero) dagokionez, urtea konplikatua izan da, eta bere jarduera murriztu behar izan du, "Gobernuaren aurrekontu-murrizketen ondorioz, plataformetarako laguntzak blokeatu baitzituen".

Hala eta guztiz ere, partzuergoak sortzeko babes-taldeekin eta lantaldeekin jarraitu dute. Besteak beste, siderurgia-prozesuetako gainberotze-labeen teknologia hobetzeko HORUS ikerketa-proiektuari emandako babes aipatu behar da.

Bestalde, enpleguari dagokionez, ia ez dago enplegu-erregulazioko espedienterik, baina ez da ahaztu behar sektorean 5.000 lanpostutik gora galdu direla krisia hasi zenetik. Azkenik, lan-istripuei dagokienez, baja eragin duten lan-istripuen maiztasun-indizea 13,6 izan da, 2015ean baino bi puntu gehiago, sektoreko ekoizpen-jarduera handitzearen ondorioz.

4. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA

4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Europar Batasuneko Nekazaritzako Elikagaien Industriaren Konfederazioaren azken informazioaren arabera, esparru honetako ekoizpenak goranzko joera izan du 2016an, eta hiruhilekoen arteko hazkundeak positiboak izan dira ekitaldian zehar (laugarren hiruhilekoko jarduera-beherakada txikia kenduta).

98. taula Europar Batasuneko nekazaritzako elikagaien industriako ekoizpenaren bilakaera

Urtea	Aldia	% Δ
2015	I. hiruhilekoa	-0,3
	II. hiruhilekoa	-0,2
	III. hiruhilekoa	1,4
	IV. hiruhilekoa	-0,7
2016	I. hiruhilekoa	0,7
	II. hiruhilekoa	0,2
	III. hiruhilekoa	1,0
	IV. hiruhilekoa	-0,2

Iturria: CIAA.

Egiturari dagokion ikuspegitik, nekazaritzako elikaduraren industriak garrantzi handia du, aspalditik, Europar Batasuneko eta bertako kide diren herrialde gehienetako ekonomia-sarean. Hain zuzen ere, EBko industria-sektorea nagusia da une honetan.

lido horretan, sektoreak EB-25ean 1.089 bilioi euro fakturatu zituen 2014. urtean, hau da, Europako Erkidegoko manufaktura-industriako guztizkoaren % 15,6 (eta % 15 eta % 13 sortutako enpleguari eta balio erantsiari dagokienez, hurrenez hurren). Ekoizpen hori guztia 4,25 milioi langile zituzten 289.000 enpresatan sortu zen. Sektore tradizionala da, eta enpresa txiki eta ertainak dira nagusi (250 langile baino gutxiagoko enpresak guztiaren % 99,1 ziren, eta sektoreko fakturazioaren % 49,5 eta enpleguaren % 62,8 biltzen zuten). Herrialdeei dagokienez, ekoizle nagusiak Frantzia, Alemania, Italia, Erresuma Batua eta Espainia dira; 2014. urtean, fakturazioaren % 66,3 bildu zuten herrialde horiek.

4.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) egindako Industria Produkzioaren Indizea (IPI) kontuan hartuta, Espainiako elikagaien industriari lotutako jarduerak gora egin du 2016an, eta Espainiako industria osoa baino bilakaera pixka bat hobea izan du. Zehazki, elikagaien sektoreko IPIk % 2,3ko gorakada izan du 2016an (2015ean, % 1,0), eta, Estatuko industria-sektore osoak, berriz % 1,9koa (2015ean, % 3,4).

99. taula Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera

Urtea	Elikagaiak*	Industria, guztira*
2012	-3,1	-6,6
2013	-0,9	-1,6
2014	3,7	1,3
2015	1,0	3,4
2016	2,3	1,9

(% Δ)

(*): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

lido horretan, eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak 2014-2016rako emandako informazioaren arabera (datu gehienak 2015ekoak dira, 2016ko Inkesta Industrialak eta Kanpo Merkataritzakoa izan ezik), nekazaritzako elikagaien sektorea nagusi da oraindik ere Estatuko industria-jarduera osoan. Zehazki, 93.396 milioi euro fakturatzen ditu (industria osoaren fakturazioaren % 20,5), eta barne hartzen ditu 353.965 pertsonari lana ematen dieten (industria osoaren % 18,3) 28.101 enpresa. Halaber, elikagaien eta edarien industriak industria osoko balio erantsiaren % 15,3 biltzen du.

Sektorearen ezaugarri nagusia da, EB osoan bezala, atomizazio-maila handia duela (2016an, enpresen % 96,4k 50 langile baino gutxiago zituzten); alabaina, sektoreko enpresa handiek ekoizpenaren % 70 inguru hartzen dute, teknologikoki aurreratuenak dira eta mundu mailan egiten dute lan (atzerriko kapitalaren presentzia handia dute). Enpresa txiki eta ertainek, berriz, eskala geografikoki txikiagoetan egiten dute lan.

2016an sektorean gertatutako enpresa-mugimendu nagusiei dagokienez, nabarmendu behar dira, alde batetik, Enmi enpresak egindako xurgapena (Suitzako esne-industriako talde nagusia, eta, Espainian, Kaiku Elikagai Korporazioaren akzio-gehiengoduna), Jaéngo Lácteos Caprinos enpresaren % 80 hartu duena, eta, bestetik, Sevillako enpresa-talde batek "Arteoliva" (Compañía Alimentaria del Sur de Europa) ekoizpen-unitatea erosi duela. Jabe berriak Kordobako enpresa horren negozioa handitu nahi du, berrikuntza sustatuz.

Nazioarteko eremuan, azpimarratu behar da Holandako Wessanen enpresak Biogran produktu ekologikoen fabrikatzailea erosi duela 67 milioi euroan, eta B-Group Bartzelonako taldeak Rostitot erosi duela eta inbertsio berriak egiteko asmoa duela.

4.3 SEKTOREA NAFARROAN

Tradizionalki, nekazaritzako elikagaien industriak garrantzi handia izan du Nafarroako ekonomian; Foru Erkidegoko industriako azpisektore nagusietako bat izan da, hain zuzen. Zehazki, EINEK 2014.¹ urteari buruz emandako datuen arabera, nekazaritzako elikagaien industriak (elikagaiak eta edariak) industriako enplegu guztien % 17,3 sortzen du (bigarrena da sailkapenean, motordun ibilgailuen sektorearen atzetik: % 17,8), baita industriako balio erantsi gordin guztiaren % 13,6 ere (kasu horretan ere bigarrena da sailkapenean, motordun ibilgailuen sektorearen atzetik: % 20,5).

100. taula Nafarroako nekazaritzako elikagaien industria (2016)

Tamaina	Enpresen %	Enpleguaren %
1-5 lang.	50,6	5,1
6-50 lang.	39,5	28,7
51-100 lang.	4,2	12,0
>100 lang.	5,7	54,2
Guztizkoa	100,0	100,0

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.

Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak emandako informazioaren arabera, 2016an nekazaritzako elikagaien sektoreko 545 enpresa aritu dira Nafarroan, eta guztira 12.989 langileri eman diete lana. Enpresa horiek langile-kopuruaren arabera duten tamainari buruzko analisiaren arabera, ETEak dira nagusi oraindik ere enpresa-sarean. Izan ere, enpresen % 50,6k 6 langile baino gutxiago dituzte (sektoreko enplegu guztiaren % 5,1), % 39,5ek 6-50 langile dituzte (enpleguaren % 28,7 sortzen dute), eta % 9,9k baino ez dituzte 50 langile baino gehiago (sektoreko enpleguen % 66,2).

Sektoreko enpresa nagusiei dagokienez, 100 langile baino gehiagoko enpresak agertzen dira beheko taulan (21 enpresa guztira), bai eta zer udalerritan dauden, zer jarduera

¹ INEK, enpresetako egitura-inkestaren prozesuak hobetzeko, "Enpresetako egitura-inkestak integratzeko proiektua" burutu du. Proiektu horren arabera, aztertutako hiru sektoreek (Industria, Merkataritza eta Zerbitzuak) honako hauek izango dituzte: galdera-sorta integratua, laginaren diseinu bateratua, bilketa bateratua eta aldiberekoa, garapen-prozesuen homogeneizazioa eta aldibereko zabalkundea. Aldaketa-testuinguru horretan, txosten hau egin den unean ezin izan dira lortu Nafarroako enpresa-industriari buruzko 2015eko inkestaren datuak, eta, beraz, eskuratutako azken datua 2014koa da.

egiten duten eta zer enplegu-estratu duten ere. Enpresa horietatik, 2k baino ez dituzte 500 langile baino gehiago, jarduera nagusia landare-kontserben fabrikazioa den bitartean.

101. taula Nafarroako nekazaritzako elikagaien enpresa nagusiak (2016)

Enpresa	Udalerría	Enplegu-estratua	Jarduera nagusia
Jangarria SL	Antsoain	500etik gora	Beste elikagai batzuen ekoizpena
Viscofan	Taxoare	500etik gora	Beste elikagai batzuen ekoizpena
AN Avicola Melida SL	Mélida	251- 500	Ganaduaren hilketa eta zatiketa, oro har
Gelagri Industrial SLU	Milagro	251- 500	Landare-uren eta -kontserben fabrikazioa
Industrias Alimentarias de Navarra SA	Alesbes	251- 500	Landare-kontserbak
Iberfruta Muerza SA	Azagra	251- 500	Landare-uren eta -kontserben fabrikazioa
Industrias Carnicas Navarras SA	Irunberri	251- 500	Mota guztietako haragi-produktuen fabrikazioa
Agrozumos SA	Lekunberri	251- 500	Landareen estraktuak, zukuak eta beste prestakin batzuk
Producciones Vegetales Diferenciadas SL	Valtierra	251- 500	Frutak eta beste landare-produktu batzuk garbitzea, sailkatzea eta ontziratzea
Ultracongelados Virto SA	Azagra	251- 500	Landare-kontserbak
Congelados de Navarra SA	Arguedas	251- 500	Landare-kontserbak
Alimenco SA	Milagro	251- 500	Landare-kontserbak
Conservas Hijos de Manuel Sanchez Basarte SA	Alesbes	251- 500	Landare-kontserbak
B. S. Cocinados SL	Corella	251- 500	Landare-kontserbak
Vega mayor SL	Milagro	251 - 500	Frutak eta beste landare-produktu batzuk garbitzea, sailkatzea eta ontziratzea
Conservas Canito S.A.	Mendabia	101-250	Landare-kontserbak
Conservas Martiko S.A.	Bera	101-250	Mota guztietako haragi-produktuen fabrikazioa
Aperitivos y Extrusionados S.A.	Ribaforada	101-250	Beste elikagai batzuen ekoizpena
Bodegas Castillo de Monjardin S.A.	Villamayor de Monjardín	101-250	Ardoak egitea eta ontzea
Productos Naturales de la Vega S.L.	Lodosa	101-250	Beste elikagai batzuen ekoizpena
Findus Manufacturing Spain S.L.U.	Taxoare	101 - 250	Beste elikagai batzuen ekoizpena

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera. Camerdata datu-basea.

Kapital multinazionalaren sarrerari dagokionez, lehenik eta behin gogorarazi behar da atzerriko inbertsioak garrantzitsuak izan direla Nafarroan industria-sektorea dinamizatzeko eta modernizatzeko (nahiz eta horrek Erkidegotik kanpoko erabakizentrokiko mendekotasun handiagoa izatea dakarren). Nafarroako Industria eta Merkataritza Ganberaren informazioaren arabera, nabarmendu behar da 2016ko ekitaldian ez dela egon nekazaritzako elikagaien industriara bideratutako atzerriko inbertsiorik.

Industria-egituraren ezaugarri nagusiak aztertu ondoren, Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren jardueraren aldagai nagusien azken bilakaera aztertuko dugu orain.

Enpresen kopuruari eta enpresa horietan sortutako enpleguei dagokienez, 2016. urtean -% 1,3ko beherakada izan da sektorean diharduten enpresen kopuruan (2015. urtean, -% 1,4); enpleguak, berriz, igoera izan du (% 4,3) aurreko ekitaldiaren aldean (2015ean, % 3,8). Horrela, beraz, enpresa horien batez besteko langile-kopurua 23,8 izan da 2016an (22,6 aurreko urtean).

102. taula Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako enpresen kopuruaren eta enpleguaren bilakaera

Urtea	Enpresak	% Δ	Enplegua	% Δ	Batez besteko enplegua
2007	582	-0,7	12.412	7,8	21,3
2008	587	0,9	12.424	0,1	21,2
2009	596	1,5	11.979	-3,6	20,1
2010	585	-1,8	11.896	-0,7	20,3
2011	577	-1,4	11.897	0,0	20,6
2012	579	0,3	11.773	-1,0	20,3
2013	566	-2,2	11.419	-3,0	20,2
2014	560	-1,1	11.999	5,1	21,4
2015	552	-1,4	12.457	3,8	22,6
2016	545	-1,3	12.989	4,3	23,8

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.

Era berean, Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriaren Industria Produkzioaren Indizeak (jardueraren bilakaeraren adierazle gisa erabili da) % 2ko gorakada izan du 2016an (aurreko urtean, % 0,3). Hazkunde hori nabarmen handiagoa izan da, Nafarroako industria osoan jasotakoa baino (hor, IPIk % 0,7ko gorakada izan du).

103. taula Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera

Urtea	Nekazaritzako elikagaiak	Industria, guztira*
2009	-0,3	-20,3
2010	-6,3	6,4
2011	4,1	-2,1
2012	-5,8	-8,0
2013	-2,2	-1,6
2014	0,4	3,9
2015	0,3	2,2
2016	2,0	0,7

(): Egutegi-ondorioak zuzenduta dituzten datuak.*

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Nafarroan sektorearen kanpo-merkataritzaren bilakaerari dagokionez, esportazioek % 2 egin dute gora (2015ean, % 5), eta 549,61 milioi eurora iritsi dira 2016an. Bestalde, inportazioek % 8,8 egin dute gora (2015ean, % 7), eta 236,89 milioi eurora iritsi dira 2016an. Kanpo-merkataritzaren bilakaera horrek 312,7 milioi euroko superabita ekarri dio sektoreko merkataritza-balantzari 2015ean. Saldo hori aurreko urtean erregistratukoa (321 milioi euro) baino pixka bat txikiagoa da. Era berean, estaldura-tasa pixka bat jaitsi da, % 232ra arte (2015ean, % 247,4)

104. taula Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritzaren bilakaera Nafarroan

(Meurotan)

Urtea	Esportazioak	% Δ	Inportazioak	% Δ	Merkataritza-balantza	Estaldura-tasa
2007	283,6	13,4	183,6	10,1	100,0	154,4
2008	327,1	15,3	174,1	-5,2	153,0	187,9
2009	303,0	-7,4	147,0	-15,6	156,0	206,1
2010	334,1	10,3	140,1	-4,7	194,0	238,5
2011	395,3	18,3	142,4	1,6	252,9	277,6
2012	402,6	1,8	163,1	14,5	239,5	246,8
2013	493,1	22,5	211,6	29,8	281,5	233,0
2014	512,9	4,0	203,5	-3,8	309,4	252,0
2015	538,8	5,1	217,8	7,0	321,0	247,4
2016	549,6	2,0	236,9	8,8	312,7	232,0

Iturria: Aduanen Zuzendaritza Nagusia.

Azkenik, Nafarroako sektorekako jardueraren analisiari amaiera emateko, eta aurreko txostenetan egin bezala, 17 enpresatako lagin batean jasotako jardueraren emaitzak ikus daitezke 8. taulan, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak emandako informazioan oinarrituta. Enpresa horiek guztiek 720.539 milioi euro fakturatu zituzten 2015ean, aurreko ekitaldian baino % 3,9 gehiago.

105. taula Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 17 enpresatako lagin baten emaitzen kontu agregatua

Kontzeptua	2014		2015		% Δ 15/14
	m euro	%	m euro	%	
Ustiapeneko diru-sarrerak	693.748	100,0	720.539	100,0	3,9
Bitarteko kontsumoak	557.200	80,3	580.476	80,6	4,2
Balio erantsi gordina	136.548	19,7	140.063	19,4	2,6
Langile-gastuak	73.027	10,5	76.803	10,7	5,2
Ustiap. emaitza ekon. gordina	63.521	9,2	63.260	8,8	-0,4
Amortizazioak eta hornidurak	25.991	3,7	22.026	3,1	-15,3
Ustiap. emaitza ekon. garbia	37.530	5,4	41.234	5,7	9,9
Finantza-karga	-14.652	-2,1	-18.005	-2,5	22,9
Ohiko jardueren emaitza	52.182	7,5	59.239	8,2	13,5
Ezohiko jardueren emaitza	2.775	0,4	2.837	0,4	2,2
Zerga aurreko emaitza	54.957	7,9	62.076	8,6	13,0
Zergak	9.496	1,4	8.117	1,1	-14,5
Ekitaldiko emaitza garbia	45.461	6,6	53.959	7,5	18,7
Cash-flow	71.452	10,3	75.985	10,5	6,3

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Kostuen egituraren bilakaera aztertuz gero (kostu-partidek fakturazioan duten partaidetza), ikus daiteke pixka bat areagotu dela bitarteko kontsumoen partaidetza; zehazki, % 80,6 hartzen dute 2015ean (2014an, % 80,3). Bilakaera horrek berekin dakar balio erantsiaren partaidetzak behera egitea % 19,4ra arte (2014an, % 19,7).

Langile-gastuei dagokienez, diru-sarreraren gaineko ehunekoak % 10,7ra arte jaitsi da 2015ean (2014an, % 10,5), eta amortizazioen eta horniduren partaidetzak ere behera egin du pixka bat (2015ean, % 3,1; 2014an, % 3,7). Bestalde, finantza-kargaren beherakada nabarmena erregistratu da, 2015eko fakturazioaren -% 2,5 hartzen baitu (2014an, -% 2,1).

Aipatutako aldagaien bilakaera horri esker, emaitzak pixka bat hobetu dira. Zehazki, ohiko jardueren emaitzak fakturazioaren % 8,2 hartu du 2015ean (2014an, % 7,5). Gauza bera gertatzen da zergen aurreko emaitzaren ehunekoarekin, % 8,6 baita (2014an, % 7,9). Cash-flowak diru-sarreretan duen partaidetzak ere gora egin du pixka bat (2015ean, % 10,5; 2014an, % 10,3).

106. taula Nafarroako nekazaritzako elikagaien industriako 17 enpresatako laginaren errentagarritasuna

RATIOAK	2013	2014	2015
AKTIBO GARBIAREN ERRENT. (zerga aurretik)	7,9	12,5	13,1
Jasotako finant. Interesak / Kostua duten besteren baliabideak	3,4	2,4	1,7
BALIABIDE PROPIOEN ERRENT. (zerga aurretik)	10,3	17,6	17,3
Zorpetze-ratioa	34,6	33,3	26,8
Palanka-efektu finantzarioa*	4,5	10,1	11,4

(*): Errentagarritasun ekonomikoa – kostua (kanpoko finantzaketa).

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala.

Jarduerak hobera egin duen testuinguru horretan, ikus daiteke gora egin duela laginean kontuan hartutako enpresen errentagarritasun ekonomikoak, eta errentagarritasun finantzarioak pixka bat behera egin duela (zergen aurretik kalkulatuta). Ildo horretan, errentagarritasun ekonomikoa % 13,1 izan da 2015ean (2014an, % 12,5), eta errentagarritasun finantzarioa % 17,3 (2014an, % 17,6). Kontuan hartu behar da, halaber, zorraren kostua murriztu egin dela (2015ean % 1,7; 2014an, % 2,4), baita zorpetze-ratioa ere (2015ean, % 26,8; 2014an, % 33,3).

5. AUTOMOBILGINTZA

2016ko ekitaldian, nazioarteko produkzio-jarduerak % 4,5eko igoera izan zuen, eta 95 milioi ibilgailu inguru muntatu ziren urte horretan mundu osoan. Aipatu behar da automobilgintza, krisiaren urte txarrenetan izan ezik, gai izan dela bere produkzio-mailei eusteko edo haiek handitzeko, eta, gainera, sektore estrategikoa da herrialde askotan. Ikuspegi geografikotik, bilakaera bloke ekonomikoen arabera aztertuz gero, NAFTAko herrialdeek krisiaren ondorio kaltegarri latzak 2008-2009 biurtekoan pairatu zituzten, baina laster berreskuratu zuten hazkundearen bidea, eta, 2016an, 18.165.870 unitate fabrikatu zituzten, aurreko ekitaldian baino % 1,2 gehiago. Europan, berriz, susperraldira heltzeko aldia luzeagoa izan zen, ez baitzen 2014ra arte lortu, eta azken urtean, % 3ko hazkundea izan da. 2016an, EB-27n 18.809.265 ibilgailu ekoitzi ziren, eta horietatik, EB-15eko herrialdeek fabrikatu zituzten % 80 inguru. Asia-Ozeaniari dagokionez, ibilgailuen fabrikazioa etengabe hazi da azken hamarkada honetan, eta hazkunde handia izan du 2016an ere (% 7,6); 51.521.214 ibilgailu ekoitzi dira guztira. Hego Amerikari dagokionez, azken aldiko joera ez da oso ona, jardueraren % 10,6ko uzkuradura izan baita azken ekitaldian. Guztira, 2,7 milioi unitate inguru ekoitzi dira. Azkenik, Afrikan, milioi bat ibilgailu baino gutxiago ekoitzi dira, eta etengabeko gorabeherak dira kontinente horren bereizgarria. Azken ekitaldian, hain zuzen, hazkundea izan da (% 7,9).

Herrialde ekoizle nagusien jardueraren analisi xehatua eginez gero, ikusten da, oro har, 2016an, produkzio-hazkunde ez handiak ez txikiak izan direla. Adierazpen hori, ordea, ezin zaio aplikatu Txinari, munduko potentzia nagusiari, bi digituko (% 14,5) hazkundea izan baitu (bakarra izan da munduan). Espainiako automobilgintzari dagokionez, zortzigarrena izan da beste behin munduko ibilgailu-ekoizleen artean, eta bigarrena, berriz, Europako artean, eta, gainera, posizio nabarmena du ibilgailu komertzialen fabrikazioan, arlo horretan nagusi izan baita Europan.

Nazioartean, matrikulazioei dagokienez, haien hazkundea ekoizpen-hazkundearen ia berdina izan zen (% 4,7 eta % 4,5, hurrenez hurren). Munduan, 93,8 milioi ibilgailu matrikulatu ziren urte osoan. Munduko merkataritza-jardueraren erdia Asia-Ozeania-Ekialde Hurbila blokeak egin du; Amerikak merkataritza-jardueraren % 27,2 egin du; Europak, % 21,5; eta, azkenik, Afrikak, % 1,4. Aipatu behar da Txina alderdi horretan ere nabarmentzen dela, munduko matrikulazioen ia herena herrialde horretan egiten baitira.

5.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Munduko produkzio-jarduerak hobera egin badu ere, bilakaera desberdinak daude herrialde batetik bestera, eta hazkundera nagusi bada ere, 2015ean izandakoa baino txikiagoa da, oro har. Europan, EB-15ek eta EB-27k pareko bilakaera dute (% 3 inguruko hazkundera), eta Alemania dago rankingeko lehen postuan, alde handiz. Alemania, hain zuzen, Europako ibilgailu-ekoizle nagusia da: hazkunde arina izan du (% 0,5) eta 6,1 milioi ibilgailu ekoitzi ditu urtean. Espainia dago bigarren: 2,9 milioi unitate ekoitzi dira bertan, eta produkzioak % 5,8ko hazkundera izan du. Frantziaren bilakaera Espainiarenaren antzekoa izan da: % 5,6ko hazkundera izan du, hirugarren postuan dago, eta 2 milioi ibilgailu baino zertxobait gehiago ekoitzi dira herrialdean. Erresuma Batuak eta Italiak antzeko bilakaera izan dute, % 8 inguruko hazkundera izan baitute, baina Erresuma Batuak ibilgailu gehiago ekoitzi ditu Italiak baino (1,8 milioi eta 1 milioi ibilgailu, hurrenez hurren). Belgikak beste herrialde horiek baino zifra askoz txikiagoak ditu, eta beherakada izan du ekoizpen-jardueran, baina aurreko ekitaldikoa baino txikiagoa (-% 2,4 eta -% 20,8, hurrenez hurren).

Amerikaren analisia eginez gero, ikusten da NAFTA eremuko (Estatu Batuak, Mexiko eta Kanada) bi herrialdetan ekoizpen-jarduera ez dela ia batere aldatu. Hirugarrenean, berriz, hazkundera izan da. Lehenik eta behin, AEBn 12.198.137 milioi ibilgailu ekoitzi dira urtean, eta hazkundera ia hutsala izan da (% 0,8). Mexikok antzeko portaera izan du (% 0,9ko hazkundera), baina AEBn ekoizten den ibilgailu-kopuruaren herena ekoizten da Mexikon. Kanadan, ordea, ekoizpenak hazkundera izan du (% 3,8) eta 2 milioi ibilgailutik gora ekoitzi dira herrialde horretan. Dinamismo-galera horren ondorioz, multzo osoaren kuotak behera egin du; hau da, 2015ean, Amerikan ekoizpenaren % 20 egiten zen, eta ekitaldi honetan, puntu portzentual bateko jaitsiera izan da (% 19).

Asiako herrialdeei buruzko analisiari dagokionez, Txina izan da, beste urte batez, munduko ibilgailu-ekoizle nagusia (2009tik du postu hori). 28.118.794 ibilgailu ekoitzi dira Txinan; hau da, ibilgailu guztien % 29,6. Aurreko ekitaldian izandako urtetik urterako aldakuntza txikia ikusita (% 3,3), pentsa zitekeen Txinako jarduera geldotzen hasia zela, baina ekitaldi honetako hazkundeak (% 14,5) teoria hori zapuztu egin du. Japoniaren kasuan (hirugarren postuan dago munduko ekoizleen artean), ordea, badirudi ekoizpen-erritmoa geldotzen ari dela (-% 0,8; 9.204.590 ibilgailu ekoitzi dira 2016an). Indiak eta Hego Koreak antzeko ehunekoak dituzte (% 4,5), baina alderantzizko bilakaera izan dute: Indiak % 7,9ko gorakada izan du, eta Hego Koreak, berriz, proportzio bereko jaitsiera. Thailandian ia 2 milioi ibilgailu ekoitzi dira, eta Indonesian, berriz, milioi bat ibilgailu baino zertxobait gehiago. Gainerako herrialde ekoizleek zifra horietatik oso

behera daude. Dena dela, herrialde horien guztien, eta batik bat Txinaren, jarduera dela eta, Asia-Ozeania blokeak munduko fabrikazioaren % 54,2 egiten du.

Gainerako blokeei dagokienez, Afrikan (Maroko eta Hegoafrika ekoizle nagusiak izanik) ekoizpenaren % 1 egin da, % 7,9ko gorakada izanda, eta Hego Amerikak % 2,8ko kuota du (Brasilen ekoizpen-jardueraren eraginagatik, neurri handi batean), baina kontinente horretako jarduerak % 10,6ko beherakada izan du.

Matrikulazioen atalean, Txina dago, ezbairik gabe, munduko sailkapenaren buruan: 28 milioi unitate matrikulatu dira han. AEB da bigarren (17,9 milioi ibilgailu saldu dira han), eta Japonia, berriz, hirugarren (ia 5 milioi ibilgailu). Alemania dago laugarren, eta India bosgarren, oso gutxira (bi herrialde horietan, 3,7 milioi ibilgailu inguru matrikulatu dira), eta gero, Erresuma Batua, matrikulazio-kopuru zertxobait txikiagoa izanik (3,1 milioi). 2 milioi ibilgailutik gora, Frantzia, Brasil eta Italia daude, eta haien atzetik, herrialde dezente daude milioi bat eta bi milioi ibilgailuren arteko bitartean (Turkia, esaterako, milioi batetik gertu, eta Kanada, berriz, 2 milioiren inguruan). Espainian 1.347.344 ibilgailu matrikulatu dira, eta aurten 15. postuan sailkatu da, Iranek Espainiaren kopurua gainditu baitu.

Etorkizunerako perspektibei dagokienez, Automobil Ekoizleen Nazioarteko Erakundeak (OICA) argitaratutako informazioaren arabera, 2017rako, ibilgailuen munduko ekoizpenak gora egitea eta 96 milioi unitatera heltzea aurreikusten da; hau da, % 2tik % 3ra bitarteko hazkundea izatea. Nolanahi ere, OICAk hazkunderako mehatxu hauek aipatzen ditu, aldaketa teknologikoen, ingurumen-legediaren edo krisiaren aurretik: produktua garestitzen duten lege-estandarrak eta arauak, batetik, eta merkataritza askerako hesiak, bestetik. *"Hau da automobilgintzaren benetako etsaia: merkatu globaleko merkataritza askearen aurkako mehatxuak"*, nabarmendu zuen ekoizleen munduko patronalaren presidente Matthias Wissmann-ek.

107. taula Ibilgailuen ekoizpena eta matrikulazioa

(unitateak)

HERRIALDEA	Kontzeptua	2015	2016	% Δ 16/15
Alemania	Produkzioa	6.033.364	6.062.562	0,5
	Matrikulazioa	3.539.825	3.708.867	4,8
Frantzia	Produkzioa	1.972.000	2.082.000	5,6
	Matrikulazioa	2.345.092	2.478.472	5,7
Espainia	Produkzioa	2.733.201	2.891.922	5,8
	Matrikulazioa	1.214.212	1.347.344	11,0
Erresuma Batua	Produkzioa	1.682.156	1.816.622	8,0
	Matrikulazioa	3.061.406	3.123.755	2,0
Italia	Produkzioa	1.014.223	1.103.516	8,8
	Matrikulazioa	1.726.079	2.050.292	18,8
Belgika	Produkzioa	409.253	399.427	-2,4
	Matrikulazioa	571.524	617.854	8,1
EB-15	Produkzioa	14.416.319	14.897.724	3,3
	Matrikulazioa ⁽¹⁾	15.223.766	16.145.220	6,1
Txekiar Errepublika	Produkzioa	1.246.533	1.349.896	8,3
	Matrikulazioa	260.070	291.008	11,9
EB-27	Produkzioa	18.254.326	18.809.265	3,0
	Matrikulazioa ⁽²⁾	16.454.281	17.568.449	6,8
Errusia	Produkzioa	1.378.246	1.303.989	-5,4
	Matrikulazioa	1.440.923	1.404.464	-2,5
Estatu Batuak	Produkzioa	12.105.988	12.198.137	0,8
	Matrikulazioa	17.845.624	17.865.773	0,1
Mexiko	Produkzioa	3.565.218	3.597.462	0,9
	Matrikulazioa	1.389.474	1.647.723	18,6
Brasil	Produkzioa	2.429.421	2.156.356	-11,2
	Matrikulazioa	2.568.976	2.050.321	-20,2
Kanada	Produkzioa	2.283.307	2.370.271	3,8
	Matrikulazioa	1.939.517	1.983.745	2,3
Japonia	Produkzioa	9.278.238	9.204.590	-0,8
	Matrikulazioa	5.046.510	4.970.260	-1,5
India	Produkzioa	4.160.585	4.488.965	7,9
	Matrikulazioa	3.424.836	3.669.277	7,1
Thailandia	Produkzioa	1.909.398	1.944.417	1,8
	Matrikulazioa	799.632	768.788	-3,9
Hego Korea	Produkzioa	4.555.957	4.228.509	-7,2
	Matrikulazioa	1.833.786	1.823.041	-0,6
Txina	Produkzioa	24.567.250	28.118.794	14,5
	Matrikulazioa	24.661.602	28.028.175	13,7

(1): EB-15 + EFTA eta (2): EB-28 + EFTA
Iturria: ANFAC eta OICA.

5.2 SEKTOREA ESPAINIAN

Espainiako automobilgintzarako, 2016. urtea oso ona izan da: sektoreak duela urte batzuk egindako aurreikuspenak gainditu ditu eta 2,89 milioi ibilgailu ekoitzi dira. Urtetik urterako hazkundea nabarmena izan da (% 5,8), Europako herrialde gehienena baino handiagoa, eta Espainiako industria sendotu egin da Europako ekoizleen artean: bigarren izaten jarraitzen du, eta ekoizpenaren arloan Frantziarekiko eta Italiarekiko galdutako aldea berreskuratu du.

Bilakaera on hori Espainiako lurraldean kokatutako 17 ekoizpen-lantegiek eragin dute, haietan, 9 ekoizlek jarduten dute eta 43 modelo fabrikatzen dira (20 modelo Espainian soilik ekoitzirik). Espainian ekoizten diren marka guztien fakturazioa 62.000 milioi euro ingurukoa da, eta automobilgintzarako osagaien sektorea kontuan hartzen bada, zenbateko hori 95.000 milioi eurora arte igotzen da (bien artean, BPG-aren % 8,6).

Halaber, sektore horrek kanpo-merkataritzan duen garrantzia ere aipatu behar da, ekoizpenaren zati handi bat esportatu egiten baita. Beraz, 2016an, esportazioen balioa 37.700 milioi eurotik gorakoa izan da, eta inoiz izandako saldo positiborik handiena izan du (18.400 milioi euro). Horrez gain, 2016an, merkataritza-balantze onena izan duen sektorea izan da, eta Espainiaren esportazioen % 19,4 da.

108. taula Espainiako automobilgintzaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpo-merkataritza

(unitateak)

Azpisektorea	Produkzioa			Esportazioak			Matrikulazioak		
	2015	2016	%Δ	2015	2016	%Δ	2015	2016	%Δ
Autoak	2.202.348	2.313.391	5,0	1.893.724	2.011.248	6,2	1.034.232	1.147.009 ^(*)	10,9
Lur orotakoak	16.632	46.726	180,9	16.181	44.773	176,7	--	--	--
Ibilgailu komertzial arinak eta furgoiak	456.093	466.766	2,3	331.478	348.144	5,0	154.765	172.106	11,2
Ibilgailu industrialak	58.128	65.039	11,9	32.349	28.236	-12,7	22.435	24.705	10,1
Autobusak	0	0	0	--	--	--	2.780	3.527	26,8
Guztira	2.733.201	2.891.922	5,8	2.273.732	2.432.401	7,0	1.214.212	1.347.344	11,0

(*): Turismoen matrikulazioen zifretan lur orotako matrikulazioak ere sartzen dira.

Iturria: ANFAC.

Sektoreko adierazle nagusiak sakon aztertuz eta datuei erreparatuz gero, lehenik eta behin, salbuespen bakar bat dagoela ikusten da urtetik urterako hazkundea nagusi diren egoera batean. Ibilgailuen ekoizpenari dagokionez, lehen aipatu dugunez, ekitaldian, ia 2,9 milioi unitate ekoitzi dira, ANFACek 2012an aurkeztutako Plan 3 millones planean aurreikusitakoa baino gehiago. Ekoizpenean, % 5,8ko hazkundea izan da, eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, ibilgailu-segmentu guztiek parte hartu dute hazkunde horretan; hau da, autoek % 5eko gorakadarekin, ibilgailu industrialek % 12arekin, ibilgailu

komertzial arinek eta furgoiek % 2,3arekin eta, azkenik, lur orotakoek % 180,9ko hazkunde izugarriarekin. Noski, autoen ekoizpena guztizkoaren % 80 denez, segmentu horren portaerak eragin handia du emaitza orokorren bilakaeran.

Esportazioei erreparatuz gero, 2016an esportazioen bolumenak % 7ko hazkundera izan duela ikusten da. Hauek dira hazkunde horren oinarriak: batetik, luzaroan jardun den merkatuetan salmentak sendotzea, eta, bestetik, sektoreko enpresek merkatu berriak etengabe bilatzea herrialdeko produktuetarako. EB-15etik kanporako salmentek esportazio guztien multzoan lortu duten proportzioak merkatuen dibertsifikazioa erakusten du. Hain zuzen ere, Europatik kanporako salmentak merkataritza-jardueraren % 12,1 ziren 2009an, eta % 25era arte igo dira 2016an. Ibilgailu-motaren arabera, autoek, salmenten ehuneko handiena izanik, % 6,2ko hazkundera izan dute 2016an; ibilgailu komertzial arinek eta furgoiek, % 5ekoa; eta lur orotakoek, berriz, % 176,7ko hazkunde esponentziala. Beste muturrean, atzerriarekiko merkataritza-fluxuen beherakada izanik (-% 12,7), ibilgailu industrialak daude, pisu espezifikorik txikiena segmentu horrek duelarik.

Matrikulazioei dagokienez, 2016ko ekitaldia oso ona izan da, segmentu guztietan izan baita gorakada, hazkunde orokorra % 11koa izanik. Matrikulazioen % 85 autoenak izan dira (% 10,9ko hazkundera egon da). Aipatu behar da, aurreko urteetan gertatu den bezala, Plan Pive berri bat martxan jartzea izan dela hazkunde hori eragin duten faktoreetako bat. Hori partikularren erosketetan islatzen da: urteko lehen seihilekoan, Plan Pive hori oraindik indarrean zela, bi digituko hazkundera zuten, eta geroago, geldotuz joan dira, hori bereziki nabarmena izanik azken hiruhilekoan. Testuinguru horretan, ibilgailu industrialek eta ibilgailu komertzial arinek autoen joera bera izan dute eta % 10 inguruko hazkundera lortu dute (24.705 eta 172.106 unitatera iritsi dira, hurrenez hurren). Alde horretatik, 2016an izandako susperraldi ekonomikoa mesedegarria izan da ibilgailu-mota horietarako, eta haien matrikulazioetan, ibilgailu industrialen kasuan batik bat, zenbait sektoreren portaera ekonomikoak eragin handia izan du. Halaber, antzeko egoera hautematen da autobus segmentuan: turismo-jarduera zenbat eta handiagoa izan, orduan eta aukera handiagoak daude flota berritzeko; beraz, matrikulazio-perspektibak baikorrak dira.

109. taula Autoen matrikulazioa, marken arabera

Marka nagusiak	2015	2016	(unitateak) %Δ
Volkswagen	88.300	89.012	0,8
Seat	77.529	77.643	0,1
Seat-Volkswagen taldea	165.829	166.655	0,5
Peugeot	76.314	83.524	9,4
Citroën	58.855	60.607	3,0
PSA taldea^(*)	135.169	144.131	6,6
Renault	77.087	90.504	17,4
Opel	76.470	89.383	16,9
Ford	64.327	60.114	-6,5
Nissan	55.313	57.087	3,2
Toyota	49.120	55.672	13,3
KIA	45.028	53.412	18,6
Audi	44.062	51.655	17,2
Hyundai	44.154	50.912	13,1
Fiat	37.764	48.866	29,4
Mercedes	39.058	47.065	20,5
Dacia	45.241	44.599	-1,4
B.M.W	35.927	44.365	23,5
Gainerako markak	119.683	142.589	19,1
Guztira	1.034.232	1.147.009	10,9

(*): Peugeot eta Citroën.
Iturria: DGT eta ANFAC.

Marken araberrako analisia eginez gero, lehenik eta behin, aipatu behar da Volkswageneke, herrialdeko marka nagusien artean jarraitzen duen arren, hazkunde-erritmo geldoagoa duela, eta haren merkatu-kuota erlatiboak behera egin duela (2015ean, % 8,5, eta 2016an, berriz, % 7,8). 2015ean diesel-ibilgailuen isurien manipulazioaren inguruan sortutako eskandalua izan daiteke salmentak geldotzearen kausetako bat, lehen postutik (2015) hirugarrenera (2016) jaitsi baita. Hori esanda, Renault da merkatuko marka liderra (90.504 matrikulazio), eta Opel da bigarren, oso gertu (89.383 unitate), biek oso bilakaera ona erakutsirik (% 17,4ko eta % 16,9ko hazkundea, hurrenez hurren), eta azkenik, Volkswagen dago (89.012 matrikulazio). Seat da laugarren hazkunde txiki batekin eta 77.643 unitate salduta, eta haren atzetik Citroën eta Ford daude, antzeko salmentak dituztela (60.000 matrikulazio inguru). Hala ere, Citroënek % 3ko hazkundea izan duen bitartean, Fordek, Dacia-rekin batera beherakada izan duten marka bakarrak izan dira (-% 6,5 eta -%1,4, hurrenez hurren). Nissanen portaera alde batera utzita (salmenten hazkunde txikia izan du, % 3,2koa) beste gainerako marken multzoak hazkunde handiak izan dituzte, bi digitukoak marka denek, eta marka bakoitzak herrialdeko merkatuan duen kuota zertxobait aldatu du. Ekitaldi honetan, Seat-Volkswageneke kuota % 16tik % 14,5era jaitsi da, eta PSA taldearena, berriz, % 13,1etik % 12,6ra. Automobilgintza sektorean beste erosketara eragiketa bat egon dela aipatu behar da: 2017ko martxoan, PSAk Opel/Vauxhall filiala erosi zion General Motors-i. Eragiketa horrek eragina izango du datorren urtean, marka bakoitzari dagokion kuotan.

110. taula Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak

Herrialdea	<i>(unitateak)</i>		
	2015	2016	%Δ
Alemania	383.242	425.718	11,1
Frantzia	392.143	421.423	7,5
Erresuma Batua	363.499	348.199	-4,2
Italia	202.107	241.505	19,5
Turkia	114.546	135.035	17,9
Belgika	76.205	92.846	21,8
Herbehereak	69.876	65.797	-5,8
Austria	51.397	61.718	20,1
Polonia	44.323	52.314	18,0
Portugal	36.286	41.691	14,9
10 herrialde nagusiak, guztira	1.733.624	1.886.246	8,8
Gainerakoak	540.108	546.155	1,1
Esportazioak guztira	2.273.732	2.432.401	7,0

Iturria: ANFAC.

Esportazioen arloan, banaketa geografikoari dagokionez, herrialdeko produktuen jomuga diren 10 herrialde nagusien kuota ez da ia batere aldatu. Herrialde horietara egiten dira, hain zuzen, esportazioen % 77,5. Hau da, 10 herrialdek 1.886.246 ibilgailu erosi dizkiote Espainiako industriari, aurreko ekitaldian baino % 8,8 gehiago. Bilakaera positibo horretan, zenbait salbuespen daude: Herbehereak (-% 5,8) eta, batik bat, multzo osoan duen eraginagatik, Erresuma Batua (-% 4,7). Datuak sakon aztertuz gero, Frantzia, ohi bezala, Espainiako industriaren merkataritza-bazkide nagusietako bat dela ikusten da, nahiz eta 2016an Alemaniak lehen postua kendu dion. Bi herrialde horietarako (Frantzia eta Alemania) esportazioen bolumena oso antzekoa da, baina rankingaren buruan izandako aldaketaren arrazoia da Alemaniaren urtetik urterako bilakaera hobea izan dela Frantziarena baino (% 11,1 eta % 7,5, hurrenez hurren). Hala eta guztiz ere, herrialde horietako bakoitzaren pisu espezifikoak aipatu behar da (% 17,5 eta % 17,3), Espainiako esportazioen % 35 hartzen baitute bien artean. Erresuma Batua, antzeko kuotarekin (% 14,3), merkataritza-aliatu garrantzitsua da herrialde horretarako esportazioetan beherakada izan arren (-% 4,2ko beherakada izan da) eta haren etorkizunak nolabaiteko zalantzak sortzen ditu, Espainiako industria kezkatuta baitago Erresuma Batuekiko merkataritza-harremanak Brexitaren ostean izango duen bilakaeragatik. Hurrengo hiru herrialdeek (Italia, Turkia eta Belgika), berriz, gorakada interesgarriak izan dituzte (% 19,5, % 17,9 eta % 21,8, hurrenez hurren), eta Espainiarekiko merkataritza-fluxuen % 9,9, % 5,6 eta % 3,8 dagozkie. 2016an, zenbait herrialdeetara, inoizko salmenta handienak egin direla aipatu behar da, hala nola Turkia, Israel, Mexiko, Txile, Polonia, Suitza, Japonia eta Kanadara, eta horrek agerian uzten du merkatu berrietan sartzeko Espainiako industriak duen ahalmena.

111. taula Automobilgintza-sektorearen esportazioak eta inportazioak

(M euro)

Ibilgailuak	Europar Batasunaren barruko esportazioak eta entregak			Europar Batasunaren barruko inportazioak eta erosketak			Esportazio-inportazioen saldoa		
	2015	2016	%Δ	2015	2016	%Δ	2015	2016	%Δ
Autoak	29.071	31.210	7,4	14.504	16.336	12,6	14.566	14.874	2,1
Kamioiak	4.931	6.194	25,6	2.385	2.681	12,4	2.545	3.513	38,0
Ibilgailu bereziak	77	33	-57,2	56	56,2	0,6	22	-23	-206,9
Autobusak	233	269	15,5	170	248	45,9	63	21	-67,0
Guztira	34.312	37.707	9,9	17.116	19.321	12,9	17.196	18.385	6,9

Iturria: Aduanen Zuzendaritza Nagusia.

Analisia jarraituz, kanpo-merkataritzako adierazle nagusiei dagokienez, 2016an zifra historikoak berriz lortu direla aipatu behar da, eta esportazio-saldoak 18.300 milioi euroko muga gainditu duela. Portaera on horretan, kamioiek eta, batik bat, autoek izan dute eragina; ibilgailu bereziek eta autobusek, berriz, balio negatiboak izan dituzte. Alderdi horretan, autoen ekarpena nabarmendu behar da, 2016an 14.874 milioi euroko merkataritza-superabita sortu baitute. Beraz, Europar Batasunaren barruko esportazioen eta entregen atalean, 2016an, % 9,9ko gorakada izan da partida horretan, eta ekitaldiko balioa 37.700 milioi eurotik gorakoa izan da. Ibilgailu-motaren arabera, gorakadak nagusi diren testuinguru horretan, ibilgailu bereziak dira salbuespen bakarra, aurreko ekitaldian izandako jardueraren erdia izan baitute. Kamioien balioek, aldiz, gorakada handiak izan dituzte 2015eko datuen aldean (% 25,6), bai eta autobusek ere (% 15,5), autoek ("produktu izarra") % 7,4ko hazkundea izan duten testuinguruan (haien esportazioen balioa 31.210 milioi eurokoa izan da). Inportazioen atalean, adierazle guztiek hazkundeak erakusten dituzte, neurri handiagoan edo txikiagoan, nabarmenena autobusena izanik (% 45,9). Autoek eta kamioiek antzeko bilakaera izan dute (% 12 inguruko hazkundea), autoen ekarpena askoz handiagoa izanik, eta ibilgailu berezien balioak egonkorrak izan dira. Oro har hartuta, 2016an, inportazioen balioa 19.321 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino % 12,9 gehiago.

2017rako aurreikuspenei dagokienez, ekoizpenaren arloan, herrialdeko industriak 3 milioi ibilgailu inguru ekoiztiko dituela aurreikusten da. Merkatuari dagokionez, 2017rako aurreikuspenak 1,45 milioi ibilgailu matrikulatuko direla (2016an baino % 7,8 gehiago) eta hazkundea izaten jarraituko dela 2018an 1,51 milioi inguru ibilgailu matrikulatuta iritsi arte.

Automobilgintza-ekoizleen ezaugarri nagusiak eta bilakaera aztertu ondoren, jarraian, sektore lagungarriaren magnitude nagusiak aztertuko dira. Jakina denez, automobilgintzarako osagaien sektorea oso garrantzitsua da automobilgintzaren industrirako, ibilgailuen balioaren % 75 baino gehiago baitagokio. Sektore globala da,

lehiakortasun handikoa, eta bezeroekiko hurbiltasuna lortzen saiatzen da, bai hurbiltasun geografikoa, bai bezeroen beharrekiko hurbiltasuna, azken produkturako ahalik eta balio erantsi handiena sortzeko.

Sernautok⁽¹⁾ argitaratutako informazioaren arabera, Espainiako sektore laguntzailea 1.000 enpresak baino gehiagok osatzen dute, eta 212.000 langileko zuzeneko enplegua sortzen dute (2015ean baino 8.000 gehiago), edota 343.500 langile, zeharkako enplegua kontuan hartzen bada. Enpresen jardueraren zati handi bat esportaziorako da: enpresek 35 herrialdetan baino gehiagotan dute presentzia eta fakturazioaren % 57 atzerriko salmentek sortzen dute (% 80, esportatutako ibilgailuetan instalatutako osagaiak kontuan hartzen badira). Zalantzarik gabe, sektore estrategikoa da, fakturazioa 34.000 milioi eurotik gorakoa izan da, 2015 ekitaldiarekiko % 6,3ko igoera izan duelako. Ekitaldi honetan, herrialdeko merkatuak bilakaerarik onena izan du, jatorrizko ekipoen azpisektoreak bultzatuta batik bat. Herrialdeko merkatuko salmentak, beraz, 14.500 milioi eurokoak izan dira, 2015ean baino % 10,7 gehiago. Salmenta horietatik, jatorrizko ekipoen salmentak izan dira nagusi (guztizkoaren % 66,2), eta, horrez gain, hazkunde handiagoa izan dute ordezkio piezen salmentek baino (% 12,9 eta % 6,5, hurrenez hurren).

112. taula Espainiako automobilgintzarako ekipoen eta osagaien industriaren kopuru nagusiak

<i>(M euro)</i>			
KONTZEPTUA	2015	2016	%Δ 16/15
Fakturazioa	32.000	34.000	6,3
Merkatu nazionalako salmentak	13.100	14.500	10,7
- Jatorrizko ekipoa	8.500	9.600	12,9
- Ordezko piezak	4.600	4.900	6,5
Esportazioak	18.900	19.500	3,2
Inbertsioak	1.850	2.000	8,1
Inbertsioak I+G+Bn	1.200	1.350	12,5
Enplegua (langile-kopurua)	204.000	212.000	3,9

Iturria: Sernauto.

Esportazioei dagokienez, 2016an, kanpo-merkatuetarako salmentek % 3,2ko hazkundera izan dute, aurreko urteetan baino zertxobait txikiagoa, eta 19.500 milioi eurora iritsi dira.

Gainerako adierazleak kontuan hartuta, sektoreak, azken ekitaldi honetan, inbertsioaren alde egiten jarraitzen duela nabarmena da. 2016an, fakturazioaren % 4 erabili da I+G+Bko jardueratarako (1.350 milioi euro balio absolututan), eta hazkunde nabarmena dago aurreko ekitaldiko balioen aldean (% 12,5). Zenbateko horri sektore laguntzaileak enpresen ekoizpen-ahalmenak areagotzeko eta hobetzeko erabiltzen duen 2.000 milioi

¹ Automobilgintzarako Ekipoen eta Osagaien Espainiako Ekoizleen Elkarteak

euroko diru-kopurua gehitu behar zaio, eta horrek argi eta garbi erakusten du sektoreak berrikuntzarekiko duen konpromisoa.

Patronalak argitaratutako informazioaren arabera, etorkizunerako perspektibei dagokienez, barne-eskariaren etorkizuneko portaerak sortzen ditu zalantza handienak, joera protekzionisten eta Brexitaren —Erresuma Batua Espainiako ekoizleen ohiko merkatuetako bat izanik— gaintik. Dena dela, Sernautok 2017an sektorearen fakturazioa % 5 eta kontratazioa % 3 haziko direla aurreikusten du.

5.3 SEKTOREA NAFARROAN

Automobilgintzaren sektorea sektore estrategikoa da Nafarroan: Nafarroako industriako bost enplegutatik bat sortzen du, eta industriako BPG-aren laurdena da, gutxi gorabehera (industria, berriz, Nafarroako BPG-aren % 30 da). Eskualdearen kanpo-merkataritzan ere nabarmentzen da, automobilgintzako esportazioak esportazio guztien % 45 baitira. Enpresa-ehun indartsu bati esker lortzen da hori guztia, Nafarroako enpresa enblematikoenetako bat, Volkswagen Navarra, sektorearen eragile handia: 297.000 ibilgailu inguru ekoizten ditu urtean eta funtsezko funtzioa du enplegu-sorreran ere (4.547 langile).

Analisisa jarraitzeko, magnitude sektorial handiei erreparatuko zaie, eta hor, lehenik eta behin, sektorea osatzen duten enpresen kopuruak berriz ere behera egin duela aipatu behar da. 2014tik, enpresa-kopuruak behera egin du (6 enpresa gutxiago, hiru enpresa urte bakoitzean), eta 2016an, 102 enpresa zeuden. Enpleguari dagokionez, 2015ean zertxobait gora egin bazuen ere (% 0,5), 2016an joera hori aldatu egin da, eta 19 langile gutxiago daude sektorean (11.969 guztira). Bilakaera hori ez dator bat industriako enpleguaren guztizko kopuruak adierazitako dinamismoarekin, % 2,1eko igoera egon baita aurreko ekitaldiko balioen aldean. Horren emaitza automobilgintzako sektoreko enpleguak industria osoan duen partaidetza % 18,8ra jaitsi dela da (2015ean, % 19,2 zen).

113. taula Enpleguaren eta enpresa-kopuruaren bilakaera ^(*)

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016
Automobilgintzako enpresa-kopurua	105	103	108	105	102
Automobilgintzako enplegua	11.752	11.604	11.929	11.988	11.969
Industriako enplegua, guztira	62.817	60.264	61.086	62.429	63.726
Automobilgintzako enpleguaren %, industria-enpleguaren gainean	18,7	19,3	19,5	19,2	18,8

(*): *Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren datuak. Garraioko materialeko enpresak.*

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

Enpresa-egiturari dagokionez, enplegu-estratuari erreparatuz gero, aldaketa txikiak daude enpresen banaketan 2015eko datuen aldean. Zehazki, 5 langiletik beherako enpresen multzoan, bat gutxiago dago 31tik 30ra pasatuz. Hurrengo segmentuak, 6-50 langile bitartean, bilakaera berdina izan du, 38 enpresa izatetik 37 enpresa izatera pasa da. Hurrengo bitartean, 51-100 langilerekin, enpresa-kopuruak alderantzizko bilakaera izan du, ekitaldi honetan enpresa bat gehiago baitago: 13 daude segmentu horretan (2015ean, 12 ziren). Goiko bitarteetan, 101-500 lanposturekin, 19 enpresa daude enpresa-mapa berrian, 2015ean baino bi gutxiago, eta enpresa handienetan, 500 langiletik gora, berriz, ez da aldaketarik egon eta, beraz, 3 enpresa daude.

114. taula Ibilgailu automobilen eta ordezkoko piezen fabrikazioa: enpresa-egitura eta enpresa-kopurua ⁽¹⁾

Enplegu-estratuak	Enpresa-kopurua	Enplegua
≤ 5	30	63
6-50	37	985
51-100	13	988
101-500	19	3.955
>500	3	5.937
GUZTIRA	102	11.969⁽²⁾

(1): *Informazioa Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatutako enpresen eta langileen batez bestekoari dagokio. Garraioko materialeko enpresak.*

(2): *Enpleguaren guztizko zifra (11.969 landun), langile autonomoekin osatzen da; horien kopurua 41ekoa da.*

Iturria: Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

115. taula Automobilgintzaren sektoreko Nafarroako enpresa nagusiak, 2016

Enpresa	Enplegua	Udalerrria
Volkswagen Navarra SA	4.547(*)	Aratzuri
TRW Automotive España SL	500 baino gehiago	Iruñea
KYB Suspensions Europe SA	500 baino gehiago	Asiain
Delphi Packard España SL	500 baino gehiago	Iruñea
Dana Automoción SA	251-500	Iruñea
SAS Autosystemtechnik SA	251-500	Aratzuri
Tecnoconfort SA	251-500	Iruñea
Manufacturas de Aluminio Pamplona	251-500	Orkoien
Faurecia Emcon Technologies Spain SL	101-250	Orkoien
KYB Advanced Manufacturing Spain SA	101-250	Asiain
KYB Steering Spain SA	101-250	Orkoien
Grupo Antolin Navarra SA	101-250	Aratzuri
Mecanizados Industria Auxiliar SA	101-250	Iruñea
TI Automotive Pamplona SA	101-250	Aitzoain
Alcalá Industrial SA	101-250	Galar
Sigma Brakes SA	101-250	Tutera
Ibérica de suspensiones SL	101-250	Altsasu
HBPO Automotive Spain SLU	101-250	Oltza Zendea
Trelleborga Inepsa SA	101-250	Iruñea
Maier Navarra SL	101-250	Iraizotz
Karosseriewerke Dresden España SA	101-250	Aratzuri
Zertan S.A. (Cebi taldea)	101-250	Lizarra

(*): Volkswagen Navarra-ren 2016ko memoriako datuak.

Iturria: Geuk egina, Nafarroako Enpresen Enpresa Direktorioaren eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberaren informazioan oinarrituta.

Enpresa-ehunari dagokionez, Nafarroan lehen eta bigarren mailako enpresa hornitzaile ugari daude, eta automobilgintzako merkatua hornitzeko kalitatezko eskaintza osatzen dute. Malgutasuna, moldaeraztasuna eta hurbiltasuna lehentasun diren exigentzia-maila handiko merkatua baita. Alde horretatik, Nafarroan sektore horretako enpresa nagusi den Volkswagen Navarrak bultzatuta, hornitzaile-multzo handi bat sendotu da, eta, Landabeneko lantegian modelo berri bat ekoizten hasiko direnez, baliteke etorkizun hurbilean multzo hori handitzea.

Kanpo-merkataritzaren bilakaerari erreparatuz gero, lehen aipatu dugunez, Nafarroako esportazio-jardueraren % 45a automobilgintzaren sektoreak egiten du. Kanpo-jarduerak igoera txikia izanik (% 0,7), ekitaldi honetan, automobilgintzako esportazioen balioa 3.750,4 milioi eurokoa da. 2016an, 2015ean ez bezala, automobilgintzako esportazioak bilakaera hobea izan du Nafarroako esportazio guztizkoak baino, esportazioek, oro har, % 2,4ko beherakada izan baitute. Inportazio sektorialeki dagokienez, 2015eko balioen aldean % 1,6ko kontrakzioa izan arren, 1.004,3 milioi euroko balioa izan dute, eta Nafarroako rankingaren buruan egon dira, lehen postua kendu baitiote "erreaktore nuklearrak, galdarak, makinak, aparatuak eta tresna mekanikoak eta berauen zatiak" multzoari (lehen postua lortu zuen multzo horrek 2015ean).

Esportazioen banaketa geografikoari dagokionez, Nafarroako esportazio gehienak EB-28ra bidaltzen dira, 2016an, eremu horretara joanik sektorearen kanpo-jardueraren % 76,5a. Nafarroako automobilgintza industriaren merkataritza-aliatu nagusia Alemania da, bai autoen eta gainerako ibilgailuen esportazioaren alorrean, bai zatien eta osagaien esportazioaren alorrean. Munduko herrialdeen artean, Alemania da nagusi Nafarroako esportazioei dagokienez, aipatutako bi ataletan (ibilgailuen esportazioen % 23,3 eta zatien eta osagaien esportazioen % 27,2). Frantzia dago bigarren eta postu nabarmena du Nafarroako kanpo-jardueran: ibilgailuen esportazioen % 15 eta zatien eta osagaien inportazioen % 18,3 hartzen ditu. Enpresa auto-ekoizleen arloan, Italiak (esportazioen % 14,6) eta Turkiak (% 11,2) lurraldeko produktuen helmuga nagusien mapa osatzen dute. Sektore laguntzailearen arloan, ordea, Italiak leku nabarmena izan arren (% 5,2), Hegoafrikako Errepublikarekiko merkataritza-fluxuak handiagoak dira (% 7,4). Erresuma Batua bosgarren da ibilgailuen esportazioen atalean (% 6,1) eta laugarren, berriz, zatien eta osagaien atalean (% 4,8). Dena dela, automobilgintzaren industriak bere produktuak herrialde askotara esportatzen baditu ere, salmentak herrialde gutxi batzuetan kontzentratzen direla nabarmendu behar da, eta rankingeko lehenbiziko postuetan daudenen artean kanporako merkataritza-jardueraren erdia baino gehiago banatzen da.

116. taula Kanpo-merkataritzaren bilakaera. Ibilgailu automobilak, zatiak eta osagarriak*

Kontzeptua	2012	2013	2014	2015	2016**
Automobilgintzako esportazioak (1)	3.274,4	3.369,8	3.617,7	3.724,9	3.750,4
Esportazioak guztira (2)	7.237,0	7.448,1	8.141,1	8.539,7	8.338,1
(1)/(2)	45,2	45,2	44,4	43,7	45,0
Automobilgintzako inportazioak	1.159,1	900,1	1.183,9	1.020,6	1.004,3

(*): Zergaren 87. kapitulua: Ibilgailu automobilak, traktoreak, zikloak eta gainerako lurreko ibilgailuak, horien zatiak eta osagarriak.

(**): Aurrerapen-datuak.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Kapitulua amaitzeko, Volkswagen Navarra enpresak urtean izandako bilakaera gaingiroki azalduko da. 2016an, 2015ean ez bezala (urte horretan, adierazle guztien bilakaeran goranzko joera egon zen), bilakaera desberdinak izan dira atal batzuetan eta besteetan. Ekoizpenari dagokionez, 296.799 ibilgailu ekoitzi dira; hau da, aurreko ekitaldian baino % 0,5 gutxiago. Ekoizpen-beherakada txiki hori izan arren, Polo modeloak merkatu-kuota garrantzitsua izaten jarraitzen du, bai merkatu nazionalean (autoen ekoizpen guztiaren % 12,9), bai nazioarteko merkatuan (2016an, munduan gehien saldutako autoa izan zen bere kategorian). Alemanian, Italian, Frantzian, Turkian eta Britainia Handian presentzia nabarmena du, eta herrialde hauek Espainiarekin batera, Nafarroan ekoiztako Polo autoen guztizko salmenten % 67a dira.

Beste magnitude handi batzuei dagokienez, beherakada izan dute, halaber, diru-sarrerak (2.939,7 milioi euroko diru-sarrerak; % 1,9ko beherakada izanda), bai eta cash-flow gordinak ere (124,3 milioi euro; % 0,5eko beherakada txikia). Aldiz, bilakaera positiboa izan du zergen osteko emaitzak, igoera handia izan baitu (% 22,5), eta ekitaldiaren itxieran, 74,5 milioi euro izatera iritsi da. Emaitzen gorakada nabarmen horrekin bat, hazkunde handia izan da inbertsioen atalean, 2016an 165,8 milioi eurokoak izan baitira, aurreko urtean baino % 28,1 gehiago. Inbertsioaren zati handiena, lantegia, VW270 modelo berriaren ekoizpena prestatzeko bideratu da (2018an merkaturatuko da modelo hori). Halaber, beste datu positibo bat enpleguaren hazkundera da, aurreko ekitaldian baino gehiago hazi baita: 145 pertsona gehiago daude Landabeneko lantegiko plantillan (2015an, 128 langile gehiago izan ziren), eta guztira, 4.500 langile baino gehiago dira.

117. taula Volkswagen Navarra SAren jarduera-magnitude nagusiak

(M euro)

Kontzeptua	2014	2015	2016	% Δ 16/15
Ekoizpen-jarduera				
Ekoizpena (ibilgailuak)	305.700	298.358	296.799	-0,5
Langileak (abenduarien 31n)	4.274	4.402	4.547	3,3
Diru-sarrerak	2.931,9	2.996,7	2.939,7	-1,9
Emaitzak zergen ondoren	52,9	60,8	74,5	22,5
Cash-flow gordina	119,7	124,9	124,3	-0,5
Inbertsioak	33,7	129,4	165,8	28,1

Iturria: Volkswagen Navarra SA

Etorkizunerako aurreikuspenei dagokienez, lantegian, Polo modelo berria garatzeko eta prestatzeko prozesuan ari dira, eta, horrez gain, Nafarroako lantegiaren historian lehen aldiz, beste modelo bat ere ekoitziko dute (2018an hasia aurreikusten dute). Horretarako, Volkswagen Navarra enpresan 1.000 milioi euro inguruko inbertsioak egingo dira 2019ra arte, eta ekoizpena % 17 igoko da eta plantilla % 10 handituko dira. Zalantzarik gabe, Volkswagen Navarra enpresaren etorkizun hurbilerako aurreikuspenek (urtean 350.000 ibilgailu ekoiztea) oso eragin positiboa izango dute industria laguntzailearen sektorean eta industria osoan.

6. PAPERA

6.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkartearen (ASPAPEL) informazioaren arabera –Confederation of European Paper Industries-en (CEPI) datuetatik abiatuta–, 2016an eremu horretan paperaren eta kartoiaren ekoizpena 90.895 mila tonakoa izan da, eta bolumen hori dela eta, aurreko ekitaldiarekiko aldakuntza nulua da. Hala, 2011n hasitako beheranzko joera amaitu da.

118. taula Paperaren eta kartoiaren produkzioa (CEPIko kideak)

Urtea	m Tm	% Δ
2011	93.557	-3,2
2012	92.081	-1,6
2013	91.128	-1,0
2014	90.949	-0,2
2015	90.872	-0,1
2016 (*)	90.895	0,0

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Paperaren ekoizpenaren eskualde-banaketa aintzat hartuta, eta, kasu honetan, informazioa 2015eko ekitaldiari buruzkoa dela kontuan hartuta, CEPI osatzen duten herrialdeen multzoari paperaren munduko ekoizpenaren % 22,3 dagokio; kuota hori askoz txikiagoa da Asiarena baino (% 46,1; Asia munduko ekoizlerik handiena da), baina zertxobait handiagoa Ipar Amerikarena baino (munduko ekoizpen guztiaren % 20,4).

2016ko ekitaldiko datuei berriz erreparatuz gero, CEPIren esparruan, paperaren esportazioek zertxobait behera egin dutela ikusten da (-% 0,3), eta kontsumoak eta, batik bat, inportazioek gora egin dutela (% 0,3 eta % 4,5, hurrenez hurren). Esportazioei dagokionez, 19.138 mila tona esportatu dira: Latinoamerikarako esportazioek behera egin dute (-% 12,6), bai eta, neurri txikiagoan, Europako eta munduko gainerako herrialdeetarakoek ere (-%0,2 eta -%0,1, hurrenez hurren). Ipar Amerikarako esportazioek, berriz, gora egin dute (% 8,8), bai eta, neurri txikiagoan, Asiarako esportazioek ere (% 0,1). Kontsumoari dagokionez, 77.400 mila tonakoa izan da, eta inportazioak, berriz, 5.607 mila tonakoak, eta jatorri guztietatik ekarritakoek gora egin dute; munduko gainerako herrialdeen multzotik eta Latinoamerikatik etorritakoek salbu (-% 8,7 eta -% 4,7, hurrenez hurren).

Horrela, bada, paperaren arloan, CEPI osatzen duten herrialdeetako merkataritza-balantzak saldo positiboa izan du, 13.531 mila tonakoa, -% 2,1 gutxiago aurreko ekitaldian baino (2015ean, 13.827 mila tonako superabita izan zen).

119. taula Paperaren eta kartoiaren produkzioa, herrialdeka

Herrialdea	2015*	(m tona)
		Gutzizkoaren %
Alemania	22.608	5,5
Austria	4.965	1,2
Belgika	2.123	0,5
Bulgaria	257	0,1
Danimarka	64	0,0
Espainia	6.195	1,5
Finlandia	10.319	2,5
Frantzia	7.984	2,0
Grezia	280	0,1
Hungaria	739	0,2
Italia	9.015	2,2
Herbehereak	2.643	0,6
Polonia	4.367	1,1
Portugal	2.228	0,5
Erresuma Batua	3.969	1,0
Txekiar Errepublika	740	0,2
Eslovakia	763	0,2
Suedia	10.163	2,5
Norvegia	981	0,2
Suitza	1.280	0,3
Brasil	10.357	2,5
Kanada	10.321	2,5
Txina	109.193	26,8
Ameriketako Estatu Batuak	72.671	17,8
India	11.236	2,8
Japonia	26.227	6,4
Errusia	8.051	2,0
Munduko guztikoa**	407.991	100,0

(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2015. urterako informazioa baino ez dago.

(**): Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak.

Orearen ekoizpenari dagokionez, CEPIko herrialdeen eremu osoan, 37.232 mila tona ekoitzi dira 2016an, eta urtetik urtera % 2,7ko igoera egon da. Eskualde geografikoaren arabera azterketa eginez gero, informazioa 2015eko ekitaldikoa dela kontuan hartuta, CEPIko kideek munduko ore-ekoizpenaren % 20,3 egiten dute, Ipar Amerikak eta Asiak baino gutxiago (munduko guztizko ekoizpenaren % 36 eta % 22,2, hurrenez hurren).

120. taula Orearen produkzioa, herrialdeen arabera

(m tona)

Herrialdea	2015*	Gutzizkoaren %
Alemania	2.555	1,4
Austria	1.361	0,8
Belgika	492	0,3
Bulgaria	198	0,1
Danimarka	0	0,0
Espainia	1.641	0,9
Finlandia	10.301	5,8
Frantzia	1.606	0,9
Grezia	0	0,0
Hungaria	0	0,0
Italia	386	0,2
Herbehereak	94	0,1
Polonia	1.048	0,6
Portugal	2.565	1,4
Erresuma Batua	205	0,1
Txekiar Errepublika	431	0,2
Eslovakia	635	0,4
Suedia	11.197	6,3
Norvegia	751	0,4
Suitza	133	0,1
Brasil	17.370	9,7
Kanada	16.552	9,3
Txina	9.934	5,6
Ameriketako Estatu Batuak	47.760	26,7
India	1.797	1,0
Japonia	8.679	4,9
Errusia	7.542	4,2
Munduko guztikoa**	178.601	100,0

(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2015. urterako informazioa baino ez dago.

(**): Geuk egina, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetatik abiatuta.

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak.

6.2 SEKTOREA ESPAINIAN

ASPAPEn arabera, 2016an, 6.218,6 mila tona paper eta kartoi ekoitzi dira Estatuan, eta urtetik urterako % 0,4ko hazkunde txikia izan da, CEPIko herrialdeen eremuko emaitzen parean, nolabait, ez baitute igoerarik izatea lortu.

Halaber, paperaren inportazioek (3.256 mila tona), esportazioek (2.830,1 mila tona) eta ageriko kontsumoak (6.644,5 mila tona) gora egin dute (% 1,5, % 1,2 eta % 0,6, hurrenez hurren). Gauzak horrela, Espainiako paperaren sektorearen merkataritza-balantzaren saldo negatiboa handitu egin da, eta -425,9 mila tonara iritsi da (2015ean, -412,1 mila tonakoa izan zen).

121. taula Paperaren eta kartoiaren produkzioa eta kontsumoa. Espainiako guztizkoa


Urtea	Produkzioa	Inportazioa	Esportazioa	Ageriko kontsumoa
2007	6.713,3	3.763,3	2.769,6	7.707,1
2008	6.414,3	3.815,9	2.964,6	7.265,6
2009	5.679,2	3.323,2	2.809,8	6.192,4
2010	6.193,4	3.316,9	3.062,4	6.447,9
2011	6.202,6	3.180,4	2.955,3	6.427,7
2012	6.176,7	2.938,2	2.957,0	6.157,9
2013	6.181,5	2.950,8	3.047,4	6.084,9
2014	6.035,7	3.136,7	2.915,1	6.257,4
2015	6.195,2	3.208,3	2.796,2	6.607,3
2016	6.218,6	3.256,0	2.830,1	6.644,5

(m Tm)

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

18. grafikoa Paperaren sektoreko aldagai nagusien bilakaera Espainian

(Indizea: 1985=100)



Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

2016an ere, aurreko ekitaldietan bezala, EB da Estatuaren merkataritza-bazkide nagusia, eremu horrekin egiten baitira inportazioen % 88,2 eta esportazioen % 61,2. Zehazki, Frantziari eta Finlandiari egiten zaizkio kanpo-erosketen % 18 eta % 17,5, hurrenez hurren, eta Portugalera eta Frantziara egiten dira kanporako salmenten % 20,7 eta % 18,8, hurrenez hurren.

Paper-motei dagokienez, beste paper batzuen zein beste ontzi eta enbalaje batzuen ekoizpenak gora egin dute aurreko ekitaldiaren aldean (% 11,6 eta % 5,7, hurrenez hurren), eta kartoi iztukatuarenak, paper higieniko eta sanitarioenak, prentsarako eta

inprimaketarako paperarenak, eta uhin-kartoiarenak, berriz, behera egin dute (-% 2,8, -% 2,4, -% 0,7 eta -% 0,6, hurrenez hurren).

122. taula Produksioa eta kontsumoa, paper-motaren arabera

(m Tm)

Mota	Produksioa		Inportazioa		Esportazioa		Ageriko kontsumoa	
	2016	% Δ 16/15	2016	% Δ 16/15	2016	% Δ 16/15	2016	% Δ 16/15
Prentsa eta inpresioa eta idazketa	1.377,1	-0,7	1.219,7	-4,8	1.215,3	2,2	1.831,5	-6,6
Higienikoak eta sanitarioak	723,3	-2,4	153,5	13,6	168,8	-10,9	708,1	3,1
Uhin-kartoirako	2.879,7	-0,6	958,0	-0,4	874,0	-0,9	2.963,8	-0,5
– Uhinetarako	1.333,5	7,2	344,7	4,1	358,5	4,7	1.319,7	7,1
– Test Liner eta Kraft Liner	1.121,3	-8,2	585,3	-0,3	445,5	-5,4	1.261,2	-5,7
– Bikoak eta larruak	424,9	-1,6	28,0	-36,1	70,0	2,2	382,9	-6,0
Kartoi iztukatua	266,8	-2,8	526,2	4,5	130,5	-0,9	662,5	2,5
Beste ontzi eta enbalaje batzuk	493,3	5,7	296,6	9,4	343,6	7,8	446,3	6,5
Beste paper batzuk	478,3	11,6	102,0	84,0	97,9	14,1	482,4	21,1
Papera eta kartoia, guztira	6.218,6	0,4	3.256,0	1,5	2.830,1	1,2	6.644,5	0,6

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Paper-orearen azpisektorea aztertuz gero, 2016an ekoizpena % 2,2 handitu dela ikusten da (1.676,5 mila tonara iritsi da). Esportazioek (928,5 mila tona) eta inportazioek (1.165,8 mila tona) ere gora egin dute (% 9,2ko eta % 0,6ko gorakada, hurrenez hurren). Ageriko kontsumoak (1.913,8 mila tona), berriz, behera egin du (-% 1,8).

Dinamika hori dela eta, 2016an, Estatuko paper-orearen merkataritza-balantzaren saldo defizitarioa geldotu egin da, -237,3 mila tonara jaitsi baita (2015ean ere saldo negatiboa izan zen, -308,4 mila tonakoa), estaldura-tasa % 79,6 izanik (aurreko ekitaldian, % 73,4).

Ore-motari dagokionez, ore mekaniko eta kimikoa da nagusi ekoizpenean (guztizkoaren % 98,6), bai eta esportazio/inportazioetan eta ageriko kontsumoan ere. Magnitude guztiek gorakada izan dute, ageriko kontsumoak (1.861,5 mila tona) izan ezik, -% 1,5 jaitsi baita. Hain zuzen, ekoizpenak (1.652,9 mila tona) % 2,3ko gorakada izan du; esportazioek (910,9 mila tona), % 9,4koa; eta inportazioek (1.119,5 mila tona), berriz, % 1,2koa.

Berreskuratutako paperari dagokionez, 2016an, haren ageriko kontsumoa 5.195,9 mila tonakoa izan da, urtetik urterako hazkunde txikia izanik (% 0,3).

123. taula Produksioa eta kontsumoa ore-motaren arabera

(m Tm)

Mota	Produksioa		Inportazioa		Esportazioa		Ageriko kontsumoa	
	2016	% Δ 16/15	2016	% Δ 16/15	2016	% Δ 16/15	2016	% Δ 16/15
Ore mekanikoa eta kimikoa	1.652,9	2,3	1.119,5	1,2	910,9	9,4	1.861,5	-1,5
Erdikimikoa eta beste batzuk	23,6	-4,8	46,4	-12,2	17,6	2,1	52,4	-13,3
Ore birjinak, guztira	1.676,5	2,2	1.165,8	0,6	928,5	9,2	1.913,8	-1,8
Paper zaharra (ageriko bilketa)	4.710,3	3,1	1.638,3	0,7	1.152,8	13,7	5.195,9	0,3

Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Txosten honen aurreko edizioetan egindako lanarekin bat, jarraian, berreskuratutako paperaren erabilera aztertuko da, adierazle hauek kontuan hartuta: ageriko bilketaren tasa (hau da, paper zaharraren ekoizpena / paperaren eta kartoiaren kontsumoa), 2016an, % 70,9 izan zen, eta 2015ean, berriz, % 69,1koa; erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa / paperaren eta kartoiaren ekoizpena), % 83,6koa izan zen 2015ean eta 2016an; eta birziklatze-tasa (paper zaharraren kontsumoa / paperaren eta kartoiaren kontsumoa), % 78,2koa izan zen 2016an, eta % 78,4koa, berriz, aurreko ekitaldian.

Estatuko datuak CEPIko herrialdeen datuekin alderatuz gero, Espainiako paper-sektoreak ekoizpenaren arloan antzeko portaera izan duela ikusten da (hazkunde txikia, % 0,4koa; CEPIren eremuan, berriz, ez da aldakuntzarik izan); esportazioetan portaera zertxobait hobea izan du (% 1,2ko gorakada Estatuan eta -% 0,3ko beherakada CEPIren eremuan), eta inportazioetan, berriz, hazkunde txikiagoa izan da (Estatuan % 1,5 eta CEPIren eremuan % 4,5).

6.3 SEKTOREA NAFARROAN

Nafarroako paper-sektorean, Estatuan ez bezala, paperaren eta kartoiaren fabrikazioak behera egin du (-% 1,4), eta 492 mila tona ekoitzi dira. Horrela, Estatuan, oro har, hazkunde txikia baina hazkundera izan denez, Nafarroako paper-sektoreak kuota txikiagoa eskuratu du Espainiako ekoizpen osoan (guztizkoaren % 7,9koa izan da 2016an; 2015ean, berriz, % 8,1koa izan zen).

124. taula Paperaren eta orearen produkzioa Nafarroan

Kontzeptua	2014	2015	2016	% Δ 16/15
Papera eta kartoia, guztira	494,3	499,2	492,0	-1,4
Orea, guztira	84,0	--*	--*	--

(m Tm)
(): Informazioa ez dago eskuragarri, datuak isilpekoak direlako.*
Iturria: Paper-ore, Paper eta Kartoiaaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte.

Kanpo-merkatariari dagokionez, eta kasu zehatz honetan analisirako diru-kopuruak erabiltzen direla kontuan hartuta, 2016an, Nafarroako paperaren eta orearen esportazioek eta inportazioek behera egin dute (-% 6,6 eta -% 12,3, hurrenez hurren). Alde horretatik, sektorearen kanpo-salmentak 232.980 mila eurokoak izan dira, eta atzeritik erositakoak, berriz, 115.110 mila eurokoak. Hori dela eta, merkataritza-superabita 117.870 mila eurora jaitsi da (2015ean, 118.220 mila eurokoa zen).

125. taula Paperaren eta orearen kanpo-merkatariaren bilakaera Nafarroan

Urtea	Esportazioak	% Δ	Inportazioak	% Δ	Merkataritza-balantza	% Δ	Estaldura-tasa
2012	256.760	12,6	127.530	-10,7	129.230	51,6	201,3
2013	236.450	-7,9	132.220	3,7	104.230	-19,3	178,8
2014	238.700	1,0	82.600	-37,5	156.100	49,8	289,0
2015	249.400	4,5	131.180	58,8	118.220	-24,3	190,1
2016*	232.980	-6,6	115.110	-12,3	117.870	-0,3	202,4

(m euro)
(): Behin-behineko datuak*
Iturria: Nafarroako Estadistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuak oinarri hartuta.

Sektoreko magnitude nagusiak aztertu ondoren, jarraian, sektoreak Nafarroan bizi duen enpresa-panoramaren bilakaerari buruzko ohar laburra egingo da, txosten hau egitean eskuragarri izan den informazioa kontuan hartuta.

Alde horretatik, gogorarazi behar da, lehenengo eta behin, Foru Erkidegoan hiru paper-enpresa handi daudela: Sarriopapel y Celulosa S.A., Smurfit Kappa Navarra, S.A, eta Sca Hygiene Spain. Enpresa handi horiez gain, badaude beste enpresa txikiago batzuk ere, hala nola Papelera del Ebro, Newark San Andrés, Bertako, Papertech, Papeles el Carmen, Ibertissue eta Videcart.

126. taula Paperaren sektoreko enpresa nagusiak Nafarroan

Enpresak	Kokapena	Jarduera
Sarriopapel y Celulosa, S.A.	Leitza, Zornotza, Uranga	Inpresiorako eta idazketarako papera eta ore
Smurfit Kappa Navarra	Zangoza, Cordovilla	Orea, Kraft papera, uhin-kartoiak eta zakuak
Sca Hygiene Spain	Allo	Tisu papera
Papelera del Ebro	Viana	Paperaren fabrikazioa eta enbalajeak
Newark San Andrés	Atarrabia	Paperaren eta kartoiaren fabrikazioa
Bertako, S.L.	Uharte	Paperaren eta uhin-kartoiaren fabrikazioa
Papertech, S.L.	Tutera	Orearen, paperaren eta kartoiaren fabrikazioa
Papeles el Carmen, S.A.	Altzuza	Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa
Ibertissue, S.L.	Buñuel	Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa
Videcart, S.A.	Ibiriku	Paperaren eta kartoiaren fabrikazioa

Iturria: Memoriak eta Nafarroako Ganbera.

Sarriopapel y Celulosa, S.A. enpresari dagokionez, Lecta taldekoa da, eta zehazki, Torraspapel, S.A. enpresakoa. Enpresa horrek 766 milioi euroko salmentak izan ditu 2016an, aurreko ekitaldian baino -% 2,5 gutxiago. Hori horrela, Torraspapel, S.A. enpresak, bere galerak, -4,8 milioira arte jaistea lortu du, 2015ean -11,3 milioi euroko galerak izan eta gero.

Smurfit Kappa Navarrari dagokionez, honako hauek fabrikatzen ditu: ore, paper bihurtzeko Kraft Liner, Test Liner, zakuarako Kraft eta enbalajerako Kraft, eta uhin-kartoiak, enbalajeetarako kutxak egiteko. Geroagoko informaziorik lortu ez denez, 2015ean Cordovillako fabrikak 35 milioi euro inguruko fakturazioa izan zuela gogoratuko da; hau da, aurreko ekitaldian baino % 7 gehiago.

Azkenik, etxeko paperen eta paper higienikoen azpisektoreari dagokionez, Suediako SCA multinazionalak Allon (Nafarroa) duen lantegiak lanbide-heziketa dualeko programa bat martxan jarri duela 2016an azpimarratu behar da, Lizarrako politeknikoarekin batera, espezializaziora bideratua, talentu gazteak erakarri eta trebatzeko. Hala, *Young Talent* programaren bidez, proiektuak Lanbide Heziketako zein unibertsitate-graduetako ikasleak espezializatzeko helburua du, enpresaren benetako premien arabera.

7. ERAIKUNTZA

Nafarroako eraikuntzaren sektoreak, krisiaren gorabeherak zenbait urtez pairatu ondoren, susperraldiaren bila jarraitzen du, baina oraindik ez du egonkortasun-sintoma argirik erakusten. Bizitegi-merkatuan, 2013ko ekitalditik "bizirik atera" ostean –hasitako etxebizitzetako buruzko adierazleek inoizko emaitza minimoak izan zituzten (619 etxebizitza)–, igoerak izan dira urtetik urtera, baina txikiak. Beraz, geldo bada ere, badirudi Nafarroan etxebizitza-sustapena argi eta garbi aurrera egiten ari dela, baina 3.000 etxebizitza inguru hasi beharko lirateke urtean, eta 2016an, 1.878 hasi dira. Horrez gain, obra zibila ere krisi-egoeran dago: inbertsio publikoa urria da eta arlo horretako zifrak behera egiten ari dira behin eta berriz. Hori horrela, Foru Erkidegoan, sektorea urrun dago dagokion hazkunde-erritmoa lortzetik, nahiz eta Nafarroako ekonomiarako sektore estrategikoa den. 2016an, eraikuntza Nafarroako BPG-aren % 6 inguru izan da, krisiaren aurreko urteetan % 10etik gorakoa izanik.

127. taula Eraikuntza-sektorearen adierazle batzuen bilakaera

(% Δ)

Kontzeptua	Nafarroa		Espainia	
	2015	2016	2015	2016
Enplegua	20,7	-27,2	8,1	0,01
Zementuaren barne-salmentak (*)	-4,9	3,4	5,5	-2,9
Amaitutako etxebizitzak	-43,9	-7,6	-4,9	-13,3
Hasitako etxebizitzak	34,1	34,4	33,0	28,1
Lizitazio ofiziala	98,2	-62,4	-28,2	-0,7

(*): Oficemen elkarteko kide diren Ipar Eremuko (Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) enpresek egindako zementu grisaren barne-salmentak dira.

Iturria: EIN, Seopan eta Oficemen.

Eraikuntzako sektorearen magnitude nagusiak aztertuta, 2016an beheranzko mugimenduak nagusi direla ikusten da, bai Nafarroako Foru Erkidegoan, bai Espainian; beraz, oraindik goiz da sektorea suspertu dela esan ahal izateko. Hasitako etxebizitzetako buruzko adierazleak oso portaera ona badu ere (% 34,4ko urtetik urterako aldakuntza positiboa Nafarroan, eta % 28,1ekoa Espainian), adierazle guztiek ez dute dinamismo hori bera. Esaterako, barrualdeko zementu-salmentei dagokienez, Ipar Eremuan (Aragoi, Errioxa, EAE eta Nafarroa) % 3,4ko gorakada izan dute, eta Espainian, berriz, % 2,9ko beherakada izan da. Enpleguan, alderantzizko portaera izan da; sektoreko enplegu-tasak beherakada handia izan du Nafarroan (-% 27,2), eta hazkunde txikia izan du Estatuan (% 0,01). Amaitutako etxebizitzetako kasuan, Nafarroan, badirudi adierazle horren beherakada geldotzen ari dela (-% 7,6koa 2016an, eta -% 43,9koa, berriz, 2015ean), baina ekitaldiko emaitza negatiboa da oraindik. Estatuan, adierazle horren egoera are

txarragoa da, eta urtetik urterako aldakuntza negatiboa izan da (-% 13,3; aurreko urtean -% 4,9koa izan zen) eta bizitegi-merkatua oraindik egoera ahulean dagoela adierazten du. Azkenik, lizitazio ofizialek behea jo dute Nafarroan eta % 62,4ko uzkurdua izan dute. Portaera hori 2015ekoaren guztiz kontrakoa da (% 98,2ko hazkunde esponentziala izan zen), eta Estatuan, ekitaldi honetan, aurrekoaren ia balio berdinak izan dira (-% 0,7), 2015ean izandako beherakadatik urrun (-% 28,2).

128. taula Lizitazio ofizialaren banaketa administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren artean

(M eurotan)

Eremua	2015				2016			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Nafarroa	58,7	118,9	23,2	200,8	3,0	39,1	33,5	75,5
Espainia	4.296,1	2.539,6	2.559,4	9.395,1	3.147,4	2.882,3	3.303,3	9.333,1

Iturria: Seopan.

Nafarroako lizitazio ofizialari dagokionez, hiru administrazio publikoen jarduna kontuan hartuta, hiruetatik bik beherakada handiak izan dituzte aurreko ekitaldiko zifren aldean, eta batek soilik du emaitza positiboa. 2016an, Nafarroan, Administrazio Zentralaren lizitazioen balioa 3 milioi eurokoa baino ez da izan; hau da, 55 milioi euro gutxiago aurreko ekitaldian baino. Administrazio Autonomikoak egindako lizitazioen balioa 39,1 milioi eurokoa izan da, eta Estatuako administrazioaren joera berdina izan du, % 67,1eko beherakada izan baitu 2015eko zenbatekoaren aldean. Beraz, testuinguru horretan, gorakada izan duen lizitazio-organo bakarra Tokiko Administrazioa izan da: 33,5 milioi euro lizitatuta, % 44,1eko gorakada izan du. Hori guztia dela eta, Foru Erkidegoko lizitazioaren banaketa asko aldatu da, eta ekitaldi honetan, Administrazio Autonomikoaren eta Tokiko Administrazioaren ehunekoak antzekoak dira (% 51,8 eta % 44,3, hurrenez hurren), eta Administrazio Zentralarena, berriz, oso txikia (% 3,9).

Estatuan, 9.333,1 milioi euro inbertitu dira 2016ko ekitaldian, eta Administrazio Autonomikoaren eta Tokiko Administrazioaren zuzkidura ekonomikoek gora egin dute, eta Administrazio Zentralarenak, berriz, behera. Administrazio Zentralaren lizitazio-bolumena 3.147,4 milioi eurokoa izan da, eta beherakada handia izan da aurreko ekitaldiko balioen aldean (-% 26,7). Testuinguru horretan, Administrazio Autonomikoak % 13,5eko gorakada izan du (2.882,3 milioi euroko lizitazio-bolumena), eta Tokiko Administrazioak, berriz, % 29,1ekoa (3.303,3 milioi euroko lizitazio-bolumena). Hori dela eta, gorabehera horiek eragina izan dute lizitazio-banaketaren osieran, eta administrazio bakoitzaren pisu espezifikoak orekatu egin da, bakoitzari lizitazio-bolumen osoaren herena edo baitagokio.

129. taula Lizitazio ofiziala, obra-moten arabera (2016)

Obra-mota	Nafarroa			Espainia		
	M euro	Δ % 16/15	%	M euro	Δ % 16/15	%
Etxebizitzak	0,1	-99,5	0,1	224,1	5,9	2,4
Gizarte-ekipamendua	24,4	118,7	32,3	1.625,9	21,3	17,4
Gainerako eraikgingintza	9,1	75,9	12,1	1.417,5	-0,8	15,2
Eraikgingintza guztira	33,6	15,5	44,4	3.267,5	9,6	35,0
Garraioak	9,1	-89,2	12,1	3.755,7	-2,6	40,2
Urbanizazioak	16,0	-9,1	21,1	1.151,1	5,0	12,3
Hidraulikoak	11,9	-81,7	15,7	957,4	-21,7	10,3
Ingurumena	5,0	12,1	6,6	201,3	-16,2	2,2
Obra zibila guztira	42,0	-75,5	55,6	6.065,5	-5,4	65,0
GUZTIRA	75,5	-62,4	100,0	9.333,1	-0,7	100,0

Iturria: Seopan.

Inbertsioaren erabilerari dagokionez, portaera ez oso homogeneoak hautematen dira azpisektoreen araberrako jardunean. Eraikgingintzan gorakadak daude bi lurralde-eremuetan; obra zibilean, berriz, Espainiako balioek beherakada txikia izan dute, baina Nafarroakoek, berriz, beherakada handia izan dute. Are zehatzago, Seopanek⁽¹⁾ emandako azken datuen arabera, Nafarroan, eraikgingintzaren azpisektorerako lizitazio-bolumena 33,6 milioi eurokoa izan da (aurreko ekitaldian baino % 15,5 gehiago), eta Espainian, berriz, 3.267,5 milioi eurokoa (% 9,6ko gorakada). Obra zibilari dagokionez, Nafarroan, 42 milioi euro inbertitu dira atal horretan (2015ean baino % 75,5 gutxiago; urte horretan, 171,7 milioi inbertitu ziren). Estatuan, 6.065,5 milioi euro inbertitu dira (2015ean baino % 5,4 gutxiago). Hori horrela, Foru Erkidegoan, segmentuen araberrako banaketa nahiko orekatua da: eraikgingintzak inbertsioaren % 44,4 eskuratu du, eta obra zibilak, berriz, % 55,6. Estatuako bolumen osoa aztertuz gero, oreka hori apurtzen da, han obra zibilak eskuratu baitu, nabarmen, lizitazio-bolumen gehiena (% 65,5).

Analisia obra-motaren arabera eginez gero eta Nafarroa aintzat hartuta, eraikgingintzan izandako gorakada gizarte-ekipamenduen eta gainerako eraikgingintzaren multzoei esker izan da (% 118,7ko eta % 75,9ko gorakada, hurrenez hurren), haien lizitazio-bolumenak 24,4 eta 9,1 milioi eurokoak izan baitira, hurrenez hurren. Etxebizitzek izan dituzte emaitzarik okerrenak 2016an, haien bolumenak % 99,5eko beherakada izan baitu, 2015ean 13 milioi euro inguruko aurrekontua izatetik, 2016an 100.000 euro soilik izatera pasa ziren. Obra zibilean, etxebizitzaren antzeko uzkurdua izan dute garraioen eta obra hidraulikoen atalek (-% 89,2ko eta -% 81,7ko beherakada, hurrenez hurren). Urbanizazioen atalean ere, aldakuntza negatiboa izan da, baina txikiagoa (-% 9,1). Ingurumena da 2015ean baino zuzkidura ekonomiko handiagoa lortu duen atal bakarra (% 12,1 gehiago). Gorabehera horiek guztiek eragin nabarmena izan dute lizitazioen

¹ Asociación de Empresas Constructoras y Concesionarias de infraestructuras elkartea.

banaketan, eta 2016an, gizarte-ekipamenduak eta urbanizazioak izan dira Nafarroan lizitazio-bolumen handienak eskuratu dituzten obra-motak (% 32,3 eta % 21,1, hurrenez hurren).

Estatuan, azpisektoreen arabera bilakaera Nafarroako bilakaeraren antzekoa da, baina balio txikiagoak izanda, eta ñabardura batzuekin, atalez atal aztertuz gero. Eraikingintzaren azpisektoreari dagokionez, gorakadak izan dituzte gizarte-ekipamenduek (% 21,3; lizitazio-bolumena 1.625,9 milioi eurokoa izan da) eta etxebizitzek (% 5,9; lizitazio-bolumena 224,1 milioi eurokoa izan da). Gainerako eraikingintzako atalean, berriz, beherakada txikia izan da (-% 0,8koa; 1.417,5 milioi euroko lizitazio-bolumena). Dena dela, ekitaldia positiboa izan da, % 9,6ko gorakada izan baita eraikingintzarako inbertsioan. Obra zibilari dagokionez, arlo horretan beherakadak dira nagusi, eta gorakada bakarra urbanizazioen atalean izan da: lizitazio-bolumena 1.151,1 milioi eurokoa izan da (aurreko urtean baino 55 milioi gehiago) eta % 5eko gorakada. Aldiz, obra hidraulikoen, ingurumenaren eta garraioen atalen presentziak behera egin du lizitazio-bolumenaren banaketan (-% 21,7ko, -% 16,2ko eta -% 2,6ko beherakadak, hurrenez hurren), eta garraioen atala da pisu erlatibo handiena duen obra-mota (% 40,2). Hori horrela, obra zibilaren segmentuan, lizitazio-jardueraren beherakada egon da (% 5,4koa; segmentu horrek lizitazio ofizialaren zatirik handiena hartzen du, % 65, hain zuzen ere), baina Nafarroakoa baino askoz txikiagoa (-% 75,5).

130. taula Hasitako eta amaitutako etxebizitzak^(*)

(etxebizitzaren kopurua)

Eremua	Kontzeptua	Hasitako etxebizitzak				Amaitutako etxebizitzak			
		2013	2014	2015	2016	2013	2014	2015	2016
Nafarroa	Babestuak	141	406	329	214	1.446	1.165	425	348
	Libreak	478	636	1.068	1.664	878	591	560	562
Espainia	Babestuak	6.489	5.898	5.306	6.787	17.059	15.046	7.931	7.118
	Libreak	29.232	32.120	45.259	57.979	43.230	35.226	39.891	34.351

(*): Behin-behineko datuak

Iturria: Nafarroako Gobernuaren Sustapen Saila eta EIN.

Hasitako eta amaitutako etxebizitzaren kopuruak aztertuko dira jarraian. Hasitako etxebizitzari dagokionez, 2016an, aztertutako bi lurralde-eremuetan hazkundera dago, 1.878 etxebizitza hasi ziren Nafarroan (2015ean baino % 34,4 gehiago), eta 64.766 etxebizitza, berriz, Espainiako estatuan (% 28,1 gehiago). Zifrak sakonago aztertuz gero, Nafarroan jarduera etxebizitza libreak soilik bultzatu dutela ikusten da, % 55,8ko gorakada izan dutelako; izan ere, etxebizitza babestuek % 35eko beherakada izan dute 2015eko balioen aldean. Espainian, berriz, bilakaera positiboa izan da bi kasuetan, bi etxebizitza-motek % 28 inguruko gorakada izan baitute. Hori bai, mota bakoitzari

dagokion kopuruan alde handia dago, urtean 6.787 etxebizitza babestu hasi baitziren, eta 57.979 etxebizitza libre.

Amaitutako etxebizitzetarako buruzko adierazleek oso egoera desberdina erakusten dute, zifren beherakada baita joera nagusia. Nafarroako Foru Erkidegoan, 910 etxebizitza amaitu dira (2015ean baino % 7,6 gutxiago). Atal horretan, etxebizitza babestuek behera egin dute (-% 18,1), eta etxebizitza libreen arloan, berriz, ez da ia aldaketarik egon (% 0,4ko gorakada; etxebizitza libreak guztizkoaren % 61,8 izanik). Estatu osoan, 41.469 etxebizitza amaitu dira (-% 13,3), eta babestuek zein libreak uzteko izan dute (-% 10,3 eta -% 13,9, hurrenez hurren), eta jardueraren proportziorik handiena (% 82,8) etxebizitza libreei dagokie, beste behin.

131. taula Eraikuntzako langileak

Eremua	<i>(m pertsonak)</i>			
	2014	2015	2016	% Δ 16/15
Nafarroa	14,0	16,9	12,3	-27,2
Espainia	993,5	1.073,7	1.073,9	0,01

Iturria: EIN. Biztanleria aktiboaren inkesta (2005eko oinarria).

EINen biztanleria aktiboari buruzko inkestako datuen arabera, Nafarroako enpleguaren egoeran, beherakada handia izan da landunen kopuruan, eta aurreko urteetan izandako joera positiboa apurtu egin da. Zehazki, 2016an, Foru Erkidegoan, 12,3 mila pertsona ari ziren eraikuntzaren sektorean, eta % 27,2ko uzteko egon da. Espainian, egonkortasun handiagoko testuinguruan, landunen kopurua ez da apenas aldatu, baina bilakaerak dinamismo txikiagoa izan du aurreko ekitaldietan baino.

Hori horrela, Nafarroan, zifra batzuek susperraldiaren seinaleak erakutsi arren, sektorean lanpostuak galtzeak errealitatea ez dela oso baikorra adierazten du. Sektorearen egoera ahul horren arrazoietakoa bat obra publikorako dagoen inbertsioa urria da. Nafarroako Gobernuak emandako informazioaren arabera, badirudi inbertsio hori indartu egingo dela 2018an, eta hori lagungarria izango litzateke susperraldia guztiz lortzen ez duen sektorerako.

8. NAFARROAKO ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA

8.1 SARRERA

Aurreko edizioetan egindako lanari jarraipena emateko, kapitulu honen helburua denbora-ikuspegi zabal batetik (2010-2016 aldia) Nafarroako eta Estatu osoko enpresa-sarearen bilakaeraren eta egituraren azterketa bat egitea da, ekonomia-sektoreak eta soldatako-kopuruak kontuan hartuta. Horren harira, informazio-iturri bakartzat EINEko Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) hartu dela gogoan izan behar da, azterketaren homogeneotasuna handiagoa izateko.


8.2 BILAKAERA OROKORRA

Krisi ekonomikoaren eraginaren ondorioz, azken urteetan, enpresa aktiboen kopurua behera egiten ari zen aztertutako bi geografia-eremuetan (Nafarroa eta Estatu osoa), baina gora egiten hasi zen 2014an Nafarroan eta 2015ean Estatuan, ekonomiaren susperraldiaren ondorioz.

Hori dela eta, Nafarroan 42.347 enpresa aktibo zeuden 2010ean, eta 43.907 daude, berriz, 2016an. Dinamika horrek % 3,7ko hazkunde metatua adierazten du. Estatuan, aldiz, enpresa-kopuruak behera egin du, 3.291.263tik (2010) 3.236.582ra (2016); hau da, % 1,7ko beherakada metatua egon da.

Nolanahi ere, aztertutako aldiaren zehar bi eremu geografiko horietan, urtetik urterako aldakuntzen magnitudea desberdina izan dela komeni da kontuan izatea, eta, era berean, aldeak izan direla eremu bakoitzari dagozkion urtetik urterako aldakuntzen artean.


19. grafikoa Enpresa-kopuruaren bilakaera



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Nafarroan, urtetik urterako jaitsiera handiena 2011n izan zen (% 1,9), eta dinamismorik handiena, berriz, 2015ean (% 3,7ko igoera). Estatuan, jaitsiera handiena 2013an izan zen (% 1,7), eta igoera handiena, berriz, 2015ean (% 2,2ko hazkundera).


20. grafikoa Enpresa-kopuruaren urtetik urterako aldakuntza



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Hori dela eta, Nafarroako enpresa-kopuruaren ehunekoak gora egin du Estatuko enpresa guztien multzoan (2016an % 1,36, eta 2010ean % 1,29).

21. grafikoa Nafarroako enpresen ehunekoaren bilakaera Estatuko enpresa guztien multzoan (Estatua=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

8.3 SEKTORE EKONOMIKOAK


Sektore ekonomikoei erreparatuz gero, lehenik eta behin industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak kontuan hartuta, 2010-2016 aldian orokorrean beherakada izan dela ikusten da, salbu eta gainerako zerbitzuetan (Nafarroan zein Estatuan) eta merkataritzan (Nafarroan soilik).

Enpresa-kopuruari dagokionez, 2010eko datuen aldean, eraikuntzak izan du beherakada metatu erlatiborik handiena, bai Nafarroan (% 9,7), bai Estatu osoan (% 20,3). Aldiz,

Nafarroako gainerako zerbitzuen sektoreak dinamismorik handiena izan du: % 10eko igoera metatua izan du 2010-2016 aldian.

Nafarroan, hain zuen, industrian eta eraikuntzan, enpresa-kopuruak behera egin du 2010-2016 aldian (% 4,3 eta % 9,7, hurrenez hurren), eta gainerako zerbitzuen eta merkataritzaren sektoreetan, berriz, igoera egon da (% 10 eta % 2,4, hurrenez hurren).

22. grafikoa Enpresa-kopuruaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera (zenbaki indizeak 2010=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

2010. eta 2016. urteak soilik aztertuz gero, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionaleko (ESJN-2009) banaketa kontuan hartuta, handizkako eta txikizkako merkataritzan zein ibilgailu motordunen eta motoen konponketan jarduten duten enpresek, aztertutako bi geografia-eremuetako enpresa guztien multzoan, ehuneko handiena dutela ikusten da. Hain zuzen ere, 2016an, 9.869 enpresa ari dira jarduera horietan Nafarroan, eta hori autonomia-erkidegoko enpresen % 22,5 zen (2010ean, % 22,8). Ehuneko hori zertxobait txikiagoa da Estatu osokoa baino (2016an, % 23,4, eta 2010ean, berriz, % 24,2).

132. taula Enpresak ekonomia-sektorearen arabera. 2010-2016 aldiko konparazioa

	Nafarroa		Estatua	
	2010	2016	2010	2016
Guztira	42.347	43.907	3.291.263	3.236.582
Erauzketa-industriak	34	36	2.827	2.304
Manufaktura-industria	3.449	3.083	206.474	172.130
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornikuntza	468	651	14.361	14.475
Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	141	144	6.639	6.710
Eraikuntza	6.887	6.219	510.243	406.682
Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motoen konponketa	9.641	9.869	796.815	757.537
Garraioa eta biltegiatzea	3.679	3.268	223.827	193.357
Ostalaritza	3.352	3.565	289.614	276.093
Informazioa eta komunikazioak	463	629	53.155	61.212
Finantza- eta aseguru-jarduerak	769	827	68.542	75.487
Higiezin alorreko jarduerak	1.104	1.356	120.855	159.212
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	5.162	5.325	407.495	390.909
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	2.022	2.408	152.767	192.299
Hezkuntza	876	1.200	74.922	98.771
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak	1.138	1.623	128.371	153.591
Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	899	1.129	72.677	88.215
Beste zerbitzu batzuk	2.263	2.575	161.679	187.598

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketaren atzetik, Nafarroan eta Estatu osoan, jarduera hauek daude (adierazitako ordenan): eraikuntza eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak. Hain zuzen ere, 2016an, Nafarroan, 6.219 enpresak jarduten dute eraikuntzan (autonomia-erkidegoko enpresen % 14,2; 2010ean, % 16,3), eta Estatuan, berriz, eraikuntzako 406.682 enpresa daude (herrialdeko enpresen % 12,6; 2010ean, % 15,5).

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoei dagokienez, 2016an, sektore horretako 5.325 enpresa daude Nafarroan (autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 12,1; 2010ean, % 12,2), eta 390.909 enpresa Estatuan, proportzioa Nafarroako ehunekoaren berdina izanik (herrialdeko enpresa guztien % 12,1; 2010ean, % 12,4).

8.4 SOLDATAKO-KOPURUAK


Soldatako-kopuruak aztertzeko, 2010-2016 aldiari helduko zaio lehenbizi, aurreko epigrafean egindako moduan, eta soldatako-kopuruaren agregazio-maila handiagoa hartuta, eta gero, bi ekitaldi horiek soilik aztertuko dira, enpleguaren desagregazio-maila handiagoa hartuta.

2010-2016 aldian, oro har, enpresa-kopuruak behera egin du soldatako-kopuruaren arabera maila guztietan, bai Nafarroan, bai Estatu osoan, salbu eta soldatakorik gabeko enpresen eta 1-2 soldatako dituzten enpresen multzoan.

6-9 soldatako dituzten enpresek izan dute beherakada handiena 2010. urteko datuen aldean, bi eremu geografikoetan. Alde horretatik, enpresa horiek % 19,5eko jaitsiera izan dute Nafarroan (1.632 daude 2016an, eta 2.027 zeuden, berriz, 2010ean), eta % 18koa, berriz, Estatu osoan (2016an, 117.293 daude, eta 2010ean, 143.016 zeuden).

Multzo horren atzetik, hogei soldatako edo gehiago dituzten enpresek izan dute beherakada handiena Nafarroan, eta 10-19 soldatako dituzten enpresek, berriz, Estatu osoan.

23. grafikoa Enpresen bilakaera, soldatako-kopuruaren arabera (zenbaki indizeak 2010=100)



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

2010. eta 2016. urteak soilik aztertuta, soldatako langile-bitartean desagregazio-maila handiago baten arabera, soldatakorik ez duten enpresak bi ekitaldian eta bi eremu geografikoetan nagusi direla ikusten da. Hain zuzen ere, 2016an, mota horretako 24.656 enpresa daude Nafarroan (autonomia-erkidegoko enpresen % 56,2; 2010ean, % 53,8 ziren). Ehuneko hori Estatu osokoa baino zertxobait handiagoa da (2016an, herrialdeko enpresa guztien % 55,4 ziren mota horretakoak, eta 2010ean, berriz, % 53,9).

133. taula Enpresak soldatako-kopuruen arabera. 2010-2016 aldiko konparazioa

	Nafarroa		Estatua	
	2010	2016	2010	2016
Guztira	42.347	43.907	3.291.263	3.236.582
Soldatakorik gabe	22.770	24.656	1.774.005	1.791.909
1-2 soldatako	10.658	11.428	893.005	895.574
3-5 soldatako	4.143	3.867	318.155	292.403
6-9 soldatako	2.027	1.632	143.016	117.293
10-19 soldatako	1.369	1.158	88.396	75.022
20-49 soldatako	865	709	48.765	40.895
50-99 soldatako	258	210	13.745	12.020
100-199 soldatako	164	146	7.098	6.243
200-499 soldatako	68	73	3.374	3.489
500-999 soldatako	17	17	952	951
1.000-4999 soldatako	7	11	651	674
5.000 soldatako edo gehiago	1	0	101	109

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Soldatakorik gabeko enpresen atzetik, Nafarroan zein Estatu osoan, honako hauek daude, ordena honetan: 1-2 soldatakoak eta 3-5 soldatakoak dituztenak. Hain zuzen ere, Nafarroan, 2016an, 11.428 enpresak 1-2 soldatako dituzte, eta autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 26 dira (2010ean, % 25,2). Ehuneko hori handiagoa da Estatutan (2016an, % 27,7, eta 2010ean, % 27,1). Bestalde, Nafarroan, 2016an, 3-5 soldatako dituzten enpresak autonomia-erkidegoko enpresa guztien % 8,8 dira (2010ean, % 9,8), eta ehuneko hori zertxobait txikiagoa da Estatuko proportzioa baino (% 9; 2010ean, % 9,7).



4. ZERBITZUAK

16

1. IKUSPEGI OROKORRA

Espainiako ekonomiak aurreko ekitaldiko aurrerapen-erritmoari eutsi dion testuinguru batean (% 3,2 bai 2015ean bai 2016an), Nafarroako ekonomiak ere aurreko ekitaldiko aurrerapen-erritmoari eutsi dio (% 2,9 2015ean eta 2016an).

Hirugarren sektoreari dagokionez, oro har, % 3,6 zabaldu da Nafarroan eta % 3,4 Estatuan. Hala, bi kasuetan aurreko ekitaldian lortutako erregistroak hobetu dira (20105ean % 3,2 eta % 2,6, hurrenez hurren).

134. taula Zerbitzuen sektorearen bilakaera

(aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2014		2015		2016	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
Errepide bidezko garraioa (salgaiak)	-14,8	3,0	34,4	8,2	1,9	2,8
Aireko garraioa (salgaiak)	196,4	6,9	-48,2	4,7	-53,3	11,2
Aireko garraioa (bidaiariak)	-12,7	4,6	7,2	6,0	4,9	11,0

Iturria: Geuk egina, hainbat estatistika-iturri oinarri hartuta.

Puntu horretara iritsita, sektorearen heterogeneotasuna dela-eta, sektorearen azterketa agregatua egitea zaila dela adierazi beharra dago; hala ere, enplegua da adierazlerik egonkorrenetako bat. Alde horretatik, 2016ko ekitaldian bai Nafarroan bai Estatuan hirugarren sektorean okupazioak % 2,9 gora egin duela nabarmendu behar da.

2. HEZKUNTZA

2016/2017 ikasturtean, Nafarroako Foru Erkidegoan unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan 108.903 ikasle matrikulatu ziren guztira. Azken ikasturtean % 0,9ko igoera xume bat egon da, eta, beraz, guztira 1.003 ikasle gehiago matrikulatu dira. Bilakaera hori positiboa izateko irakaskuntzako maila guztiek izan dute eragina, Haur Hezkuntzak izan ezik. Oro har, igoera xumeak egon dira, baina jokaera onena Lanbide Heziketako matrikulazioek izan dute; izan ere, 2015/2016 ikasturtearekin alderatuta % 3,4ko igoera izan du. Gainerako igoerak mailan haueetan eman dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (urtetik urterako % 1,7ko igoera), Lehen Hezkuntzan (% 1,1) eta Batxilergoan (eragin gutxiko bilakaera, 4 ikasle gehiago). Haur Hezkuntzan, aurreko ikasturtean bezala, matrikulek behera egin dute; gainera, ikasturte honetan are handiagoa izan da jaitsiera (aurten, 189 ikasle gutxiago, eta aurreko ikasturtean, 6 gutxiago).

Unibertsitatean 14.771 ikasle matrikulatu dira guztira; aurreko ikasturtearekin alderatuta % 1,1eko igoera egon da (161 matrikulazio gehiago). Datu bitxi gisa, Nafarroako goi prestakuntza-eskaintza osatzen duten bi unibertsitateek bilakaera bera izan dute, biak % 1,1 igo baitira. Ikasleen banaketari dagokionez, Nafarroako Unibertsitateak Nafarroako Unibertsitate Publikoak baino ikasle gehiago ditu (% 53,2 eta % 46,8 hurrenez hurren).

2.1 UNIBERTSITATETIK KANPOKO IKASLEEN BILAKAERA

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Haur Hezkuntzako datuak aztertuta, azken ikasturtean ikasle-kopurua % 1 jaitsi dela eta guztira 24.439 ikasle daudela ikus daiteke. Haur Hezkuntzako matrikulen uzkurdurak sare publikoan du jatorria; izan ere, sare pribatuko ikasle-kopurua mantendu egin da. Horren ondorioz, aurreko ikasturteko joerari jarraipena eman zaio.

Haur Hezkuntzan sare publikoko ikasle-kopuruak behera egin duen bitartean (% -1,5), sare pribatuan igoera txiki bat egon da (% 0,7). Hala ere, sare pribatuko igoera hori ez da nahikoa izan ikastetxe publikoko murrizketak orekatzeko eta aurreko ikasturteko emaitzak hobetzeko. Ikasleen banaketari dagokionez, irakaskuntza maila horretan ikastetxe publikoetan matrikulatzen da ikasleen gehiengoa (% 66,2), eta gutxiengoa (% 33,8), sare pribatuan.

Euskalduntzeari dagokionez, orokorrean Nafarroako Foru Erkidegoko euskalduntze maila oso altua ez izan arren, Haur Hezkuntzako ikasgeletan du indar handiena euskarak. X eredu (euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza) erreferentziazko hizkuntza-eredua da. Haur Hezkuntzako ikasleen % 40,3ak eredu hori aukeratzen du; horren ondoren, A eredu (hezkuntza gaztelaniaz, euskara beste irakasgai bat gehiago dela) eta D eredu (hezkuntza euskaraz, gaztelania beste irakasgai bat gehiago dela) daude antzeko barneratze datuekin (% 30,8 eta % 27,5 hurrenez hurren). Datu horietatik urrun B eredu (irakaskuntza elebiduna) dago; ikasleen % 1,4k aukeratzen duena. Hau guztiarekin, Nafarroako Foru Erkidegoko euskalduntze-tasa Haur Hezkuntzan % 28,9koa da.

135. taula Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera.
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.

Kontzeptua	14/15 ikasturtea	15/16 ikasturtea	16/17 ikasturtea	Δ % aurreko ikasturtea
HAUR HEZKUNTZA	24.634	24.628	24.439	-0,8
– Publikoa	16.575	16.424	16.179	-1,5
– Pribatua	8.059	8.204	8.260	0,7
LEHEN HEZKUNTZA	40.468	40.908	41.369	1,1
– Publikoa	25.505	25.827	26.257	1,7
– Pribatua	14.963	15.081	15.112	0,2
DBH	25.536	26.108	26.561	1,7
– Publikoa	15.378	15.663	15.817	1,0
– Pribatua	10.158	10.445	10.744	2,9

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Lehen Hezkuntzako datuak aztertuta, 2016/2017 ikasturtean matrikula-kopuruak gorakada txiki bat (% 1,1) izan duela ikus daiteke; eta aurreko ikasturteko bilakaera bera jarraitu duela. Irakaskuntzako maila horretan, sare publikoak pribatuak baino dinamismo handiagoa du; beraz, ikastetxe publikoen indarra finkatzen du datu horrek. Ikastetxe kontzentratuek ez dute apenas igoerarik izan (% 0,2); eta ikastetxe publikoek, aldiz, hazkunde nabarmenagoa (% 1,7) izan dute. Beraz, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 63,5 sare publikora joaten da, eta gainerako % 36,5a, sare pribatura.

Lehen Hezkuntzako hizkuntza-ereduei dagokionez, X ereduak du barneratze handiena eta Lehen Hezkuntzako ikasleen erdiak baino gehiagok (% 53) aukeratzen du hizkuntza-eredu hori bere ikasketak egiteko. Gainerako ereduak honela banatzen dira: D ereduak indar handiena du (% 26,7); A ereduak gertutik jarraitzen dio (% 19,9); eta B ereduak (% 0,4) ez du apenas ordezkapenik. Gauzak horrela, Lehen Hezkuntzako euskalduntze-maila % 27,1ekoa da, aurreko ikasturtekoaren oso antzekoa.

136. taula Euskalduntze maila. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH.

Kontzeptua	A	B	D	X	Guztira (%)
HAUR HEZKUNTZA					
– 16/17 ikasturtea	30,8	1,4	27,5	40,3	100
LEHEN HEZKUNTZA					
– 16/17 ikasturtea	19,9	0,4	26,7	53,0	100
DBH					
– 16/17 ikasturtea	9,0	0,2	25,3	65,6	100

A: Hezkuntza gaztelaniaz, euskara beste irakasgai bat gehiago izanik.

B: Irakaskuntza elebiduna.

D: Hezkuntza euskaraz, gaztelania beste irakasgai bat gehiago izanik.


X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei dagokienez, azken datuek ikasle-kopuruak gora egin duela adierazten dute. Bi sareek bilakaera positiboa izan dute, eta, beraz, 2016/2017 ikasturtean aurreko ikasturtean baino 453 ikasle gehiago matrikulatu dira, hau da, % 1,7 gehiago. Hala ere, nahiz eta DBHko 10 ikasleetatik 6 sare publikora joan, sare pribatuak bilakaera hobea duela nabarmendu behar da (pribatuak % 2,9 eta publikoak % 1). Hala, bada, sare pribatuko 300 ikasleei esker lortu da bilakaera positiboa izatea; izan ere, sare publikoan 154 ikasle berri soilik gehitu dira. Horren ondorioz, aurreko ikasturtearekin alderatuta sektore publikoko kuotan uzkurdura txiki bat egon da.

Euskalduntze mailari dagokionez, DBHko hizkuntza-mapan argi eta garbi ikusten da X eredu delako nagusi, % 65,6eko barneratzearekin. Gainerako ereduak honela banatzen dira: D eredu (% 25,3); A eredu (% 9); eta B eredu (% 0,2). Beraz, euskalduntze maila DBHn % 25,6koa da.

24. grafikoa Unibertsitatetik kanpoko ikasleen matrikulazioaren bilakaera Nafarroan (*)



(*): Ez dago 2006-2007 ikasturteari buruzko informaziorik.

Iturria: Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Hala eta guztiz ere, eta Haur Hezkuntzako matrikulazioek izandako jaitsiera kontuan hartuta, 2016/2017 ikasturtean ikasle-zentsua igo egin da Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn: Nafarroan, 725 ikasle gehiago daude. Guztira, 92.369 ikasle daude maila horietan.

Erdi-mailako irakaskuntzak

Erdi-mailako irakaskuntzan, lehenik eta behin Lanbide Heziketa (LH) aztertuko da. 2016/2017 ikasturtean matrikulek gora egin dute berriro irakaskuntzako maila horretan, 274 ikasle gehiago matrikulatu baitira, hau da, aurreko ikasturtean baino % 3,6 ikasle gehiago; guztira, 7.962 ikasle daudelarik.

LHko matrikulazioen gorakadan bi sareek eragin dute; hala ere, dinamismo handiagoa izan dute hezkuntza-sistema pribatuko matrikulazioek publikoetakoek baino. Hala eta guztiz ere, sare pribatuko matrikulazioek hazkunde handiagoa izan duten arren (pribatuan % 6,9 eta publikoan % 2,4), Lanbide Heziketako ikasleen % 75 inguru sare publikora joaten da.

Hizkuntza-mapari dagokionez, soilik bi eredu daude eta ez dute indar bera hezkuntzan. A eta B eredurik ez dago; D ereduak indar gutxi du (% 3,2); eta X ereduak ditu ia ikasle guztiak (% 96,8). Beraz, Lanbide Heziketako irakaskuntzako euskalduntze maila Nafarroako Foru Erkidegoan % 3,2koa da, eta orain arte aztertutako irakaskuntza mota guztien artean euskalduntze maila baxuena azaltzen duena da.

137. taula Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera.
Heziketa Zikloak eta LOGSE batxilergoa.

Kontzeptua	14/15 ikasturtea	15/16 ikasturtea	16/17 ikasturtea	Δ % aurreko ikasturtea
HEZIKETA ZIKLOAK	6.954	7.688	7.962	3,6
– Publikoa	5.334	5.792	5.935	2,5
– Pribatua	1.620	1.896	2.027	6,9
LOGSE BATXILERGOA	8.316	8.568	8.572	0,0
– Publikoa	5.297	5.408	5.311	-1,8
– Pribatua	3.019	3.160	3.261	3,2

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Erdi-mailako bigarren eta azken irakaskuntzan, hau da, Batxilergoan, 2016/2017 ikasturtean aurreko ikasturteko ikasle-kopuru bera mantendu da, hau da, 8.572 ikasle matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino 4 ikasle gehiago. Urtetik urterako aldaketa txiki horren arrazoa hau da: irakaskuntza publikoan behera egin du ikasle-kopuruak (aurreko ikasturtean baino 97 matrikulazio gutxiago), eta irakaskuntza pribatuan, aldiz, gora (101 matrikulazio gehiago). Sare bakoitzaren garrantziari dagokionez, ikastetxe publikoa ikasleen % 62ak aukeratzen du, eta ikastetxe pribatua, % 38ak.

Hizkuntza-ereduetan, Lanbide Heziketan gertatzen den bezala, X eredia (% 71,7) argi eta garbi ikasle gehienek aukeratzen duten eredia da. Bigarren tokian D eredia dago, ikasleen % 24,5ak hautatzen duena; ondoren, A eredia (% 3,8); eta, azkenik, B eredia (parte-hartzerik gabekoa). Gauzak horrela, Batxilergoko euskalduntze tasa % 25ekoa da.

138. taula Euskalduntze maila. Heziketa Zikloak eta LOGSE batxilergoa.

Kontzeptua	A	B	D	X	Guztira (%)
HEZIKETA ZIKLOAK					
– 16/17 ikasturtea	0,0	0,0	3,2	96,8	100,0
LOGSE BATXILERGOA					
– 16/17 ikasturtea	3,8	0,0	24,5	71,7	100,0

Iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Aldez aurretik adierazitako informazioaren arabera, guztira 16.534 ikasle matrikulatu dira erdi-mailako irakaskuntzetan. Horren ondorioz, hazkundera egon da Nafarroako unibertsitateaz kanpoko ikasle-kopuruan, heziketa zikloek eraginda batez ere.

2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

Unibertsitateko heziketan, Nafarroak bi unibertsitate ditu: Nafarroako Unibertsitatea (pribatua) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP). Lehenak 7.861 ikasle ditu, bigarrenak, 6.910, eta guztira 14.771 ikasle daude zentsuan. Aldez aurretik adierazi den bezala, azken ikasturtean bi sareek bilakaera bera izan dute, matrikulazioek % 1,1 egin baitute gora bi sareetan. Azterketa hori balio absolutuetan honakoa da: Nafarroako Unibertsitatean 85 ikasle gehiago daude, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP), 76; hau da, aurreko ikasturtean baino 161 unibertsitate-ikasle gehiago.

Irakasleei dagokienez, azken ikasturtean, Nafarroako Unibertsitatean 778 irakasle, aurreko ikasturtean baino 9 irakasle gutxiago, dauden bitartean; Nafarroako Unibertsitate Publikoak irakasle eta ikerlari gehiago kontratatu ditu, hau da, 22 irakasle gehiago (batez ere, "Unibertsitateko Elkartu" figuran), guztira 885 irakasle egonik.

Nafarroako Unibertsitateko ikasleei dagokienez, lehen aipatu den bezala, ikasturte honetan 85 matrikulazio gehiago egon dira. Guztira 7.861 ikasle daude unibertsitate horretan, 6.890 ikasle Nafarroako campusean eta 971 ikasle Gipuzkoako campusean.

139. taula Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean

Lurralde historikoa	15/16 ikasturtea	16/17 ikasturtea ⁽¹⁾	%	Δ% aurreko urtea
Nafarroa	6.736	6.890	100,0	2,3
Zuzenbidea	468	511	7,4	9,2
Medikuntza	1.271	1.249	18,1	-1,7
Filosofia eta Letrak	341	342	5,0	0,3
Informazio Zientziak	723	712	10,3	-1,5
Hezkuntza eta Psikologia ⁽²⁾	472	521	7,6	10,4
Zientziak	576	606	8,8	5,2
Farmazia	659	673	9,8	2,1
Arkitektura	487	450	6,5	-7,6
Teologia	147	144	2,1	-2,0
Ekonomia eta Enpresa Zientziak	982	1.024	14,9	4,3
Idazkaritza eta Administrazioa	123	157	2,3	27,6
Erizaintza	487	501	7,3	2,9
Gipuzkoa	1.040	971	100,0	-6,6
Industria Ingeniaritza	1.001	965	99,4	-3,6
Idazkaritza eta Administrazioa	39	6	0,6	-84,6
Guztira	7.776	7.861	100,0	1,1

(1): 16/17 ikasturtea- Behin-behineko datuak.

(2): 14/15 ikasturtetik eskaintzen den titulazioa.

(3): Gainera, doktoregoko 876 ikasle eta masterreko 640 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitatea

Matrikulazioetako datuak zehatzago aztertuta, Nafarroako Unibertsitateko bi campusek ez dutela bilakaera bera izan ikus daiteke. Alde batetik, Nafarroako campuseko matrikulazioek % 2,3 egin dute gora (aurreko ikasturtean baino 154 ikasle gehiago); Gipuzkoako campusean, aldiz, % 6,6ko jaitsiera izan dute (aurreko ikasturtean baino 69 ikasle gutxiago). Era berean, campus bakoitzaren garrantzia nabarmendu behar da, izan ere, 10 ikasletik 9k Nafarroako campusean ikasten dute.

Nafarroako campusa aztertuta eta fakultatetako informazioa graduen arabera ikertuta, azken ikasturte honetan zenbait fakultatetan ikasle-kopurua murriztu egin dela ikus daiteke. Garrantziaren arabera honela ordenatzen dira: Arkitektura Fakultatea (% -7,6), Teologia (% -2), Madikuntza (% -1,7), eta Informazio Zientzia (% -1,5). Fakultate horietan campuseko ikasleen % 37,1ak ikasten du; horietatik Medikuntza Fakultateak ditu ikasle gehien (% 18,19) eta Arkitektura Fakultateak gutxien (% 6,5), gainera, azken fakultate honek du bilakaera txarra. Igoerak, oro har, urriak diren arren, Idazkaritza eta Administraritzako Graduak gorakada handia (% 27,6) izan du, batez ere Gipuzkoako campuseko ikasleak Iruñera pasa direlako. Gainerako bilakaera positiboak hauek izan dira: Hezkuntza eta Psikologian (% 10,4), Zuzenbidean (% 9,2), Zientzian (% 5,2), Ekonomia eta Enpresa Zientzian (% 4,3), Erizaintzan (% 2,9) eta Farmazian (% 2,1) eta Filosofia eta Letretako matrikulazioak (% 0,3) mantendu egin dira.

Gipuzkoako campusean –Idazkaritza eta Administraritzako Graduan gertatutakoa alde batera utzita, hau da, ikasleak Nafarroako campusera pasa direla–, Industria Ingeniaritzako Fakultatean beherakada handia izan dute matrikulazioek eta guztira 1.000 ikasle baino gutxiago daude.

140. taula Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP)

Fakultateak eta unibertsitate-eskolak	15/16 ikasturtea	16/17 ikasturtea ⁽¹⁾	%	Δ% aurreko urtea
Nekazaritza Ingeniaritzen GET	459	501	7,3	9,2
Industria Ingeniaritza eta Telekom. GET	1.974	1.945	28,1	-1,5
Osasun Ikasketen UE	633	644	9,3	1,7
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	1.245	1.213	17,6	-2,6
Giza eta Gizarte Zientzien F.	1.732	1.767	25,6	2,0
Zientzia Juridikoen F.	583	624	9,0	7,0
Ekonomia eta Enpresa Zientzien F. / Zientzia Juridikoak ⁽²⁾	208	216	3,1	3,8
Guztira⁽³⁾	6.834	6.910	100,0	1,1

(1): 16/17 ikasturtea- Behin-behineko datuak.

(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.

(3): Gainera, doktoregoko 397 ikasle eta masterreko 720 ikasle eta ziklotako 16 ikasle daude.

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Nafarroako Unibertsitate Publikoari dagokionez, azken ikasturtean ikasle-kopurua pixka bat igo da, guztira 6.910 ikasle matrikulatu dira, pasa den ikasturtean baino 76 ikasle gehiago. Nafarroako Unibertsitate Publikoko zazpi fakultatetatik bitan ikasle-bolumena murriztu da. Horietako lehenak, Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioko GET, ikasle gehien dituen fakultatea (% 28,1eko garrantzia) pixka bat jaitsi (% -1,5) da eta Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak (ikasleen % 17,6) joera bera aurkeztu du eta % 2,6ko beherakada izan du. Bestalde, matrikulazioek gora egin dute Nekazaritza Ingeniaritza GETean, taldearen jokaera hobereana (% 9,2) duelarik, nahiz eta ordezkartza txikia (% 7,3) izan; ondoren, Zientzia Juridikoak daude (% 7ko hazkuntza eta % 9ko ordezkartza), bai eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza (% 3,8ko hazkuntza eta % 3,1eko barneratzea). Azkenik, % 2ko igoerareki: Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea (% 25,6ko kuotarekin) eta Osasun Ikasketen UE (% 9ko parte-hartzearekin) daude. Hala eta guztiz ere, hazkuntzeek jaitsierak orekatzen dituzte eta ikasturte honetan aurrekoan baino 76 ikasle gehiago egon dira.

3. GARRAIOA

3.1 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Nafarroako garraioari buruzko atalaren analisia hasteko, errepide bidezko garraioa aztertuko da eta, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) argitaratutako datuen arabera, 2016an, ibilgailu-parkea 444.609 unitatekoa izan da (8.416 ibilgailu gehiago aurreko ekitaldian baino). Datuak aztertzen hasita, agerikoa da, 2009tik aurrera, parkea osatzen duten ibilgailuen kopuruak aldakuntza positiboak izan dituela, txikiak izan badira ere. Azkeneko hirurtekoan, bilakaeraren goranzko joerari eutsi zaio, eta igoerek dinamismo zertxobait handiagoa erakusten dute: 2014an, % 0,1eko gorakada izan zen; 2015ean, % 0,9koa; eta 2016an, azkenik, ia % 2koa.

141. taula Nafarroako ibilgailu-parkea

Urtea	Kamioiak	Autobusak	Autoak	Motozikletak	Industria-traktoreak	Beste batzuk	Guztira	% Δ
2007	80.847	923	286.394	23.740	4.695	17.221	413.820	5,4
2008	81.997	936	291.838	25.832	4.739	17.819	423.161	2,3
2009	82.087	950	294.293	27.206	4.510	17.916	426.962	0,9
2010	82.425	934	297.770	28.499	4.282	18.064	431.974	1,2
2011	81.745	932	301.238	29.700	4.290	18.268	436.173	1,0
2012	80.765	903	301.600	30.121	4.178	18.165	435.732	-0,1
2013	79.249	842	299.058	30.406	4.198	18.151	431.904	-0,9
2014	77.899	817	299.536	31.224	4.043	18.661	432.180	0,1
2015	77.178	812	303.975	32.166	4.267	17.795	436.193	0,9
2016*	76.886	825	310.846	33.299	4.389	18.364	444.609	1,9

(*): Behin-behineko datuak

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Informazioa ibilgailu-motaren arabera xehatuz gero, Nafarroako ibilgailu-parkea osatzen duten 10 ibilgailutatik 7 autoak direla ikusten da. Horrez gain, % 17,3 furgoneta eta kamioiak dira; % 7,5, motozikletak; eta % 1, industria-traktoreak. Autobusei berriz, oso ehuneko txikia dagokie (% 0,2). Urtetik urterako aldakuntzei erreparatu gero, 2016an, motozikletek izan dute bilakaerarik positiboena (% 3,5eko gorakada). Haien atzetik, gertu, traktoreak (% 2,9) eta autoak (% 2,3) daude. Halaber, autobusek bilakaera positiboa izan dute (% 1,6), ez ordea kamioiek, % 0,4ko beherakada izan baitute.

142. taula Kamioi, industria-traktore eta autobusen matrikulazio garbia ^(*)

(unitateak)

Urtea	Kamioiak eta industria-traktoreak		Autobusak		Guztira	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
2007	4.862	320.747	30	2.753	4.892	323.500
2008	1.192	52.302	13	1.157	1.207	53.459
2009	-139	-62.641	14	467	-125	-62.174
2010	110	-39.478	-16	-218	94	-39.696
2011	-672	-46.715	-2	-87	-674	-46.802
2012	-1.092	-85.065	-29	-1.231	-1.121	-86.296
2013	-1.496	-101.512	-61	-1.235	-1.557	-102.747
2014	-1.505	-44.630	-25	-93	-1.530	-44.723
2015	-497	21.631	-5	453	-502	22.084
2016	-170	41.433	13	1.589	-157	43.022

(*): Parkearen urtetik urterako aldakuntza.

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Analisia jarraituz, kamioen, industria-traktoreen eta autobusen matrikulazio garbiari dagokionez, Nafarroako egoera zertxobait hobea da Estatukoa baino. Foru Erkidegoan, ondoz ondoko bost urtez balio negatiboak izan ondoren, 2016an ere, emaitza negatiboak izan dira, baina zertxobait arinagoak (-157 unitate). Lehen aldiz 2010etik, autobusek ekitaldi positiboa izan dutela aipatu behar da, lehen aldiz 2010etik, eta horri esker, Nafarroako matrikulazio garbiaren beherakada geldotu egin da. Estatu osorako datuek dinamismo handiagoa erakusten dute, eta horrela, 2015ean hasitako hazkundeak jarraitu du; beraz, 2016an emaitza positiboa izan dute kamioien eta industria-traktoreen matrikulazio garbiek, bai eta autobusenak ere.

143. taula Motorizazio-indizeak

Urtea	Ibilgailuak/1.000 biztanle		Biztanle/auto	
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia
2007	683	671	2,1	2,0
2008	682	670	2,1	2,1
2009	677	660	2,1	2,1
2010	678	661	2,1	2,1
2011	679	663	2,1	2,1
2012	676	660	2,1	2,1
2013	676	662	2,1	2,1
2014	679	666	2,1	2,1
2015	685	676	2,1	2,1
2016	697	691	2,1	2,0

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta geuk egina.

Motorizazio-indizeari dagokionez, 1.000 biztanleko ibilgailu-tasak goranzko bilakaera izan du Nafarroan zein Espainian (Nafarroakoa 1.000 biztanleko 697 ibilgailukoa izan da, eta Espainiakoa, berriz, 691 ibilgailukoa). Auto bakoitzeko biztanle-kopurua neurtzen

duen ratioak, berriz, portaera desberdina izan du lurralde batean eta bestean. Are zehatzago, Nafarroan, serie historiko osoan adierazle hori ez da aldatu (2,1), baina Estatuan, ratioak zertxobait behera egin du, 2,1etik (2015) 2ra (2016).

144. taula Ibilgailuen trafikoa Nafarroako autobideetan*

Urtea	Ibilgailu arinak	% Δ	Ibilgailu astunak	% Δ	Ibilgailuak, guztira	% Δ
2007	15.367	3,0	4.384	2,0	19.751	2,8
2008	16.010	4,2	4.271	-2,6	20.281	2,7
2009	15.954	-0,3	3.703	-13,3	19.657	-3,1
2010	15.902	-0,3	3.698	-0,1	19.600	-0,3
2011	15.633	-1,7	3.686	-0,3	19.319	-1,4
2012	14.388	-8,0	3.326	-9,8	17.714	-8,3
2013	13.850	-3,7	3.330	0,1	17.180	-3,0
2014	13.963	0,8	3.428	2,9	17.391	1,2
2015	14.523	4,0	3.645	6,3	18.168	4,5
2016	15.195	4,6	3.722	2,1	18.917	4,1

(*): Eguneko ibilgailuen batez bestekoa.

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

Errepide bidezko trafikoari buruzko datuak aztertuta, Nafarroako autobideetako ibilgailuen trafikoari dagokionez, 2016an 2014an hasitako hazkundeak jarraitzen duela ikusten da. 2016an, beraz, gorakada izan da berriz, 2015ekoaren antzekoa, eta 18.917 ibilgailu ibili dira egunean, batez beste (% 4,1 gehiago). Ibilgailu arinen eta astunen trafikoa handiagoa izan da ekitaldi honetan aurrekoan baino (% 4,6ko eta % 2,1eko gorakada, hurrenez hurren), eta ibilgailu arinak izan dira nagusi autobideetako trafikoan (% 80,3).

145. taula Garraiatutako salgaiak. Jatorriko eta/edo helmugako eskualde barruko eta eskualde arteko garraioa*

(m Tm)

Eremua	Nafarroa			Espainia		
	2015	2016	% Δ	2015	2016	% Δ
Eskualde barruko garraioa	12.423	14.739	18,6	676.312	693.352	2,5
Eskualde arteko garraioa	25.882	24.299	-6,1	295.305	305.537	3,5
Guztira	38.305	39.037	1,9	971.617	998.888	2,8

(*): Zifrek urte bakoitzeko gutzizkoei dagozkie.

Iturria: Sustapen Ministerioaren Estatistika Aldizkaria.

Eskualde barruko eta eskualde arteko salgaien garraioari dagokionez, Errepideko Salgaien Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorren¹ argitaratutako informazioaren

¹ Ikuspuntu metodologikotik, inkesta Trenbide eta Errepide bidezko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiak errepideko garraiorako baimendutako ibilgailu astunen kolektiboari zuzenduta dago; ibilgailu horien karga erabilgarrirako edukierak 3,5 Tm-tik gorakoa izan behar du eta gehieneko pisu baimenduak 6 Tm-tik gorakoa.

arabera, Nafarroan, oro har, % 1,9ko gorakada izan da eta 39.037 mila tona garraiatu dira. 2016ean, eskualde barruko garraioak gorakada handia izan du (% 18,6), ez ordea eskualde artekoak, haren jarduera geldotu egin baita (-% 6,1), baina, hala ere, trafikoaren proportzio handiena dagokio eskualde artekoari (% 62,2). Estatuan, halaber, ekitaldia positiboa izan da (% 2,8), eta bi atalek izan dute emaitza positiboa, garraiatutako salgaien bolumena 998.888 mila tonakoa izanik. Estatuan, Foru Erkidegoan ez bezala, eskualde barruko garraioari dagokio proportziorik handiena (% 69,4), baina eskualde arteko garraioak izan du urtetik urterako aldakuntzarik positiboena (% 3,5; eskualde barrukoarena % 2,5 izan da).

3.2 AIRE BIDEZKO GARRAIOA

Nafarroako aire bidezko garraioari dagokionez, AENAK Noaingo aireportuko aireontziei, bidaiariei eta garraiatutako salgaiei buruz emandako datuen arabera, 2016ko ekitaldian bidaiarien trafikoak soilik izan du goranzko bilakaera. Zehazki, 2015etik (aspalditik lehen aldiz), gorakada izan da bidaiarien kopuruan (% 7,2), aspalditik lehen aldiz, eta gorakada horri 2016an izandakoa ere gehitu behar zaio (% 4,9). Guztira, 151 mila bidaiarik erabili dute Noaingo aireportua, hamarkadaren hasieran izandako mugimenduaren erdia, gutxi gorabehera, baina azken bi ekitaldietan, adierazle horren joera negatiboa alderantzikatzea lortu da.

146. taula Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa

Urtea	Aireontziak			Bidaiariak (m)			Salgaiak TM		
	Guztira	% Δ	% Espainia_ rekiko	Guztira	% Δ	% Espainia_ rekiko	Guztira	% Δ	% Espainia_ rekiko
2010	6.973	-6,0	0,38	284,4	-13,0	0,15	42,6	-4,5	0,01
2011	6.484	-7,0	0,35	230,5	-19,0	0,11	34,2	-19,7	0,005
2012	4.963	-23,5	0,29	183,9	-20,3	0,10	12,0	-64,9	0,002
2013	3.540	-28,7	0,23	153,9	-16,2	0,08	2,8	-76,7	0,0004
2014	3.131	-11,6	0,19	134,3	-12,7	0,07	8,3	196,4	0,001
2015	3.138	0,2	0,19	144,0	7,2	0,07	4,3	-48,2	0,001
2016	3.049	-2,8	0,17	151,0	4,9	0,07	2,0	-53,3	0,0003

Iturria: AENA.

Gainerako adierazleak aztertzen jarraituz, eta aireontzien bilakaerari dagokionez, 2015eko emaitzak ikusita, bazirudien azken urteetako bilakaera negatiboa pixkanaka apurtuz zihoala, baina 2016an, emaitza negatiboak izan dira berriz ere, beherakada izan baita, txikia bada ere (-% 2,8). Azkenik, salgaien trafikoa da oraindik ere Nafarroako aerodromoaren konpondu gabeko arazoa, beheranzko joera izan baita argi eta garbi.

2014. urtea salbuespena izan zen, oso hazkunde handia izan baitzen (% 196,4), baina azken biurtekoan beherakada izan du berriz ere garraiatutako salgaien bolumenak (-% 48,2 eta -% 53,3, hurrenez hurren).

147. taula Iruñeko aireportuko aire bidezko garraioa, jatorriaren arabera

Urtea	Aireontziak			Bidaiariak (m)			Salgaiak (Tm)		
	Guztira	Barrualde- koa	Nazioarte- koa	Guztira	Barruald- ekoa	Nazioarte- koa	Guztira	Barruald- ekoa	Nazioarte- koa
2010	6.973	6.218	755	284,4	273,8	10,6	42,6	28,6	14,0
2011	6.484	6.131	353	230,5	222,5	8,0	34,2	7,0	27,2
2012	4.963	4.805	158	183,6	180,1	3,5	12,0	5,2	6,8
2013	3.540	3.267	273	153,9	148,9	5,0	2,8	0,9	1,9
2014	3.131	2.853	278	134,3	130,3	4,0	8,3	0,1	8,2
2015	3.138	2.872	266	144,0	138,5	5,5	4,3	1,0	3,3
2016	3.049	2.845	204	151,0	146,0	5,0	2,0	0,8	1,3

Iturria: AENA.

Aireko trafikoaren jatorriari erreparatuz gero, datuek Noaingo aireportuko jardueran barrualdeko merkatua nagusi dela argi eta garbi erakusten dute. Lehenik eta behin, aireontzien trafikoaren % 93,3 trafiko nazionala da, eta nazioarteko trafikoa oso txikia da (% 6,7). Gainera, 2016an, nazioarteko trafikoak trafiko nazionalak baino beherakada askoz handiagoa izan du (-% 23,3 eta -% 0,9, hurrenez hurren). Bigarrenik, bidaiarien % 96,7k hegaldi nazionalak egiten dituzte, eta hegaldi horiek % 5,2ko gorakada izan dute 2016an. Nazioarteko hegaldi gutxi egiten dira (% 3,3), eta gainera, beherakada izan dute (-% 9,3). Aldiz, nazioarteko merkatuan dinamismo handiagoa erakusten duen adierazle bakarra salgaien trafikoarena da; izan ere, salgaien trafikoaren % 62,3 nazioarteko trafikoa da, baina salgaien bolumena txikia da oro har.

Kapitulua amaitzeko, Nafarroako aerodromoari buruzko azken albisteei dagokionez, badirudi Lufthansa konpainiak Iruñea-Frankfurt hegaldia egiten hasiko dela 2017ko azarotik aurrera. Zalantzarik gabe, albiste ona da batik bat hegaldi nazionalak (Madrilekin batez ere) dituen aireporturako, aireportuaren ahalmen operatiboa askoz handiagoa baita gaur egungo jarduerarako behar dena baino. Hori guztia dela eta, konexio berri horrekin Noaingo bidaiarien kopuruak gora egingo lukeela kalkulatu da (160.000-200.000 bidaiari gehiago).